

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

FAMILIEN EGOERA EUSKADIN



SARRERA OROKORRA

2006-2010 aldiko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko II. Planerako egiten zen egoera-diagnostikorako sarreran adierazten zenez, *"gizartearen funtsezko elementua da familia, gizarte-arloko eginkizun garrantzitsuak betetzen dituelako: hain zuzen ere, haurren kokapen eta identifikazio soziala, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak zaintzea, kideen mantenua, senitarteko guztien gizarteratzea, euskarri afektibo eta emozionala, eta elkarri laguntza eta babesa ematea"*.

Kontuan izanda esleitzen zaion gizarte-egitekoa, gizarte-arlotik zein erakunde publikoetatik, funtsezkoa da ezagutzea familia-sistemaren bilakaera zehazten duten faktore demografiko eta sozialen dinamika zein den ezagutzea. Premia hori areagotu egiten da azken hamarkadetan izandako aldaketen garrantzia egiaztatzean, zenbait aldaketa estruktural gertatu baitira, gizarte-errealitate orokorra zein familia-bizitzaren errealitate partikularragoa baldintzatu dutenak.

Azterlan honen helburua azken urteetan ikusitako aldaketa nagusien diagnostikoa egitea da, Euskadi familia-sistemaren bilakaeran garrantzi erabakigarria izan dutenak eta oraindik ere dutenak, baita gure Erkidegoko etxekoen unitate eta familiek aurre egin beharreko arazo nagusietan ere. Diagnostiko horrek oinarri-lanak egingo ditu Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana lantzeko.

Familia-erakundearen ereduak, eginkizunak eta portaera-patroiak eraginpean hartzen dituzten aldaketa sakonak estu lotuta daude faktoreen bi talde handirekin. Familien jokaleku den testuinguru sozioekonomikoaren bilakaerarekin lotuta dago lehenengoa. Horregatik, zenbait faktore aztertzen ditu azterlanak bere lehengo zatian, hala nola lan-merkatuan ikusitako joera



nagusiak, etxebizitza eskuratzeko prozesuetan izandako aldaketak eta pobrezia eta prekarietate ekonomikoak Euskadin izan duten inpaktua.

Familien egoeran eragina duten faktoreen bigarren taldea portaera demografikoetan izandako aldaketekin dago lotuta, Txostenaren bigarren zatian jorratzen direnekin. Puntu horretan, fenomeno demografiko handien bilakaeran ikusitako joerak biltzen ditu txostenak, hala nola ezkontzak eta jaiotza-tasa, baita zahartze-prozesuarekin eta atzeritarren immigrazioaren fenomeno berriarekin loturiko gai nagusiak ere.

Txostenaren hirugarren zatiak familien egoeraren eta haiek eraginpean hartzen dituzten arazoen azterketa espezifikoa du aztergai, eta familia-sistemaren beraren eraldaketa aztertu behar da aldeaz aurretik lehenik. Horri begira, ez dira kontuan hartzen soilik ikusitako aldaketa estrukturalak, baizik eta euskal gizartearen balioen, nahien, helburuen eta bizi-proiektuen kultura-multzoari loturiko dinamika ere bai.

Ondorioen kapitulu laburrekin amaitzen da txostena, 2011. urtean EAEn familiek —eta ondorioz, erakunde publikoek berek— aurre egin beharreko erronkak garatze dituenarekin.

Txosten hau idazteko erabilitako metodologiaren ikuspuntutik, adieraztekoa da estatistika-datu eskuragarrien iturriak baliatu ditugula kasu guztietan, eta baitiogu egoki iritzi ikerketa espezifiko bat egiteari. Bereziki, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila egiten ari den estatistika-eragiketak baliatu ditugu, familien egoera zehazten duten gai gehienek buruzko informazio ugari eta esanguratsua biltzen duten neurrian eta gai horietako gehienek azterketa ebolutiboa egitea ere ahalbidetzen duten neurrian, gainera. Honako hauek dira diagnostiko horrek oinarritzat hartzen dituen estatistika-eragiketak:

- Lan Merkatuaren Errolda (LME), 1993., 1997., 2003., 2007. eta 2009. urteei buruzko datuekin (aurrerapena).
- Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI), 1986., 1994., 2000., 2004. eta 2008. urteei buruzko datuekin.
- Gizarte Premiei buruzko Inkesta / Gizarte Zerbitzuen Eskaria (GPI/GZE), 2006. urteari buruzko datuekin.
- Familiei buruzko Inkesta, 2004. eta 2008. urteei buruzko datuekin.
- Biztanleria Aktiboaren Kualifikazio Inkesta, 1999., 2003. eta 2007. urteei buruzko datuekin.
- Gazteen Argazkiak, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Ikerketa Soziologikoko Kabinetearena.



- Aurrekoez gain, beste zenbait inkesta ere baliatu ditugu, batez ere EIN eta EUSTAT erakundeenak, hala nola BAI, BJA, Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, Inkesta Demografikoa, Ezkontzen Estatistikak, Biztanleriaren Mugimendu Naturalarena, eta abar.

LEHEN ZATIA:
TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA



SARRERA

Txosten diagnostikoaren kapitulu honetan familia-sistema eraginpean hartu duten testuinguru sozioekonomikoari loturiko faktore nagusiak aztertzen dira. Faktore horietako hiruk eragin handiagoa eta zuzenagoa dute familian: lan-merkatuaren egoera, etxebizitza eskuratzeko baldintza eta pobrezia eta prekarietate ekonomikoko egoeren inpaktua, horien inpaktua erabakigarria izan baita 80ko hamarkadako eta 90eko hamarkadaren hasierako urteetan bereziki, Euskadiko jaiotza-tasaren jaitsiaren eta ezkontzak atzeratzean, txostenaren bigarren zatian aztertuko diren joera demografikoak.

Aldi baterako kontratuak, ordainsari txikiko enpleguak eta jasotako prestakuntzari ez dagozkion lanpostuak, etxebizitza eskuratzeari loturiko kostuen hazkundearekin batera, oztopo izan dira, batzuetan gaindiezinak, biztanleria gaztearen emantzipaziorako eta etxeko unitate bat sortzeari eta familia bat eratzeari loturiko etorkizunen proiektuak martxan jartzeko. Errealitate horrek familia-dinamikak jokaleku duen testuinguru sozioekonomikoaren hurbilketa zehaztua egitera behartzen du, hura baita azterlanaren lehen zatiaren aztergaia.

Jorratu beharreko lehen alderdia lan-merkatuaren bilakaeraren joera nagusiak dira: aldaketak okupazio- eta langabezia-mailetan, aldibaterakotasuna enpleguan, soldata txikia eta azpiokupazioa. Emakumearen lan-merkaturako eta produkzio-sistamarako sarrera ere aztertzen da, arreta berezia jarritz lan-, gizarte- eta familia-bizitza uztartzeari. Gaur egungo testuinguruan duen garrantzia erabakigarria dela-eta, 2008. urtearen bigarren erdiko krisialdi finantzario eta ekonomikoaren ondoriozko errealitate ekonomikorako hurbilketa batekin osatzen da lan-joeren azterketa.

Etxebizitza eskuratzeko prozesuetan ikusitako aldaketak ere kontuan hartzen dira, zenbait gai espezifikotan sakonduz, bereziki eskuratzeko eta mantentzeko arazoekin eta eragiten duten gizarte-inpaktuarekin loturikoak.

Azterlanaren zati hori pobrezia eta prekarietate ekonomikoko arazoen inpaktuan ikusitako aldaketen azterketa batekin amaitzen da, erabilgarri dauden adierazle nagusiak (mantenua, metatzea eta benetako pobrezia) aztertuta. Familiari eskainitako lana denez, arreta berezia ematen zaie hurrei loturiko adierazleei.



1. LAN MERKATUKO JOERAK

1.1. Okupazioa, langabezia eta aldibaterakotasuna


1.1.1. Datu orokorrak

Lan-merkatuak azken urteetan izan dituen aldaketen azterketak agerian uzten du gure herrialdeak azkenaldian izan duen gizarte-bilakaeraren konplexutasuna. Okupazioaren hazkundera ez da jarraitua izan, batez ere Euskadin 90eko hamarkadako lehenengo urteetan krisialdiak izandako inpaktuaren ondorioz. Europako Ekonomia Erkidegoan sartu ginenetik okupazioan lehen hazkunde handi bat ikusten da, urteko % 2,5eko hazkunde-tasekin 1985-1991 aldian. Azken urte horretan, landunen bolumena 1976ko mailetara hurbiltzen da, 731.200 pertsona guztira. Dena den, 1991-1993 aldiko krisialdia okupazioaren beste atzerakada bat da, okupazioaren zifrak 690.400 pertsonatara jaisten baitira 1993an, jarraian gorakada apala duela 1993-1995 aldian, okupazioaren % 1,1eko batez besteko urteko hazkundeekin, 700.000 lanpostuen muga berriz ere justu-justu gainditzea baino ahalbidetzen ez dutenak (705.700 1995ean). Horrenbestez, epe luzera enplegua sortzeko prozesua 1995ean hasi zen egiaz, eta oso erritmo handitan hazi zen, urtean % 3,8, 2001. urteraino., 883.200 landunek argi eta garbi gainditzen baitituzte 70eko hamarkadako erdialdeko urteetako hasierako zifrak.

Okupazioaren hazkundera erritmo onean luzatu da 2001-2005 aldian, geldotzen txiki bat ematen bada ere, urteko % 2,7ko mailekin. 2005-2007 aldian are txikiagoa da, % 0,9ko urteko batez besteko hazkundearekin. Dena den, BAIaren arabera, 998.600 landuneko zifrara iristen gara 2007an, 1976ko okupazio-maila % 31,5ean gainditzen duen zifra. 2007-2009 aldiko krisialdiak atzerakada handia ekarri du EAEn, % 7,4 galdu baitu aldi horretan, 24.900 landunekin guztira. Jaitsieraren inpaktua 70eko hamarkadako urteen ondorengo krisialdietan ikusitako handiena da, % 3,8ko batez besteko urteko jaitsierarekin. 2009ko azken hiruhilekotik

2010eko laugarren hiruhilekora, dena den, badirudi goranzko joera hasten dela, 939.500 landunekin.

1. grafikoa Biztanleria okupatuaren bilakaera EAEn



Urte bakoitzaren IV. Hiruhilekoari dagozkion datuak.
ITURRIA: Biztanleria Aktiboaren Inkesta EIN.

70eko eta 80ko hamarkadetako urteetako krisialdian, baita 90eko hamarkadako hasierako urteetakoak ere, hala eta guztiz ere, okupazioen bilakaera-zifrek iradokitzen dutena baino inpaktu estruktural negatibo handiagoa izango dute EAEnen gizarte-errealitatean.


Ildo horretan aipa daitekeen lehen gaia biztanleria aktiboaren goranzko joera nabariari loturiko presioaren inpaktu negatiboa da. Okupazio-jaitsieraren inpaktua oraindik ere trinkoagoa da 50eko hamarkadako amaierako eta 60ko eta 70eko hamarkadetako urteetako *baby boom* fenomenoaren belaunaldiak bizitza aktiboan sartzen diren aldian. Langabeziaren fenomenoak, 1976an 29.700 pertsona inguru baino eraginpean hartzen ez zituenak, 100.000 pertsonen muga gainditzen du jada 1980an, eta 139.200 pertsonatara iristen da 1981ean. Okupazioaren urteko batez besteko jaitsiera % 2,5ean dago 1976-1981 aldian, eta langabeziaren hazkundera aldi horretan urteko % 36,2ko zifrak erakusten ditu. Apalagoa bada ere, langabeziaren hazkunderaren erritmoa oraindik ere urteko % 7,5eko mailetan dago 1981-1985 aldian, okupazioan oraindik ere ikusitako jaitsiera-prozesuarekin batera. Gorantz jarraitzen badu ere, % 0,4 igoerarekin, badirudi prozesua 1986an amaitzen dela, langabeziak 186.300 pertsona eraginpean hartzen dituen urtean.



EEEn sartzeari loturiko bultzada ekonomikoak inpaktu txikiagoa izan du langabezia kontrolatzeko terminotan. Langabeziaren jaitsiera-prozesuaren hasiera 1986ra arte atzeratu zen, eta gainera badirudi goia jo zuela 1989-1991 aldian, urtean % 0,4 eskaseko bestez besteko jaitsierarekin. 1993an, 70eko hamarkadaren erdialdean hasten den aldiko langabeziaren gehieneko historikoa lortu zen, eraginpeko 223.400 pertsonarekin. Dena den, 1993-2001 aldian gertatu zen hazkundealdi handiak langabeziaren jaitsiera nabarmena eragin zuen, urteko % 10,1eko jaitsierako erritmoekin. 2001ean, 100.000 langabeko mugatik jaitea lortu zen lehen aldiz, oraindik ere 95.400 pertsonatan zegoen langabezia-mailarekin. Okupazioak 2005era arteko hazkunde-erritmo handia atxikitzen badu ere, 2004an langabezia oraindik ere 94.400 pertsonatan zegoen, eta aldi horretan fenomenoaren kontrola ia egonkortuta zegoen.

Kontrako ildoan, hazkunde-ereduaren lehenengo ahitze-sintomak ikusten baziren ere, langabeziak jaitsiera handia erakutsi zuen 2007ra arte, urteko % 13,7ko erritmoekin, urte horretan 60.700 pertsonatan kokatuta. Baina 2007-2009 aldiko krisialdiak urteko % 42,4ko igoera eragin zuen, eta langabeziak 123.100 pertsona hartu zituen eraginpean 2009ko IV. Hiruhilekoan. Hazkunde-erritmo horiek 1977-1979 biurtekokoak baino zertxobait handiagoak ez badira ere, badute berezitasun bat, hots, arazoaren jatorria enpleguaren jaitsiera dela, eta ez biztanleria aktiboaren bolumenaren hazkundera. Langabezia-zifrek Euskadin eraginpeko 100.000 pertsonen muga gainditzen jarraitzen dute —14.900 pertsonatan, BAIaren arabera—, nahiz eta nolabaiteko beherakada ikusi den 2009ko laugarren hiruhilekoarekiko.


2. grafikoa Biztanleria langabearen bilakaera EAEn



Urte bakoitzaren IV. Hiruhilekoari dagozkion datuak.
ITURRIA: Biztanleria Aktiboaren Inkesta EIN.

Langabezia-tasen bilakaerak zifra absolutuenekiko pareko bideari jarraitzen dio. 1976an biztanleria aktiboaren % 3,8 eskasa baino ez zuen eraginpean hartzen, eta 1985ean, aldiz, % 22,7ra iristen zen, % 24,4ko gehienekoarekin 1993an, 90eko hamarkadako lehenengo urteetako krisialdiaren inpaktuaren ondorioz. Langabeziaren zifra absolutu handiak immigrazioari lotutako biztanleria aktiboaren kanpo-ekarpenari lotzen zaizkio, kolektibo horren gizarte-garrantzia hazi egiten baitzen 90 hamarkadako azken urteetatik aurrera- Krisiak langabezia-tasa bi urte eskasean bikoiztea eragin zuen —% 5,7tik 5 11,7ra 2007tik 2009ra bitarte—, 2010ean berriro % 10,8ra murrizten bada ere.

3. grafikoa. Langabezia-tasaren bilakaera EAEn




Urte bakoitzaren IV. Hiruhilekoari dagozkion datuak.

ITURRIA: Biztanleria Aktiboaren Inkesta EIN.

Okupazioaren epe luzerako hazkundearen gizarte-inpaktu erlatiboa balioesteko kontuan hartu beharreko bigarren elementua, betiere Europar Batasunean sartu ginenetik, zera da, hazkundearen zati handi bat behin-behineko kontratazioaren bultzadan oinarritzen dela. 2010eko lehen hiruhilekoan, 237.900 pertsona daude lanik gabe edo aldi baterako soldatapeko okupazio-erregimenean, eta bolumen hori 70eko eta 80ko hamarkadetako urteetako krisialdiaren ondoren ezagututako mailak baino handiagoa da. Horrela, 2010eko langabezia-tasa nabarmen txikiagoa zen, termino absolututan, 80ko hamarkadako erdialdeko urteetako baino (113.700 pertsona batetik eta 185.000 bestetik, 80ko hamarkadako urteetako erdialdean), eta ez da gauza bera gertatzen, aldiz, langabeziaren eta aldibaterakotasunaren baterako inpaktuarekin (237.900 kasu batetik eta 226.100 bestetik, 1986. urtean).

4. grafikoa. Biztanleria langabearen eta behin-behineko soldatapekoaren bilakaera Euskadin (milakotan)




Iturriak:

1975: Biztanleen Udal Errolda 1975, 1981 Biztanleria eta Etxebizitza Errolda eta Biztanleen Udal Errolda 1981; 1986 Biztanleen Udal Errolda. 1986, 1989 LME 1988/1989, 1991 Biztanleria eta Etxebizitza Errolda. 1991; 1993 aurrerantzean BJA, IV. Hiruhilekoa (I. Hiruhilekoa 2010erako). Behin-behineko soldatapeko biztanleria soilik biltzen dute datuek, eta ez dituzte biltzen kontraturik gabeko pertsonak edo mugagabeaz bestelako egoeraren batean daudenak.

Fenomeno horren gizarte-garrantzia argiago ikus daiteke tasa erlatiboei lotuta. Hori horrela, ikus daitekeenez, 1975ean biztanleria aktiboari dagokion langabezia- eta aldibaterakotasun-intzidentzia % 4,6 izatetik 1994-1997 aldian % 40 inguruko mailetara igaro zen. Lan-merkatuaren egoeraren hobekuntza gorabehera, langabeziaren eta aldibaterakotasunaren

baterako inpaktua % 30,1 zen oraindik 2001ean, 1997ko zifrekiko 9 puntu inguru azpitik. Adierazlearen jaitsiera handia 2003-2007 aldian gertatu zen, % 29,1etik % 19,3ra murriztuta. Orduz geroztik, tasa erlatiboaren hazkundera gertatu da % 22,4raino 2009ko azken hiruhilekoan, eta % 23raino 2010eko lehenengoan. 1986ko % 28,1aren azpitik badago ere, 1981eko % 18,9aren gainetik dago zifra hori.

5. grafikoa. Langabeen eta behin-behineko soldatapekoen proportzioaren bilakaera EAEn (guztizko aktiboan %-a)



Iturriak:


1975: Biztanleen Udal Errolda 1975, 1981 Biztanle eta Etxebizitza Errolda eta Biztanleen Udal Errolda 1981; 1986 Biztanleen Udal Errolda. 1986, 1989 LME 1988/1989, 1991 Biztanleria eta Etxebizitza Errolda. 1991; 1993 aurrerantzean BJA, IV. Hiruhilekoa (I. Hiruhilekoa 2010erako).

Behin-behineko soldatapeko biztanleria soilik biltzen dute datuek, eta ez dituzte biltzen kontraturik gabeko pertsonak edo mugagabeaz bestelako egoeraren batean daudenak.

Edozein kasutan, garrantzitsua da halaber nabarmentzea, arazo horien dimentsioa gorabehera, EAEk gaur egungo krisialdi ekonomikoa dela-eta izan duen portaera Estatu espainol osoan ikusitakoa baino hobea izan dela. Horrela, adibidez, langabezia-tasak Espainian eta Euskadin izan duen bilakaeraren azterketa konparatuak erakusten du babes-sare askoz ere garatuago bat izateak ez duela eragin Euskadin langabeziaren hazkundera handiagoa izatea. Aitzitik, 2010eko amaieran, euskal langabezia-tasa, BAI terminotan neurtuta, 9,5 puntu dago Espainiakoarekiko azpitik (% 10,8 eta Estatu espainolarena, aldiz, % 20,3).

Errealitate horrek aldaketa historikoa dakar azken 35 urteetan ikusitako bilakaeraren testuinguruan. 1978tik 90eko hamarkadako lehenengo urteetara EAEko langabezia-tasa beti izan da Espainiako baino handiagoa. Dena den, azken urteotan, Estatu osoko langabeziari begira Euskadik egiten duen ekarpena modu jarraituan jaitsi baino ez da egin, 2010eko amaieran % 2,4ra iritsi arte. Hamarkada honen hasierako EAEko eta Estatu osoko tasen artean nolabaiteko hesia ikusten zen, eta 2007tik aurrera hesi hori zabaldu egin da inoiz ikusi gabeko mailetaraino, langabeziak izandako hazkundera askoz ere trinkoagoa eta jarraituagoa izan baita Estatuan Euskal Autonomia Erkidegoan baino.

6. grafikoa. Langabezia-tasaren bilakaera EAEn eta Espainian




Urte bakoitzaren IV. Hiruhilekoari dagozkion datuak.
ITURRIA: Biztanleria Aktiboaren Inkesta EIN.

Langabezia-eta aldibaterakotasun-datuak batera kontuan hartuz gero, antzeko joerak erakusten dituzte. Horrela, Espainian % 36,2 da langabeian dagoen edo aldi baterako kontratu bat duen biztanleria, eta Euskadin, aldiz, % 27,2 dago egoera berean, BAIaren arabera (% 23 BJaren arabera). Zifrak aztertuz gero, alde nabarmen horien jatorria 2006-2007 aldiaren inguruan daudela badirudi ere (horiek dira gure herrialdea eraginpean hartu duen krisialdi-prozesuaren

jatorriari dagozkion benetako datak), aldez dezente lehenagotik datoz, eta XXI. mendearen lehenengo urteetan koka daitezke. Langabeziako edo enpleguko aldibaterakotasuneko egoerak eraginpean harturiko pertsonen baterako adierazlea kontuan hartuz gero, Euskadiren aldeko diferentziala jada nabarmen sendotzen da 2002-2006 aldian. Datu horiek langabeziaren eta behin-behinekotasunaren tasa konbinatuan beherakada nabaria islatzen dute 2001-2007 aldian, Espainian ematen ez dena, edo oso modu marjinalan, izatekotan.

7. grafikoa. Langabeen eta behin-behineko soldatapekoen proportzioaren bilakaera EAEn eta Euskadin



Iturriak EAerako:

1975: Biztanleen Udal Errolda 1975, 1981 Biztanle eta Etxebizitza Errolda eta Biztanleen Udal Errolda 1981; 1986 Biztanleen Udal Errolda. 1986, 1989 LME 1988/1989, 1991 Biztanleria eta Etxebizitza Errolda. 1991; 1993 aurrerantzean BJA, IV. Hiruhilekoa (I. Hiruhilekoa 2010erako).

Behin-behineko soldatapeko biztanleria soilik biltzen dute datuek, eta ez dituzte biltzen kontraturik gabeko pertsonak edo mugagabeaz bestelako egoeraren batean daudenak.

Iturriak Espainiarako: Biztanleria Aktiboaren Inkesta EIN.

Euskadin krisialdiarekiko erakusten duen erresistentzia handiagoa ez da azken urteetako nobedade bakarra. Garrantzi bereko datu bat zera da, egiaztatzen dela, betiere gaur egungo krisialdiaren testuinguruan, langabeziak gure Autonomia Erkidegoan izan duen gorakada beste krisialdi batzuetan ikustekoa baino askoz ere txikiagoa izan dela, eta horrek ere urrundu egiten gaitu Espainiaren adibidetik. Hala eta guztiz ere, ezin da zalantzan jarri langabeziak eta behin-behinekotasunak Euskadiren azkenaldiko gizarte-historian izandako inpaktua, eta errealitate




hori ezin izan da erabat desagerrarazi azken 35 urteetan, eta azken urteotan areagotu ere gin da, krisialdi ekonomikoaren ondorioz.

1.1.2. Biztanleria heldu gaztearen egoera espezifikoa

Langabeziak eta behin-behinekotasunak ez dituzte, dena dela, talde guztiak berdin eraginpean hartu. Langabeziako eta lan behin-behinekotasuneko arazoek eraginpean harturiko arazoei dagokienez, datu deigarriena biztanleria heldu gaztean eragin duen inpaktua da. Izan ere, 2009an langabeziak edo aldibaterakotasunak eraginpean harturiko pertsonen % 68,5 dira 40 urtetik beherakoak. Proportzio handia da, nahiz eta adieraztekoa den halaber azken urteetako proportziorik txikiena dela, % 70-% 75 inguru izan baitzen 2003-2007 aldian eta % ,80% 1993-1997 aldian.

Bi egoera horien intzidentziari dagokionez, 2010ean 16-39 urteko biztanleriaren % 36,3 hartu du eraginpean arazo horrek, 2007. urtearekiko 2,2 puntu gainera (% 34,1). Dena den, historiari begira ez dira horiek intzidentzia-maila handienak orain arte. Langabeziako eta aldiberekotasuneko fenomeno baten inpaktu handienaren aldian —1993tik 1997ra bitarteko aldian—, 40 urtetik beherako Euskadiko biztanleria aktiboaren % 55 inguru zegoen fenomeno horietakoren baten eraginpean. Euskadin enplegua sortzeko aldiaren une gorenean ere, 2007an, 40 urtetik beherako biztanleria aktiboaren % 34,1 oraindik ere egoera horretan zegoen. Egiaztapen nabarmen horrek berez zehazten du ugalkortasun-adierazleetako gutxieneko historikoak gertatzen diren testuingurua, txosten honen aurreragoko kapitulu batean aipatuko direnak.

8. grafikoa. Langabeziaren eta behin-behinekotasunaren inpaktuaren bilakaera biztanleria heldu gaztean (< 40 urte)



Iturria: LME 1993, 1997, 2003, 2007 eta Aurrerapena 2009. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


1.1.3. Enpleguarekin loturiko arazoen inpaktua etxeko unitate eta familien sisteman

Aztertutako fenomenoek eragin erabakigarria izan dute familia-dinamikengan, eta ezkontzen eta ugalkortasunaren beherakadari —bizikidetasun-prozesuek konpentsatu gabekoari— loturiko arazoen jatorrian kokatu dira, eta, horrenbestez, familia berriak eratzeko atzerapenari eta familia horien tamainaren murrizketa handiari loturikoena ere bai.

Etxeko unitateen banaketaren azterketa bat egitean etxeko unitate horiek osatzen dituzten pertsonen jardueraren arabera, betiere aldibaterakotasunaren inpaktua kontuan hartu gabe, egiaztatzen da 80ko hamarkadaren urteen erdialdean hasten den enplegua sortzeko prozesuan familien garrantzi erlatiboaren hazkunde handia eragiten duela, non eta familia horietako pertsona aktibo guztiak landunak diren edo gutxienez bi pertsona edo gehiago okupatuta dauden. Aldi berean, murriztu egiten da etxeko unitate jakin batzuen proportzioa, hots, horietan gehienez landun bat egonik, beste zenbait langabe daudenena. Pertsona ez-aktiboen

etxeko en unitateak, 1996tik 2008ra bitarte % 23,2tik % 27,1era hazi zirenak, % 25,9ra murriztu dira 2009an.


9. grafikoa. Etxeko en unitateen banaketaren bilakaera jarduerarekiko erlazioaren arabera (%). EAE



Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009

Gaia datu absolutuen arabera kontuan izanda, gutxienez kideetako bat landuna den etxeko en unitateen gorakada garrantzi handiko fenomeno da, dena den, 1996. urtetik aurrera, urte horretan 464.701 etxeko en unitate baitziren eta 2009an, aldiz, 567.863, hau da % 22,2ko hazkundera. Bereziki deigarria da, testuinguru horretan, horrelako etxeko en unitateen hazkundera 2000tik 2004ra bitarte, % 3,2ko batez besteko hazkunderarekin, 1996-2000 aldian izandako % 1aren eta 2004-2009 aldian izandako % 0,7aren gainetik.

10. grafikoa. Gutxienez landun bat duten etxeko unitateen kopuruaren bilakaera. EAE




Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009

EAEko etxeko unitateetan okupazioak duen zeregina kontuan hartuz gero, datu deigarriena zera da, bi landun edo gehiago dituzten etxeko unitateen kopuruaren hazkunde nabarmena. 1996. urtean 176.713 etxeko unitate ziren eta 2000. urtean, aldiz, 259.917, urteko ezohiko hazkunde-erritmoarekin, % 10,1, hain zuzen ere. Goranzko joera nabarmen apaldu zen 2000-2004 aldian, urteko % 1,9ko hazkundean oinarrituta bada ere, eta etxeko unitateen 280.583ko zifrarekin finkatu zen 2004an. Ordutik geroztik hazkundeak gora egin zuen urteko % 3,7ko erritmoekin, 2008. urtean 324.482 etxeko unitatera iritsi arte. Krisialdiak % 4,2 murriztu zuen horien kopurua 2008-2009 aldian, eta EAEn bi landun edo gehiago zituzten etxeko unitateen bolumena 310.846ra iritsi zen 2009an.


1996-2008 aldian bi landun edo gehiago dituzten etxeko unitateen kopuruan izandako % 83,6ko hazkunde esanguratsu hori, argiago ikusten da landun horiek duten garrantzia kontuan izanez gero. 1996an guztizko etxeko unitateen % 26,2 eskasa izatetik, % 40,7raino hazi zen haien garrantzia 2008an, 14,5 puntuko gehikuntzarekin. Konparazioa pertsona aktibo bakarra bizi den etxeko unitateetara mugatzen bada, hazkunde oraindik ere handiagoa da: 1996ko % 34,1etik 2008ko % 55,8ra. 2009an, eta krisialdiaren ondorioz, 51,8ra jaitsi zen ehuneko hori, ia portzentajezko 20 puntu gainetik, dena den, 90eko hamarkadako erdialdeko urteetan izandako ehunekoarekiko.

11. grafikoa. Bi landun edo gehiago dituzten etzekoen unitateen kopuruaren bilakaera. EAE



Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009


12. grafikoa. Bi landun edo gehiago dituzten etzekoen unitateen %-aren bilakaera. EAE



Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009

Goranzko joera pertsona ez-aktiboen etzekoen unitateetan ere ikusten da, 1996an 156.280ko zifratik 2008ko 215.725eko zifrara, nahiz eta itxuraz beheranzko joera ageri den 2009an. Kasu horretan, hazkunde handiagoa —neurri handi batean zahartze-prozesuari loturikoa— 2004-2008 laurtekoari dagokio, % 5,7ko batez besteko urteko hazkundearekin horrelako etzekoen unitateetan.


13. grafikoa. Pertsona guztiak ez-aktiboak diren etzekoen unitate kopuruaren bilakaera. EAE



Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009

Datu ebolutibo deigarriena langaberen bat daukaten etxekoen unitateak eraginpean hartzen dituen da. 1996-2008 aldian 120.563ko zifratik 41.209ko zifrara jaitsi dira, hots, % 65,8ko beherakada. Pertsona bakar bat ere landuna ez den eta langaberen bat pertsona nagusia edo haren ezkontidea den etxekoen unitateen kasuetan, 1996ko 23.537ko zifratik 2008ko 10.714 zifrarainokoa izan da jaitsiera. Kasu horretan, dena den, krisialdiari loturiko gorakada adierazgarria da. Horrela, 2008ko PGDIa egin zen urte horretako lehen seihilekoaren eta 2009ko LME aplikatu zen urte horretako azken hiruhilekoaren artean, kontuan harturiko etxekoen unitateen kopurua % 79,9 gehitu zen, 41.209tik 74.154ra igarota aldi horretan. Hazkunde nabarmenena langabeziak etxeko nagusia edo haren ezkontidea eraginpean hartzen dituen etxekoen unitateari dagokie, betiere egoitzan landunik ez dagoela, % 92ko hazkundearekin. 2008. urtean 10.714 izatetik 2009. urtean 20.572 izatera igaro ziren kasuak.

14. grafikoa. Gutxienez landunen bat duten etxeko unitateen kopuruaren bilakaera. EAE




Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009

Langabeak dauzkaten etxeko unitateen kasuan sakonduz, egiazta daiteke Euskadin langaberen bat daukaten etxeko unitateen garrantzi erlatiboa % 22,4 zela 1996. urtean. Egoera larriek inpaktu murriztagoa zuten, pertsona aktibo guztiak langabeak ziren etxeko unitateen proportzio handia (% 8) deigarria bazen ere Langabe horietakoren bat pertsona nagusia edo haren ezkontidea zen kasuek etxeko unitateen % 3,5 hartzen zuten eraginpean. 1996-2008 aldiak kontuan harturiko adierazleen hobekuntza nabarmena islatzen du, langaberen bat daukaten etxeko unitateen proportzioa 1996ko % 22,4tik 2008ko % 6,9ra jaitsi baitzen. Beherakada are deigarriagoa izan zen kide guztiak langabeen dauden etxeko unitateen kasuan: 1996ko % 8tik 2008 % 2,1era. Pertsona aktibo guztiak langabeak izateaz gain, pertsona nagusia edo haren ezkontidea ere horien artean dauden etxeko unitateak 1996ko % 3,5etik 2008ko % 1,3 igaro ziren.

Dena den, azkenaldiko krisialdiaren eragina funtsezkoa da. Langaberen bat daukaten etxeko unitateen proportzioa % 6,9tik % 11,2ra hazi da 2008ko bigarren hiruhilekotik 2009ko azken hiruhilekora bitarte. Horrela, kide aktibo guztiak langabeen dituzten etxeko unitateetako pertsonen proportzioa % 2,1etik % 4ra igaro da aldi berean. Kide aktibo guztiak langabeen

dituzten etxekoek unitateen proportzioari dagokionez, haietako bat pertsona nagusia edo haren ezkontidea izanik, proportzioa 2008ko % 1,3tik 2009ko % 2,5era igaro da, 2000ko % 1,7 nabarmen gaindituz, 1996ko % 3,5a baino txikiagoa da soilik.

15. grafikoa. Gutxienez langaberen bat duten etxekoek unitateen %-aren bilakaera. EAE (etxekoek unitate guztien %-a)




Langabe guztien erreferentziak biztanleria aktiboari aplikatzen zaizkio.
Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009

Produkzio-sisteman modu egonkorrean txertatzeko zailtasunei eta horrek euskal etxekoek unitateetan dituen ondorioei loturiko arazoek ondorioa argi sumatzen da langabeziaren eta enpleguaren ezegonkortasunaren baterako inpaktua kontuan hartzen bada (aldi baterako kontratuak edo kontraturik eza). Kasu horretan, egiaztatzen denez, EAEko etxekoek unitateen % 37,6 hartzen zuen eraginpean arazoak 1996an, pertsonaren batekin langabeak edo kontraturik gabeko behin-behineko soldatapeko gisa lan eginez, eta 2000. urteko % 39,4raino hazi zen. Ordutik aurrera arazoaren inpaktuaren murrizketa hasi bazen ere, 2004. urtean etxekoek unitateen % 34,3 egoera horretan zegoen. Une horretan hasitako beherakada-prozesu sendo horren ondorioz adierazlea % 26an kokatu da 2008. urtean eta % 24,9an 2009. urtean.

Errealitate horien inpaktu are deigarriagoa da kontuan hartzen badugu kide guztiak langabeak edo soldatapeko ez-egonkorak diren etxeko unitateen proportzioa. Euskal etxeko unitateen % 17,6 egoera horretan zegoen 1996an. Dena den, kasu horretan adierazlearen beherakada jarraitua egiaztatzen da orduz geroztik, 2008an, % 10,1era iritsi arte. Krisialdiak jaitsiera-prozesua ere ez du eraginpean hartzen —moteltzen badu ere—, eta etxeko unitateen % 9,8 egoera horretan zegoen 2009ko IV. hiruhilekoan.

Kide guztiak langabeziaren edo lan-ezegonkortasunaren eraginpean egonda egoera hori pairatzen duen pertsonetako bat pertsona nagusia edo haren ezkontidea den etxeko unitateen proportzioa 1996ko guztizkoaren % 8,7 handitsua da oraindik ere. Ondorengo urteetan bilakaera okerra islatzen duen adierazlea ere bada. 2000. urtean % 7,2 jaitsi ondoren, berriz ere % 8,9ra igo zen 2004an, 1996-2008 aldiko gehiengora iritsita. Ondoren beheranzko bideari ekin zion berriz ere, adierazlea % 6,2an kokatu baitzen 2008an, 2009an berriz ere % 6,7raino igo baino lehen.

16. grafikoa. Gutxienez langaberen bat eta soldatapeko ez-egonkorren duten etxeko unitateen %-a bilakaera. EAE (%-a etxeko unitateen guztizkoaren gain)



Langabe edo soldatapeko egonkor guztien erreferentziak biztanleria aktiboari aplikatzen zaizkio.
Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009



1.2. Emakumea eta lana


Langabeziaren eta behin-behinekotasunaren inpaktu estrukturala ez da kontuan hartu beharreko elementu zentral bakarra azken 35 urteetan lan-merkatuaren joerak aztertzean, batez ere familia-bizitzaren gain izandako ondorioen ikuspuntutik begiratuta. Beste funtsezko elementu bat, kasu honetan joera nabarmen positiboa duena, emakumearen lan-merkaturako sartze progresiboa izan da.

1.2.1. *Datu orokorrak*

Lehen datu aipagarria kontuan harturiko aldian emakumeen jarduera-tasetan izandako aldaketa handitsua da. 2010ean gizonen kasuan jarduera-tasek handiagoak izaten jarraitzen badute ere (16 urtetik gorako gizonen % 64,8 eta emakumeen % 50, aldiz, adin-talde horretan), sexuaren araberrako jarduerarako joerarako aldeak 1976an gizonaren alde 52,1 puntu izatetik 2010ean 14,8 puntu izatera jaisten dira.

Adierazi behar da konbergentzia-prozesu hori ez zaiola soilik emakumezkoen jarduera-tasaren hazkundeari zor, eta, aitzitik, aldi berean lan-jarduerarako joeraren jaitsiera nabarmena ikusten dela 16 urtetik gorako gizonen artean. Gizonezkoen jarduera-tasa, hain zuzen, 1976ko % 80,7tik 2010eko 64,8ra jaitsi da. Beherakada-prozesu hori 1976-1996 aldian kontzentratu zen bereziki, gizonezkoen tasan modu jarraituan eta erregularrean jaitsi baitziren 1996ko % 64ko gutxienez iritsi arte, 1976an ikusitakoarekiko 16,7 puntu azpitik. Bizi-itxaropenaren hazkundera, birmoldaketa- prozesuek benetako erretiroa aurreratzeko lagungarri gertatzen diren testuinguru batean, neurri handi batean azaltzen dute errealitate hori.


17. grafikoa. Langabezia-tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn



16 urte eta urte gehiagoko biztanleria
ITURRIA: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN

Lan Merkatuaren Erroldaren datuek —kasu honetan 16-64 urteko biztanlerian kontzentratuak— ere konbergentziarako joera islatzen dute, eta 26,7tik 15,7ra murriztu dira sexuaren arabera jarduera-tasaren mailak 1993tik 2009ra bitarte (27,5etik 14,8ra, BAIaren arabera). Baina agian alderdi deigarriena egungo krisialdi ekonomikoaren inpaktu bereizgarriaren azterketa da: gizonen artean jarduera-tasa % 80,5etik % 78,3ra jaitsi da 2005etik 2009ra bitarte, eta emakumeen artean, aldiz, aurkako efektua gertatu da, aldi horretan % 59,9tik % 62,6ra igo baita. Gogorarazi behar da, edozein kasutan ere, alde horren zati bat 65 urtetik gorako biztanleriaren diferentzialarekin lotuta dagoela, emakumeen artean gehienbat ez-aktiboa dena.


18. grafikoa. Jarduera-tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn LME



16 eta 64 urte bitarteko biztanleak
ITURRIA: Lan Merkatuaren Errolda.

Prozesuak, oro har, lagungarri dira Euskadin gaur egun dagoen biztanleria aktiboko bolumena oso modu nabarmenean gehitzeko, 1976an 789.100 pertsona aktibo izatetik 2003an milioi bat pertsona aktibo baino gehiago izatera igarota, % 32,1eko hazkundearekin 1976tik 2010era bitarte. Euskal ekonomiaren gorakada eta beherakadako prozesu handiei dago lotuta neurri handi batean hazkunde hori.


19. grafikoa. EAEko biztanleria aktiboaren bilakaera BAIaren arabera (milakotan)



16 urte eta urte gehiagoko biztanleria
ITURRIA: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN

LMEaren datuek, dena den, badirudi adierazten dutela Euskadin azken urteotan biztanleria aktiboaren goranzko joera atxikitzen dela, emakumea lan-merkatuan eskala handiagoan sartzeak horretarako lagungarri izaten jarraitzen duela.

20. grafikoa. Biztanleria okupatuaren bilakaera EAEn LMEaren arabera




16 eta 64 urte bitarteko biztanleak
ITURRIA: Lan Merkatuaren Errolda.

Okupazio-koefizienteen bilakaerak —hau da, landunen proportzioa guztizko biztanleriarekiko— biztanleria aktiboarenak erakusten dituenen antzeko joerak erakusten ditu, batez ere gizon eta emakumeei dagozkien koefizienteen konbergentziari dagokionez. Horrela, 1976ko gizonen aldeko 51,6 puntuak 13,8ra murriztu dira 2010ean.

Krisialdiak, aurreko urteetako antzeko prozesuetan gertatu zen bezalaxe, inpaktu handiagoa du gizonen artean, koefizientea % 64,4tk % 58,1era jaitsi baita 2005etik 2010era bitarte, 2010ean izandako gorakada txikia gorabehera. Aitzitik, emakumeen kasuan tasa egonkortu baino ez da egiten, % 44,2arekin 2010ean, 2005eko datuarekiko bi hamarren gainetik. Zifra, dena den, 2008an izandako % 45,7ko gehienekoarekiko oso azpitik dago.

21. grafikoa. Okupazio-koefizienteen bilakaera sexuaren arabera EAEn



16 urte eta urte gehiagoko biztanleria


ITURRIA: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN

LMEaren datuek, 16-64 urteko biztanleriari buruzkoek, joera berak erakusten dituzte, bereziki azken urteotan ikusten den konbergentziarako joera handia. Horrela, 1993ko gizonen aldeko 29,8 puntuko aldetik 2009ko 14,4 puntuko aldera igaro gara (27,5etik 13,7ra BAIaren kasuan). Adierazi behar da, dena den, krisialdiaren inpaktu bereizgarriak konbergentziarako joera indartzen duela.

Baina LMEaren datuek erakusten dute, beste ezeren gainetik, koefizienteen hazkunde handiagoa 16-64 urteko biztanleria kontuan hartuz gero, 17,2 puntu gehituta gizonen artean 1993tik 2007ra bitarte 8% 61,4tik % 70,3ra) eta 25,8 puntu emakumeen artean (% 31,6tik % 55,9ra). BAIaren datuek, 16 urtetik gorakoei gagozkiela, adierazten dute, aldiz, 9,9 puntutik 20,1 punturako hazkundera izan dela. Bi iturriek ere, dena den, okupazioaren hazkunde erlatibo handiagoa erakusten dute emakumezko biztanlerian.

LMEaren zifrek erakusten duten beste funtsezko aldaketa krisialdian okupazio-koefizienteak izandako beherakada handiagoa da. Koefizientea % 78,6tik % 70,3ra jaitsi da gizonen artean eta % 57,4tik % 55,9 emakumeen artean.

22. grafikoa. Okupazio-koefizienteen bilakaera sexuaren arabera EAEn. CMT




16 eta 64 urte bitarteko biztanleak
ITURRIA: Lan Merkatuaren Errolda.

Kontuan izanda okupazio-koefizienteen diferentzialak agian murrizketa artifiziale izango zuela krisialdiaren ondorioz, emakumezkoen biztanleriak Euskadiko okupazio osoan duen garrantzi gero eta handiagoa da egiaz funtsezkoa, eta horretan bat datoz BAIaren eta LMEaren datuak. Guztizkoaren % 26,3an zegoen 1976an, apenas mugitu zen gorantz 1986ko % 27,4raino, eta BAIaren arabera, % 35,4ra iritsi zen 1995ean. Hazkundera 2009ko % 45,3raino luzatu zen (% 44,9 LMEaren arabera), proportzioa % 44,9ra mugatu bazen ere 2010eko lehen hiruhilekoan, gizonezko okupazioaren gorakadaren ondorioz, BAIaren arabera.

Krisialdiak emakumezkoen presentzia areagotzen badu ere, egia esan 2007an % 43,1ean zegoen BAIaren arabera eta % 41,7an LMEaren arabera. Oro har, 1976an 199.400 emakume landun zeuden BAIaren arabera eta 2010ean, aldiz, 416.800eko zifrara iritsi ginen, hau da, bikoitza baino gehiago, 2008ko 431.300eko gehienekoaren azpitik bazen ere. LMEaren arabera, 2009. urteari dagokio gehieneko zifra, 418.962 emakume landunekin.

23. grafikoa. Emakumezkoen biztanleriak okupazioan duen garrantziaren bilakaera (%)



ITURRIA: Lan Merkatuaren Errolda eta Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN

1.2.2. Inpaktua etxekoen unitate eta familien sisteman

Kontuan hartuz gero emakumea progresiboki lanera sartzeak eragin duen inpaktua etxekoen unitate eta familietan, eskuera dauden datuek prozesuaren garrantzia islatzen dute, batez ere Euskadin enplegua indarberritzen hasi zenetik. Horrela, egiaztatzen da 1996an emakume landunak presente zeuden etxekoen unitateen guztizkoa 200.428 zela, eta 2009an, aldiz, 384.768 izatera iritsi ziren, hau da, % 92ko hazkundea. Igoera nabarmenena 1996-2000 aldiari dagokio, emakume landunak dituzten etxekoen unitateen urteko % 8ko batez besteko hazkundearekin. Hazkunde-erritmoa nabarmen murriztu zen, baina urtean % 4,3 izaten jarraitu zuen 2000-2004 aldian. 2004-2008 aldian urteko % 3,7ko mailetan atxiki zen hazkundea batez beste. Krisialdia gorabehera, hazkundeak % 3,1 izaten jarraitzen du 2008-2009 aldian.

Hazkunderik handiena, % 149,8arekin 1996-2009 aldian, familia-erantzukizunak dauzkan emakume landun bat dagoen etxekoen unitateei dagokie —pertsona nagusia edo haren ezkontidea edo bikotea delako—, baina beste landun batzuekin. Bi landun edo gehiago dituzten etxekoen unitateen kasu horiek urtean % 10,9ko erritmotan hazi ziren 1996-2000 aldian eta % 6,5 inguruko erritmotan 2000-2008 aldian, nahiz eta krisialdi ekonomikoak




hazkunde-erritmoa % 0,4ra murriztu duen. Zifra absolututan, mota horretako etxekoen unitateak 1996an 103.649 izatetik 2009. urtearen amaieran 258.920 izatera igaro dira.

Familia-erantzukizunak dituzten emakumeak landunak diren kasuetan, haiek direlarik enplegua benetan baliatzeko etxekoen unitateko pertsona bakarrak, igoera nabarmena izan dute halaber 1996-2000 aldian, zehazki % 101,5, 36.731 kasutik 73.998 kasura igarota. Horrelako etxekoen unitateen bilakaerak, dena den, ez du antzekotasunik aurrekoekin. 1996-2000 eta 2004-2008 aldietan, eraginpean harturiko etxekoen unitateen kopurua urtean % 2 inguru jaitsi da. Aitzitik, igoera nabarmena izan du 2000-2004 eta 2008-2009 aldietan. Laurtekoan, urteko hazkunde-erritmoa % 13,3 da; 2008-2009 aldian, neurri handi batean emakume ez-aktibo bat enplegua bilatzera behar dezakeen edo ezkontide edo bikotearen enplegu-galera eragin dezakeen krisialdi baten inpaktuaren ondorioz, % 4,2 hazi dira horrelako etxekoen unitateak.

1996-2000 aldian urtean % 8,2 hazi ondoren, 60.048 kasutatik 82.340 kasutara igarota, zifra ondoren murriztu egiten da emakume landunek familia-erantzukizunik ez duten etxekoen unitateei dagokienez. Horrela, zifra % 5,1 jaitsi zen 2000-2004 aldian eta % 1,3 2004-2008 aldian, emakumezkoen biztanleria landunaren zati bat bizitza independentera atera izanaren adierazgarri neurri handi batean. Hala ere, jaitsiera bateragarria da erreferentziazko 63.371 etxekoen unitateen zifrarekin, 1996. urtekoarekiko zertxobait gainetik. Horien bolumena % 18,2 murriztu zen 2008-2009 aldian, krisialdiaren ondorioz, horrelako 51.850 etxekoen unitate eraginpean hartuta 2009. urtearen amaiera aldera.

24. grafikoa. Emakume landunak dauzkaten etxeko unitateen kopuruaren bilakaera familia-erantzukizun edo erantzukizun nagusiaren (pertsona nagusia edo ezkontidea, EN) arabera. EAE




Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009

Emakume landunak dauzkaten etxeko unitateetan ikusitako aurrerapenak argiago har litezke kontuan termino erlatibotan. Horrela, egiaztatzen da emakume landunen bat zeukaten etxeko unitateak guztizkoaren % 29,7 zirela 1996an, proportzio hori % 39,7ra igo zela jada 2000. urtean eta aurrera egiten jarraitu zuela —hazkunde-erritmo apalagotan bada ere— 2009ko % 47,5eko gehienekora iritsi arte. Familia-erantzukizunak dauzkaten emakumeek lana baliatzearekin dago batez ere lotuta hazkundera. Horrela, familia-erantzukizunak dauzkaten emakume landunak dituzten etxeko unitateen proportzioa —etxeko unitatearen beste kide batzuekin batera— 1996ko % 20,8tik 2009ko % 41,1era igaro da.

Joera egonkorragoa da landun bakarra familia-erantzukizunak dituen emakume bat den etxeko unitateen indarrari dagokionez. Kasu horretan, % 5,4 zen proportzioa 1996an, eta % 4,9ra murriztu zen 2000. urtean. 2004. urtean % 7,5era gehitu arte, % 6,5era murriztu da 2008an, 1996ko eta 2000ko erregistroen gainera, hala eta guztiz ere. Krisialdiak gorantz bultzatu ditu horrelako etxeko unitateak, eta guztizkoaren % 9,1 izatera iritsi dira 2009. urtearen amaieran.

25. grafikoa. Emakume landunak dauzkaten etxekoan unitateen garrantziaren bilakaera %-tan familia-erantzukizun edo erantzukizun nagusiaren (pertsona nagusia edo ezkontidea, EN) arabera. EAE



Iturria: PGDI, Aurrerapena LME 2009

1.2.3. Familia- eta lan-bizitza uztartzea eta lan-gainkarga

Emakumeen lanaren orokortze progresiboak lan-, gizarte- eta familia-bizitza uztartzeko prozesuen garrantzia areagotzen du, eta errealitate hori sexuaren araberako hurbilketako ikuspegi orokor batetik ikusi behar da, gizonetan eta emakumeetan ikusitako aldaketen inpaktua kontuan izanda.

1.2.3.1. Lan Baldintzei buruzko Inkestaren datuak

2004tik aurrera, Lan Baldintzei buruzko Inkesta (LBI) lan- eta familia-bizitza uztartzearen fenomenoak hartzen du kontuan. Gaur egungo lan-egutegiarekin familia- eta gizarte-betebeharrei erantzuten zaien neurriari jarraiki hartzen du kontuan soldatapeko biztanleria lehen adierazleak. Lortutako emaitzek erakusten dutenez, soldatapeko biztanleriaren gehiengoak lortu du lan-ordutegia eta gainerako familia- eta gizarte-betebeharrak behar bezala uztartzea: % 23,7k ondo egiten du eta % 59 nahiko ondo. Dena den, soldatapeko biztanleriaren % 16,7k oraindik ere balioespen negatiboa egiten du horren inguruan (% 0,6k ez du erantzuten), eta % 4 aukera negatiboenera biltzen da (oso gaizki uztartzen ditu betebeharrak guztiak).




Bigarren adierazlea espezifikoa da, presio-maila handiagoa islatzen duen soldatapeko biztanleriaren zatian kontzentratzen baita, erabat gogobetetzen ez duela kontuan hartzen den lan-ordutegia duena, lana gizarte- eta familia-bizitzarekin uztartzeko aukerak negatiboki balioesten dituen eta gainera, lanaldiaren edozein murrizketa baztertzen ez duena. Kasu horretan, arazoen adierazlea % 12,9ra murrizten da.

Hirugarren adierazlea aurrekoaren bertsio bat da, baina soldatapeko pertsona soldataren diru-sarrerak murrizteko terminotan lanaldi-murrizketari loturiko kostu bat bere gain hartzeko benetako prestasuna egongo litzatekeen kasuan soilik hartzen ditu kontuan. Kasu horretan, adierazlea % 4,5era murrizten da.

Zifrek ez dute aldaketa nabarmenik erakusten 2004-2009 aldian adierazle guztien inpaktuari dagokionez, nahiz eta beheranzko ildoari jarraitzen dioten. Horrela, 1. adierazlea % 17,4tik % 16,7ra jaitsi da, 2. adierazlea % 14,6tik % 12,9ra eta 3. adierazlea % 5,2tik % 4,5era. Deigarria da, termino erlatibotan, jaitsiera handiagoa izatea uztartze-arazoen benetako inpaktua neurtzeko adierazlea zenbat eta estuagoa izan. 2. eta 3. adierazleetan ikusitako jaitsierak bereizgarri handiagoak azaltzen du, bestalde, 2004-2009 aldian soldatapeko biztanleriaren bolumenari dagokionez izandako hazkunde nabarmena gorabehera, erreferentziazko zifrek behera egitea termino absolututan ere. Horrela, 39.678tik 36.324ra murrizten da uztartze-arazoak dauzkaten pertsonen zifrak 3. adierazlearen arabera.

26. grafikoa. Familia- eta gizarte-betebeharren uztartze-adierazleen bilakaera (%)



1. adierazlea: Egungo lan-ordutegiarekin bere familia- eta gizarte-betebeharrei gaizki (nahiko gaizki edo oso gaizki) erantzuten dien soldatapeko biztanleria


2. adierazlea: Erabat gogobetetzen ez duen lan-ordutegia daukan soldatapeko biztanleria, egungo lan-ordutegiaren bere familia- eta gizarte-betebeharrei gaizki (nahiko gaizki edo oso gaizki) erantzuten diena eta lanaldi-murrizketa erabat baztertzen ez duena

3. adierazlea: 2. adierazlea baina soldata-murrizketarekin baterako lanaldi-murrizketako prestasuneko kasuak soilik bilduta

Iturria: Lan Baldintzei buruzko Inkesta 2004 eta 2009. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Sexuaren arabera uztartze-arazoen inpaktuak antzeko zifrak erakusten ditu, eta intzidentzia zertxobait handiagoa islatzen du gizonen artean, salbu eta 3. adierazleari dagokionez. Kasu horretan, inpaktua % 5,4 da emakumeen artean eta % 3,7 aldiz, gizonen artean. Gainera, emakumei buruzko adierazlearen joera 2004. urtearekiko beheranzkoa ez den kasu bakarra da: % 5etik % 5,4ra igo da 2004-2009 aldian, inplikazio deigarriekin termino absolututan soldatapeko biztanleriaren bolumenaren hazkundearen testuinguruan, eta horrek 15.917 kasutatik 19.781 kasutara igarotzea dakar 2004-2008 aldian.


27. grafikoa. Uztartze-adierazleen bilakaera sexuaren arabera. Soldatapeko biztanleria



Iturria: Lan Baldintzei buruzko Inkesta 2004 eta 2009. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Datuek uztartze-arazoen jaitsiera ere erakusten dute adinak gora egin ahala, nahiz eta haustura nabarmenarekin izan 45 urtetik aurrera. Azkenaldiko bilakaerak azken lau urteetan ikusitako adierazleen hobekuntza orokorra islatzen du, batez ere 35-44 urteko pertsonen artean.

28. grafikoa. Uztartze-adierazleen bilakaera adinaren arabera. Soldatapeko biztanleria




Iturria: Lan Baldintzei buruzko Inkesta 2004 eta 2009. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Egiazta daiteke absentismoaren eta lana uztartzeko arazoaren artean dagoen lotura, kasu guztietan absentismoaren inpaktua gehituta uztartze-arazoak daudenean, diferentzialaren gehikuntzarekin kasurik larrienetan. Horrela, 3. adierazlea kontuan hartzea, egiaztatzen da 2009an soldatapeko biztanleriaren % 11,8 zegoela gaixotasunengatikiko bajekin uztartze-arazorik ez zituztenen artean, eta proportzio hori % 16,7ra igotzen zen, aldiz, uztartzeko arazoak zituztenen artean.


Produktzio-ahalmeneko krisialdiak osasun-arazoaren ondoriozko lan-absentismoaren hazkundera oro har faboratzen duen testuinguru batean (uztartze-arazorik izan edo ez), argi dirudi absentismoaren inpaktua askoz ere handiagoa dela uztartzeko arazoak daudenean, adierazle motak arazo-maila ez hain trinkoa islatzen badu ere.

29. grafikoa. Uztartze-arazoen inpaktua lan-absentismoan
(gaixotasunagatiko bajak dituen soldatapeko biztanleriaren %-a)



Iturria: Lan Baldintzei buruzko Inkesta 2004 eta 2009. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

30. grafikoa. Uztartze-arazoen inpaktua lan-absentismoan
(baja-egunen batez bestekoa gaixotasunagatiko bajak dauzkan soldatapeko biztanlerian)




Iturria: Lan Baldintzei buruzko Inkesta 2004 eta 2009. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

1.2.3.2. Familiei buruzko Inkestaren datuak

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak egiten duen Familiei buruzko Inkestak beste inkesta batzuetan gutxietan erabilitako beste adierazle batzuetarako hurbilketari ekitea ahalbidetzen du.

Lehen adierazle interesgarria familia-laneko gainkarga edo seme-alaba batek jaiotza dela-eta uneren batean lan bat utzi duten 25-64 urteko emakumeen proportzioari buruzkoa da. Kontuan harturiko emakumeen % 10,4k —63.956 guztira— gai horri aurre egin diola esaten du, dela gaur egun, dela iraganean. Emakume horien % 96,9k familia-erantzukizuneko posizio bat dute etxekoan unitatean (pertsona nagusia edo haren ezkontide edo bikotea), eta horien artean azpimarratzekoak dira 40 urtetik gorakoak (guztizkoaren % 66,5). Intzidentzia-datuak, dena den, antzekoak dira familia-erantzukizunak dituzten emakumeen artean, 40 urtetik beherakoetan zein gorakoetan (% 12,4 eta % 12,2, hurrenez hurren). Datu esanguratsu bat zera da, emakume horien % 52 ez daudela gaur egun okupatuta, eta guztizkoaren % 44,4 ez-aktibo daude. Proportzioa % 48,8raino igotzen da 40 urteko edo hortik gorako emakumeen artean.

31. grafikoa. Familia-laneko gainkargagatik edo seme edo alaba bat jaio izanagatik uneren batean lana utzi duten 25-64 urteko emakumeak (%-tan). EAE




Iturria: Familiei buruzko Inkesta. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Bigarren adierazle erabilgarria 25-64 urteko emakumei buruzkoa da, aipaturiko arrazoi horietakoren batengatik azken hiru urteetako uneren batean beren lana eten dutenak. Egoera horren inpaktua kontuan harturiko biztanleriaren % 5,4an dago (32.916 pertsona). Kasu horretan, kontuan hartuko egoerak bereziki hartzen ditu eraginpean familia-erantzukizunak

dauzkaten 40 urtetik beherakoak, ikusitako guztizko kasuen % 59,7arekin, eta % 38,2arekin, aldiz, familia-erantzukizuna daukaten 40 urtetik gorako emakumeei dagokienez. Egoera horren intzidentzia, hain zuzen, oso handia da lehenengo kasuan, guztizkoaren % 12,5, eta % 3,6 eskasa baino ez kontuan harturiko 40 urtetik gorako emakumeetan.

32. grafikoa. Familia-laneko gainkargagatik edo seme edo alaba bat jaio izanagatik azken hiru urteetan uneren batean lana utzi duten 25-64 urteko emakumeak (%-tan). EAE




Iturria: Familei buruzko Inkesta. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Inoren laguntza behar duten pertsonak zaindu behar izateagatik gaur egun lan egin ezin duten emakumeen proportzioa 16-64 urteko emakumeen biztanleriaren % 2,3an dago (16.229 emakume). Horien artean, familia-kargak dituzten 40 urtetik beherako emakumeek osatzen dute berriz talde nagusia, eraginpeko pertsonen % 48arekin, horrelako erantzukizunak dituzten 40 urtetik gorako emakumeen % 41,1aren gainetik. Horrelako erantzukizunik gabeko emakumeek osatzen dute gainerako % 10,8a.

Intzidentzia-terminotan, familia-kargak dituzten 40 urtetik beherako emakumeen inpaktua askoz ere garbiagoa da: guztizkoaren % 4,8 eta 40 urtetik gorakoena, aldiz, % 1,9, eta horrelako familia-erantzukizunik ez dutenen % 0,9.


33. grafikoa. Inoren laguntza behar duten pertsona edo adingabeak zaintzeagatik lanik egin ezin duten 16-64 urteko emakumeak (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Laugarren adierazlea jardunaldi bikoitzari, lan- eta familia-arlokoa, loturiko lan-gainkargako egoerekin lotuta dago, astean 60 lan-ordu baino gehiagorekin zeregin horretan. Kasu horietan, emakumeen % 21,1 dago arazoaren eraginpean (85.450 emakume), % 27 inguruko zifrekin familia-erantzukizunak dituzten emakumeen talde guztietan (% 2,8 eskas baino ez dira horrelako erantzukizunik ez dutenak). Kasu honetan, kontuan harturiko egoera gehienak familia-kargak dauzkaten 40 urtetik gorako emakumeei dagozkie (% 58,5, eta adin horretatik beherakoei dagokienez, aldiz, % 8,3, eta % 3,2 eskasa baino ez zaie lotu horrelako erantzukizunik ez dutenei).


34. grafikoa. Familia-esparruan eta kanpokoan 60 ordu baino gehiago lan egiten duten emakumeak (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Analisia familia-erantzukizunak dituzten emakumeen arteko uztartze-arazo larrienetan kontzentratuta¹, egiazta daiteke arazo horiek EAEko etxeko unitateen % 7,4 hartzen dituztela eraginpean (59.004 guztira). Inpaktua oso nabarmena da gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeko unitateetan (% 15,9), eta proportzioak batez bestekoaren azpitik dauden mailetara jaisten da —% 5,5-6,5ean kokatutakoak— gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeko unitateetan, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan eta beste familia-talde batzuetan. Intzidentzia % 2,5-3an dago guraso izandako ezkontideen etxeko unitateetan eta gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeko unitateetan. Gainerako etxeko unitateetan, marjinala da, baita ezereza ere. Azkenik, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeko unitateetan egoera horren nabarmentasuna islatzen duen beste datu bat zera da, horiek uztartze-arazoak dauzkaten etxeko unitateen multzoaren banaketan duten garrantzi proportzionala % 76,7 izatea.

35. grafikoa. Uztartze-arazo larrien intzidentzia euskal etxeko unitateetan motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Oharra: Honako hauek biltzen dituzte kontuan harturiko arazoak:

- 25-64 urteko emakumeak, familia-kargekin, lana uneren batean utzi dutenak —edo azken hiru urteetan uneren baten utzi dutenak— familia-laneko gaitasunagatik edo seme edo alaba bat jaio izanagatik eta lan batera itzuli ez direnak edo hura atxiki ez dutenak.
- Familia-kargak dituzten 16-64 urteko emakumeak, gaur egun lan egin ezin dutenak inoren laguntza behar duten pertsona edo adingabeak zaindu behar dituztelako.
- Familia-erantzukizunak dituzten emakume landunak familia-esparruan edo kanpokoan 60 urte baino gehiago lan egiten dituztenak eta 3 urtetik beherakoak edo premia berezietarako edo zainketa iraunkorretarako laguntzak behar dituzten inoren laguntza behar duten pertsonak dauzkatenak.


¹ Honako hauek biltzen dituzte kontuan harturiko arazoak:

- 25-64 urteko emakumeak, familia-kargekin, lana utzi dutenak —edo azken hiru urteetan uneren baten utzi dutenak— familia-laneko gaitasunagatik edo seme edo alaba bat jaio izanagatik eta lan batera itzuli ez direnak edo hura atxiki ez dutenak.
- Familia-kargak dituzten 16-64 urteko emakumeak, gaur egun lan egin ezin dutenak inoren laguntza behar duten pertsona edo adingabeak zaindu behar dituztelako.
- Familia-erantzukizunak dituzten emakume landunak familia-esparruan edo kanpokoan 60 urte baino gehiago lan egiten dituztenak eta 3 urtetik beherakoak edo premia berezietarako edo zainketa iraunkorretarako laguntzak behar dituzten inoren laguntza behar duten pertsonak dauzkatenak.

1.2.3.3. Gizarte Premiei buruzko Inkestaren datuak

2006ko GPIaren datuak ere interesgarriak dira, autonomiarako eta mendetasunaren arretarako sistema (AMAS) abiarazi aurretiko aldi bati badagokio ere. Inkestak etxeko unitateko beste pertsona batzuen laguntza- edo zaintza-ardura bereziak beren gain hartzen dituzten pertsona jakin batzuen kasuak erregistratu ditu, betiere zaintza eta laguntza hori gaixotasunari, ezintasunari edo zahartasunari lotuta egonik. Kasu horietan zirkunstantzia jakin batzuk biltzen dira, hain zuzen ere dedikazio pertsonal handiagoa beharrezkoa den kasuak, etxeko unitateko gainerako kideek laguntzarik ematen ez dutelako edo laguntzarik eman ezin dutelako. 2006an, 82.083 pertsonak hartzen zituzten beren gain laguntza- eta zaintza-lanak etxeko unitateko beste pertsona batzuekin EAERI gagozkiola. Zifra hori Euskadin bizi den 15 urte edo gehiagoko biztanleria osoaren % 4,43 da.

36. grafikoa. Etxeko unitatean zaintzailearen lana bere gain hartzen duen 15 urtetik gora biztanleria (%-tan). EAE



Iturria: Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006

Zaintzaileen kolektiboa emakumeek osatzen dute gehienbat (% 56,9), eta emakumeen % 4,86k hartzen ditu bere gain zeregin horiek, gizonen 3,98aren gainetik. Aldea, dena den, ez da espero zitekeen bezain nabarmena, eta ezin liteke esan zaintza-lanen erabateko monopolioa dagoenik emakumeen aldetik. Zaintzaileak zehazten dituen faktore erabakigarria adina da batez ere. Zaintzaileen tasa %6 inguru da 45 urtetik aurrera, eta 75 urtetik gorako artean, berriz, pixka bat txikiagoa da, % 5,3 hain zuzen ere². 35-44 urtekoen artean tasa nabarmen txikiagoa da —%

² 75 urteko eta gehiagoko biztanleriaren tasa txikiagoa izatearen arrazoa honako hau da: adinari loturiko mugen eta mendetasun berezien intzidentzia handiagoa da adin-talde horretako artean. Izan ere, osasun- edo mendetasun-arazoei loturiko mugarik ez duten pertsonak soilik kontuan izanik, zaintzaileen tasa handiagoa da 75 urtetik gorako artean —% 7,26—, 65-74 urtekoen artean baino




3,43—, baita 35 urtetik beherakoen artean ere —biztanleriaren % 2,2 inguru—. Zaintzaile gehienak 45-74 urtekoak dira; hain zuzen ere, zaintzaile guztien % 57,9 adin-tarte horretakoa da, eta 75 urteko eta gehiagoko biztanleria kontuan hartuta, zaintzaileen kopurua %70,9ra iristen da. 45 urtetik beherakoak, berriz, zaintzaile guztien % 29,1 dira.

Ia zaintzaile guztiek pertsona bat edo gehiago zaintzen dituzte, mendetasun bereziren bat dutenak. Zaintzaileen % 1,6k soilik jarduten du osasuneko edo adin aurreratuko arazoei loturiko mugarik ez duten pertsonen laguntzan eta zaintzan. Kasuen % 64,7an zaintza jasotzen duen/duten pertsona/pertsonak mendetasun erabatekoa, larria edo ertaina dute.

Lan-karga gehitua egunean bi ordutik gorakoa da kasuen % 54,7an, eta proportzio hori % 67,1era igotzen da, egunean ordubete baino gehiago ematen duten pertsonak kontuan hartuz gero. Proportzio horren % 75eko mailak gainditzen ditu mendetasun ertaina, larria edo erabatekoa duen pertsona bati eman beharreko arretaren kasuan, edo mendetasun arinagoa duten bi pertsonaren kasuan, % 95etik gora iritsi da mendetasuna duten bi pertsona edo gehiago zaindu beharreko kasuan.

Zaindutako pertsonen kopuruak eta daukaten mendetasunaren larritasunak eragina du halaber zaintzaileek hezkuntza-, lan edo gizarte-bizitza normalaren garapenari uko egin behar izatean. Kasu horretan, larritasun ertaineko mendetasun edo muga duen pertsona bere kargura duten zaintzaileen %65,8k beren jardura guztiz normalizatua du; beren kargura inoren laguntza behar duten bi pertsona edo gehiago edo mendetasuna ertaina, larria edo erabatekoa duen pertsona bakarra duten zaintzaileen % 70-% 85ek bere ohiko jardura okupazional eta sozialaren dimentsio bati uko egin behar izan dio, partzialki edo guztiz.

37. grafikoa. 15 urteko edo hortik gorako zaintzaileak zaindutako pertsona motaren arabera eta jarduera okupazional eta sozialari uko egitea (%-tan). EAE



Iturria: Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006


Oro har, 17.983 pertsonak —zaintzaile guztien % 21,9— guztiz egin diote uko jardueraren bati. Gainera, 30.323 pertsonak —zainketa-lanak egikaritzen dituzten guztien % 36,9— jardueraren bati uko egin diote modu partzialean. Bi kolektibo horien batura hamabost urteko edo hortik gorako guztizko biztanleriaren % 2,61 da. Kontuan harturiko 48.306 zaintzaileetatik, % 31,1ek guztiz uko egin dio gizarte-bizitzari eta % 68,1ek denbora gutxiago eskaintzen dio (15 urteko edo hortik gorako guztizko biztanleriaren % 2,59). Bestalde, % 11,9k guztiz uko egin dio lanari eta % 0,4k ikasketari, eta horien arteko % 11k denbora gutxiago eskaintzen die jarduera horiek (15 urteko edo hortik gorako guztizko biztanleriaren % 0,58). 2010eko GPIari itxaron beharko zaio egiaztatzeko zenbateraino izan den lagungarria Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema sartu izana.

Egoera horiek eraginpean harturiko etxekoaren unitateen kopuruaren eta ehunekoaren ikuspuntutik, GPIaren datuek agerian uzten dute euskal etxekoaren unitateen % 7,4k dituela gaixotasuneko, desgaitasuneko edo edadeko arazoak dauzkaten pertsonak zaintzeko zainzaileak. Kasuen % 59,3an, gutxienez mendetasun ertaina duten 55 urtetik gorakoei edo gutxienez mendetasun arina duten 75 urtetik gorakoei bideratuta dago arreta. Ehuneko horri bestelako mendetasun bereziren bat duten 55 urtetik gorakoei dagokien % 15,3 gehitu behar zaie egiaztatzeko arreta-arazoen hiru laurdenak 55 urtetik gorakoei dagozkiela. Gutxienez mendetasun-maila ertaina duten 55 urtetik beherakoentzat bideraturiko arreta % 10,5 da, % 9,6 25-54 urteko pertsonetan kontzentratuta eta % 0,9 25 urtetik beherakoetan kontzentratuta.

Beste % 13,8 batek ertaina baino larritasun gutxiagoko mendetasun bereziren bat duten 55 urtetik beherakoak zaintzen ditu. Kasuen % 1,1ean soilik bideratzen da arreta larritasun gutxiagoko egoeretarantz.

Datuek erakusten dute, bestalde, etxekoek unitatean mendetasun bereziko arazoak daudenean, zuzeneko zainketa erabakigarria dela. Kontuan harturiko etxekoek unitateen % 52,7an pertsona horietara bideraturiko etxekoek unitatearen barruko zaintzaileak daude. Adierazgarria da egiztatzea etxekoek unitateko mendetasuna duten pertsonak zaintzera zuzenean bideraturiko presentzia handiagoa kasu oso espezifiko batzuetan hazten dela, nagusiki adinak eta kasu horien larritasunak berak zehazturikoak. Horrela, mendetasun berezia duten 55 urteko gorako pertsonak dituzten etxekoek unitatean % 48- % 52 tarteko zifrak ditugu, baita ertaina baino txikiagoa den larritasuneko mendetasuna duten adin horretatik beherakoetan, eta arreta, aldiz, handiagoa da gutxienez, ertaina den larritasuneko mendetasuna daukaten 55 urtetik beherakoek kasuan, etxekoek unitateko zaintzaileen maila % 80tik hurbileko mailetara iristen baita, hain zuzen ere.

38. grafikoa. Zaintzaileak dauzkaten etxekoek unitateen intzidentzia eta banaketa zaindutako pertsona motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006.


1.3. Lan-merkatuaren beste alderdi batzuk

1.3.1. Soldata baxuen inpaktua

Euskadiko ordainsari-maila txikien azterlanerako hurbilketak horrelako egoeren puntu adierazgarri gisa ezarri beharreko problematika planteatzen du. Biztanleria landunaren lanaren arabera diru-sarrera ertainen ehuneko jakin bat hartuz gero³, ehunekoa % 7,2an dago abiapuntua diru-sarrera ertainaren % 60 bada (750 euroren baliokidea) edo % 20,7an mediana horren % 75 hartzen bada (937,50 euro).

Inpaktua, edozein kasutan ere, handiagoa da 40 urtetik beherako biztanleriaren artean (% 8,6 eta % 27) eta, bereziki, familia-erantzukizunak dituen emakumezko biztanleriaren artean (pertsona nagusia edo ezkontidea). Azken kasu horretan, erreferentziazko emakumeek % 12,1ek batez besteko diru-sarreraren % 60aren azpitiko diru-sarrerak dituzte, eta proportzio hori % 31,2raino hazten da lanarengatik diru-sarreraren medianaren % 75 erreferentzia gisa hartzean.

39. grafikoa. Laneko diru-sarrera txikien inpaktua (%-tan). EAE




Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Aurrerapena 2009.

³ Neurketaren erreferentzia gisa, inkestaren aurreko hilabeteen lorturiko hileko diru-sarrerak hartzen dira, lan-jarduera batetik datozenak, aparteko pagei dagokien zatia egotzi gabe.

Krisialdiaren azkenaldiko inpaktuak areagotu egiten du biztanleria landunean ordainsari txikiagoko enpleguen garrantziaren beherakadarako joera, 2005-2007 aldian jada ikusitakoa. Horrenbestez, enplegu-galerak ordainsari gutxiagoko sektorean kontzentratzen dira, 2005eko % 9,5etik 2007ko % 9,2ra eta 2009ko % 7,2 igarota % 60aren adierazleari dagokionez (% 26tik % 24,3ra eta % 20,7, aldiz, % 75aren adierazleari dagokionez). Familia-erantzukizunak dituen emakumezkoen biztanleria hartzen du bereziki eraginpean prozesu horrek. Ordainsari txikiko pertsonen proportzioa, % 60aren adierazlearen arabera, % 18,5ean zegoen 2005ean eta % 17,7ra murriztu zen 2007an, baina beherakada drastiko batekin, aldiz, % 12,1erainokoa 2009an. Beherakada are eta trinkoagoa da % 75aren adierazlea kontuan hartuz gero. Horrela, 2005eko % 39,8tik eta 2007ko 38,4tik, 2009ko % 31,2ra igaro gara.


40. grafikoa. Laneko diru-sarrera txikien inpaktuaren bilakaera (%-tan). EAE



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. 2005, 2007 eta Aurrerapena 2009

Laneko diru-sarrera txikiek landunak dauzkaten Euskadiko etxekoen unitateen presentzia kontuan hartuta, egiazta daiteke horiek guztizkoaren % 10,9aren eta 29,3aren gaineko inpaktua dutela lanaren araberako diru-sarreraren medianaren % 60 edo % 75 erreferentzia gisa hartzearen arabera. Diru-sarrera txikia soilik presente dagoen egoren inpaktua % 2,9 eta % 8,4 da, kasuen % 0,6 eta % 2,7 eskasarekin horrelako bi diru-sarrera mota presente egoteari dagokionez, medianaren % 60 edo % 75 hartzearen arabera. Horrelako diru-sarrerak beste diru-sarrera handiago bat edo batzuk osatzen dituzten egoeran inpaktua da adierazgarriena, etxekoen unitateen % 7,4 eraginpean hartuta medianaren % 60 erreferentzia gisa hartuz gero, eta % 18,2, aldiz, % 75 kontuan hartuz gero.

41. grafikoa. Laneko diru-sarrera txikien presentzia landunak dituzten etxekoen unitateetan (%-tan).
EAE




Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Aurrerapena 2009

Azkenaldiko krisialdi ekonomikoa soldata txikien inpaktu erlatiboaren funtsezko beherakadari lotzen zaio. 2005eko eta 2007ko % 14,8ko zifretatik, % 60aren adierazlean, egoera horrek eraginpean harturiko etxekoen unitateen ehunekoan —landunak dauzkaten etxekoen unitateen guztizkoari gagozkiola— % 10,9ra jaisten da 2009an. % 75aren erreferentzia hartzean, beherakada 2005eko % 36,4tik 2007ko % 34,5era eta 2009 % 29,3ra izan da. 2007-2009 aldiari loturiko beherakada maila txikiko diru-sarrera bat erreferentziazko zifrekiko handiagoak diren lanarengatik diru-sarreretara lotzen den kasuetan kontzentratzen da soil-soilik. % 75 kontuan hartzean, dena den, atalase horren azpitiko bi diru-sarrera edo gehiago dauzkaten etxekoen

unitateen proportzioaren beherakada deigarria sumatzen da (2005eko % 4,1etik 2007ko % 3,6ra eta 2009ko % 2,7ra).


42. grafikoa. Laneko diru-sarrera txikien presentziaren bilakaera landunak dituzten etxeko unitateetan (%-tan). EAE



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. 2005, 2007 eta Aurrerapena 2009


Soldata txikien inpaktua askoz ere handiagoa da behin-behineko kontratu batekin edo kontraturik gabe lan egiten duen soldatapeko biztanleriaren kasuan. Kasu horietan, dagozkien diru-sarreraren % 47,9 euskal biztanleria landunaren batez besteko laneko diru-sarreraren % 75aren azpitik dago, eta proportzio hori % 20,3 da lanagatik batez besteko diru-sarreraren % 60aren azpitiko hileko diru-sarrerak dauzkan kolektiboa kontuan hartzean. Hurrenez hurreneko zifrak % 15 eta % 4 dira kontratu mugagabea daukan soldatapeko biztanleriari dagokionez. Dena dela, lan-merkatuko prekarietate-egoeren inpaktua kontuan hartzean, langabeziaren eta behin-behinekotasunaren egoerari kontratazio mugagabeko egoerei loturiko ordainsari txikien inpaktua ere gehitu beharko litzateke. Aurreko urteekiko beheranzko bidean bada ere, 2009ko erreferentziazko proportzioa biztanleria aktiboaren % 2,4 da lanagatik diru-sarreraren medianaren % 60aren azpitiko soldatak kontuan hartzen badira, eta proportzio hori % 9,1eraino hazten da % 75aren azpitiko soldaten multzoa kontuan hartuz gero.

43. grafikoa. Soldata txikien inpaktua kontratu motaren arabera (%-tan).
EAE



Behin-behineko soldatapeko biztanleriari buruzko datuek kontraturik gabe lan egiten duen biztanleria biltzen dute. Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Aurrerapena 2009.

44. grafikoa. Kontratu mugagabea baina soldata-ordainsari txikia duen biztanleriaren garrantzia biztanleria aktiboan (%-tan). EAE




Behin-behineko soldatapeko biztanleriari buruzko datuek kontraturik gabe lan egiten duen biztanleria biltzen dute. Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Aurrerapena 2009.

1.3.2. Azpiokupazioaren inpaktua (enpleguaren eta prestakuntza arautuaren arteko desdoikuntza)

Gaur egun, biztanleria landunaren kalifikazio-egituraren (betiere hasierako prestakuntza arautuko terminotan ulertuta) eta produkzio-sistemaren artean doikuntza-maila behar bezalakoa ote den aztertzea oso alderdi garrantzitsua da biztanleria aktiboaren kalifikazio-prozesuak aztertzeko.

Prestakuntza arautuko mailaren arabera biztanleria aktiboak enplegua baliatzeko dituen desoreka objektiboak kontuan hartzean, BAKIak 2007an guztira 129.619 landunen kasu detektatu zituen, zeinetan aztertutako desoreketako bat gutxienez ikusten baitzen. Desoreka horiek biztanleria okupatu guztiaren % 13,6 hartzen dute eraginpean, eta horrek esan nahi du 1999. eta 2003. urteekiko egoera progresiboki okertu da, urte horietan biztanle aktiboen % 9,9 eta % 12,1 baitzegoen egoera horretan. 1995ean lortutako % 13,6ra iritsi zen berriz ere proportzioa, nahiz eta termino kuantitatibotan eraginpean harturiko pertsonen bolumena 2007an askoz ere handiagoa den, biztanleria okupatuaren guztizko bolumena hazi zelako (96.177 pertsona 1995ean)⁴.

45. grafikoa. Prestakuntza-mailaren eta enplegu okupatuaren artean desorekak erakusten dituen biztanleria landuna (azpiokupazioa). EAE



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Kualifikazio Inkesta 1995, 1999, 2003, 2007. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

⁴ Enpleguaren eta arautu gabeko prestakuntzaren arteko desdoikuntza-maila modu objektiboan neurtzeko adierazlearen funtzionaltasuna gorabehera, adierazi behar da, dena den, eraginpekoek berek sumaturiko desoreka-maila ez datorrela nahitaez bat zifra horiek adierazten dutenarekin.



Adieraztekoa da 1999-2007 aldiko problematiken goranzko joera argia dela prestakuntza-mailaren eta lanbidearen arteko desoreka mota guztietan. Dena den, erreferentzia modura hartutako aldian, gehien igotzen den azpiokupazio mota lan kalifikatuak egiten dituzten unibertsitarioarena da —ez teknikoak ezta administratiboak ere—. Kasu horretan, prestakuntza eta enpleguaren arteko desoreka mota horrek eragindako landunen kopurua 1999-2007 aldian % 101 hazi da. Bereziki deigarria da egoera horien hazkundera 2003-2007 laurtekoan, aldi horretan biltzen baita 1999-2007 aldian gertatutako hazkunde absolutuaren % 64,5.

Bestalde, 1999-2007 aldian % 52,1 igo da honako azpiokupazio mota honetan okupatutako lagun kopurua: administrari laguntzaile postuak LH II-ko edo unibertsitateko ikasketa kalifikatuak dituztenek gauzatutakoa, hain zuzen ere. Aurreko kasuan ez-bezala igoera modu homogeneoan banatzen da laurteko bakoitzean, hau da, 2003-2007 laurtekoan % 50,7 eta 1999-2003 laurtekoan % 49,3 enplegu ez kalifikatuetan azpiokupatutako langile tituludunen egoerari dagokionez, bilakaera zertxobait desberdina da, izan ere, 2003-2007 aldian kopuruaren jaitsiera txiki bat ikus daiteke. Kasu horretan, dena den, 1999ko kopuruarekiko % 42,3ko igoera izan da, 1999-2003 aldian gertatutako prestakuntza eta enpleguaren arteko desorekaren igoera handiaren ondorioz.

Baina ezin dugu aipatu gabe utzi honako hau: 1995-1999 aldian, lanpostu ez-kalifikatuei zegokien desorekari dagokionez, asko murriztu zen desoreka horren eraginpeko biztanleria landunaren kopurua. Eta 1999-2007 aldian igo egin den arren, 1995-2007 aldiko balantzea positiboa da orokorrean, horrelako egoeran dauden % 22,6 kasu gutxiagorekin (1995eko datuekin alderatuz). Aldiz, prestakuntza eta enpleguaren arteko gainerako desorekak etengabe eta gero eta lagun kopuru handiagoari eragin diote aipatutako hamabi urteko aldian. Termino erlatibotan, igoera bereziki handia gertatu da unibertsitarioek langile kalifikatuen enpleguak okupatzeari dagokionez (% 219,6ko igoera 1995koari dagokionez eta % 68,1 administrari laguntzaileko postuak unibertsitarioak edo LH II-ko tituludunak betetzeari dagokionez).

1. taula. Prestakuntzaren eta enpleguaren arteko distortsioak erakusten dituen biztanleria landunaren bilakaera desoreka motaren arabera (Datu absolutuak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-tan)

Desoreka mota	2007	2003	1999	1995	Hazkundera % 2007/1999	Hazkundera % 2007/1995
Adm. Lag./Unib. edo LH II	56.157	46.392	36.909	33.399	52,1	68,1
Enp.kalifikatuak/Unibertsitarioak	33.082	22.351	16.457	10.350	101,0	219,6
Enp. ez-kalifikatuak/Tituludunak	40.380	40.522	28.367	52.368	42,3	-22,9
GUZTIRA	129.619	109.266	81.733	96.117	58,6	34,9

Iturria: BAKI 2007

BAKIaren datuek erakusten dutenez, titulazio-maila handienak presio egiten ari dira oraindik ere, teoriarik bederen, titulazio-maila txikiagoko pertsonak bete beharreko lanpostuetan. Prestakuntza eta enpleguaren artean erabateko doikuntza gertatuko balitz, lortutako maila goragoko titulazioari dagokiona baino beheragoko enpleguetara jotzeko aukerarik gabe, 2007an ikusitako ez-okupazio tasa potentzialki agian % 5,5era eroriko litzateke lehen mailako ikasketak edo ikasketarik gabekoak biltzen dituen aktiboen artean, % 7,7ra bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenen artean, eta LH I daukatenen artean ezerezean geldituko litzateke. LH II-ko tituludunen artean okupaziorik ezaren tasa pixka bat jaitsiko litzateke agian (% 4,9tik % 5,6ra). Inpaktua, aldiz, erabakigarria izango litzateke unibertsitateko tituludunen artean, ez-okupazio tasa potentzialki haziz % 5,8tik 30,1era⁵.

Unibertsitate-titulua duen biztanleriaren desokupazio-tasa potentziala egonkor atxikitzen da epe luzera, maila oso handitan gainera, 1,7 puntuko beherakada eskasarekin azken zortzi urteetan: 1999an % 31,8, 2003an % 30,8 eta 2007an % 30,1. Hori guztia ikusita, argi geratu da egiturazko arazoak oraindik ere hortxe daudela eta modu aktiboan jarduten ari direla hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean, krisialdia dela-eta ikusitako egiazko langabezia-tasak eta ez-okupazioko tasak murriztearekin loturiko itxurazko hobekuntza gorabehera. Zifra horiek argi adierazten dute 2007an dagoen benetako eskaerari erantzuteko ez dagoela nahikoa lanpostu-eskaintza, ikasketa-mailaren arabera, desokupazio-tasa potentzialak gora eginez, bigarren mailako tituludunen artean (kalifikatuak nahiz kalifikatu gabeak) bereziki, eta are garbiago oraindik, LH II eta unibertsitateko tituludunen artean.

⁵ Biztanleria potentzialki aktiboa aintzat hartuz gero, diagnosia ez litzateke aldatuko. 2003an ikusitakoaren aldean, 2007an, aktiboak eta aktibo potentzialak elkarrekin aintzat hartuz ere, langabezia potentzialaren tasak ezerezean jarraituko luke ikasketa kalifikaturik gabeko biztanleen artean. LH II-ko kasuan tasa % 5,6tik 8ra igoko zen, unibertsitateko ikasketak dituzten biztanleen artean, oinarrian, berdinari eutsiko liokeelarik (% 30,6 eta % 30,1 biztanleria aktiboa bakarrik aintzat hartzean).

Alabaina, langabezia eta potentzialki lan egiten ez dutenen zenbatekoek adierazten duten errealitatea ilundua geratzen da honako honekin: prestakuntza-maila handieneko biztanleriaren zati bat kalifikazio txikiagoko lanpostuetan sartzea, beste kolektiboen langabeziako eta ez-okupazioko maila errealetan modu negatiboan eragiten baitu horrek, batik bat, lehen mailako edo bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenen artean.

2. taula. Ez-okupazio potentziala eta egiazkoa, heziketa-mailaren arabera. Biztanleria aktiboa
(Datu absolutuak eta tasak, %-tan)

Prestakuntza-maila	Ez-okupatu egiazkoak	Ez-okupatu potentzialak	Ez-okupazio tasa, egiazkoa 2007	Ez-okupazio tasa, potentziala 2007	Ez-okupazio tasa, potentziala 2003	Ez-okupazio tasa, potentziala 1999
Ikasketarik gabe-Lehen mailakoak	16.822	-23.557	5,5	-7,8	-3,4	9,7
Bigarren mailako ez-kalifikatuak	16.450	-16.289	7,7	-7,6	2,2	12,9
LH II	9.815	11.192	4,9	5,6	15,4	17,9
Hirugarren mailakoak	17.033	88.774	5,8	30,1	30,8	31,8
GUZTIRA	60.120	60.120	5,9	5,9	9,3	16,8


Iturria: BAKI 2007

Ez-okupatu potentzialak = (Egiazko ez-okupatuak + Okupatutako beheragoko mailako postuak – goragoko prestakuntza-maila dutenek okupatutako postu propioak)

1995. urtean, generoen artean halako oreka bat bazela esan daiteke, baina 1999. urtetik aurrera emakumeei nabarmen gehiago eragiten die azpiokupazioaren problematikak (2007an % 59 da emakumezkoen proportzioa eta gizonezkoena, aldiz, % 41). Izan ere, emakumeen % 19,1ek horrelako arazoren bat dute, eta intzidentzia gizonetan, aldiz, % 9,6ra murrizten da. Emakumezkoen biztanleria landunaren barruan, adierazgarria da arazoaren inpaktua familia-erantzukizunak dituen biztanlerian. Azpiokupazioaren inpaktua kontuan harturiko emakumeen % 17,7ra iristen da, etengabeko hazkundera 1999ko % 12,7tik eta 2003ko % 15,7tik abiatuta.

Bestalde, datuen arabera, gazteek arazo handiagoak izaten dituzte. Horrela, 40 urtetik beherakoak dira eraginpekoen % 62,5. Desoreken inpaktu erlatiboa adin-talde horren % 17,5eraino iristen da, hori ere gorakada nabarmenean 1999ko % 14arekin eta 2003ko % 16,5arekin alderatuta. Adieraztekoa da, dena den, egoera horretan dauden 40 urtetik gorako pertsonen proportzioa nabarmenago hazten dela kontuan harturiko aldiari, 1999ko guztizkoaren % 22,5etik 2003ko % 28,4ra eta egungo % 37,5era igarota.


46. grafikoa. Azpiokupazioaren inpaktuaren bilakaera (%-tan). EAE



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Kualifikazio Inkesta 1999, 2003, 2007. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Termino orokorragotan, eta epigrafe honen ondorio gisa, azpimarratzekoa da azpiokupazioaren arazoak EAEko etxekoek unitateetan duen inpaktua garrantzitsua dela, horien % 15,7 batekin titularren prestakuntza-mailarekin erabat doitzen ez den enpleguren batekin eta beste % 1,8 batekin horrelako bi enplegu edo gehiagorekin. Oro har, 2007an 138.639 etxekoek unitate inguruk egin behar zioten aurre gai horri, hau da, guztizkoaren % 17,4k.

47. grafikoa. Azpiokupazio-arazoren bat duten etxekoek unitateen %-a. EAE



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Kalifikazio Inkesta 2007. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



1.4. 2008ko krisialdia

2010eko euskal familien egoera argi eta garbi dago 2008an hasitako krisialdi ekonomiko eta finantzarioaren inpaktuaren eraginpean. Enpleguaren eta okupazioaren ikuspuntutik, ez dago zalantzarik finantza-krisialdiak okupazio- eta langabezia-mailetan izandako inpaktua 2008ko bigarren seihilekoaren ondorengo aldiaren ezaugarri dela Euskadin. Urte horretako hirugarren hiruhilekoan % 3,5ean atxiki ondoren, Biztanleria Jardueraren Araberako (BJA) Inkestaren datuen arabera, langabezia-tasa gorantz hasi zen 2010eko lehen hiruhilekoan % 8,9ra iristeraino. Erreferentziazko data horretan, 91.800 ziren Euskadin zeuden langabeak, iturri horren arabera.

Langabeziaren zifren inguruan estatistika-iturrien artean ikusitako desorekak direla-eta⁶, interesgarriagoa da balioztatze aldera arazo metodologiko gutxiago eragiten dituen aldagai bat aztertzea, hots, okupazioari edo enpleguari buruzkoa. BJAren datuen arabera, 2007ko lehen hiruhilekoan okupaturiko 990.100 pertsonako zifratik 2010ko lehen hiruhilekoan izandako 942.600 pertsonen zifrara jaisten da okupazioa. Kontuan harturiko aldian, bere okupazio-mailaren % 4,8 galtzen du EAEk (% 7 BAIaren arabera). LMEaren datuek, kasu honetako 2007ko eta 2009ko laugarren hiruhilekoari buruzkoek, erakusten dute, bestalde, % 3,9ko beherakada, biztanleria landuna 974.400 pertsonako zifratik 936.519ko zifra jaitsita.


1.4.1. Krisialdiaren sektore-inpaktua: industrian eta eraikuntzan kontzentraturiko krisialdia, finantza-krisialdiaren aurreko jatorriarekin

Datu erabilgarriek lehenik erakusten dutenez, okupazio-galera ia orokorra da euskal ekonomia osoan. Dena den, aldeztu aurretik nabarmena da arazoaren erdiko gunea bi produkzio-sektore zehatzi dagokiela, industria eta eraikuntza. Izan ere, 2007ko laugarren lauhilekoaren eta 2010eko lehenengo lauhilekoaren artean ikusitako okupazio-galeren % 88,7 bi sektore horiei dagokie soilik, eta proportzio hori % 96,1era igotzen da zerbitzutakoak ez diren sektore guztiak kontuan hartuz gero, nekazaritza eta arrantza ere barnean hartuta, horrenbestez. Zerbitzuetan, komunitatearentzako zerbitzuei ez dagozkien adarrek % 3,9ko ekarpena egiten dute okupazioaren beherakadari gagozkiola. Komunitatearentzako zerbitzu handiek soilik (Administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuek) lortzen dute krisialdiaren ondorioen eraginpetik kanpo geratzea. Izan ere, dagokien okupazio-maila % 4,5 hazi da aldian.

⁶ Langabezian dauden pertsonen kopurua, 2010eko lehen hiruhilekoan, 91.800, 113.700 edo 136.985 inguru da, BJAren datuak, BAIarenak edo INEMen bulegoetan izandako langabezia kontuan hartzen baditugu, hurrenez hurren.

Garrantzitsua da halaber azpimarratzea, dena den, Euskadin enpleguarekin eta okupazioarekin loturiko arazoak 2008ko finantza-krisialdia baino lehen agertzen direla. 2001-2007 aldiko okupazio-datuak aztertuz gero, *grosso modo* ikus daiteke biztanleria landunaren hazkunde-tasen murrizketa 2005. urtetik aurrera hasi zela, eta edozein kasutan ere, 2008ko krisialdi ekonomiko eta finantzarioa hasi baino lehen.

48. grafikoa. Okupazioaren bilakaera Euskadin BJAren/LMEaren eta BAIaren arabera (milakotan)



Iturria: BAI, EIN, BJA, Eustat eta LME, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Okupazio-tasen eta haien sektore-inpaktuaren bilakaerek honako elementu interesgarri hauek uzten ditu agerian:

- Enplegua sortzeko ahalmenaren geldotzea 2005. urtetik aurrera;
- Eraikuntzaren sektorearen enplegua sortzeko ahalmenaren beherakada nabarmena 2006. urtetik aurrera;
- Okupazioaren hazkundera industriaren sektorean 2006-2007 aldian, ia esklusiboki metalaren azpisektoreari zor zaiona eta azkar batean okerragotu dena 2008an eta 2009an;
- Eta, horrenbestez, epe luzerako hazkundera, azkenik komunitatearentzako zerbitzuetara mugaturikoa (hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak).

Izan ere, aurkezturiko datuak aurkeztuta, egiazta daiteke okupazio-hezkundeak atxikitzeke joera komunitatearentzako zerbitzuetan izan duela soilik, eta okupazioak oraindik ere gora egin du 2007ko laugarren hiruhilekotik aurrera Administrazioako, Hezkuntzako, Osasuneko eta Gizarte Zerbitzuetako adarretan, eta horrek aldaketa nabarmena dakar azken urteotako enplegua sortzeko adarren profilean. Komunitatearentzako zerbitzuek soilik atxikitzen orain arte beren joera hedakorra okupazio-terminotan eta eusten diote krisialdiaren inpaktuari.

Datu erabilgarriek adierazten dute, bestalde, okerrekoa dela egungo egoera gehienbat egonkorra den errealitate ekonomikoaren gaineko finantza-krisialdiaren inpaktu koiuntural baten emaitzatzat hartzea. Aitzitik, krisialdi horrek sektore baten gain jarduten du batez ere, industria-sektorearen gain, mende-hasieratik arazoek estrukturalki eraginpean harturikoaren gain, okupazio-hazkundeko bere ahalmena mugatzeaz aparte orduko enplegua sendotzearen beraren mugak ere adierazten zituzten arazoek.

1.4.2. Okupazioaren beherakadaren azpian dauden faktoreak

Okupazioaren beherakadaren azpian dauden faktoreak bi dira gehienbat: alde batetik, finantza-krisialdia eta kanpo-finantzaketa baliatzeko mugak; bestetik, arazo estruktural jakin batzuk, hala nola lehiakortasuna areagotzea, eskaria gutxitzea edo produkzio-ahalmena gehitzea.

a) Finantza-krisialdia

2008aren amaieran, LME-Eskariaren arabera EAEen zeuden 191.233 establezimenduetako 39.324k finantzaketa- edo diruzaintza-arazoren bat izan zuten, establezimendu guztien % 20,6k, hain zuzen ere. Establezimendu horietako enpleguei dagokienez, inpaktua askoz ere handiagoa da: EAEko enplegu guztien % 29,5 finantzaketa- edo diruzaintza-arazoak zituzten produkzio-zentroei lotuta zegoen. Krisialdiaren hasieran zeuden enpleguen zati erlatiboki garrantzitsu bat jartzen zuen arriskuan finantza-krisialdiak. 2008ko azken hiru hilabeteetan 17.101 establezimenduk adierazten zuten, orduko finantza-zailtasunek zuzeneko lotura zuten establezimendu horietako enpleguak galtzeko arriskuarekin. Zentro horiek EAEko guztizkoaren % 8,9 ziren, eta Euskadi osoan genuen enpleguaren % 11,3 hartzen dute.

Establezimenduek adierazitakoaren arabera desagertzeko arriskuan zeuden lanpostuen kopurua 44.632 zen, hots, 2008ko amaieran finantzaketa- edo diruzaintza-arazoak zituzten establezimenduetan orduan zeuden enpleguen % 43,6, hain zuzen ere. EAEko guztizko



enpleguari dagokionez, urte horretako azken hiru hilabeteetan zegoen enpleguaren % 4,9 desagertzeko arriskuan egongo litzateke.

b) Egitura-arazoak

Eraikuntzan dagoen arrisku konparatiboki handiagoa gorabehera, arestian adierazi denez, enplegu-galeraren zati handiena industrian kontzentratu da, krisialdiaren inpaktua uste baino handiagoa izan baita egiaz. Horren arrazoia zera da, aldez aurretik egitura-faktoreak zeudela, indartsu jardun dutenak finantzaketako zailtasun gehigarrien testuinguru batean. EAEko 5 enplegu baino gehiagoko establezimenduetatik bilduriko informazioan oinarrituta, LME-Eskariak agerian uzten du faktore horiek lehiaren handiagotzearekin eta eskariaren murrizketarekin, salmenten beherakadarekin, globalizazioaren inpaktuarekin edo gehiegizko produkzio-ahalmenarekin daudela lotuta.

- Lehiaren handiagotzea eta eskariaren murrizketa Finantzaketa-arazo esanguratsuak zituzten zentroen kasuan, produkzio-zentro horietako arduradunen % 66,1ek aipatu bazituen ere finantza-zailtasunak jardueraren funtsezko faktore mugatzaile gisa; kasu horretan ere eraginpeko zentroen proportzioa nabarmena zen, % 53,7, lehia handitzeari dagokionez. Handiena % 80,6 da, eta eskariaren murrizketari zegokion. 2008ko krisialdiaren egitura-dimentsioa are nabarmenago ageri da finantza-arazo esanguratsurik gabeko zentroen egoera kontuan hartuz gero. Kasu horretan, zentroen apenas % 5,6k aipatzen zuen finantza-problematika enpresa-ereduaren martxaren elementu mugatzaile gisa, eta lehiaren handiagotzea aipatzen zuten zentroen proportzioa, berriz, % 45,9ra iristen zen; proportzio handiena % 55,3 zen, eta eskariaren murrizketaren inpaktua nabarmentzen zuten zentroei zegokien.
- Salmenten beherakada Autonomoak ez diren establezimenduetako arduradunei langile berriak kontratatzeke aurre egin beharreko zailtasun nagusiak identifikatzea planteatzen zitzaizenean, 2008an gehien aipatutakoa salmenta handiagotetarako aurreikuspenik eza zen, hain zuzen ere. 2004an, zentroen % 28,7an aipatzen zen arrazoi hori eta, aldiz, 2008an, zentroen % 54,4an. Horrela, faktore horrek 2000. urtean betetzen zuen funtzio negatiboa berreskuratu zen, urte horretan enpresaburuen % 49,2k aipatu baitzuen.
- Goranzko produkzio-ahalmena. Salmenten joera beheranzkoa izanik ere 2008an, euskal establezimenduen produkzio-ahalmenak goranzko bidea hartu

zuen. 2008ko datuek erakusten zutenez, produkzio-ahalmenaren murrizketa zentroen % 7,6k baino ez zuen izan. Establezimenduen % 43an, aldiz, gora egin zuen zentroen produkzio-ahalmenak.

Datu erabilgarriak adierazten dutenez, finantza-krisialdiak horrenbesteko inpaktua izan badu lehiari eta eskariaren murrizketari loturiko zailtasunek argi eta garbi markaturiko errealitate baten gain jardun duelako izan da. Halaber, datuek agerian uzten dutenez, prozesu horiek zuzeneko lotura handia dute ekonomiaren globalizazioarekin zerikusia duten aldaketekin. Ildo horretan, azken urteotan euskal establezimenduen aurreikuspenek nabarmen okerrera egin dutela ikus daiteke. 2008an, askoz handiagoa izan da ekonomiaren globalizazioaren inpaktua modu negatiboan ikusten duten zentroen proportzioa: % 28,2; % 8,1ek, berriz, modu positiboan ikusten du. Gainerako % 34,4arentzat eragin hori neutroa izan da (% 29,3k ez daki prozesuak nolako eragina izango duen).


Horregatik, epe luzean duela gutxiko bilakaerak kalte gehien egin dion sektorea industria izatea ez da harritzekoa, eraikuntzak egoeraren arabera inpaktu handiagoa izan duela alde batera utzi gabe. Izan ere, industria-sektoreak kanpoko lehia jasateko arrisku handiagoa du. Hortaz, euskal produkzio-zentroei globalizazioak dakarkien erronka garrantzitsuen adierazgarri dira datu horiek.

1.4.3. Beren okupazio-mailak galdu dituzten talde nagusiak

2008ko finantza-krisialdiaren ondorengo okupazio-krisialdiaren alderdi deigarrienetako bat okupazio-galeren izaera guztiz selektiboa da.

LMEaren datuak erreferentziatzat hartuta, lehenik azpimarratzekoa da okupazio-beherakadak bi biztanle-kategoria handitan kontzentratzen direla, egoera sozio-profesionalaren ikuspegitik. Alde batetik, biztanleria autonomo eta familia-laguntzetan okupaturikoa, eta, bestetik, kalifikazio gabeko langileak. Beste datu erabakigarri bat da enpleguaren beherakada aldi baterako kontratua duten edo kontraturik ez duten pertsonetan kontzentratzen dela, soldatapeko biztanleriaren barruan. Kasu horietan, % 38,7 murrizten da okupazioa 2007-2009 aldian. Termino sozio-demografikotan, okupazioaren beherakada 40 urtetik beherako biztanlerian kontzentratzen da ia osorik, bere okupazio-mailak % 30,2an murriztu zaizkiola ikusten duen biztanlerian.

49. grafikoa. Okupazioaren beherakadaren %-a 2007-2009 aldian talde jakin batzuetan. EAE




Iturria: LME 2007 eta Aurrerapena 2009. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Okupazio-beherakadak kategoría sozial eta profesional oso zehatz batzuetan duen kontzentrazio handiak kontrapuntutzat du aldi horretan okupazioaren hobekuntza gertatu izana talde sozial eta profesional gehienetan, oso esanguratsuak diren zenbait barne, hala nola kontratu mugagabea duen soldatapeko biztanleria. Esan ere esan daiteke okupazio-mailen hobekuntzak tradizionalki behartsuak izan diren zenbait kolektibo ere hartzen dituela eraginpean. Puntu horri buruzko gauzarik esanguratsuen generoaren arabera datuen bilakaera da. Gauzak horrela, gizonek beren okupazioaren % 9 galtzen dute 2007-2009 aldian, eta emakumezkoen okupazioa, aldiz, % 3,3 hazten da. Kolektibo horren barruan, bereziki deigarria da familia-erantzukizunak dituzten emakumeen artean ikusitako okupazioaren hazkundera, baita etxeko unitateko pertsona nagusiari edo haren ezkontideari dagokien ere. Okupazioa % 13,4 hazten da kasu horretan kontuan harturiko biurtekoan. Pentsatzekoa da, zentzu horretan, familia-erantzukizunak dituen emakumeen laneratzeko aukera edota premien gorakada izango dela, eta horrek premia gehigarri batzuk planteatzen ditu zalantzarik gabe, familia eta lana uztartzeko politiken ikuspuntutik begiratuta.

Adieraztekoa da, bestalde, termino garbitan, krisialdiari loturiko okupazioaren beherakada ia zati berdinetan elikatzen dela familia-kargak dituzten pertsonekin (2007-2009 aldian beren enplegua galdu duten pertsonen % 52 ordezkatzen dute) eta kargarik ez dutenekin.

50. grafikoa. Langabeziaren 2007-2009 aldiko hazkunderaren banaketa pertsona motaren arabera etxeko unitatean familia-erantzukizunak edo erantzukizun nagusia (EN) ote dauden eta adina (%) kontuan izanda.



Iturria: LME 2007 eta Aurrerapena 2009. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



2. ETXEBIZITZA ESKURATZEKO PROZESUAK


Etxebizitza eskuratzeko prozesuetan ikusitako aldaketak hartzen dira kontuan azterlanaren atal honetan. Azterketaren elementu nagusia bi gai espezifikotan sakontzea da: etxebizitzari loturiko gastuekiko mendetasun handiagoa eta etxebizitza eskuratzearen garestitzea eta hura mantentzea.

Adierazitako aldaketen inpaktu soziala da atalaren bigarren ardatza, eta zehatz-mehatz aztertzen da goranzko etxebizitza-gastuek duten inpaktua kolektibo ekonomikoki behartsuenetan, baina baita *a priori* diru-sarrera nahikoak dituzten zenbait talde sozialetan ere.

2.1. Etxebizitza gastuekiko mendetasun handiagoa

Etxebizitzaren merkatuak azken 25 urteetan izan duen bilakaerak areagotu egin du Euskadin familia askorentzat ondasun ekonomiko hori eskuratzeko dakarren arazoa. Izan ere, mende berriaren lehenengo hamarkadan izandako aldaketa sozial eta ekonomiko handietako bat etxebizitzaren alokairuarekin edo harekin loturiko maileguen amortizazioarekin loturiko gastuei aurre egin beharreko pertsonen proportzioaren bilakaerari lotzen zaio. 1986ko % 31,2tik 1996ko % 23,5era jaitsi ondoren, ordutik aurrera etengabe hazi da beren etxebizitza-premiak betetzeko alokairu eta hipoteken ordainketaren mende duden pertsonen proportzioa. Proportzioa oraindik ere % 26,7 zen 2000. urtea, eta 2008an iritsi zen maila handienera (% 41,7), EAEen inflazioak zuen goranzko presioak deigarria izaten jarraitzen zuen aldian, hain zuzen ere. Aldaketa-prozesu horrek ondorio nabarmenak izan ditu, hala nola etxebizitza-gastuen inplikazioak etxekoen unitateen ongizate-mailetan.

51. grafikoa. Biztanleriaren bilakaera etxebizitza-gastuek dituzten etxekoen unitateetan (alokairua/amortizazioa). %-tan.




Iturria: PGDI

2.2. Etxebizitza eskuratzeko kostua

Etxebizitza eskuratzeko kostuaren gorakada egiaztatzeko baliagarria den alderdietako bat ondasun hori baliatzeko ahalegin-tasa kontuan hartzea da, hainbat inkestatan —hala nola PGDIan— espezifiki kontuan harturiko adierazlea. Estatistika-eragiketa horretan, etxebizitzaren kostuari aurre egiteko etxekoen unitateek egiten duten ahalegin-tasa garbia kalkulatu da, honako hauek kontuan hartuta: alokairuaren, amortizazioen eta interesen gastuek, komunitateko gastuek, udal-tasek eta energia-gastuek diru-sarrera erabilgarrien gainean duten garrantzia⁷. Datu orokorrek hazkunde nabarmena agertzen dute adierazlean mende berriaren lehenengo urteetan. Horrela, 1996-2000 aldian % 9,7tik % 9,2ra jaitsi ondoren, ahalegin-tasa % 11,5era igaro zen 2004. urtean eta % 14,2ra 2008an.

Logikoki, hazkunde horrek oso modu desberdinean hartzen ditu eraginpean etxekoen unitateak etxebizitzarekiko duten egoeraren arabera, eta hori horrela, ahalegin-tasa horren hazkundera argiago ikusten da hipoteka estaltzeko duten etxebizitza jabetzan daukaten etxekoen unitateetan. 1996-2000 aldian % 22,8tik % 20ra jaitsi ondoren, ahalegin-tasa % 22,8ra igo zen berri 2004an, azkenik 2008an % 25,1era iristeko. Baina alokairuetan ikus daiteke aldaketa nagusia: ahalegin-tasa jaitsi egin zen halaber 1996-2000 aldian, % 18,7tik % 17,1era murriztuta. Dena den, gorakada oso indartsua izan da, 2004an % 22,5era eta 2008an % 28ra iritsita.

52. grafikoa. Etxekoen unitateen ahalegin-tasaren bilakaera etxebizitzaren kostuari aurre egiteko edukitze-erregimenaren arabera (%-tan)




Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta PGDI

Etxebizitza-gastuak ongizatea lortzeko bidean faktore mugatzaileak dira, eta hori ere azter daiteke guztizko gastuen % 30 baino gehiago etxebizitzarekin lotutako gastuetara bideratzen duten etxeetan bizi diren herritarren proportzioaren bitartez. Ahalegin-tasak bezalaxe, adierazleak % 6,9tik % 5,6rako beherakada islatzen du 1996-2000 aldian, 2000. urtetik aurrera izandako hazkunde nabarmenarekin orekatutakoa, 2008an % 15,2ra iritsita.

Ikusi dugunez, aztergai den arazoaren ardatz nagusia alokairuko eta jabetza hipotekatuko egoerak dira. Azken kasu horretan, eraginpean harturiko pertsonen kasua 2000an % 19,3 izatetik 2004an % 26,6 eta 2008an % 32,8 izatera igaro zen, nahiz eta azken zifra hori 1996ko % 29,3 handiarekiko erlatiboki hurbilekoa izan. 1996-2000 aldian % 23,4 % 20,2ra murriztu ondoren, erreferentziazko proportzioa 2004ko % 35,5era eta 2008ko % 46,2ra hazi zen.

⁷ Adierazle garbiaren kalkuluan, etxekoen unitatean bizi diren lagunen baterako diru-sarrerak hartzen dira kontuan.

53. grafikoa. Beren diru-sarreraren % 30etik gorako etxebizitza-gastuak dituzten etxekoen unitateetako pertsonen bilakaera edukitze-erregimenaren arabera. (%-tan)




Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta PGDI

Etxebizitza-gastuen garrantzi bereizgarriaren hazkundeak oinarritzko gastuen (etxebizitza, elikadura, jantziak eta abar) garrantziaren gehikuntza dakar guztizko gastuaren egiturari 2000. urtetik aurrera. 2000-2004 aldian, izan ere, oinarritzko gastuek guztizko gastuan zuten proportzioa handitu egin zen pobrezia-ongizate eskalaren posizio guztietan, etxekoen unitate fabrikatuen kasua barne. Joera hori sendotu egin zen 2004-2008 aldian. Gauzak horrela, oinarritzko gastuei dagokien guztizko gastuaren proportzioa % 34,4tik % 41,7ra igaro zen 2000-2008 aldian ongizate-egoeran zeuden pertsonen kasuan. Igoera % 54,8tik % 59,6ra da ongizaterik ez dagoen pertsonen artean. Etxebizitzaren gastuen prezioa nabarmenago ikusten arrisku-pobrezian dauden kolektiboen kasuen mantenu-dimentsioan. Kasu horretan, pertsonen guztizko gastuan oinarri-oinarritzko premiak betetzeko gastuaren proportzioa 2000. urteko % 61,8tik 2004ko % 65,4ra eta 2008ko % 71ra igaro zen. Prestasun ekonomiko erlatibo txikiagoa adierazten du horrek hain oinarritzkoak ez diren elementuetan gastatzeko, hala nola aisialdia eta astialdia.

Adierazitako bilakaera ez dator bat 1986-1996 aldian ikusitako joerarekin; izan ere, aldi horretan oinarritzko gastuek guztizko gastuan duten garrantziaren eskalako posizioetan beharokada handiak egon ziren. 1996-2000 aldian ere joera horri eutsi zitzaion, baina testinguru horretan ere azkenaldiko norabide-aldaketa ikus zitekeen. Etxebizitzan –oinarritzko gastuen osagai bat– egindako gastuaren gorakadak azaltzen du neurri handi batean aintzat

hartutako adierazlearen azkenaldiko dinamika. Horren haritik, etxebizitza-gastuen gorakada gainerako gastu-partiden oso gainetik kokatzen da.

54. grafikoa. Oinarrizko gastuek guztizko gastuetan duten garrantziaren bilakaera posizio ekonomikoaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: PGDI 2000, 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

2.3. Etxebizitza-gastuen inpaktua

2.3.1. Inpaktu bereizgarria kolektibo behartsuenetan


Oinarrizko gastuek guztizko gastuan duten garrantziaren hazkundeari buruzko datuak eragin nabarmenagoa du, aurreko atalean egiaztatu denez, pobrezia-arriskuan dauden kolektiboetan. Izan ere, etxebizitza-gastuen ohiko ezaugarria da talde behartsuenetan duten inpaktu bereizgarria, taldeetako gastu-mailaren nolabaiteko homogeneotasunari loturiko zirkunstantzia, betiere talde bakoitzak pobrezia-ongizate eskalan duen posizioaren arabera. Ildo horretan azpimarratzeko datu bat da, gastu motak kontuan hartzean normalean kontuan hartzen denaren aurka, kolektiboen artean pobrezia - mantenu-ongizate eskalan duten posizioaren arabera ikusitako aldeak nabarmen gutxitzen direla etxebizitza- eta energia gastuei dagokienez.

PGDIak ematen dituen datuen arabera, 2008an egiaztatzen da talde pobrenek egoera hobean bizi direnek gastatzen dutenaren % 86,9 gastatzen dutela etxebizitzan, eta ongizaterik ezeko arazoak dituzten pertsonen dagozkien portzentajezko zifrak % 70,7 inguru dira. Horrela, etxebizitza-gastuak salbuespena dira erregela batekiko, hots, pobrezia-ongizate eskalan posizioa hobetzen den neurrian per capita gastuaren mailek hazkunde nabarmena izaten

dutela. Inplikazioak funtsezkoak dira: lehenik, ahalegin-tasa nabarmen hazten da etxebizitza eskuratzeari dagokionez etxekoen unitateen maila ekonomikoa jaisten den neurrian. Ongizate-egoeran dauden etxekoen unitateen batez besteko ahalegin-tasa % 13,4 da, baina % 22,2ra igotzen da ongizaterik ezeko arrisku-egoeran dauden etxekoen unitateetan, eta % 33,4ra mantenu-pobreziako arriskuaren eraginpean dauden artean.

Etxebizitza-gastuen gero eta karga handiago hori maila ekonomikoak behera egiten duen neurrian, edukitze-erregimena edozein izanda ere ikus daiteke. Dena den, arazoaren larritasuna maila gorenera iristen da etxebizitza alokatua edo guztiz ordaindu gabeko jabetza-erregimenean duten eta arrisku-egoeran dauden etxekoen unitateetan. Ongizaterik ezeko arrisku-egoeran dauden etxekoen unitateen kasuan, batez besteko ahalegin-tasak, orduan, % 40 gaingitzen du (% 40,3 alokairuaren kasuan, eta % 42,2 ordaindu gabeko jabetzaren kasuan). Hala ere, pobreziako arrisku-egoeran dauden etxekoen unitateen kasuan, maila hori % 50era hurbiltzen da edo hori gaingitzen du (% 57,6 eta % 47,7, hurrenez hurren). Ongizaterik ezeko arrisku-egoeran ez dauden etxekoen unitateetan ikusten dena ez bezala, etxekoen unitate pobreetan karga handiagoa izan ohi da edukitze-erregimena alokairua denean.

55. grafikoa. Etxekoen unitateen ahalegin garbiko tasa etxebizitza-gastuei aurre egiteko posizio ekonomikoaren eta etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera (%-tan)




Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta PGDI

Kolektibo behartsuenentzako etxebizitza-gastuen inplikazioa horrelako gastuetarako beren diru-sarreraren % 30 baino gehiago bideratzen duten etxekoen unitateetako pertsonen proportzioan ere sumatzen dira. Horrela, mantenu-alorrean ongizate-egoeran dauden etxekoen unitateetan erreferentziazko proportzioa bertan bizi diren lagunen % 30-35 tartean mugitzen da, baina etxekoen unitate gehienek arazoari aurre egin behar diote horiek pobreziako edo

ongizaterik ezeko arrisku-egoera batean daudenean. Kasu honetan, zifrak % 70-85 tartean mugitzen dira, edukitze-erregimenaren arabera eta ongizate-gabeziako arazoaren larritasunaren arabera.

Hortaz, egiaztatu da etxebizitza-gastuak funtsezko presioa egiten duela pobreziako edo ongizaterik ezeko arrisku-egoeran dauden etxekoen unitate gehienek gainean, alokairuko edo guztiz amortizatu gabeko jabetza-erregimeneko egoeretan bizi direnean. Etxekoen unitate horietan, etxebizitza-gastuek, argi eta garbi, oinarrizko gainerako premiei modu erosoagoan aurre egiteko aukera baldintzatzen dute. Adierazitako joeren ondorioz oinarrizko gastuek gero eta eragin handiagoa dute euskal biztanleriaren gastuen egituran, posizio ekonomikoak behera egiten duen neurrian.

56. grafikoa. Beren diru-sarreraren % 30etik gorako etxebizitza-gastuak dauzkaten etxekoen unitateetako pertsonak posizio ekonomikoaren arabera (%-tan)



Iturria: PGDI 2008

2.3.2. Inpaktua teorikoki nahikoak diren diru-sarrerak dauzkaten kolektiboetan

Etxebizitza-gastuen hazkundeak ez ditu soilik talde behartsuenak eraginpean hartzen. Etxebizitza eskuratzearekin loturiko alokairuko eta hipoteka-amortizazioko gastuek *a priori* pobrezia-errealitateetatik, eta baita ongizaterik ezeko errealitateetatik ere, urrun dauden kolektiboetan duten inpaktua kontuan hartzea egiaztatzen da hori, haien interesak ere barne.



Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organoak (EEO) 2009an gai horren inguruan eginiko hurbilketa batean egiaztatzen denez, etxebizitza-gastuen inpaktua diru-sarrera erabilgarri garbiak dituzten etxekoek unitateen % 1,4arekin gauzatzen da, gastu horiek kenduta, Diru-sarrerak Bermatzeko Erretak estalitakoek azpitik betiere. Beste % 6,7 bat Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eskuratzeko baliagarriak izan daitezkeen diru-sarreraren azpitik dago. Kasuen % 4,7an, errealitate hori gehienez % 725 €-ko alokairu- eta amortizazio-gastuei lotuta dago eta beste % 2 diru-kopuru horren gainerako gastuei.

Oro har, EAEko etxekoek unitateen % 8,1 kontuan harturiko egoeren artekoen batean dago⁸. Horietatik, guztira 49.864 etxekoek unitate leudeke benetako arrisku-egoeran, eta halakotzat hartzen dira, etxebizitza-gastuak kendutakoan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentako eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako programen esparruan arreta posiblea eragiten duten diru-sarreraren tartean barruan biltzen diren egoerak⁹. Oro har, EAEan dauden guztien % 6,3

⁸ EEOaren hurbilketa garatu da kontuan izanda zein etxekoek unitate egongo liratekeen arrisku-egoeran euren diru-sarrera normaletatik kontuan harturiko etxebizitza-gastuek kenduz gero, gizarteak berak emandako laguntzak alde batera utzita, horrenbestez. Adierazgarriagoak izan daitezkeen, aztertutako arrisku-egoerak berme-programei lotu dira, batez ere Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzei.

Horrela, *a priori* ez-arriskuko egoeratzat hartu dira —etxekoek unitateak pobrezia- eta bazterkeriaren aurka babesteko euskal sistematik alde batera uzten dituen neurrian— Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren % 150etik gorako diru-sarrera erabilgarriak. Soldata eta jornalen arabera diru-sarrerak egotea edo ez egotea hartu da kontuan, enplegurako pizgarrien sistema ere kontuan hartzeko, baita adierazitako etxebizitzari buruzko azalpenen gastu-maila ere. Horri begira, 2009an etxebizitza-gastuetarako prestaziorako (290 euro) osagarria hasiera batean aurreikusitako zifra 2,5 aldiz handiagoak edo txikiagoak diren diru-sarreraren arteko bereizketa egin da, horri begira.

Mugaturiko hurbilketan kontuan harturiko arrisku-egoerak honako hiru hauek dira:

Kontuan harturiko etxebizitza-gastuak deskontatutakoan, 2009an aplikatzeko zen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren mailaren azpitik dauden etxekoek unitateak.

Kontuan harturiko etxebizitza-gastuak kendutakoan, 2009an aplikatzeko zen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren mailaren azpitik dauden etxekoek unitateak, baina Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskuratzeko mugaren azpitik, eta gainera 725 €-tik beherako gastuak dituztenak etxebizitzaren alokairuen edo amortizazioaren kontzeptupean, gehi interesak.


Aurreko egoeran dauden etxekoek unitateak baina 725 €-tik gorako gastuekin etxebizitzaren alokairuen edo amortizazioaren kontzeptupean gehi interesak.

Egiaztatzen dena, detektaturiko kasuen % 92,6an PGDIak kolektiboa sailkatzen du mantenu-ongizateko egoeran dauden etxekoek unitate gisa, % 7,4 eskasarekin ongizaterik ezeko arriskuan, eta egiaztatzen da, horrenbestez, pobrezia- eta prekarietate-arriskuko esparruetatik urrunduriko etxekoek unitateak direla.

⁹ *A priori*, 725 €-tik beherako alokairu- eta amortizazio-gastuak dauzkaten etxekoek unitateak soilik biltzen dira, kontuan hartuta gastu-maila handiago bat ongizate-nahi baten ondorio dela, pobrezia- eta bazterkeriaren aurka borrokatzeko politiken esparruan kontuan hartu beharko ez litzatekeena. Dena den, 725 €-tik gorako gastuei loturiko zorpetze-arrisku handia kontuan izanda, kolektibo horien errealitatea ere bildu da

dira etxeen unitate horiek, 128.918 pertsonako biztanleriarekin. Ikus daitekeenez, kuantitatiboki oso esanguratsua den gizarte-arazoa da, praktikan gizarte-babeseko arau orokorren esparruan bilduta ez dagoena.

57. grafikoa. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren % 150etik gorako diru-sarrerak dauzkaten etxeen unitateen ehunekoa, diru-sarrerak bermatzeko sistema balia dezaketenak etxebizitzaren alokairu- eta amortizazio-gastuak kenduz gero. EAE



Iturria: 2008ko PGDIan oinarrituta egina


Oharra: Etxebizitzagatiko hipoteka-kredituei loturiko interesak kentzen dira.

Kontuan harturiko etxeen unitateen arrisku-dimentsioa ez dago soilik etxebizitzari loturiko mantenu-gastuei soilik lotuta, metatze-dimentsioan ere ageri dira zailtasunak etxeen unitate horietan. Horrela, etxebizitza egoki bat eta nolabaiteko segurtasun ekonomikoa bermatzen den gutxieneko ondare-maila baliatzeko mailetan nolabaiteko prekarietatea adierazten duten egoeren presentzia bikoitza baino gehiago da kontuan harturiko arrisku-taldeetan gainerakoetan baino: % 54 batetik eta % 23,3 bestetik.

Kontuan harturiko etxeen unitateetan bizi den biztanleria oso ezaugarri garbiak ditu bereizgarri. Estatuko herritartasuna duen pertsona nagusi baten laguntza behar duen biztanleria da gehienbat, lan-okupazio baten ondoriozko diru-sarrerekin, 25-44 urtekoa eta lehen ikasketen ondoko ikasketak dituen. Kasuen % 85ean familia-taldeak dira, eta azpimarratzekoa da seme-alabak dauzkaten bikoteen edo senar-emazteen zeregin nagusia (% 63,2). Arreta ematen du, gainera, arriskuan dauden pertsonen % 82,4 gutxienez okupazio egonkorra duen pertsona bat daukaten etxeen unitateei dagokie.

berehalako zorpetze-arriskua badago, egiazko edo ohiko diru-sarreraren gainetiko gastu-mailei loturiko aurrezkirik eza ezaugarritzat duena. 725 €-tik gorako etxebizitza-gastuak dituzten etxeen unitateen % 7,1 dago egoera horretan.

58. grafikoa. Arriskuan dagoen biztanleriaren oinarritzko ezaugarriak (%-tan)



Iturria: PGDI 2008

Txostenaren beste atal batzuetan egiaztatu ahalko denez, faktore bakarra ez bada ere, etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko arazo horiek funtsezkoak dira ugalketa demografikoko prozesuak eta belaunaldi berriek bizitza independente bat lortzeko duten gaitasuna aztertzeko orduan.



3. PROBREZIAREN ETA PREKARIETATE EKONOMIKOAREN INPAKTUA

3.1. Alderdi orokorrak


3.1.1. Mantenu-pobrezia eta -prekarietatearen inpaktua

Mantenu-pobrezia eta -prekarietateko adierazleak epe laburrean oinarritzko premiak (bereziki elikaduraren, etxebizitzaren, jantzien eta oinetakoen gastuekin loturikoa) betetzeko adina baliabide ekonomiko ez izateko eskasia-egoerekin lotuta daude, edo gutxieneko ongizate-mailak atxikitzeke gastu-maila bermatzeko eskasiarekin. Atal honetan Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) metodologiaren ondoriozko adierazleak, espezifikoki EAEn garaturikoak, zein maila orokorragoan erabiltzen den Eurostat metodologiaren ondoriozkoak hartzen dira kontuan.¹⁰

Erreferentzia gisa biztanleria osoa hartuta, PGDI metodoaren ondoriozko datuek 2008an mantenu-pobreziaren arriskuaren % 4,1eko intzidentzia erakusten dute. Arriskua % 14,6ra hazten da ongizaterik ezeko arazoei dagokienez, pobrezia-arriskuko Eurostat adierazleak (medianaren % 60tik beherako familia diru-sarrerak) erakusten duen % 14,8aren antzeko ehunekoa. % 40aren adierazlea baliatzen badugu, % 3,1era jaisten da zifra, pobrezia-arriskuko PGDI adierazlearen puntu bat azpitik, baina baita ere bi neurketa-metodoek eskainitako emaitzetan nolabaiteko konbergentzia erakusten duen ildoan.

¹⁰ Lehen hurbilketa adin-tarte guztientzako pobrezia-atalase desberdinak zehaztean oinarritzen da, betiere biztanleriaren pertzepzio subjektiboan oinarrituta Bigarrena pobrezia-arriskuko edo diru-sarrera txikien atalaseak batez besteko familia diru-sarrera baliokidearen ehuneko jakin batean —normalean % 60— finkatzean oinarritzen da. EAEn pobrezia neurtzeko metodologiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus: 1984-2005. *25 años de estudio de la pobreza en Euskadi* (25 urtez pobrezia ikertzen Euskadin), Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritza, 2009.

59. grafikoa. Pobreziako edota ongizaterik ezeko arriskuko adierazleak (mantenua) Intzidentzia-mailak ehunekotan. EAE




Iturria: PGDI 2008

Oharrak: Familia-etxebizitzetan bizi direnei buruzko datuak.

Pobrezia erlatiboko eta/edo ongizaterik ezeko adierazleek barnean hartzen dute kolektibo pobrea.

PGDI metodologiaren arabera, eta ikuspuntu ebolutibotik begiratuta, esan liteke ongizaterik ezeko tasei dagokienez, epe luzerako bilakaera-joerek erakusten dutela beherakada garrantzitsu bat 1986-1996 aldian, % 43,8tik % 35,4ra igarota, zehatz-mehatz Hala ere, beherakada handiena 1996-2000 laurtekoan ikusi da, azken urte horretan tasak % 25eraino jaitsi baitziren. 2004an % 24,3an kokatu ondoren, arrisku-mailen beherakada-prozesua berriz ere martxan jarri da azken laurtekoan, mantenu-alorreko ongizaterik ezaren tasa 2008an % 14,6ra iritsiz.

60. grafikoa. Ongizaterik ezeko arriskuko adierazle egokitu eta ez-egokituen bilakaera (mantenua). EAE (%)



Iturria: Gizarte Egoera Ahulei buruzko Inkesta 1986. PGDI 1996, 2000, 2004, 2008


Oharrak: Familia-etxebizitzetan bizi direnei buruzko datuak.

Ongizaterik ezaren adierazleak barnean hartzen du kolektibo pobrea.

Datu ez-egokituak birkalkulatu egin dira 1986-2000 aldirako, 2004tik aurrera sarturiko aldaketetara egokitzeko.

PGDI egokitua adierazleak ere pobrezia-tasen beherakada garrantzitsu eta jarraitua adierazten du 1996-2008 aldian. Tasa egokitua 1996ko % 9,3tik 2000ko % 6,3ra, 2004ko % 6,1era eta 2008ko % 4,1era murrizten da. Zifrek erakusten dute, dena den, 1986-1996 aldian, ez zela mantenu-pobreziaren intzidentziaren benetako beherakada gertatu, baizik eta gorakada nahiko deigarria, aitzitik: % 5,7tik % 9,3ra. Adierazitako bilakaerak, gainera, ezin du ezkutatu adierazle ez-egokituak dagokienez 2004-2008 aldian gertaturiko gorakada, arrisku-maila % 3,5etik % 4,1era igarota.

61. grafikoa. Pobrezia-arriskuko adierazle egokitu eta ez-egokituaren bilakaera (mantenua) EAE



Iturria: Gizarte Egoera Ahulei buruzko Inkesta 1986. PGDI 1996, 2000, 2004, 2008

Oharrak: Familia-etxebizitzetan bizi direnei buruzko datuak.

Datu ez-egokituak birkalkulatu egin dira 1986-2000 aldirako, 2004tik aurrera sarturiko aldaketetara egokitzeko.

3.1.2. Metatze-pobrezia eta -prekarietatearen inpaktua

Metatze-pobreziako adierazleek behar adinako bizi-mailari epe ertain eta luzean eusteko beharrezkoak diren kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko prekarietate bereizgarriko egoerak neurtzen dituzte, bereziki, etxebizitza egokia eta ongi hornitua lortzeko gaitasunari dagokionez, betiere gutxieneko bizigarritasun-arauak betez Metatze-pobreziak eta -prekarietateak epe luzerako eta ertainerako prekarietatea iragartzen du; alabaina, beste zailtasun bati ere lotzen zaio. Izan ere, hainbat etxeko unitatetan arazoak dituzte beharrezko gutxieneko ondare-baliabideak metatzeko, betiere krisialdiko edo larrialdiko egoera berezietan bizimodu normalizatu bati eustea bermatzearen eta gutxieneko segurtasun ekonomikoa eskaintzearen.


PGDI metodoak akumulazio-terminotan pobrezia-ongizate eskalan ezartzen dituen lau posizioak kontuan hartuz, lehen posizioak, muturreko prekarietateko egoera bati lotzen zaionak, 14.395 pertsona hartzen zituen eraginpean guztira, guztizkoaren % 0,7. Kolektibo hori da zentzu hertsian metatze-pobreziako arriskuan dagoena.

Bigarren taldeari dagokionez, aurreko taldean bezain deigarriak ez diren prekarietate-egoerak bizi dituzten baina EAEko etxeko unitateen batez bestekoaren oso azpitik dagoen metatze-

maila duten etxekoen unitate batzuk biltzen dira. Egoera horretan 216.769 lagun daude (guztizkoaren % 10,1).

Hirugarren taldean prekarietate-ebidentziak askoz txikiagoak dira. EAEko etxekoen unitate gehienetan ikusten direnak baino metatze-maila txikiagoak dituzten arren, edo, behintzat, metatze-arloko arazo-elementuren bat duten arren, ia erabateko ongizate-egoera batean daude, eta EAEko guztizko biztanleriaren % 20,3 dago egoera horretan. Zentzurik hertsienean ongizate-egoera bat gozatzen duen biztanleriarekin batera (guztizkoaren % 69), Euskal Autonomia Erkidegoko guztizko biztanleriaren % 89,3 biltzen dute.

62. grafikoa. Pobreziako edota ongizaterik ezeko adierazleak (metatzea).
Intzidentzia-mailak ehunekotan. EAE



Iturria: PGDI 2008


Oharrak: Familia-etxebizitzetan bizi direnei buruzko datuak.

Pobrezia- eta prekarietate-egoerek metatze-arloan duten bilakaerak 1986-1996 aldian gertaturiko aldaketa nabarmena erakusten du. Aldaketa hori, nagusiki, pobreziako arrisku-egoeren beherakada handian ikusten da, adierazitako aldian tasa % 5,6tik % 1,8ra jaitsi baita.. Hala ere, batez bestekoaren oso azpitik dauden metatze-mailak dituzten egoerek ere behera egin dute. Kolektibo pobrea barnean hartuta, adierazitako hamarkadan tasa % 17,8tik % 15,3ra jaitsi da. 1986-1996 aldian abian zegoen prozesuaren bigarren erakusgarria, prekarietate handiagoko errealitateen beherakadari zein ongizate praktikoko egoerei loturikoa, erabateko ongizateko egoeran dauden etxekoen unitateen hazkunde deigarria da, % 64,1 1996an eta % 42,5 eskas baino ez 1986an.

Hala ere, ondoko bilakaerak, bereziki 1996-2004 aldian, adierazleen mailen egonkortzea du ezaugarri nagusi gisa. Hala, batez bestekoaren oso azpitik kokatutako metatze-maila duten egoeren inpaktua % 15-15,5ean mantentzen da 1996-2004 aldian. Metatze-pobreziako egoeren kasuan, 1996-2000 aldian tasen gorakada txiki bat ere ikus daiteke, % 1,8tik % 2,6ra igo baitira. Horren ondoren tasak behera egin du pixka bat, 2004an % 2,2ra iritsiz.

2004-2008 aldiko bilakaerak aurrerapauso garrantzitsu berriak ekarri ditu pobreziaren eta prekarietatearen aurkako borrokan. Metatze-arloko prekarietate-tasa % 15,4tik % 10,7ra jaitsi da eta pobrezia-tasa % 2,2tik % 0,7ra., 1986-2008 aldiko gutxienekoak. Eskalaren goiko aldean, metatze-arloko erabateko ongizateko egoeran dauden etxekoek unitateetako biztanleriaren ehunekoak gora egin du 1996-2004 aldiarekin konparatuz gero, % 64 inguruko zifratik 2008ko % 69ra igarota.

63. grafikoa. Biztanleriaren banaketaren bilakaera metatze-pobreziarekiko.
EAE



% 0; % 10; % 20; % 30; % 40; % 50; % 60; % 70; % 80; % 90; % 100; Ongizatea; Ongizateetik hurbil; Batez bestekoaren oso azpitik; Pobrezia

Iturria: Gizarte Egoera Ahulei buruzko Inkesta 1986. PGDI 1996, 2000, 2004, 2008

Oharra: Familia-etxebizitzetan bizi direnei buruzko datuak.


3.1.3. Benetako pobrezia eta -prekarietatearen inpaktua

Orain arte kontuan harturiko mantenu- eta metatze-prekarietateko egoerak pobreziako eta ongizaterik ezeko errealitate objektibo eta potentzialak dira. Dena den, arrisku-egoerak islatzen dituzten sarritan eta ez nahitaez pobreziako benetako edo egiazko egoerak. Horrenbestez, beharrezkoa da kontuan hartzea zenbateraino bihurtzen dira egoera horiek benetako pobrezia-arazo. PGDI metodologian benetako pobrezia eta prekarietateko adierazleek honako

zirkunstantzia hauek biltzen dituzte: mantenu- nahiz metatze-pobreziari dagokionez, oinarritzko premiak betetzeko ezintasunaren arrisku-egoera dagoenean eta egoera hori ez denean behar beste konpentsatzen biztanleen eguneroko bizimoduan, betiere pobreziatik kanpo bizitzeko edo gutxieneko ongizate-mailara iristeko moduan, .

2008an, benetako pobreziaren intzidentzia % 3,2an zegoen euskal biztanleriaren artean, horrenbestez pobreziaren bi dimentsioetako (mantenua eta metatzea) bati dagokion inpaktuaren % 4,7aren azpitik. Benetako pobrezia-tasa pertsonen % 2,1etik gorako da beren burua pobretzat edo oso pobretzat jotzen duten etxekoek unitateetan, eta, dena dela, argi eta garbi dago beren burua gutxienez nahiko pobretzat jotzen duten etxekoek unitateei dagokien % 6,5aren azpitik. Benetako pobreziako egoera batek eraginpean harturiko pertsonen % 3,2aren aurkako poloa, biztanleriaren % 78,9 definituriko erabateko ongizatearekin parekagarri den egoeran dago praktikan. Tarteko posizio batean, biztanleriaren % 17,9, oraindik ere pobreziaren benetan bizitzearen eraginpean ez dagoena, euskal gizartean espero zitezkeen ongizate-mailekiko urruntze-posizio handiago edo txikiagoan dago.

64. grafikoa. Pobreziako, ongizate ezeko eta benetako ongizate ezeko adierazleak




Iturria: PGDI 2008

Oharrak: Familia-etxebizitzetan bizi direnei buruzko datuak.

Benetako pobreziaren bilakaerari buruzko datu garrantzitsuena da horren intzidentzia etengabe jaitsi dela 1986. urteaz geroztik, adierazle egokituei nahiz ez-egokituei dagokienez. Mantenu-pobreziaren arriskuan ikusitako gorakada handia gorabehera, 1986-1996 aldia pobreziaren aurkako borrokaren une erabakigarria izan zen, tasa egokitua % 8,3tik % 5,8ra jaitsi baitzen. 1996-2000 aldian joera berberari eutsi zaio, eta tasa % 5,8tik % 4,4ra jaitsi da. 2000-2004 aldian

ere bilakaera positiboa izan den arren, aldi horretan beherakada-erritmoen moteltzea argi ikusten da, % 4,2ko mailara iristen baita. Hala ere, une horretatik aurrera, beherakada nabariagoa egin da, 2008an % 3,2ko gutxieneko historikora iritsi baita.

65. grafikoa. Benetako pobreziako adierazle egokitu eta ez-egokitu bilakaera. EAE




Iturria: Gizarte Egoera Ahulei buruzko Inkesta 1986. PGDI 1996, 2000, 2004, 2008

Oharra: Familia-etxebizitzetan bizi direnei buruzko datuak.

Erabateko ongizateko errealitate batera ezin iritsi izatea ezaugarritzat duten egoeren multzoari dagokionez, datu egokituak agerian uzten dute zifrek izandako beherakada handia, 1986ko % 48,9tik egungo % 21,1era. Ildo horretan, nabarmentzekoa da EAE bizi den biztanleriaren aurrerapausoa ongizate-gizarterako bidean azken hogeita bost urteetan; erabateko ongizateko egoeran dauden pertsonak 1986an guztizkoaren % 5,1 izatetik 1996an % 58,8 izatera igaro dira, % 67 inguru 2000. urtean zein 2004. urtean, baina % 78,9 jada 2008an.

66. grafikoa. Benetako prekarietateko adierazle egokituen bilakaera. EAE




Iturria: Gizarte Egoera Ahulei buruzko Inkesta 1986. PGDI 1996, 2000, 2004, 2008
 Oharrak: Familia-etxebizitzetan bizi direnei buruzko datuak.
 Ongizaterik ezaren adierazleak barnean hartzen du kolektibo pobrea.

3.2. Pobrezia eta prekarietatea haurtzaroan


Guraso bakarreko familien EAEko pobreziako arrisku bereizgarri handiagoaren ondorioz, baina baita ere batzuetan arazoak seme-alabak dauzkaten bikoteetan duen inpaktu erlatibo handiagoaren ondorioz (benetako pobreziaren % 2,6 eta % 1,5 eskasa baino ez, esaterako), PGDIaren datuek 2008an oraindik ere pobrezia- eta prekarietate-arazoen intzidentzia handiagoa islatzen dute 14 urtetik beherako haurrak dauzkaten etxekoen unitateetan. Hortaz, prekarietate-arazoen inpaktua % 17,6 da adingaberik gabeko etxekoen unitateetan bizi direnen kasuan; aitzitik, zifra hori % 27,6ra igotzen da gehienez 14 urte dituen seme edo alaba bat edo gehiago dituzten etxekoen unitateetan. Benetako pobreziako tasa ere handiagoa da adin horretako seme edo alaba bat edo gehiago dituzten etxekoen unitateetan (% 5,7), zifra hori, dena den, adingaberik gabeko etxekoen unitateei dagokien % 1,8ko zifra baino askoz ere handiagoa da.

67. grafikoa. Erabateko ongizate ezeko benetako egoeren intzidentzia etxekoan unitatean 14 urtetik beherako haurrak egotearen edo ez egotearen arabera. EAE



Iturria: PGDI 2008

68. grafikoa. Pobrezia moduen intzidentzia etxekoan unitatean 14 urtetik beherako haurrak egotearen edo ez egotearen arabera. EAE



Iturria: PGDI 2008

2008ko datuen arabera, ordea, hobekuntza nabarmena izan da 2004ra bitarte ikusitakoarekin alderatzen badugu. Ildo horretatik, seme-alabak dituzten etxekoan unitateetan bizi den biztanleriaren prekariedade-tasak % 40tik % 45era bitartekoak ziren 2004an, eta pobrezia errealaren mailak % 7tik % 8ra bitartekoak zirenez esan dezakegu erabat kontrajarrita zeudela adingaberik gabeko etxekoan unitateetako tasen beheranzko joerarekin. 2004. urtetik 2008. urtera bitarteko aldian, oster, jaitsiera nabarmena da adingabeak dituzten etxekoan unitateetan, prekariedade-tasa % 41,4tik % 27,6ra jaisten baita, eta benetako pobreziarena % 7,1etik % 5,7ra.

Adingabeak dituzten etxekoan unitateetan benetako pobreziaren zifrek izandako beherakada, dena dela, ez da nahikoa, eta erlatiboki txikiagoa da adingabekorik gabeko etxekoan

unitateetako pertsonena baino, horien % 3tik % 1,8rako beherakada gertatu baita azken lau urteetan. 1996. urteaz geroztik % 12ko mailetatik izandako bilakaera positiboa aparte utzi gabe, mantenu-pobreziaren zifra oraindik erlatiboki handien sendotzean kokatu beharko litzateke (% 6an zeuden 2008an) benetako pobreziako diferentzialaren jatorria 14 urtetik beherako haurrak dauzkaten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonetan .

3. taula. Pobrezia- eta prekarietate-egoeren intzidentzia etxekoen unitatean dauden 14 urtetik beherakoen kopuruaren arabera. 1996-2008. Familia-etxebizitzetan bizi direnak (%-tan)

14 urtez azpikoak	Mantenu Pobrezia				Metatze Pobrezia				Benetako pobrezia				Ez erabateko ongizaterik			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Batere ez	7,8	5,4	5,1	3,1	1,4	1,8	1,3	0,3	4,6	3,1	3,0	1,8	39,4	30,2	29,0	17,6
Bat edo gehiago	12,6	8,5	8,4	6,0	2,8	4,5	4,4	1,3	8,3	7,5	7,1	5,7	44,9	40,3	41,4	27,6
GUZTIRA	9,3	6,3	6,1	4,1	1,8	2,6	2,2	0,7	5,8	4,4	4,2	3,2	41,2	33,1	32,7	21,1

Iturria: EPDS 1996, 2000, 2004 eta 2008

Adingabekorik ez daukaten familiek EAEren azkenaldiko egitura demografikoan duten garrantzi nagusia kontuan izanda, adingaberik gabeko etxekoen unitateetako pertsonak normalean gehiago izan dira pobrezia- eta prekarietate-egoeran dauden familien multzoan. Dena den, prekarietate bereizgarriak markaturiko testuinguruan eta seme-alabak dauzkaten etxekoen unitateen garrantziak azken urteetan gora egin duen horretan, etxekoen unitate horietan bizi diren pertsonen garrantzia handitu baino ez da egin pobrezia- eta prekarietate-arazoei eraginpean harturiko taldeetan. Azken kasu horretan, 1996-2004 aldian ongizate ezeko egoeren guztizkoaren % 34,7tik 37,8 igo ondoren, % 45,5era iritsi da proportzioa 2008an.

Benetako pobreziako egoeretan da beste inon baino deigarriagoa goranzko joera hori. 1996an jada % 45,8an zeuden mailetatik abiatuta, 14 urtetik beherako haurrak dauzkaten etxekoen unitateetako ekarpena maioritario bihurtu zen 2004rako, % 63,2ra iritsita 2008a.. Bilakaera hori bereziki deigarria da metatze-pobreziako arazoei dagokienez, seme-alabak dauzkaten etxekoen unitateetan sendo kontzentratutakoak, % 50 baino zertxobait txikiagoak diren zifrekin 2000. urteraino, baina % 59,8ra iristen direnak 2004an eta % 69,5era 2008an. Seme-alabak dauzkaten etxekoen unitateek mantenu-pobreziako egoeretan duten parte-hartzeak erakusten du, dena den, gorakada garrantzitsu bat, % 50eko maila gaindituta lehen aldiz 2008. urtean.

4. taula. Pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa bilakaera etxekoen unitatean dauden 14 urtetik beherakoen kopuruaren arabera. Familia-etxebizitzetan bizi direnak 1996-2008 (%-tan)

14 urtez azpikoak	Mantenu Pobrezia				Metatze Pobrezia				Benetako pobrezia				Ez erabateko ongizaterik			
	199	200	200	200	199	200	200	200	199	200	200	200	199	200	200	200
	6	0	4	8	6	0	4	8	6	0	4	8	6	0	4	8
Batere ez	56,8	61,5	58,9	49,5	52,4	50,5	40,2	30,5	54,2	51,0	49,8	36,8	65,3	65,4	62,2	54,5
Bat edo gehiago	43,2	38,5	41,1	50,5	47,6	49,5	59,8	69,5	45,8	49,0	50,2	63,2	34,7	34,6	37,8	45,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EPDS 1996, 2000, 2004 eta 2008

Pobreziak eta prekarietateak 14 urtetik beherako haurrak dauzkaten etxekoen unitateetan duten inpaktu handiagoak arrisku-egoera handiago eragiten du adin horretako haurren multzoan. 14 urteko edo gehiagoko biztanleen % 20,1ek ongizate-maila bat lortzeko zailtasunak ditu, eta proportzioa, aldiz, % 27,5era igotzen da 2008an 14 urtez azpikoaren kasuan. Bestela esanda, 14 urtetik beherako lau haurretik bat ongizaterik ezeko egoeran bizi da Euskadin, bizi diren etxekoen unitateen diru-sarreraren arabera, eta bost pertsonatik bat, aldiz, adin horretatik gorako biztanleria osoan. Ildo horretan, 14 urtetik beherakoen benetako pobreziako tasa gainerako biztanleriari dagokiona baino ia bikoitza da: % 5,4 batetik eta % 2,8 bestetik.

5. taula. Pobrezia- eta prekarietate-egoeren intzidentzia 14 urtetik beherakoen artean etxekoen unitateetan. 1996-2008. Familia-etxebizitzetan bizi direnak. (%-tan)

Egoera	< 14 urte				>14 urte			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Mantenu-pobrezia	14,2	9,1	8,9	6,1	8,7	6,0	5,7	3,8
Metatze-pobrezia	2,8	4,6	4,9	1,0	1,7	2,3	1,9	0,6
Benetako pobrezia	9,1	7,6	8,0	5,4	5,4	4,0	3,8	2,8
Ez erabateko ongizaterik	43,9	39,6	41,5	27,5	40,8	32,4	31,5	20,1

Iturria: EPDS 1996, 2000, 2004 eta 2008



**BIGARREN ZATIA:
ERREALITATE DEMOGRAFIKOA**



SARRERA

Hasierako kapituluan adierazi denez, azterlanaren bigarren zatiak portaera demografikoetan izandako aldaketa handiak aztertzen ditu, eta, zehazkiago, familia-taldeen osieran eragina duten aldaketak. Horren ildotik, ezkontzetan eta jaiotza-tasan eraginda duten joera nagusiak aztertzen dira, eta banantzeen, dibortzioen eta deusezetasunen bilakaera paraleloa ere aztertzen da. Era berean, Euskadiko ugalkortasun- eta jaiotza-tasa baxuen iraunkortasuna eta egungo familiaren gainean dituzten inplikazioak ere azertu dira, bereziki tamainaren beherakadari dagokionez, eta arreta jarritz egoera horren oinarri ekonomikoen gainean, hain zuzen ere azken batean horiek direlako ikusitako aldaketak azaltzeko aukera gehien ematen dutenak.

Ondoko kapitulu batean, zahartze-prozesuarekin lotutako elementu batzuk biltzen dira, arreta berezia jarritz prozesu horrek euskal gizartean dituen inplikazioengan eta adierazpenengan. Eta, azkenik, biztanleria atzeritarraren EAErako immigrazioaren azkenaldiko fenomenoaren eragin kuantitatiboa nahiz kualitatiboa aztertzen da.




1. EZKONTZEN ETA JAIOTZA TASAREN OINARRIZKO JOERAK

1.1. Aldaketak ezkontzetan

1.1.1. Ezkontzen beherakada

Familien egoerarekin eta egiturarekin lotutako ezaugarri demografiko garrantzitsuenetako bat ezkontzen beherakada da. Epe luzean gertatutakoa aztertzen badugu, egiazta daiteke 1975ean ezkontzen kopurua 17.336 dela, eta beherakada-prozesu luze baten ondoren, 1985ean, urteko ezkontzen kopurua Euskadin 9.435 da, hau da, 70eko hamarkadaren erdialdean erregistratutakoen % 54,4. 1985-1988 aldian, zifra urteko 9.500 ezkontza inguruan egonkortzen da, eta batez beste % 2,4ko urteko hazkundeekin gora egiten du berriz ere 1988-1992 aldian. Azken urte horretan, ezkontzen kopuruak 10.000ko muga gainditzen du berriz ere (10.408, zehazki). 1992-1996 aldiko krisialdi ekonomikoarekin lotuta, aldi horretako urteko batez besteko % 2,5eko beherakadaren ondoren, 1996-2000 aldian berriz ere goranzko joera ikusten da, batez beste % 2,8ko hazkundearekin. Hain zuzen ere, 2000. urtean ezkontzen kopuru handiena erregistratzen da 1985ekoaz geroztik (10.510). Oro har, ezkontzen kopuruak urteko % 0,8ko hazkundera dauka 1988-2000 aldian, epe luzean goranzko lerro bat adieraziz. Hala ere, 2000. urteaz geroztik, ezkontzen beherakada-prozesu progresibo bat hasten da. Horrela, beherakadaren erritmoa % 1,1 da 2000-2004 aldian, eta % 2,4, aldiz, 2004-2008 aldian. Krisialdiaren eragina argi eta garbi ikus daiteke 2008-2009 aldian, % 11,9ko beherakada ikusten baita.


69. grafikoa. Ezkontza kopuruaren bilakaera EAEn



Iturria: Ezkontzen Estatistika, Eustat, EIN. 2009ko datua, kalkulatua.

Ezkontzen tasen bilakaerak joera berberak erakusten ditu. 1975etik 1985era bitarte, ezkontzen tasa % 52,4 txikitzen da, 1975eko 1.000 biztanle bakoitzeko 8,4tik 1985eko 4,4ra jaitsiz. Berriz ere gora egiteko ondorengo joera txikia 2000. urtean ikusten da, 5,1eko zifrarekin. Eta, horren ondoren, zifra berriz ere txikitu egiten da, 2004ko 4,8ra eta 2009ko 3,7 minimora jaitsiz.

70. grafikoa. Ezkontzen tasaren bilakaera EAEn




Iturria: Ezkontzen Estatistika, Eustat, EIN. 2009ko datua, kalkulatua. Mila biztanle bakoitzeko tasak

Ezkontza homosexualaren intzidentzia, ezkontzen tasaren beherakada konpentsa dezakeen elementu gisa, oso txikia da. 2006-2009 aldian, izandako ezkontzen guztizko kopuruaren

barruan, horien batez besteko proportzioa % 1,43 izan da, eta ez da urterik izan % 2ra iritsi dela.

71. grafikoa. Ezkontza homosexualaren batez besteko garrantzi erlatiboa (%-tan) EAEn




Iturria: Ezkontzen Estatistika, Eustat. 2009ko datuak, behin-behinekoak.

Aipatu beharra dago ezkontzen beherakadak lotura estua duela euskal gizartearen sekularizazio-prozesuarekin, eta, horretaz gain, ezkontza kanonikoak geroz eta garrantzi gehiago galtzen du. Horren ildotik, 1988-2000 aldian epe luzean ikusitako goranzko joera bateragarria da ezkontza zibilen garrantzi erlatiboaren nolabaiteko hazkundearekin (1986ko guztizkoaren % 2º,6tik 2000ko % 29,1era), eta horren ondorengo ezkontzen beheranzko joerak, argi eta garbi, ezkontza kanonikoaren garrantziaren galerarekin du zerikusia. Ezkontza kanonikoei dagokienez, 2000. urtean oraindik ezkontza guztien % 70,9 diren arren, beren garrantzia modu mailakatuan galdu dute, 2009an guztizkoaren % 37,7ra jaitsiz.

Ezkontza kanonikoaren eta zibilaren arteko orekarako itxurazko joerak irudipen bat baino ez dirudi, behintzat krisialdiaren azkenaldiko inpaktua ikusita. Izan ere, ezkontza kanonikoaren garrantziak txikitzen jarraitu du, 2009an ezkontza guztien % 37,7 bakarrik izatera iritsi arte. Hortaz, mende berrian sartzeak erabateko aldaketa ekarri du ezkontza moten garrantzi erlatiboan, ezkontza kanonikoaren nagusitasun nabarmen batetik 2000. urtea baino lehen, ezkontza zibilaren geroz eta nagusitasun handiago batera gaur egun.

72. grafikoa. Ezkontza mota bakoitzaren garrantzi erlatiboa EAEn (kanonikoa eta zibila) %-tan




Iturria: Ezkontzen Estatistika, Eustat, EIN. 2009ko datua, urtariletik irailera bitarteko aldirako.

1.1.2. Aldaketak ezkontzeko adinean

Ezkontzen beherakada, neurri batean, ezkontzeko adinak 1980. urteaz geroztik izan duen etengabeko hazkundearekin lotzen da, eta prozesu horrek berdin hartzen ditu eraginpean gizonak eta emakumeak. Horrela, 1975-1980 aldian 26,6tik 26,1era jaitsi ondoren, ezkontzen diren gizonen batez besteko adina urteko % 1,3ko erritmoarekin handitzen da, 1985eko 27,7ra iritsi arte. 1985-1992 aldian, hazkundera moteldu egiten da, baina urteko % 1 inguruan mantentzen da, erreferentziazko adina jada 30 urtetik gertu kokatuz (29,8). Hazkunderaren erritmoa are motelagoa egiten da enpleguaren hazkunde handieneko urteetara hurbiltzerakoan, baina batez beste urteko % 0,8ko mailetan mantentzen da 1992-2003 aldian, 2003an 32,6 urtera iritsiz. Hortik aurrera, urteko batez besteko adinaren hazkunde-erritmoek berriz ere gora egiten dute, 2003-2007 aldian % 1,1ean kokatuz. Urte horretan, gizonen ezkontzeko batez besteko adina 34 urtean kokatzen da Euskadin, hau da, 1980. urtean erregistratutako zifra baino 8 urte gehiago.

Prozesua antzekoa da emakumeen artean, joerari dagokionez nahiz hazkunde-erritmoen bilakaeraren aldaketa-prozesuei dagokienez; izan ere, emakumearen ezkontzeko batez besteko adina 8,2 puntu igo da 1980-2007 aldian (23,6 urtetik 31,9 urtera). Hala ere, hazkundera beti da pixka bat handiagoa emakumeen artean, 1980-2007 aldian batez besteko urteko hazkundera % 11,1 izan baita, eta gizonen kasuan, aldiz, % 0,99.

73. grafikoa. Ezkontzeko batez besteko adinaren bilakaera sexuen arabera EAEn




Iturria: Biztanleriaren Mugimendu Naturala, EIN

1.1.3. Dibortzioen eta banantzeen bilakaera


Mende berrian ezkontzak izan duen beherakada handia, bestalde, dibortzioen, banantzeen eta deuseztasunen hazkunde oso deigarri batekin lotzen da. Horrela, 1998-2000 aldian 4.100 dibortzio eta banantze inguruko zifretan mantendu ondoren, mende honetako lehen urteetan fenomeno demografiko horien garrantzia handitu egiten da, 2006an 5.742 dibortzio, banantze eta deuseztasun izatera iritsiz. Azken urte horretan, dibortzioen, banantzeen eta deuseztasunen garrantzia ezkontzen guztizko kopuruaren gainean handitu egiten da, % 58,7ra iritsi arte. Baina ekonomiaren moteltzeak eta krisialdiak eragina dauka adierazitako joeran, horren norabidea aldatuz, eta 2008an 4.531ra jaitsiz. 2006an ezkontzen guztizko kopuruaren % 58,7 dira, eta 2008an, aldiz, % 46,7.

74. grafikoa. Dibortzioen, banantzeen eta deuseztasunen kopuruaren bilakaera EAEn



Iturria: Dibortzioen, Banantzeen eta Deuseztasunen Estatistika. EIN

75. grafikoa. Dibortzioen, banantzeen eta deuseztasunen garrantzi erlatiboa ezkontzen guztizkoari dagokionez EAEn (%-tan)




Iturria: Dibortzioen, Banantzeen eta Deuseztasunen Estatistika. EIN

1.1.4. Intzidentzia familia motetan eta familia mota berriak


Ezkontzen bilakaeran ikusitako aldaketa deigarrienetako bat elkarrekin bizitzeko errealitateen hazkunde paraleloa da. Joera geroz eta nabariagoa da aldi osoan zehar, elkarrekin bizitzeen kopurua urtean batez beste % 24,6 handituz 1986-1991 aldian, % 44 1991-1997 aldian, eta % 52,7 1997-2002 aldian. Hala ere, 2002-2006 aldian ikusten da fenomenoaren hazkunde handiena, urteko batez besteko hazkundeak % 112,8ra iristen baitira. Oro har, elkarrekin bizitzeen kopurua 1986ko 4.500eko zifra txikitik 2002ko 25.000ra eta 2006ko 45.200era igotzen da. Hala ere, 1997. urtera arte, bikote ezkondu edo ezkongabe batean oinarritutako bizikidetza-forma guztien gainean, elkarrekin bizitzeen garrantziak ez ditu gainditu % 3tik gertuko gehieneko zifrak. Are gehiago, 2002an ere, proportzioa % 5 baino txikiagoa da oraindik (% 4,87). 2006an, zifrak ez dira % 8,6 baino handiagoak izan, hau da, nahiko zifra txikia Europaren testuinguruan.

76. grafikoa. Elkarrekin bizitzeen kopuruaren bilakaera EAEn



Iturria: Inkesta Demografikoa 1986, 1991, 1997, 2002, 2006. Eustat.

77. grafikoa. Elkarrekin bizitzeen garrantzia bikoteen bizikidetz-formetan (ezkonduak edo elkarrekin bizitzea) (%-tan) EAEn




Iturria: Inkesta Demografikoa 1986, 1991, 1997, 2002, 2006. Eustat.

PGDIaren datuek, 2009ko LMEaren Aurrerapenarekin osaturikoez, Eustaten Inkesta Demografikoaren datuen antzeko bilakaera dute. Horretaz gain, aukera ematen dute 2008an bikoteen guztizkoaren % 9,4rainoko elkarrekin bizitzearen hazkunde bat egiaztatzeko; urte horretan, PGDIaren arabera, 51.536 bikote bizi dira elkarrekin bizitzeko erregimenean ezkondu gabe. Hala ere, krisialdiak ezkondu gabeko bikote bizikideen kopuruaren beherakada bat ekarri du, hain zuzen ere horien kopurua 47.590era jaisten baita 2009an, hau da, guztizkoaren % 8,6.

Era berean, PGDIaren eta LMEaren datuek aukera ematen dute analisisan sakontzeko, bikotean seme-alabak izatearen arabera elkarrekin bizitzeko formei buruzko datuak kontuan hartuz. Horri dagokionez, azpimarratu beharreko lehen datua da elkarrekin bizitzearen inpaktua handiagoa dela seme-alabarik ez dagoen kasuetan: bikote guztien % 14,9 2009an, eta % 5,8 seme-alabak dituztenen kasuan. Azpimarratu beharreko bigarren alderdia da elkarrekin bizitzeak 1996-2004 aldian izandako hazkunde handia nagusiki seme-alabarik gabeko bikoteekin lotzen dela. Kasu horretan, elkarrekin bizitzearen inpaktua handitu egiten da 1996ko % 6,2tik 2004ko % 20,2ra, hazkundera nabarmena izanik 2000-2004 laurtekoan. Hala ere, horren ondoren, elkarrekin bizitzeko formaren inpaktua txikitu egiten da, 2008an % 16,6ra eta 2009an % 14,9ra jaitsiz. Horrela, 2004an elkarrekin bizi diren bikoteen kopurua 31.389 zen, eta 2009an, aldiz, 25.518.

Seme-alabak dituzten bikoteen artean elkarrekin bizi direnen proportzioa 1996ko % 1,5etik 2004ko % 3,3ra igotzen bada ere, ez ditu % 5etik gorako zifrak lortzen 2008. urtera arte; izan ere, urte horretan proportzioa % 6 da, hau da, seme-alabadun 22.462 bikote elkarrekin bizitzeko egoeran. Era berean, krisialdiak beherantz bultzatzen du bikote horien zifra, 2009an 22.073ra txikituz, hau da, urtea horretako seme-alabadun bikote guztien % 5,8.


78. grafiko. Elkarrekin bizitzeen garrantzia bikoteen bizikidetzaren formetan (ezkonduak edo elkarrekin bizitzea) seme-alaben presentziaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: PGDI 1996, 2000, 2004 eta 2008; 2009ko LMEaren Aurrerapena. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Elkarrekin bizitzeko egoeran dauden bikoteen multzoaren barruan, seme-alabarik gabeko bikoteen ehunekoaren adierazlea nahiko egonkor mantentzen da 1996-2009 aldian, oro har 53,5etik 57,5era bitarteko ehunekoetan mantenduz, 2004. urtean izan ezik, urte horretan % 73raino igo baitzen. Aurrekoa alde batera utzi gabe, seme-alabak dituzten bikoteei buruzko adierazlearen epe luzeko hazkunde konparatiboki handiagoaren eraginez, eta adierazitako 2004. urtearen salbuespenarekin, elkarrekin bizi diren bikote guztiei dagokienez seme-alabarik gabeko elkarrekin bizi diren bikoteen proportzioak epe luzean pixka bat txikitzeko joera dauka (1996ko % 57,3tik 2009ko % 53,6ra).

79. grafikoa. Seme-alabarik gabeko elkarrekin bizitzeen garrantzia elkarrekin bizitze guztiei dagokienez (%-tan) EAEn




Iturria: PGDI 1996, 2000, 2004 eta 2008; 2009ko LMEaren Aurrerapena. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

1.2. Aldaketak ugalkortasunean eta jaiotza-tasan

1.2.1. Jaiotza- eta ugalkortasun-tasa txikien iraunkortasuna

70eko hamarkadaren erdialdean, 80ko hamarkadako industriaren berregituratze-prozesua eragin zuen krisialdiaren aurretik, emakume bakoitzeko seme-alaba kopurua 2,8 inguruan kokatzen da Euskadin. Hortik aurrera, beherakada zorrotz eta etengabe bat hasten da, 90eko hamarkadaren erdialdean amaitzen dena emakume bakoitzeko seme-alaba batetik beherako zifrekin (0,91 1994an eta 1995ean). Adierazleak berriz ere gora egiten du pixka bat hortik aurrera, 2008an emakume bakoitzeko batez beste 1,32 seme-alaba izatera iritsi arte.


80. grafikoa. Emakume bakoitzeko seme-alaba kopuruaren bilakaera EAEn



Iturria: Biztanleriaren Mugimendu Naturala, EIN Eustat

Termino absolututan, aurreko datuek jaiotza kopuruaren beherakada bat adierazten dute, 70eko hamarkadaren erdialdeko 41.100 jaiotzetatik 1994ko 15.248 jaiotzetara. 1995etik aurrera jaiotza-tasan ikusten den gorakadak, ziklo ekonomikoaren goranzko joerarekiko paraleloan, atzerapen horren zati oso txiki bat bakarrik errekuiperatzeko aukera eman zuen. Horrela, 1986ko jaiotza kopurua —70eko hamarkadaren erdialdekoa baino % 50 txikiagoa— 2006an errekuiperatzen da bakarrik, eta 2008an 21.401 jaiotzako gehieneko kopurua lortzen da. Krisialdiak beste beherakada bat ekarri du azken urtean, kalkulaturako jaiotza kopurua 20.375era mugatuz 2009an.

81. grafikoa. Jaiotza kopuruaren bilakaera EAEn




Iturria: EUSTAT. Jaiotza Estatistika.

2009ko datuak. Eustaten behin-behineko datuekin kalkulaturak.

Jaiotza-tasa bultzatzeko politikak aplikatzeak 2006-2008 aldian urteko % 3,1eko hazkundea ekarri bazuen ere, 2003-2008 aldi osoa kontuan hartzen bada, urteko batez besteko hazkundea % 2 da, hau da, 1998-2003 aldian erregistratutakoa baino ia % 50 txikiagoa. Horren aurreko datuak, neurri batean, urte bakoitzean ugaltzeko adinean dauden emakumeen bolumenean izandako aldaketen mende daude. Emakume bakoitzeko seme-alaba kopuruaren adierazlea aztertzen denean, ikus daiteke aurrerapen handienak 2001-2003 aldian izan direla, adierazlearen urteko batez besteko hazkundea % 4,8 baita aldi horretan, eta % 2,4 eta % 2,6, aldiz, 1994-2001 aldian eta 2003-2008 aldian, hurrenez hurren. Hala ere, azpimarratu behar da Euskadiko herri-administrazioek familiei laguntzeko politikak aplikatzeak aukera ematen duela % 3,5eko hazkundea izateko 2005-2008 aldian, eta soilik % 1,3 2003-2005 aldian. Nolanahi ere, krisialdiak goranzko joera apurtzen du, jaiotza kopuruan % 4,5eko beherakada adieraziz 2008-2009 aldian, jaiotza-tasa bultzatzen duten neurriak badauden arren.

82. grafikoa. Emakume bakoitzeko seme-alaba kopuruaren urteko batez besteko hazkundea/gutxitzea hainbat alditan EAEn



Iturria: Geuk egina EINen datuetan oinarrituta.

1.2.2. Jaiotza-tasa baxuen oinarri ekonomikoak

Eztaba daezina da ugalkortasunaren eta jaiotza-tasaren beherakadaren azalpenaren zati batek alderdi kulturekin duela zerikusia, eta horien artean nabarmentzen dira nagusiki gizartearen sekularizazio-prozesuaren ondorioak. Prozesu horrek lagundu egin du ugalketarekin lotutako fenomenoek sakratutasuna kentzeko, bereziki ezkontzari dagokionez, baina baita seme-alabei egotzitako papera ikusteko moduari dagokionez ere.



Hala ere, azpimarratu behar da, aurrerago egiaztatuko dugunez, aldaketa horiekin batera familiaren paperak ez duela balioa galdu belaunaldi berrietan. Eskuragarri dauden datuek horren harian adierazten dutenez, gazteek modu positiboan balioesten dute familia, eta gizartearen familia-antolamenduaren oinarriak ez dira benetan zalantzan jarri, oraindik behintzat. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak egindako Familiei buruzko Inkestaren datuek adierazten dutenez, horretaz gain, familiak askok aipatzen dute nahi duten seme-alaben kopurua ezin dutela izan, arrazoi ekonomikoengatik nahiz lan-arrazoiengatik. Hortaz, oraindik eutsi daiteke euskal gazteek ez dutela izaten nahi duten seme-alaben kopurua.


EAEko biztanleriaren asmoa bada errealitatean lortzen ez den seme edo alaba kopuru jakin bat izatea, edo geroz eta beranduago lortzen badute, ezinbestekoa da portaera hori eragiten duten arrazoiak, eragozpenak eta zailtasunak aztertzea. Bereziki garrantzitsua da Euskadin ugalkortasunaren eta jaiotza-tasaren beherakadan lagundu duten, eta oraindik laguntzen duten, oinarri ekonomikoak kontuan hartzea.

1.2.2.1. Emantzipazio-prozesuen atzerapena eta prekarietate ekonomikoa

EAEen, gazteen belaunaldi berrien emantzipatzeko batez besteko adina asko atzeratu da azken hamarkadetan. 70eko hamarkadan, Euskadiko gazteek, batez beste, 23 urte bete baino lehen uzten zuten etxeko unitatea. 80ko hamarkadan, gizartearen eta ekonomiaren egoera larriagoa izanik, emantzipatzeko batez besteko adina 24 urtera atzeratu zen emakumeen artean, eta 25era gizonengan. 90eko hamarkadaren amaieran, atzerapena are handiagoa zen: gizonak 30 urte pasatxo arte egoten dira gurasoen etxean, eta emakumeak gutxienez 28 urte arte.

Euskadiko emantzipazio-prozesuen atzerapenaren inpaktua argi eta garbi ikus daiteke Europako mendebaldeko eskualdean beren gurasoekin bizi diren 18-29 urteko gazteen proportzioa aztertzen denean. Euskadik kasu gehienetan Espainiaren eta Europako hegoaldeko beste herrialde batzuen batez bestekoa gainditzen duen arren, egia esan, lurralde-eremu horiek guztiak modu nabarmenean aldentzen dira Europaren erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetatik, batez ere 25-29 urteko gazteak aztertzen direnean. Aitzitik, adierazleen mailak modu nabarmenean hurbiltzen dituzte Europako Ekialdeko herrialdeetan ikusitakora.


83. grafikoa. Beren jatorrizko familiekin bizi diren gazteak Europako mendebaldean, sexuaren eta adin-tartearen arabera (%-tan)



Iturria: *The life of women and men in Europe: A statistical portrait*, 2008. Eurostat. Euskadi: 2009ko LMEaren Aurrerapena.

Ikusitako emantzipazio-arazoen adierazle argiena ezkongabetasunaren luzapena da. Oraindik jatorrizko etxekoan unitatean bizi diren seme-alaba ezkongabeek duten garrantzia erreferentzia gisa hartuta, argi ikus daiteke XX. mendearen 80ko hamarkadaren hasieraren eta 90eko hamarkadaren hasieraren artean gertatutako funtsezko aldaketa soziala. Aldi horretako 35 urtetik gorako biztanleriaren ezaugarrietako bat den adierazlearen murrizketarako joeraren aurka, ezkongabetasunaren garrantziaren hazkunde nabarmen bat ikus daiteke adin horretatik beherakoan artean, hala nola, 25-29 urteko kasuan, 70eko hamarkadan % 30en gertuko ehunekoetatik % 60tik inoiz jaisten ez diren eta, mendearen amaieran, % 80ra iristen ziren ehunekoetara igoz.

84. grafikoa. Seme edo alaba ezkongabeen garrantziaren bilakaera adin-taldeen arabera (%-tan). EAE



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak 1970 eta 1981, Eustat. LME 1993, PGDI 1996tik 2008ra bitarte, eta 2009ko LMEaren Aurrerapena. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
Oharra: 1970eko eta 1981eko datuek ezkongabeen multzoa jasotzen dute.

Argi dago emantzipatzeko zailtasun horien funtsezko zati batek zerikusia duela bizitza independente bat izan dezakeen biztanleriaren zati bat eraginpean hartzen duten pobreziako eta prekarietateko arazoekin. Prekarietate ekonomikoaren azterketarekiko hurbilketan, EAEren ezaugarri bereizgarrietako bat izan da, hain zuzen ere, ezkutuko prekarietate eta pobrezia forma horiekin lotutako ondorio txarrak kontuan hartu direla.

Jada 1986an, *Gizarte Egoera Abulei buruzko Inkestak* honela definitu zituen ezkutuko pobreziako arazoak: potentzialki independenteak diren familia-unitateak eraginpean hartzen dituzten eta, etxekoan unitate independente bat eratzea erabakiko balute, pobrezia-egoeran egotea ekarriko luketen zirkunstantziak. Ondorioetan, azterlanak ezkutuko pobreziaren eta krisialdi demografikoaren arteko lotura proposatzen zuen, ezkontzei dagokienez nahiz ugalkortasunari dagokienez. Horren ildotik, biztanleria gaztean benetako pobrezia kontrolatzeko hiru mekanismo azpimarratzen zituen, prozesu demografikoen gainean inplikazio nabarmenak zituztenak: ezkongabetasunaren luzapena, gurasoen etxekoan unitatetik independizatzearen atzerapena, baita ezkontutako gazte batzuen kasuan ere, eta jaiotza-tasaren kontrola.

Azpiko faktore bat: prekarietate ekonomiko indibiduala

Hainbat egilek adierazi dute komenigarria dela pobreziaren eta prekarietate ekonomikoaren azterlanarekiko hurbilketa ikuspegi hertsiki indibidual batean oinarrituta egitea, pobreziaren/ongizatearen eskalan pertsona bakoitzari dagokion posizioa soilik diru-sarrera pertsonalen arabera balioetsita, etxekoen unitateko gainerako kideak alde batera utzita. Posizio hori jasota, PGDI metodoan mantenu-pobreziako eta ongizaterik ezeko arrisku-egoera indibidualen presentzia zehazteko, EAEn bizi den pertsona bakoitzari hurbilketa metodologiko orokorrean bakarrik dauden pertsonen dagokien pobreziako eta ongizaterik ezeko atalaseak aplikatzen zaizkio, soilik bere diru-sarrera pertsonalak kontuan hartuta. Zentzu hertsian, EAEko 25 urtetik gorako herritarrentzat edo adin horretaz azpiko herritar ez-ikasleentzat bizitza independente bat norberaren kabuz bideratzeak ekarriko lukeen arrisku-maila indibiduala erakusten du adierazleak.

Mantenuaren arloko prekarietatearen inpaktu potentzialari buruzko datuek, baliabide guztiz pertsonalen arabera neurtuta, arrisku-egoera horiek emakumeen artean duten inpaktu handia adierazten dute. Izan ere, pobrezia-arriskuak gizonen % 10,7 hartzen du eraginpean, eta proportzioa % 47,1era iristen da emakumeen artean. Ongizaterik ezeko baterako arriskua % 25 da gizonen artean, eta % 67,8 emakumeen artean. Horretaz gain, deigarria da adinaren arabera emakumeen artean alde nabarmenik ez izatea. Horrela, pobrezia indibidualeko arriskua % 46,1 da 45 urtetik beherako emakumeen artean, eta % 47,8ra iristen da adin horretatik gorako emakumeen artean (% 66,3 eta % 68,8 45 urtetik gorakoetan). Hortaz, ugaltzeko adinean dagoen biztanleria gaztearen posizio bereizgarrian eragin argiena duen elementua gizonezko biztanleria gaztearen arrisku-diferentziala da.

Datuak oro har aztertzen baditugu, zalantzarik gabe nabarmentzekoa da ikasleak ez diren eta 35 urte baino gutxiago dituzten 18 urtetik gorako gizonen ia erdiak (% 47,3) eta adin bereko eta lan-egoera bereko emakumeen bi heren baino gehiagok (% 68,6) diru-sarrera propioak dituztela eta, bizitza independente bat bakarrik hastea erabakiko balute, diru-sarrera horiek ongizaterik ezeko egoeran kokatuko zituzketela. Txikiagoa bada ere, pobrezia-arriskuak oraindik aztertutako gizonen laurden bat hartzen du eraginpean (% 24,1), eta ia emakumeen erdia (% 43,7).

*Ezkutuko pobreziaren inpaktua*

Orain arte jasotako datuek argi adierazten dutenez, pobreziako eta ongizaterik ezeko arriskuek bizitza independente batera sartzeko prozesuetara iristeko biztanleria gazteak dituen zailtasunak azaltzen dituzte, ezkontza/elkarrekin bizitze eta ugalkortasun/jaiotza-tasa prozesuen gainean duten inpaktu logikoagatik. Ezkutuko pobreziari buruzko analisi zehatzak aukera ematen du egoera hori zehazteko.

Jada adierazi dugunez, bizitza independente batera iristeko problematiken azterketa da Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak enpleguaren, pobreziaren eta laneratzearen arloan garatutako estatistikaren jatorrizko ezaugarrietako bat. Arlo hori PGDIan nahiz Osasunari buruzko Inkesta Nazionalean (OIN) aztertzen da. Operazio horiek biztanleriaren % 10,1etik % 11,5era bitarteko zifren inguruan kokatzen dute problematika horien inpaktua. OINaren arabera, egungo etxekoen unitatetik independizatu nahi duten eta arrazoi ekonomikoak tarteko ezin duten pertsonen kopurua 247.349raino iristen da 2006an guztira¹¹.

Independizatzeko arazoak dituztenen kolektiboaren barne-ezaugarriak kontuan izanik, eta OINaren arabera, ikusi da kolektibo hori nagusiki herritar nazional ezkongabeez osatuta dagoela, egungo etxekoen unitateko familia-talde bateko kideak direnak, hain zuzen ere. Pertsona horiei dagokie bizimodu independentea lortzeko zailtasunak dituztenen kasu guztien % 76, eta proportzio hori % 78,6raino iristen da egungo etxekoen unitatean familia-talderen bateko kideak diren beste nazional ez-ez kongabeak aintzat hartuz gero. Dagoeneko minoritarioa den arren, bigarren talde handia honako hauek osatzen dute: gaur egun bizi diren etxeko familia-talde bakar baten kideak ez diren atzerritarrek. Kolektibo hori independizatzeko arazoak dituzten pertsona guztien % 9 da, eta egoera berean dauden nazionalena baino nabarmen handiagoa da —% 4,4—.

¹¹ Zifra 216.376 pertsonakoa da PGDIan. Familia-talde bat baino gehiagorekin osatutako etxekoen unitateetako bigarren mailako taldeei buruzko arazoak gutxiago kontuan hartzearekin lotzen dira alde horiek kasuen % 70ean baino gehiagotan.

6. taula. Egungo etxekoen unitatetik independizatu nahi duen eta, arrazoi ekonomikoak tarteko, ezin duen biztanleria, biztanleria moten arabera, egora zibilari eta familia-talde motari dagokienez (% bertikalak)

	Datu absolutuak	% bertikalak
Motak, egoera zibilari eta familia-talde motari dagokienez		
Nazional ezkonduak, familia-taldean bizi direnak	6.250	2,5
Nazional ezkongabeak, familia-taldean bizi direnak	187.909	76,0
Bestelako nazional ez-ezkongabeak, familia-taldean bizi direnak	6.418	2,6
Nazionalak, familia-taldean bizi ez direnak	10.843	4,4
Atzerritarrak, etxekoen unitatean familia-taldean bizi direnak	13.741	5,6
Atzerritarrak, familia-taldean bizi ez direnak	22.188	9,0
Guztira	247.349	100

Iturria: GZEE-OIN 2006

OINean ez bezala —etxekoen unitateko kide batek emandako informazio orokorrarekin jarduten du—, PGDIak aztertutako kolektiboaren analisisan sakontzen du, baliabide ekonomiko nahikorik ezeko benetako —eta ez aprioristiko— egoera baten ondorioz bizitza independente bat egiteko arazoak atzematen diren kasuetan arreta gehiago jarritz. Eraginpeko pertsonak zuzenean elkarrizketatuta egiten du gainera.

A priori arazoaren eraginpean dauden pertsonekin harremanetan jarri ondoren, 2008ko PGDIak 126.199ra murrizten du etxekoen unitate independente bat benetan osatu nahi dutela baieztatzen dutenen kopurua. Pertsona horien artean, 107.300 lagunek adierazten dute ezin dutela egin baliabide ekonomikorik ez izateagatik, eta zifra hori EAEko guztizko biztanleriaren % 5 da. Behar adina baliabide izango balituzte, 31.437 lagun segurtasun osoarekin independizatzeko lirateke urtebeteko gehieneko epean, eta kopuru hori 72.238 lagunera igoko litzateke, adierazitako epean aukera horri buruz pentsatu dutenak barnean hartuko balira.

Aurreko kopuruek independizatzeko eskariaren azken urteetako murrizketa esanguratsu bat adierazten dute. 18-44 urteko independizatu gabeko herritarrak oinarri gisa hartuta, independizatzeko eskaria % 38,4tik % 35,7ra jaitsi da 2004-2008 aldian. Independizatzeko eskaria % 32,9tik % 30,3ra jaitsi da, independizatu nahian dabiltzan baina diru-sarrera nahikorik ez duten lagunei dagokienez, eta % 10,9tik % 8,6ra, diru-sarrera nahikorik ez duten eta urtebete baino lehen independizatu nahi luketenei dagokienez. Hala ere, eskariaren murrizketa baino garrantzitsuagoa da erreferentziazko herritarren kopuruaren murrizketa; izan ere, 2000. urteaz geroztik, 18-44 urteko independizatu gabeko lagunen kopurua nabarmen txikitu da: 2000. urtean 524.889 lagun ziren; 2004an 436.507ra jaitsi zen kopurua, eta 2008an 338.787ra.



Modu independentean bizi nahi baina baliabide ekonomikorik ezean asmo hori gauzatzetik ez duten lagunen ezaugarri soziodemografiko nagusia gaztetasuna da. Hain zuzen ere, independizatzeko arazoak dituzten lagunen % 82,7 35 urtez azpikoa da. Aztertutako kolektiboaren bigarren ezaugarri nagusia honako hau da: independizatzeko arazo gehienak goi mailako ikasketak dituztenek izaten dituzte. LH II-ko edo hirugarren mailako ikasketak dituzten lagunek atzemandako egoera guztien % 59 biltzen dute, eta proportzio hori are handiagoa da (% 85,5) bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak eta LH I-eko ikasketak dituzten lagunak ere kontuan hartzen baditugu.

Nabarmendu beharreko hirugarren gauzak lanarekin du zerikusia; zehazkiago, lana izateak edo ez izateak aztertutako lagunen artean duen garrantzia. Hain zuzen ere, landunak aztertutako kolektiboaren % 76 dira, langabeak % 9,3 eta ez-aktiboak % 14,7. Irudi hori sendotu egiten da independizatzeko arazoen intzidentzia aztertzerakoan, hain zuzen ere, kopuruak honako hauek dira: aztertutako egoeran dauden independizatu gabeko 18-44 urteko landunen % 38,2, langabeen % 31,1 eta ez-aktiboen % 13,7.

Hala ere, 2008an ikusitako egoeraren datu berri bat kontratazio egonkorraren garrantzia da. Horren haritik, eta aurreko urteetan ikusitakoa ez bezala, modu independentean bizi nahi duten eta baliabide ekonomikorik ez izateagatik oraindik ezin duten lagunen artean, asko dira lan-merkatuan lan-egoera egonkorra dutenak. Hala, % 41,7 langabea edo kontraturik gabeko landuna edo aldi baterako landuna den arren (% 9,3, % 2,0 eta % 30,3, hurrenez hurren), kontratu mugagabea duten landunei dagokien proportzioa dezente hurbiltzen da (% 39,6). Hala ere, langabeziaren eta enpleguko ezegonkortasunaren garrantzia, zalantzarik gabe, oraindik nagusitzen da independizatzeko beharrezkoagoa egiten denean. Era berean, azpimarratu beharreko beste berrikuntza bat izan da, sexuaren arabera datuek nolabaiteko oreka erakusten duten arren, 2008an independizatzeko problematiken eragina askoz handiagoa izan dela emakumeen artean (% 31,7) gizonen kasuan baino (% 29,3).

Epe laburrean independizatu nahiko luketen lagunen (72.238 lagun) independizatzeko zailtasunak eragin dituzten arrazoiak zehatz-mehatz aztertzerakoan, honako oztopo nagusi hauek atzeman dira: etxebizitza propio bat eskuratzeko zailtasuna eta pobreziaren edo ongizaterik ezeko egoeran erortzeko arrisku handia (azken horrek aztertutako lagunei eragingo lieke, baldin eta bizitza independentea lortzeko prozesua bermatuko balitz).

Hortaz, bizitza independentean oinarritzko premiei aurre egiteko zailtasunarekin lotutako arazoak independizatzeko oztopo nagusi gisa sendotzen dira 2008ko Euskadin. Aztertutako lagunen % 41,5ek horixe adierazi dute oztopo nagusi gisa, eta horien azpitik, etxebizitza-




gabezia aipatu dutenak % 26,6 dira, eta enplegu-gabeziarekin edo ezegonkortasunarekin lotutako arazoak aipatu dituztenak % 19,6 dira. Zifra horiek, zalantzarik gabe, independizatzearrealitate bihurtzea ekarriko lukeen pobrezia-arriskuaren edo ongizaterik ezaren intzidentzia handiarekin dute zerikusia. Izan ere, epe laburrean independizatzeko asmotan dabilzan lagunen % 36,6 pobrezia-arriskuan egon liteke bizitza independente bat eskuratzeari dagokionez, eta % 69,8 gure gizarteak ezarritako gutxieneko ongizate-mailara iristeko beharrezko atalaseen azpitik (hau da, ongizaterik ezeko egoera batean, PGDIaren terminologiaren eta metodologiaren arabera). Maila horiek biztanleria orokorraren adierazleak baino askoz handiagoak dira (% 4,1 eta % 14,6, hurrenez hurren).

Aurkeztutako datuek aditzera ematen dutenez, 2004-2008 aldian problematika honen inguruan ikusitako beherakada nabarmena gorabehera, ezkutuko pobrezia kontuan hartu beharreko oinarritzko datua da oraindik Euskadin. Hortaz, eraginpeko biztanleriak bizitza independentea lortu ahala, arrisku-adierazle orokorrek goranzko presio handia eragingo dute, kolektibo hori oso egoera estuan bizi baita (laneko ez-egonkortasuna eta etxebizitza lortzeko zailtasunak). Bestalde, egoera ekonomiko berriek ez dute lagunduko euskal gizartearen egiturazko arazo horrentzat konponbide azkar eta egoki bat lortzen.

Era berean, aurkeztutako zifrek adierazten dute EAEko biztanleria gaztea oraindik eraginpean duen independizatzeko-defizitak oraindik goranzko presioa eragiten duela pobrezia- eta prekarietate-tasetan. Izan ere, bistako korrelazioa dago 18-44 urteko biztanleria ez-independizatuaren bolumenean 2000-2008 aldian ikusten den beherakada handiaren (zifra 2000ko 524.889tik 2004ko 436.507ra eta 2008ko 338.787ra jaisten da) eta mantenu-pobreziaren zifretan 2004-2008 aldian, termino ez-doitutan, ikusten den hasierako eustearen eta ondorengo hazkundearen artean. Hobekuntza ekonomikoaren efektu positiboak, biztanleria gazteari independentzia pertsonalerako sarbide handiagoa eman dionak, adierazle orokorrak okertzeko arrisku objektiboa dakar. Biztanleria gazteenak osatutako etxekoen unitate berrien ezaugarri nagusietan bat da, hain zuzen ere, pobreziako eta ongizaterik ezeko arrisku-maila handiagoak dituztela.


Azken hori bereziki garrantzitsua izan zen 2004an, hain zuzen ere urte horretan erregistratu baitziren baliabiderik ez izateagatik ez-independizatuak biztanleriaren zifra altuenak, baita bizitza independente bat eskuratzeko pobrezia eta ongizaterik ezeko arrisku-maila altuenak ere. Ezkutuko prekarietateak EAEko prekarietatearen arazo orokorraren gainean duen inpaktuari buruzko datuak ikus daitezke hurrengo grafikoen.

85. grafikoa. Ezkutuko pobreziaren inpaktuaren bilakaera. Euskal Autonomia Erkidegoa



Iturria: PGDI

86. grafikoa. Pobreziaren inpaktuaren portzentajezko hazkunde potentziala ezkutuko pobreziaekin lotuta. EAE



Iturria: PGDI

Datuek gehikuntza potentzial handia adierazten dute, bereziki pobrezia-arriskuari dagokionez, beti % 10etik gorako hazkundeak baitira. Baina inpaktua handiagoa da mende berrian. Horrela, inpaktua % 30etik gertu kokatzen da 2000. eta 2008. urteetan, eta gehieneko % 55,2ra iristen da 2004an, ezkutuko pobrezia-aren inpaktu erlatiboa maila handienetara iritsi baitzen urte horretan. Izan ere, ezkutuko pobrezia-arekin lotutako ekarpen osagarria puntu 1 baino pixka bat handiagoa da bakarrik, eta inpaktu potentziala 3,3 punturaino iristen da 2004an.

Ongizaterik ezeko zifren gaineko inpaktua askoz txikiagoa da, baina geroz eta handiagoa da 2000. urteaz geroztik, % 15,2ko hazkunde potentzialarekin 2008an ezkutuko prekarietatearekin lotuta, eta gehieneko % 21,4arekin 2004an.


1.2.2.2. Prozesu demografikoen atzerapena.

Ezkontzeko eta seme-alabak izateko adinaren gorakada

Ikusi dugunez, emantzipatzeko prozesuen atzerapena pobrezia-aren eta ezkutuko prekarietatearen inpaktuaren emaitza da, eta horren ondorio nagusietako bat da ugalketarekin lotutako fenomeno guztiak gero eta gehiago uztea. Horrek ez du esan nahi soilik ezkontzeko adina edo bikoteen arteko bestelako bizikidetzaren formetara sartzeko adina atzeratzen denik, amatasuna ere atzeratzen baita. Horrela, 2007an, emakumeak ama bihurtzen ziren batez besteko adina Euskadin 32,2 urtean kokatzen zen.

Ezkontzarekin gertatzen den moduan, 70eko hamarkadaren bigarren erdian amatasunerako batez besteko adina txikitu egin zen, 1975eko 28 urtetik 1979ko 27,5 urtera jaitsiz. 1979-1988 aldian, batez besteko adinaren hazkundera, aldiz, ezkontzaren kasuan ikusitako baino txikiagoa da, % 0,4ko erritmoekin aurrera eginez eta batez besteko adina 28,5 urtean kokatuz 1988an. 1988-1996 aldian atzeratu zen gehien bat amatasunerako batez besteko adina, % 1eko urteko batez besteko hazkundeekin, adierazlea 30,9 urtean kokatuz 1996an. Pixka bat txikitze joera badu ere, hazkundera urteko % 0,7 inguruko mailetan mantentzen da 1996-1999 aldian, aldi horren amaieran 31,6 urtera iritsiz. 2000-2003 aldian, 80ko hamarkadaren % 0,4ko hazkunde-mailetara itzultzen da, amatasunerako batez besteko adina 32,1 urtean kokatuz 2003an. Hortik aurrera, zifra horrek egonkor mantentzeko joera izango du (32,2 urte 2007an).


87. grafikoa. Seme-alabak jaiotzen diren unean amek duten batez besteko adinaren bilakaera. EAE



Iturria: Biztanleriaren Mugimendu Naturala. EIN

Emakumeen kasuan, oso garrantzitsua da ezkontzeko batez besteko adina eta seme-alabak izateko batez besteko adina konparatzea. 1975-1980 aldian 4 urte inguru bereizita, distantzia azkar txikitu zen, 1985ean jada 3 urtean kokatuz, eta 2,5etik behera 1990ean. Horren ondoren ere hurbiltzeko joera mantentzen da, baina erritmo askoz motelagoekin, 1999an oraindik 2,3 puntuan kokatzen baitzen. 1999-2003 aldian, bi adierazleen hurbiltzeko joera nabarmen bizkortu zen, 2003an 1,7an kokatuz. Baina 2003-2007 aldian ikusten da prozesuaren biziagotze handiena, aztertutako aldea 0,4 urtera txikituz 2007an.

88. grafikoa. Emakumeen batez besteko adina ezkontze direnean eta seme-alabak dituzten unean. EAE



Iturria: Biztanleriaren Mugimendu Naturala. EIN

Seme-alabak izateko adinaren atzerapenak beste inplikazio batzuk ditu, hain zuzen ere ugalkortasun-tasa txikitu egiten delako adinak gora egiten duen heinean. Errealitate horrek bidea ematen du bikote kopuru jakin batek adopziora jo behar izateko alternatiba gisa. 2008ko Familiei buruzko Inkestaren arabera, urte horretan 2.557 etxekoen unitate daude egoera horretan (guztizkoaren % 0,3).


Ezkontzaz kanpoko jaiotzek ez dute beherakada konpentsatzen

Ezkontuko prekaritatearen eta pobrezia garrantziak azaltzen du neurri handi batean ezkontzaz kanpoko elkarketak egiteak, ikusi dugunez geroz eta garrantzi handiagoa duenak, zergatik ez duen konpentsatu ezkontzaren beherakada. Izan ere, ezkontzeko adinaren atzerapenak bere kabuz ez du azaltzen amatasunaren atzerapena. Horren haritik, guraso ez diren etxekoen unitateen kopurua ere —seme-alabarik gabeko bikoteez osatuak— handitu egiten da 2004. urtera arte (53.941 etxekoen unitate, aitzitik, 47.741 etxekoen unitate 2001ean eta 39.307 1996an), eta soilik urte horretatik aurrera jaisten da, 2008an kalkulaturako 47.080ko zifran kokatu arte, hau da, 2001ko antzeko mailetan.

Hortaz, ezkontzen beherakadarekin batera elkarrekin bizitzearen hazkunde bat ikusten da, legeztatutako ezkontzen beheranzko joera konpentsatuz. Jaiotza-tasari dagokionez, ondorio nagusia da ezkontzaz kanpoko jaiotzak geroz eta gehiago direla. Jaiotza horien inpaktua ia ez zen existitzen 1975ean, urte horretan erregistratuko guztizkoaren % 1,6 bakarrik baitzen. Maila izugarri baxu horietatik abiatzen bada ere, 1975-1985 aldian jaiotza horien garrantzi

erlatiboaren hazkundera urteko % 17ko erritmoarekin handitzen da, 1985ean % 6,8ra iritsi arte. 1986an beherakada handi bat izan ondoren, hazkunde askoz txikiagoko aldi bat hasi zen, urtean % 0,6ko hazkundera, eta % 10,5era iritsi zen 1996an. Hortik aurrera, ezkontzaz kanpoko jaiotzen garrantzi erlatiboaren hazkundearen erritmoa biziagotu egiten da, 1996-2004 aldian urteko % 9,7 handituz, eta jaiotza horien garrantzia % 22an kokatuz 2004an. Pixka bat txikitzen bada ere —2004-2007 aldiko urteko % 7,1era—, goranzko joera sendoa mantentzen da, 2007an jaiotza horien proportzioa % 27an kokatuz.


89. grafikoa. Ezkontzaz kanpoko jaiotzen garrantziaren bilakaera EAEn
(Jaiotza guztien gaineko %-a)



Iturria: Jaiotzei buruzko Estatistika. Eustat.

Hala ere, ezkontzaz kanpoko jaiotzen papera oso txikia da 1995. urtera arte, emakume bakoitzeko seme-alaben guztizko kopuruaren adierazlea funtsean ezkontzaren barruko jaiotzekiko paraleloan mugituz. Hala ere, 1995. urtetik aurrera, adierazleak berriz ere gora egin zuen, eta gorakada hori, nagusiki, ezkontzaz kanpoko jaiotzen bilakaerarekin lotzen da. Horrela, 1995-2007 aldian, ezkontzen barruko adierazlea 0,82tik 0,92ra igotzen da, hamarren eskas bat, eta ezkontzaz kanpoko adierazlea, aldiz, 0,09tik 0,34ra igotzen da, 0,25 puntuko hazkundearekin.

90. grafikoa. Emakume bakoitzeko seme-alaba kopuruaren bilakaera ezkontzaren barruan eta kanpoan. EAE



Iturria: Jaiotzei buruzko Estatistika. Eustat.

1.2.2.3. Azkenaldiko aldaketak


Jaiotza-tasaren eta ezkutuko pobrezia-aren bilakaerari buruzko datuek azkenaldiko aldaketa batzuk adierazten dituzte, gazteen belaunaldi berrien emantzipazio-prozesuak aztertzean aipatu behar direnak. Aldaketa nagusia 2004. urte inguruan gertutakoa da.

1996-2000 aldian 35 urtetik beherako biztanleria eraginpean hartzen duen emantzipazio-tasen beherakadaren aurka —laurteko horretan % 23,4tik % 21,9ra jaitsi ziren—, 2004an nabarmen handitzen dira, % 36,5ean kokatuz. 2004. urtetik aurrera, goranzko joera sendotzen da, baina ez 2000-2004 laurtekoaren bizitasunarekin, eta 2009an % 41,1eko mailara iristen da. Emantzipazio-tasen hazkundera 18-24 urteko lagunen artean ere ikusten den arren —1996ko % 3,9tik 2004ko % 11,8ra igo ziren, eta 2009an, aldiz, % 10,8ra jaitsi dira—, aldaketa 25 urtetik gorakoen artean ikusten da nagusiki.

15-29 urtekoen kasuan, 2000-2004 aldian 20,3tik % 17,5era jaitsi ondoren, tasa % 34,5era igotzen da 2004an, eta hazkundera 2009ko % 37,6raino luzatzen da. Joera antzekoa da 30-34 urteko lagunen artean. 1996ko % 58,6tik 2000ko % 54,3ra jaitsi ondoren, emantzipazio-mailak zakarki handitzen dira % 68,1eraino. % 75,4raino iristen dira 2009an. Hortaz, datuek 2000-2004 aldian izandako aldaketa handia adierazten dute. Aldi horretan, belaunaldi gazteenen zati handi batek emantzipazioaren pausoa ematen du, eta, hazkunde-erritmo askoz txikiagoekin bada ere, prozesuak aurrera jarraitzen du 2004-2009 aldian. Hala ere, egiazta daitekeenez,

emantzipazio-tasa handienak soilik 30 urtetik gorakoetan ikusten dira, eta % 50etik oso urrun kokatzen dira oraindik 25-29 urtekoen artean.

91. grafikoa. Emantzipazio-tasen bilakaera adinaren arabera (%-tan) EAE




Iturria: PGDI 1996, 2000, 2004 eta 2008. 2009ko LMEaren Aurrerapena. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

1.2.3. *Familien tamainaren beherakada*

Jaiotza-tasaren beherakadarekin lotutako alderdietako bat EAEko etxeko unitateen batez besteko tamainaren beherakada izan da. 1970ean etxeko unitate bakoitzeko batez besteko 4,11 pertsonan kokatzen zen, eta zifra 3,32ra jaitsi zen 1991n, urtean batez beste % 1 txikituz. Etxeko unitateen tamainaren beherakada-erritmoa biziagotu egiten da 1991-2001 aldian, batez besteko tamaina urteko % 1,8ko erritmoan txikituz, eta urte horretan 2,76 lagunetan kokatuz. Horren ondorengo urteetako jaiotza-tasaren errekupeazioa gorabehera, tamainak txikitzen jarraitzen du 2009ko 2,68an kokatu arte. Hala ere, beherakadaren erritmoa moteldu egiten da aldi horretan, urteko batez besteko % 0,4an kokatuz.


92. grafikoa. Etxekoen unitateen batez besteko tamainaren bilakaera. EAE



Iturriak: Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldak, 1970, 1991 eta 2001. Eustat, EIN. PGDI 2008 eta 2009ko LMEaren Aurrerapena. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Familiaren tamaina etxekoen unitate bakoitzeko 3 lagunekoa baino handiagoa da soilik gurasoen kargura bizi diren seme-alabak edo gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoen unitateen kasuan (3,74 eta 3,38, hurrenez hurren), eta bestelako familia-taldeetan (3,90 kide etxekoen unitate bakoitzeko)¹².

93. grafikoa. Familiaren batez besteko tamaina familia motaren arabera. EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Etxekoen unitateen batez besteko tamainaren edo familiaren tamainaren beheranzko joera azaltzeko unean, oso garrantzitsua da familiaren tamaina mugatzeko joera duten eredu jakin batzuk adierazten dituzten egiturazko aldaketak gogoratzea, baita bikotean (ezkontideenak)

edo guraso bakarreko nukleo batean oinarritutako etxeko unitateen kopuruaren hazkunderako bidea ematen duen goranzko testuinguru ekonomiko batean ere —bereziki mende berrian—. Horregatik da interesgarria 90eko hamarkadan eta XXI. mendearen lehen urteetan gertatutakoan sakontzea; izan ere, aldi horretan jaiotza-tasaren gorakada pixka bat handiagoa izatea espero zitekeen.

Azpinarra daitekeen lehen alderdia da 1991-2008 aldian etxeko unitateen bizi den seme-alabarik gabeko bikote baten edo ezkondutako bikote baten bizikidetzan oinarritutako gurasoen etxeko unitateen proportzioan ikusitako hazkunde nabarmena. Proportzioa % 21,6 zen 1991n, eta % 26ra eta % 30,5era igo zen 2000. eta 2004. urteetan, hurrenez hurren. Hazkundera moteldu egiten da 2008an, baina oraindik ere adierazlea % 31,9raino iristen da 2008an. 2009an, proportzioa pixka bat txikitzen da, % 31,3an kokatuz.

94. grafikoa. Etxeko unitateen bizi den seme-alabarik ez duten bikote batean/ezkondutako bikote batean oinarritutako etxeko unitateen %-a. EAE




Iturriak: Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldak, 1991. Eustat, EIN. PGDI 2008 eta 2009ko LMEaren Aurrerapena. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Bigarren alderdi garrantzitsuak gurasoen eta guraso bakarreko etxeko unitateetan batez besteko seme-alaba kopuruan ikusitako aldaketei egiten die erreferentzia. Erreferentziatzko

¹² Hala ere, hemen biltzen diren azpimoten batez besteko tamaina oso desberdina da: 5,41 nukleo anitzeko etxeko unitateetan, eta soilik 2,21, nukleorik ez duten etxeko unitateetan.

etxeen unitateak aintzat hartuta, beherakada nabarmen bat egiaztatzen da, 1991ko 1,96tik 1996ko eta 2000ko 1,85ean gertuko zifretara. Bigarren beherakada nabarmena 2004-2008 aldian ikusten da, adierazlea 1,67ra eta 1,59ra jaitsi baitzen, hurrenez hurren. 1991-2000 aldian, erregistratutako beherakada deigarria da gurasoen nahiz guraso bakarreko familietako seme-alaben kopuruan (1,99tik 1,89ra lehen kasuan; 1,68tik 1,55era, bigarrenean). Bigarren beherakada, 2000-2008 aldikoa, gurasoen familiekin lotzen da bakarrik, eta adierazlea 2000ko 1,89tik 2008ko 1,60ra jaisten da. Guraso bakarreko familietan, aldiz, zifrak etxeen unitate bakoitzeko 1,55 seme-alaba inguruan mantentzen dira.

95. grafikoa. Seme-alaben batez besteko kopuruaren bilakaera seme-alabak dituzten gurasoen eta guraso bakarreko etxeen unitateetan, etxeen unitate motaren eta pertsona nagusiaren adinaren arabera. EAE




Iturriak: PGDI 1996, 2000, 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Ugalketarekin lotutako adierazleen beheranzko joeraren erakusle argiak badira ere, egia esan, adierazitako datuak zahartze-prozesu batek baldintzatzen ditu, eta, bizi-itzaropena handitzearekin eta belaunaldi gazteek geroz eta gehiago bizitza independente bat egitearekin lotuta, horrek guraso izandako ezkontideen etxeen unitateen garrantzia nabarmen handitzea ekartzen du (hau da, adin jakin batera iristean beren seme-alabak etxeen unitateetatik irteten direla ikusten duten adin jakin bateko ezkontideen etxeen unitateak). 50 urtetik beherako pertsona bat buru duten gurasoen eta guraso bakarreko etxeen unitateei buruzko datuek, jakina, xehetasun handiagoko panorama bat adierazten dute.

Garrantzi handiko aldaketa bat ikusten da gurasoen etxeen unitateetako seme-alaben batez besteko kopuruaren adierazlean 2004. urtetik aurrera. Etxeen unitateen multzoan beheranzko joerari eusten zaio 2004-2008 aldian —adierazlea 1,69tik 1,60ra jaisten da—, eta

50 urtetik beherako en etxeko en unitateetan, aldiz, adierazle horrek lehen aldiz gora egiten du, 1,69tik 1,70era igoz. Hortaz, adierazitako datuek esan nahi dute, zalantzarik gabe, funtsezko aldaketa bat gertatu dela euskal gizartearen ugalketa-portaeran, bereziki belaunaldi gazteenen kasuan, 2004-2008 aldian. 50 urtetik beherako bat buru duten eta seme-alabarik ez duten ezkontideen etxeko en unitateen proportzioaren beherakada nabarmena, laurteko horretan, lehen aldiz, gurasoen etxeko en unitateetako seme-alaben batez besteko kopuruaren hazkunde batekin lotzen da.

96. grafikoa. Seme-alabak dituzten ezkontideen etxeko en unitateetako batez besteko seme-alaba kopuruaren aldaketa laurtekoetan, etxeko en unitate motaren arabera



Iturriak: PGDI 1996, 2000, 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

2004-2008 aldian ikusitako aldaketa familia ugarien kopuruaren bilakaeran ere ikus daiteke¹³. 1996an 32.056 etxeko en unitate zeuden egoera horretan, 2000-2004 aldian 17.000tik 18.000ra bitarteko zifretara jaitsi zen zifra hori, eta, horren ondoren, 18.419ra igo zen 2008an. Termino erlatibotan, etxeko en unitateen guztizko kopuruari dagokionez, familia ugariak guztizkoaren % 5,6 ziren 1996an, eta 2008an, aldiz, % 3 dira.


¹³ Familia ugarizat jotzen dira 21 urtetik beherako 3 seme-alaba ezkongabe edo gehiago, lanerako ezgaituak edo 25 urtetik beherako ikasleak dituztenak.

2. ZAHARTZE PROZESUA

Euskal dinamika demografikoak EAEko familia-egituraren eraldaketa ekarri du, oro har, gizartearen zahartze erlatibo nabarmen bat ezaugarri gisa duen joera batekin. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, dinamika horrek adineko biztanleria epe luzean handitzea ekarri du, eta ez bakarrik 65 urtetik gorakoei dagokienez, baita 35 urtetik gorakoei dagokienez ere.

Bestalde, jaiotza-tasaren beherakadak 35 urtetik beherakoen bolumena txikitzea ekarri du. Beherakada nabarmenenak eta epe luzeak 15-21 urteko lagunak hartzen ditu eraginpean. Jaiotza-tasak azkenaldian izan duen gorakada gorabehera, 15 urtetik beherakoen kopurua nabarmen txikitu da. 25-34 urtekoei dagokienez, horien kopurua 2004. urtera arte handitu zela ikus daiteke, eta hortik aurrera horien biztanleria-bolumena txikitu egin da. Hala ere, oro har, eta zifra absolutuei dagokienez, egonkortze bati buruz hitz egin beharko genuke, 70eko hamarkadan erregistratutako zifrekin alderatuta.

97. grafikoa. Biztanleriaren bilakaera adin-taldean arabera. EAE



Iturria: Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldak, Eustat, EIN, PGDI 1996tik 2008ra bitarte, eta 2010eko Erroldaren Aurrerapena, EIN.


Nolanahi ere, termino erlatibotan, euskal biztanleriaren zahartze-prozesua errealitate eztabaidea da. Jarraian, zahartze-prozesuaren lotutako alderdi nagusiak aztertzen dira, prozesu horren adierazpenak nahiz inplikazioak xehetasunez aztertuz.

2.1. Prozesuaren adierazpenak

2.1.1. Adineko biztanleriaren garrantzi absolutuaren eta erlatiboaren hazkundera

Euskadi eraginpean duen zahartze-prozesuak bi dimentsio ditu. Lehenik, biztanleriaren zahartzearekin lotzen da zentzu hertsian, hau da, Euskadiko adin gehiagoko biztanleriaren bolumenaren nahiz garrantzi erlatiboaren hazkunderarekin. Baina termino erlatibotan, jaiotza-tasa txikiari eutsi eta bizi-itxaropena luzatzearen ondorioz ere biztanleria zahartzen ari da, etengabe. Izan ere, 1975. urtean 65 urtetik gorako pertsonak biztanleria guztiaren % 8,3 ziren bakarrik, eta 2000. urtean % 17,2 izatera heldu ziren. Prozesua azken hamarkadan egonkortu bada ere —neurri handi batean, gerra zibileko eta gerraondoko garaian jaiotako belaunaldiak hirugarren adinera iristearen ondorioz—, proportzioak gora jarraitzen du, 2010ean % 19,2ra iritsiz. Prozesu hori bateragarria da edadeko biztanleriaren barne-zahartzeko joerarekin. Neurri batean gerran eta gerraondoko garaian jaiotako belaunaldien biztanleria-bolumenaren beherakadaren ondorioz, 75 urtetik gorako biztanleriaren proportzioa 1975eko hirugarren adineko biztanleriaren guztizkoaren % 32,8tik 2000ko % 40,9ra eta 2010eko % 52ra igotzen da. 85 urtetik gorakoen proportzioa, bere aldetik, 1975eko % 5,1etik 2010eko % 13ra igotzen da.

98. grafikoa. 65 urteko eta gehiagoko biztanleriaren bilakaera. EAE




Iturria: Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldak, Eustat, EIN, PGDI 1996tik 2008ra bitarte, eta 2010eko Erroldaren Aurrerapena, EIN.

Biztanleriaren proiektzioek adierazten dutenez, aipatutako prozesua ez da mugatzen iraganen gertatutakora, hurrengo urteetan sendotuko baita. Horrela, aurreikusten da 65 urteko edo

gehiagoko pertsonen kopurua urteko batez besteko % 1,52ko hazkunde-tasarekin handituko dela. 65 urtetik gorako biztanleriak handitzen jarraituko du, 2009an 416.800 izatetik 2030ean 572.442 izatera igaroz. Edadeko biztanleriaren garrantzia, beraz, guztizko biztanleriaren % 26,1ean kokatuko da.


99. grafikoa. 65 urteko eta gehiagoko biztanleriaren bilakaera 2030. urtera arte



Iturria: Eustaten Biztanleriaren Proiekzioetan oinarrituta egindako kalkuluak

35-64 urteko geroz eta pertsona gehiago izango dituen biztanleria baten errealitateak etorkizunean egingo duen goranzko presioa da horren arrazoia. Izan ere, erreferentziazko kolektiboaren bolumena 1975eko 686.947tik 2010eko 963.102ra igo da, nagusiki adin-talde hori indartu duten 80ko hamarkadaren aurreko jaiotza-tasa handiaren eta immigrazio-prozesuen ondorioz. Hortaz, errealitate horren ondorioz, hurrengo 20 urteetan hirugarren adineko geroz eta pertsona gehiago egongo dira.

100. grafikoa. 35-64 urteko biztanleriaren bilakaera. EAE




Iturria: Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldak, Eustat, EIN, PGDI 1996tik 2008ra bitarte, eta 2010eko Erroldaren Aurrerapena, EIN.

2.1.2. Biztanleria potentzialki aktiboaren beheranzko joera

Bilakaera demografikoaren bigarren ondorioa, kasu honetan jaiotza-tasaren beherakadarekin lotua, 35 urtetik beherako biztanleriaren beheranzko joera da. Egia da mende berrian jaiotza-tasaren zifretan ikusitako gorakadak aukera eman duela 2010. urtean 287.714raino igotzeko 15 urtetik beherako kopurua. Hala ere, Euskadik 1975eko 15 urtetik beherako haurren bolumenaren % 49,8 eskasa dauka gaur egun.


101. grafikoa. 35-64 urtetik beherako biztanleriaren bilakaera. EAE



Iturria: Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldak, Eustat, EIN, PGDI 1996tik 2008ra bitarte, eta 2010eko Erroldaren Aurrerapena, EIN.

Hala ere, arazoa ez da aurreko kolektibora mugatzen. 15-34 urteko biztanleria barnean hartzen bada, bilakaera are negatiboagoa da. Horrela, gazteen kopurua 1975eko 635.606tik 1986-1996 aldian 680.000tik gorako zifretara igo ondoren, jaiotza-tasaren beherakadaren inpaktua argi eta garbi ikusten hasten da urte horretatik aurrera. Horrela, 1975eko zifren gertuko mailetara itzultzen da zifra 2000. urtean (639.087 pertsona), 1996-2000 aldian batez beste urteko % 1,6ko erritmoekin jaitsiz. Beherakadaren erritmoa biziagoa egiten da etengabe horren ondoren, eta batez beste urteko % 2,1ean kokatzen da 2000-2008 aldian, % 2,7raino ere igoz 2008-2010 aldian. 2010. urte hasieran, 15-34 urteko pertsonen bolumena 509.551ra murrizten da, hau da, 1975eko bolumena baino % 19,8 txikiagoa.


102. grafikoa. 15-34 urteko biztanleriaren bilakaera. EAE



Iturria: Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldak, Eustat, EIN, PGDI 1996tik 2008ra bitarte, eta 2010eko Erroldaren Aurrerapena, EIN.

Datu horiek inplikazio handiak dituzte produkzio-sisteman, bereziki biztanleria potentzialki aktiboaren bolumena txikitzeari dagokionez, izan ere, immigrazioak ekarri duen, eta ziur asko ekartzen jarraituko duen, ekarpena gorabehera, beheranzko presio baten eraginpean baitago. Adin potentzialki aktiboan dagoen euskal biztanleriaren jarduerarako egungo joera mantentzen bada, aktiboaren kopurua urteko % 0,79ko erritmoan txikituko litzateke 2009-2030 aldian, aktiboaren kopurua 1.035.133tik 875.520ra jaitsiz aldi horretan.

103. grafikoa. Biztanleria aktiboaren bilakaera 2030era arte



Iturria: Eustaten Biztanleriaren Proiekzioetan oinarrituta egileak egindako kalkulua

Biztanleria aktiboaren beheranzko prozesua jada martxan dago gaur egun. Aldaketa demografikoaren inplikazioak argi eta garbi ikusten dira jarduerarekin lotutako aldagaiei dagokienez. Horren haritik, ondorio nagusietako bat da 35 urtetik beherako biztanleria aktiboaren bolumenaren beherakada handi bat. 2007ko LMEaren emaitzek, jada, jardueraren % 24,3ko beherakada bat adierazten zuten 1993-2007 aldian 16-34 urteko biztanlerian. Adintalde horren baterako jarduera-tasa aldi horretan % 66,6tik % 70,1era igo bada ere, adierazitako krisiaren ondorioz zuzenena da adin horietako biztanleria aktiboaren bolumena % 20,3 jaitsi dela 1993-2007 aldian.

Joan den mendearen amaierako aldaketa demografikoaren inpaktua argi eta garbi ikusten da okupazioari dagokionez, beherakada handi batekin 35 urtetik beherako landunen kopuruan, baita krisialdi finantzarioa agertu aurretik ere. Horrela, 2001. urtera arte hazi egin bazen ere, 2001-2007 aldian % 18,6 jaitsi da Euskadin lanen bat duten 25 urtetik beherakoen kopurua. Oro har, 2005-2007 aldian % 3,3 jaitsi da 35 urtetik beherako landunen guztirako kopurua Euskadin.

Hurrengo urteetan, lan-merkatuan gazteen bolumena jaisteko prozesua areagotu egingo da. Eta horretan lagungarri izan daiteke azken urteotako etena; izan ere, jarduera-tasen gorakada, itxuraz, eten egin baita. Horrela, 1993-2003 aldian % 66,6tik % 72,5era hazi ostean, 35 urtetik beherako biztanleriaren jarduera-tasa % 70 inguruko mailan egonkortu da 2003-2007 aldian. Adierazitako eten horrek ez ditu eraginpean hartzen soilik 25 urtetik beherakoak —biztanleria



horren jarduera-tasak 2003ko % 45,2tik 2007ko % 38,1era jaitsi dira—. 25-34 urtekoen jarduerarako joera ere etengabe jaitsi da 2003az geroztik; urte horretan % 89,4 zen, eta 2007an, aldiz, % 87,4. 2007ko laugarren hiruhilekoaren eta 2009koaren artean ikusitako bilakaerak adierazitako joeretan sakontzen du. 16-34 urtekoen artean erreferentziazko aldian jarduera-tasa % 70,1etik % 65,5era jaitsi da, eta horrek, beheranzko oinarri demografikoarekin batera, % 6,5eko beherakada ekarri du erreferentziazko biurtekoan 35 urtetik beherako biztanleria aktiboaren bolumenean. Horretaz gain, krisialdiaren inpaktua bereziki nabarmena da okupazioaren beherakadari dagokionez 35 urtetik beherakoan artean, adin-talde horren okupazioa % 20,3 txikitu baita 2007-2009 aldian. Bilakaera horren ondorioz, kolektiboak guztizko okupazioari egiten dion ekarpena txikiagoa da. Horrela, 2007ko guztizko okupazioaren % 34,6tik 2009ko % 28,7ra jaisten da.

2.2. Zahartze-prozesuaren inplikazioak

Zahartze-prozesuak, bere alor guztietan, inpaktu nabaria dauka eta izango du euskal gizartean. Alde batetik, argi dago eragina izango duela pentsioen estalduran eta gizarte-zerbitzu batzuen eskariari emandako erantzunean, bereziki funtsean Hirugarren Adinari zuzendutako erantzunean, hala nola mendetasunaren arretarekin lotutakoak.

Hain zuzen ere, biztanleria zahartzearen ondorioz, gaitasuna edo autonomia murriztearekin lotutako mendetasun-tasa areagotzen ari da, intzidentzia oso altua izanik 75 urtetik gora. Arazoaren inpaktua balioesteko, jarraian, zahartze-prozesuaren inpaktuaren adibide zehatz bati buruzko datuak eskaintzen dira: mendetasun bereziari buruzkoak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuen eskariarekin lotuta. Bestalde, zahartze-prozesuak, baita hori areagotzen duen bizi-itxaropenaren hazkundeak ere, aldaketa garrantzitsu batzuk ekartzen ditu etxeko unitateen eta familien sisteman. Horren haritik, bizi-itxaropena luzatzearen ondorioz, ezkontza-bizitza luzatu eta guraso izandako familien kopurua handitu egin da, bestela esateko, seme-alabak emantzipatu eta etxetik kanpo dituzten heldu-bikoteen kopurua; baita lagun bakarreko familien kopurua ere, eta lagun bakar hori, kasu askotan, 70 urtetik gorako emakume alargun edo banandua izaten da.




2.2.1. Zahartzea eta Ongizate Estatua

80ko hamarkadaz geroztik Euskadin ikusten den bilakaera demografikoak bi ondorio garrantzitsu ditu gizarte-zerbitzuen eskariari dagokionez. Lehenak adineko biztanleriaren hazkundearekin du zerikusia, heriotza-tasen hobekuntza nabariarekin lotua. Bilakaera horrek premien eta arreta-eskariaren gainean izango dituen inplikazioak nabariak dira. 2006ko Euskadiko mendetasun-tasak eta lotutako eskari-maila mantentzearen hipotesian, egiaztatu egiten da mendetasun bereziren bat duten edozein adineko lagunen kopurua % 1,34 handituko dela urtean 2030. urtera arte, eta hazkundera handiagoa izango da eskari potentzialari dagokionez, aldagai horrek adinekoekin duen loturagatik, eta hazkunde handieneko mailetan demografiari dagokionez. Horrela, eskariaren urteko batez besteko hazkundera % 1,67 izango dela kalkulatzen da. Termino absolututan, horrek esan nahi du mendetasun bereziren bat dutenen kopurua 2009ko 126.513tik 2030eko 167.172ra igoko dela. Etxez etxeko zaintza pertsonalen eskari potentziala 2009ko 77.000ren inguruko zifretatik 2030eko 109.077ra igoko da.

Etxez etxeko laguntza erreferentzia gisa hartuta, gorakada horren inplikazioak bereziki nabariak dira, kontuan hartzen bada etxez etxeko laguntza esparruko zerbitzu publikoak sendotzeak bide horretatik bideratutako eskariaren hazkunde handi bat ekar dezakeela. Horren ildotik, 2006an adierazitako eskariaren % 30,4k bakarrik —21.500 lagun inguru— zuen estalia arreta etxez etxeko laguntza-zerbitzu publikoen bitartez. % 25,4k zerbitzu partikularren kontratazioaren bitartez estaltzen zituen bere premiak, eta % 14,7k senitartekoen edo bizilagunen laguntza zuen. % 29,5k ez zuen laguntzarik jasotzen.

2030. urtean eskari potentzialaren % 50ari zerbitzu publikoen bitartez erantzutea helburu gisa ezarriko balitz, premiekiko pixkanakako hurbiltze baten hipotesian, horrek esan nahiko luke arreta-mailak urtean % 3,96 handitu beharko lirakekeela. Eskari potentzialaren % 75 estaltzera hurbiltzeko asmoa izanez gero, ezinbesteko batez besteko urteko hazkundera % 5,73 izango litzateke.


104. grafikoa. Mendetasun berezia duen biztanleriaren eta horien etxez etxeko zaintza pertsonalen eskariaren bilakaera 2030. urtera arte. EAE



Iturria: Eustaten Biztanleriaren Proiekzioetan eta 2006ko GZEE-OINean oinarrituta egindako kalkuluak

Baina are garrantzitsuagoa da kontuan hartzea kolektiboarekiko arreta biztanleria potentzialki aktiboaren beherakada-testuinguru batean gertatuko dela. Aztertutako bi faktoreen arteko harremana da biztanleria aktiboaren eta zerbitzuen eskatzaile potentzialen kopuruaren arteko ratioak etengabe txikitzeko joera izango duela. Etxez etxeko laguntzaren kasuan, zehazki, eskatzaile bakoitzeko aktiboen kopurua 13,9tik 8ra jaitsiko litzateke 2009-2030 aldian.

105. grafikoa. ELZko zaintza-eskatzaile potentzial bakoitzeko aktiboen kopuruaren bilakaera 2030. urtera arte






Iturria: Eustaten Biztanleriaren Proiekzioetan eta 2006ko GZEE-OINaen oinarrituta egindako kalkuluak

Aurreko datuek jarduera eta okupazioa praktikan gauza bera direla hartzen dute oinarritzat, epe luzea behintzat. Datuak ikusita, funtsezkoa da krisialdiaren aurreko okupazio-mailak berreskuratzea eta zabaltzea. Erronka azalduta dago, kontuan hartzen bada, milioi bat enplegurekin —euskal ekonomiak lortuta zifra altuena—, aktibo landunak/eskatzaileak ratioa soilik 9,17 handituko litzatekeela 2030ean. 10eko ratioa lortzeak ia 1.100.000 enplegura iristea suposatuko luke. Hori lortzeko, ezinbestekoa izango litzateke —lanpostu berriak sortzen dituen politika baten testuinguruan— jardueran biztanleriaren partaidetza-mailak handitzeko ekintzak eta Autonomia Erkidegotik kanpoko biztanleria erakartzeko ekintzak konbinatzea.

Jakina, sistema ekonomikoaren produktibitatearen hazkundeak, sektore publikotik aldentutako zerga-baliabideen hazkundearekin, diagnostikoa hobetuko luke. Baina Herri Administrazioek gaur egun dituzten zerga-arloko zailtasunak eta langabeziaren hazkundera ikusita, zuhurrena izango litzateke aldagai horri dagokionez optimismo gehiegi ez izatea. Historiaren esperientziak argi eta garbi frogatzen du ekonomiaren aurrerapena ez dela lineala, eta ez da beti aurrerabidearekin lotu.

70eko hamarkadatik 90eko hamarkadara bitarteko aldaketa demografikoaren inplikazioak erabakigarriak izan dira etxekoen unitateen egituraren zahartzean. Deigarriena da Euskadin 45 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxekoen unitateen garrantzia oso txikia dela, 2008an % 29,8 baita, eta % 9,1 bakarrik dagokie 35 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxekoen unitateei. 2000-2004 aldian gorakada bat ikusten bada ere (% 26,3tik % 32,5era), joera egoeraren araberakoa dela dirudi, proportzioa % 29,8ra jaitsiz 2008an. Hortaz, Euskadiko etxekoen unitate gehienetan burua 45 urtetik gorako pertsona bat da, eta 65 urtetik gorako burua dutenak asko dira (% 32). Etxekoen unitateen % 15,8 soilik 75 urtetik gorakoei dagokie.

106. grafikoa. Etxeko enbunitateak nagusiaren adinaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: 1996tik 2008ra bitarteko PGDI. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


3. IMMIGRAZIOA

Era berean, funtsezko aldaketa demografiko bat, Euskadin bizi diren familien egoera eta premiak balioesteko kontuan hartu behar dena, biztanleria etorkinarekin lotuta dago, 90eko hamarkadaren amaieratik indar handiarekin handitzen ari den kolektiboa baita. Immigrazio-prozesuaren inpaktu kuantitatiboa eta kualitatiboa ezin da inolaz ere gutxietsi.

3.1. Inpaktu kuantitatiboa


Biztanleria etorkin atzerritarra kolektibo kuantitatiboki marjinala zen Euskadin 80ko hamarkadaren erdialdean. 1986an, 5.275 ziren, hau da, EAEko guztizko biztanleriaren % 0,2. 1999. urtera arte hazkundearen erritmoa urtean batez beste 9,3 izan bazen ere, urte horretan kopurua oraindik ez zen 16.793 baino handiagoa, hau da, guztizkoaren % 0,8. Biztanleria etorkin atzerritarren bolumenaren hazkundera, egiaz, 1999. urtean hasi zen, 1999-2005 aldian urteko % 27,7ko erritmoarekin handituz. 2010ean jada 139.229ra iristen zen horien kopurua, hau da, urte horretako EAEko guztizko biztanleriaren % 6,4.

107. grafikoa. Biztanle atzerritarren bilakaera. EAE



Iturria: Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldak, Eustat, EIN, PGDI 1996tik 2008ra bitarte, eta 2010eko Erroldaren Aurrerapena, EIN.


108. grafikoa. Biztanleria atzerritarren garrantzi erlatiboa (%-tan). EAE



Iturria: Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldak, Eustat, EIN, PGDI 1996tik 2008ra bitarte, eta 2010eko Erroldaren Aurrerapena, EIN.

Etxekoen unitateei dagokienez, 2008an, 45.087 etxekoen unitate ingururen burua atzerritar bat da, hau da, EAEko guztizko etxekoen unitateen % 5,7. Zortzi urteko epean, etxekoen unitate horien garrantzia ia bostez biderkatu da.


109. grafikoa. Familia-erantzukizunak dituen pertsona bat gutxienez atzerritarra den etxekoen unitateen garrantzi erlatiboa (%-tan). EAE



Iturria: 2000tik 2008ra bitarteko PGDI

Ikuspegi kuantitatiboari dagokionez, aipatu beharreko azken datua da, Familiei buruzko Inkestaren arabera, 2008an EAEn bizi diren etorkinen % 6,5aren artetik, % 1,4k nazionalitate espainola duela. Horrek esan nahi du atzerriko nazionalitatea duten lagun guztien % 22,4k lortu duela Espainiako herritartasuna; tasak honako hauek dira: % 27,8 EBko beste herrialde batzuetatik datozenentzat, eta % 21,3 EBtik kanpoko herrialde batetik datozenentzat.

110. grafikoa. Atzerriko nazionalitatea duten eta Espainiako herritartasuna ere baduten lagunen %-a, atzerriko nazionalitatearen jatorriaren arabera. EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


3.2. Inpaktu kualitatiboa

Espainian atzerriko immigrazioaren ezaugarrietako bat izan da ez dela prozesuaren antolamendurik egin, eta horrek immigrazio mota espezifiko bat bultzatu du, gizarte-zailtasunek markaturikoa. Alderdi deigarrietako batek hezkuntza-mailari egiten dio erreferentzia, biztanleria gazte nazionalaren eta biztanleria atzerritarraren prestakuntzako ezaugarrien arteko alde handia nabarmenduz. Lehen kolektiboaren kasuan, erreferentziazko aktiboen % 58,4k ikasketa kalifikaturen bat dauka (LH II edo hirugarren mailako ikasketak), eta aktibo atzeritarren kasuan, aldiz, % 78 ez da horrelako kalifikazioetara iristen.

Ikasketa-mailaren arabera aktibo atzeritarren garrantzi erlatiboa 35 urtetik beherako aktibo nazionalekin konparatuta egiazta daitekeenez, atzeritarrak EAEko gazte aktiboen % 55,6 dira lehen ikasketen ondoko ikasketarik gabeko biztanleriari dagokionez. Ekarpina handia da oraindik, % 33,9an kokatuz, LH I-eko ikasketak edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako


ikasketak dituztenei dagokienez. Hirugarren mailako ikasketei dagokienez, aldiz, % 11,4ra jaisten da, eta proportziorik txikiena % 2,9 da LH II-n. Aurkeztutako datuak ikusita, bistakoa da atzerriko immigrazioak ez duela konpentsatzen Euskadiko krisialdi demografikoaren ondoriozko biztanleria kalifikatuko eskaintza-defizita. Aitzitik, ikasketa kalifikaturik gabeko aktiboen kolektiborako ekarpen handia suposatzen du.

111. grafikoa. Ikasketa-maila konparatua: 35 urtetik beherako aktibo nazionalak eta aktibo atzeritarrak



Iturria: PGDI 2008

112. grafikoa. Biztanleria aktibo atzerritarren garrantzi erlatiboa 35 urtetik beherako nazionalarekin alderatuta, ikasketa motaren arabera



Iturria: PGDI 2008

Azpimarratu beharreko beste alderdi bat biztanleria etorkin atzerritarrak lan-merkatuan eta produkzio-sisteman sartzeko aurre egin behar dituen oztopoak dira. 2009an, 2009ko LMEaren datu Aurrerapenaren arabera, kolektibo hori Euskadiko biztanleria potentzialki aktibo guztiaren % 5,6 da, hau da, PGDIak 2008ko bigarren hiruhilekoan adierazten zuen zifratik gertu. Une horretan, biztanleria aktiboaren inkestak (BAI), bere aldetik, % 7,4an kokatzen zuen etorkin atzerritarrez osatutako biztanleria aktiboaren proportzioa, eta iturri horren arabera, proportzio horri eutsi zitzaion 2010eko lehen hiruhilekoan.

Etorkinen jarduerarako joera gainerako biztanleena baino handiagoa da (% 76,6, bertakoena % 70,0 izanik 2009an), baina egia esan behar bada, lan-merkatuan egoera askoz ere negatiboagoak pairatu behar izaten dituzte. 2009ko LMEaren Aurrerapena erreferentzia-iturri gisa hartuta, horri buruzko adierazle nagusiak honako hauek dira:

- Langabezia-tasa ia lau aldiz handiagoa da biztanleria etorkinaren artean (% 35,2, biztanleria nazionalarena % 9 izanik), bereziki Europar Batasunetik kanpoko etorkinen kasuan (% 38,4, EBko gainerako herrialdeen kasuan % 23 izanik).



- Soldatapeko biztanleriaren barruan, kontratu mugagaberik gabe lan egiten dutenen proportzioa askoz ere handiagoa da kolektiboan. Europar Batasunetik kanpoko etorkinen % 47,3k aldi baterako kontratuarekin edo kontraturik gabe lan egiten du, eta proportzioa % 42,7ra ere heltzen da Batasuneko beste Estaturen bateko herritarren kasuan. Biztanleria nazionalari dagokionez, proportzioa % 17,2ra murrizten da.
- Testuinguru horretan, honako hau ere aipatu behar da: Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren % 21,2 kontraturik gabe ari da. Europar Batasuneko beste Estaturen batetik etorritakoen artean, proportzioa % 3,6 da, eta soilik % 1,1 Estatuko herritarren artean.
- Lan ez-kalifikatueta presentzia oso handia dute. Horren ildotik, Europar Batasunetik kanpoko herrialderen batetik etorritako soldatapeko biztanle landunen % 52,6 lanbide-kategoria horretako lan batean ari da. Zifra % 28ra jaisten da Europar Batasuneko beste Estaturen batekoen artean, eta % 16,8ra Estatuko herritarren artean.
- Bestalde, 16-64 urteko atzerritar aktiboen % 19,7k ez du lanerako baimenik. Proportzioa % 41,6raino igotzen da gaur egun langabezian dagoen biztanleriaren kasuan. 2009ko amaieran, biztanleria landu atzerritarren % 7,8k bakarrik egiten du bere jarduera lan-baimenik gabe, 2007ko % 16,8aren azpitik.

Alderdi horri dagokionez, eta 2008ko Familiei buruzko Inkestako datuen arabera, azpimarratu behar da 16-64 urteko etorkinen % 15,2k ez duela egoitza-baimena Euskadin.

Hazkunde ekonomikoaren moteltzeak eta horren ondoko krisialdiak eragin larria dauka kolektibo horretan, aldaketa deigarriena izanik 2006. urtera arte langabezia-tasen beheranzko joeran ikusitako hausturari erreferentzia egiten diona. 2005eko % 12,3tik 2006ko % 8,2ra jaitsi ostean, langabezia-mailak gora egiten du 2007. urtean, EAEko atzerritar aktiboen % 8,7 eraginpean hartuta. 2009an, euskal ekonomiaren krisialdiaren ondorioz, tasa % 38,4raino igotzen da. Prekarietate ekonomikoak Euskadin bizi diren etorkinengan duen inpaktuari buruzko datu eguneratuak ez daude eskuragarri. Euskadiko babes-sistema gorabehera, litekeena da 2008an biztanleria etorkin atzerritarren taldean ikusitako pobrezia-tasa dagoeneko oso altuak handitzeko joera izan dutela horren ondoren.



Nolanahi ere, egia esan, biztanleria etorkin atzerritarrek —bereziki Erkidegotik kanpokoak— garrantzi erabakigarria izan du Euskadiko prekarietate ekonomikoko egoeren bilakaeran 90eko hamarkadaz geroztik, hain zuzen ere, pobreziako eta prekarietateko tasa altuagoak izan dituztenez gero, tasa orokorren hazkundera eragin dutelako (nolanahi ere, eta partzialki, beste faktore batzuekin konpentsatutako hazkundera, hala nola bertako biztanleriaren tasen beherakada). Nolanahi ere, azpimarratu behar da beste herrialdeetako pertsonak buru dituzten etxekoen unitateetako lagunek % 70,3ko probabilitatea dutela erabateko ongizateko egoera bat ez lortzeko, PGDIaren datuen arabera, eta bertako biztanleriaren kasuan, aldiz, probabilitatea % 18,4 da. Biztanleria nazionalaren pobrezia-tasetan ikusitako beherakada handiaren aurka (2000. urtean erregistratutako % 32,8tik), atzerritar bat buru duten etxekoen unitateen kasuan pobrezia-maila 2000. urteko % 62,2tik igotzen da, azken urteetan pixka bat txikitu bada ere 2004ko gehieneko % 83,8tik.

Nolanahi ere, desberdintasun nabarmenenak nazionalen eta atzerritarren artean benetako pobreziako egoeren intzidentzia aztertzean ikusten dira: benetako pobreziaren tasa 2008an % 1,9an kokatzen da bertako biztanleriaren kasuan, eta biztanle atzerritar bat buru duten etxekoen unitateetan, aldiz, proportzioa % 25,6raino iristen da.

Biztanleria atzerritarren artean benetako pobreziako arazoen hazkundera, biztanlerian duten garrantzi erlatiboa handitzen den eta bertakoen artean arrisku-mailak txikitzen diren testuinguru batean, kolektibo pobreetan duten garrantzia nabarmen handitzea dakar. Atzerritar bat buru duten etxekoen unitateetan bizi direnak benetako pobreziako egoeran dauden lagun guztien % 3,4 izatetik % 41,7 izatera igaro dira 2000-2008 aldian. 2004an jada jauzi handi bat ikusten bada ere —% 18,6—, atzerritarren etxekoen unitateetan bizi diren biztanleen benetako pobreziako egoeretako parte-hartzearen hazkunde nabarmenena 2004-2008 aldian ikusten da. Gainera, dirudienez, datu guztiek adierazten du krisialdiak areagotu egin duela biztanleria atzerritarren parte-hartzea Euskadiko pobrezia eta prekarietate ekonomikoko errealitateetan.



**HIRUGARREN ZATIA:
FAMILIEN EGOERA**



SARRERA

Txosten honen hirugarren eta azken zatian familien egoera aztertuko dugu, baita familiei eragiten dieten arazoen pertzepzioa ere. Arazo horien artean honako gai hauek sartzen dira: enpleguaren egoera, diru-sarreraren eta gastuen maila, bizimodu independentea lortzea (horrekin loturiko ugalketa-arazoak barnean hartuta), etxebizitza, gaixotasunen, desgaitasunaren edo baliaezintasunaren eragina, inoren laguntza behar dutenak (adingabeak eta adinekoak) zaintzearekin loturiko premiak, edo familia-bizitzaren garapenari eragiten dioten arazoak.

Azterlanaren gai nagusi horri heldu aurretik, familia-sistema bera aldatu egin dela aipatu behar dugu, honako hauek kontuan izanik: alde batetik, familia-sisteman izandako egiturazko aldaketak eta, bestetik, balio, itxaropen, xede eta bizi-proiektuen kultura-konplexuarekin loturiko dinamika. Ildo horri jarraiki, kontuan izan beharreko aldaketa nagusien artean, bereziki, balioak eta portaerak sekularizatzeko prozesuarekin loturikoak aztertuko ditugu, baita gizarte modernoetan emakumeari esleitutako onarpenarekin loturikoak ere.



1. FAMILIA SISTEMA

1.1. Familia-balioak


Ikertzaile gutxik ukatuko lukete familia-fenomenoaren aurrean herritarren jarrerak baldintzatzen dituzten gizarte-balioetan aldaketa sakona gertatu dela. Dena den, azterlan honetan kontuan izan ditugun gainerako faktoreetan ez bezala, ez dago aldizkako estatistika-iturririk familia-balioetan izandako aldaketen jarraipen iraunkorra egitea ahalbidetzeko. Atal honetan, iturri nagusia honako hau izan dugu: Gazteen argazkiak; Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzaren Ikerketa Soziologikoko Kabineteak egindako azterlanak dira eta aldaketa horiek ulertzeko erabakigarriak dira.

Bereziki interesagarria da 1998ko uztaileko Gazteen Argazkiak 1997 dokumentuan familia-balioei buruz egindako azterketa. Azterketa horretan, familia-balioak konparatzen dira 30 urtetik beherakoen eta gorakoen artean, dinamika demografikoa aldatzeko eta familia-unitate berriak osatzeko gakoa den une batean.

1.1.1. Familia-balioei eustea eta egokitzea

Konparazio-hurbilketa horretan aipatu beharreko lehen alderdia zera da, EAEko herritarren belaunaldi berriak osatzen dituzten pertsona gehienentzat familia oso garrantzitsua dela. Euskadiko gazteen bizitzan garrantzia duten gizarte-errealitateak aipatzeko garaian, familiak lortu du mailarik handiena, lagun edo ezagunekiko harremanaren edo lanaren, aisialdiaren edo astialdiaren garrantziaren gainetik; 15-29 urteko gazteen artean puntuazioa apur bat txikiagoa (3,8) izan da, 30 urte eta hortik gorakoen artean baino (3,9).


113. grafikoa. Gizarte-errealitate jakin batzuei emandako garrantzi-maila adinaren arabera. EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza
Oharra: 1etik 4ra (garrantzi txikienetik handienara) bitarteko erantzun-eskalan oinarritutako datuak.

Horretaz gain, 15-29 urtetik beherako pertsona gehienek kasuan (% 65), familiari ematen zioten gizarte-garrantziaren maila aurreko urteetakoaren berdina edo handiagoa zen (30 urte edo gehiagokoei esandako zifra bera).

114. grafikoa. Familiaren garrantziaren bilakaeraren balioespena adinaren arabera. EAE.




Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza

1997. urtetik aurrerako Gazteen Argazkietako ezein datuk ez du adierazten aldaketa esanguratsurik gertatu denik euskal biztanleriak familiari dagokionez egiten duen balioespen garrantzitsu horretan. Hala ere, ezin dugu ukatu euskal gazteen belaunaldi berrietan familia-errealitateen balioespenetan ñabarduna deigarriak daudenik, baina aurreko belaunaldiak ere bat egiten dute ñabardura horiekin, hein handi batean. Ildo beretik, aztertutako herritarren % 30

inguruk familia-erakundeari garrantzi txikiagoa ematen zaiola sumatu du; horrek esan nahi du gizartea malguago bihurtu dela gai horri dagokionez.

Izan ere, familiaren balioespen-maila handiari eutsi egin zaio erakunde hori egokitzeke gai izan delako eta gaitasun hori gehiengoaren onarpena finkatzeko gaitasunarekin loturik dago, bai gurasoen eta seme-alaben arteko harreman irekiaren balioetan, bai gurasoei esleitutako aginte-printzipioaren onarpen-balioetan, nahiz eta 30 urtetik beherakoen artean aginte-planteamendu horrek behera egin duen (% 61 bat dator aginte-printzipioarekin, baina % 36 ez dator bat aginte horri nola edo hala eutsi behar izatearekin eta 30 urtetik gorakoen % 23k ere horixe bera uste du).

115. grafikoa. Familian harreman irekiaren balioa eta aginte-balioa balioestea (adostasuna %-tan).
EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza


Ikusi ditugun egokitze-maila handiak beste hainbat faktoreren eraginaren ondorioz gertatu ahal izan dira, faktore garrantzitsuenetako bat barne-portaerak malguago bihurtzea izanik. Malguago bihurtze hori bi dimentsio nagusitan sumatu da: askatasun-mailak areagotzearekin loturik, eta semeen eta alaben arteko berdintasuna handitzearekin loturik.

Bi dimentsio horietan, 90eko hamarkadaren erdialdera 30 urtetik beherakoen nahiz gorakoen iritziei erreparatuta, familia berriaren dinamikan aldaketa garbia gertatu dela ikus daiteke, duela hogeit urtekoarekin alderatuta. Familian askatasun handiagoa sumatzen zutenen eta askatasun txikiagoa sumatzen zutenen arteko diferentziala 90 puntu inguru zen 1997. urtean, 30 urtetik beherakoen eta gorakoen artean. Semeen eta alaben arteko berdintasunari dagokionez, diferentzial hori ere handia zen, 65 puntutik gorakoa.

Familiaren barruan askatasun handiagoa izatea familia-hierarkien balio-galerarekin loturik dago; izan ere, 60 puntu baino gehiago murriztu da aitarekiko eta amarekiko errespetuaren adierazlea, baina beherakada horrekin batera, gurasoekiko konfiantza-mailak gora egin du. Familia-bizitzari emandako denbora murriztu izanarekin ere loturik dago —30 urtetik beherakoetan 37 puntuko jaitsiera eta adin horretatik gorakoan artean 43 puntukoa—, eta ezin dugu ahaztu familia zabalaren eginkizuna ere gutxitu egin dela —43 puntuko jaitsiera 30 urtetik beherakoan artean eta 50 puntukoa hortik gorakoan artean—.

Bestalde, familia-sistema aldatu izanak eragina izan du, halaber, familia seme-alabentzat ongizate handiagoaren bermatzaile izatearekin loturiko alderdietan. Hori horrela izanik, 45 puntuko diferentziala dago 30 urtetik beherakoan artean seme-alaben heziketari familian arreta handiagoa ematen zaiola dioten alde, eta 53 puntuko diferentziala, aldiz, adin horretatik gorakoan artean.

116. grafikoa. Familian atzemandako aldaketak duela 20 urteko familiarekin alderatuta, adinaren arabera. EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza


Oharra: Aztertutako egoeretan hazkundera izan dela dioten ehunekoaren eta jaitsiera izan dela dioten ehunekoaren arteko aldea adierazten dute zifrek.

Era berean, familiaren egokitzeko gaitasuna hainbat balio partekaturi eustearekin loturik dago; esate baterako, familia-eremuan seme-alaben heziketarako erreferentziazko elementuak. 30 urtetik beherakoan eta gorakoan artean, adostasun-maila handia dago gai horri dagokionez (% 80tik gora bi taldeetan) eta ez dugu alde nabarmenik ikusi bi taldeen artean oinarritzko balioen (elkartasuna, tolerantzia, originaltasuna/irudimena eta esfortzu pertsonala) transmisioari dagokionez.

% 60-75 bitarteko zifretara murriztu den arren, adostasun-maila handia dago oraindik ere honako printzipio hauek onartzeari dagokionez: kontsumismoaren kontrola, herri-ohituren balioespena, eta portaerako gizarte-arauen onarpena nahiz agintedun pertsonetikiko obedientzia. Hala ere, alderdi horietan gazteek konpromisoa galdu dutela esan dezakegu, 30 urtetik gorakoek baino 10-16 puntu gutxiago atera baitituzte. Lehiakortasun-balioei dagokienez, 30 urtetik beherakoen artean beherazko joera ikus daiteke, nahiz eta kasu horretan printzipio hori onartzen dutenak gutxiengoa izan (% 31, eta 30 urtetik gorakoen artean % 44).

Egia esan, puntu bakarrean sumatu dugu aldaketa garrantzitsua —aurrerago aztertuko dugu, sekularizazioaren aurrerabideari helduz—; hain zuzen ere, erlijioarekin loturiko arau eta ohiturekiko errespetuaren balioaren transmisioan. 30 urtetik gorakoen artean % 60 konprometituta dago seme-alaben hezkuntza-printzipio horrekin, baina gazteagoen artean % 31 baino ez dira.

117. grafikoa. Seme-alaben hezkuntzan indartu beharreko balioak (garrantzi nahikoa edo handia ematen dioten %a). EAE




Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza

Oinarrizko hainbat familia-balioren jarraipena ikus daiteke, halaber, dinamika demografikoarekin loturiko alderdi erabakigarrietan, bereziki, seme-alaba kopuru idealari dagokionez. Ildo beretik, 30 urtetik beherakoen artean gehiengoak (% 80,8) seme-alaba kopuru idealaren ikuspegi propioa eta espezifiko du, 30 urtetik gorakoen % 72,4 gaindituta; azken horien artean, % 22,4k uste du ez dagoela kopuru idealik (% 17,2 gazteagoen artean).

Seme-alaben kopuru ideala ez da askorik aldatu: kopuru jakin bat esan duten 30 urtetik gorakoen artean 2,33 da eta gazteagoen artean 2,27. Seme-alabarik izan nahi ez dutenen proportzioa oso-oso txikia da bi kasuetan (30 urtetik gorakoetan % 2; hortik beherakoen artean % 1).


118. grafikoa. Seme-alaba kopuruari buruzko adierazleak (%-tan) EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza

Gurasoen etxetik alde egiteko adin ideala ere ez da askorik aldatu belaunaldi batetik bestera. 30 urtetik gorakoen artean 25,5 urteko adina lehenesten dute eta 30 urtetik beherakoen artean adin txikiagoa (24,9 urte).

119. grafikoa. Gurasoen etxetik alde egiteko adin ideala. EAE




Iturria: Gazteen Argazkiak 1999-2000

Datu horiek ez datoz bat errealitatearekin, jaiotza-tasa oso txikia eta emantzipatzeko adina atzeratzen ari den errealitatea baitugu. Bikoteek haur bat edo bi baino ez izateko arrazoiei dagokienez, bi adin-tarteetan antzeko arrazoiak eman dituzte. Eragozpen nagusia, nola ez, dirua da. 30 urtetik gorakoen artean % 82k dio seme-alaben arreta oso garestia dela. Horrekin loturik, % 20k uste du gaur egun ezinezkoa dela seme-alaba asko izan eta egoki artatzea,

egungo gizarteak eskatzen dituen arreta-mailekin. Lanarekin loturiko eragozpenak ere handiak dira, baina neurri txikiagoan. % 26aren ustez lana eragozpen izaten da arreta emateko eta % 9aren ustez seme-alaba asko izateak lan-aukerak murriztea dakar. Ama izateko adina atzeratzea ere faktoreetako bat da, kontsultatutako pertsonen % 22k aipatu duela. Bukatzeko, dimentsio hedonistenari helduta, 15-29 urteko gazteen % 21aren ustez seme-alaba asko izateak askatasuna edo lasaitasuna murrizten du; aldiz, 30 urtetik gorakoen artean, horixe bera pentsatzen dutenen proportzioa zertxobait handiagoa da (% 22).

120. grafikoa. Seme-alaba bat edo bi baino ez izateko arrazoiak (%-tan). EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza


Familia gizarte-errealitate berrira egokitzeko prozesua, zalantzarik gabe, arrakastatsua izan da. Gazteen Argazkiak 2003 dokumentuan, eta 1-10 eskala batean, 15-29 urtekoek 8,3 puntu eman zizkioten familiarekiko gogobetetze-mailari, lagunekiko harremanei emandako 8,4 baino hamarren bat soilik gutxiago.

1.1.2. Balioak eta portaerak sekularizatzea

Gizarte-balioetan izandako beste aldaketa garrantzitsu bat gizarte-ohiturak sekularizatzea da, euskal gazteen belaunaldi berrien ugalketa-portaeran ondorio handiak baititu. Erlijioak garrantzia eta, beraz, eragina galdu du eta datu hori ukazina da EAEko gazteen belaunaldi berriek ematen dioten balio mugatuari erreparatuz gero (2 puntu eskas 1-4 eskalan).

Aurreko belaunaldiei dagokienez, aldaketa deigarria da, izan ere, 30 urtetik gorakoen artean 2,5era eta 30 urtetik beherakoen artean 2ra murriztu baita erlijioak jendearen bizitzan duen garrantziaren balioespen-indizea. Baina jaitsiera hori bezain garrantzitsua da erlijioari — bizitzaren beste dimentsio batzuekin alderatuta— ematen zaion garrantzi txikiagoaren errealitatea, ez soilik 90eko hamarkadan 30 urtetik behera zituztenen artean, baizik eta baita aurreko belaunaldian ere.

121. grafikoa. Erlijioari emandako garrantzi-maila adinaren arabera. EAE




Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza
Oharra: 1etik 4ra (garrantzi txikienetik handienara) bitarteko erantzun-eskalan oinarritutako datuak.

Sekularizazioaren ideia hori atzeman dugu, halaber, bikotea osatzeko garrantzitsutzat jotako alderdiak aztertzeke garaian. Batik bat, 30 urtetik beherakoen artean murriztu da bikotea osatzeko erlijioarekin eta moralarekin loturiko sinesmen berdinak izatea garrantzitsua dela dioten en proportzioa; soilik % 10ek aipatu du arrazoi hori. 30 urtetik gorakoen artean, sinesmen horien garrantziaren defendatzaileak gutxiengoa ziren abiapuntuan ere, % 28 baitziren. Hala ere, faktore hori garrantzitsua da, argi eta garbi, belaunaldi horretan, familia-ereduaren aurreko jarrerak baino ez baititu gainetik.

Erlijioarekin eta moralarekin loturiko balioen garrantzia txikitzearekin batera, zaletasunak partekatzearen garrantzia handitu egin da (% 44 dira 30 urtetik beherakoen artean eta % 27 hortik gorakoetan), baita sexuari dagokionez ongi moldatzearena ere (% 31 eta %16, hurrenez hurren).

122. grafikoa. Bikotea osatzeko garrantzi handieneko alderdien aurreko jarrera (%-tan). EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza

Azterlanaren beste atal batzuetan aipatu dugunez, gazteen eta erlijioaren arteko lotura galdu izana gakoa izan da ugalketa demografikoaren prozesuekin loturiko funtsezko aldaketetan, esaterako, ezkontzaren aurreko portaeran. Hori horrela izanik, 1988. urtetik 2000. urtera bitarte ezkontza zibilaren garrantzi erlatiboak gora egin zuen % 23tik % 29,1era, baina urte horretatik aurrera muturreko aldaketa gertatu da, ezkontza kanonikoak gero eta garrantzi gehiago galdua. Aurreko puntuan esan dugunaren haritik, 2000. urtean ezkontza guztien % 70,9 kanonikoak ziren eta 2009an % 37,7 baino ez.

Esan gabe doa sekularizazioa eta erlijio-balioen eragina murrizteko prozesua ere garrantzitsuagoa dela dibortzioen edo bizikidetasunen garrantzian izandako gorakada aztertzeak garaian; azken bi hamarkadetan, errealitate horiek ugaritzen ari dira, azterlanaren beste zati batzuetan zehaztasun handiagoz azalduko dugun moduan.

Gai horietan gehiago sakontzea interesgarria izan daiteke, 90eko hamarkadaren erdialdera ezkontzaren aurreko jarrerai erreparatuz gero. Izan ere, datuen arabera, 30 urtetik beherakoen artean ezkontzeko joerari eutsi egin zaio bikote egonkorra osatuz gero (% 74,7). Aldi berean, alde aurretik elkarrekin bizitzeko edo bizikidetasuneko aldi bat egitearen aldekoak ziren (kasuen % 69,2), baina azkenean ezkondu egiten ziren (kasuen % 63,5). Ezkonduz gero, % 76,5ek ezkontza kanonikoa nahiago zuen. Datu horien argitara, bi gai bereziki interesgarri




agertzen dira. Alde batetik, aurreko belaunaldiekin alderatuta, balio-aldaketa nagusia bizikidetasun-esperientzia izatearen alde egitea da. 30 urtetik beherakoen artean % 69,2k aipatu du aukera hori baina 30 urtetik gorakoen artean soilik % 31,1 dira, baita aukera hipotetikoaren kasuan ere, egiaz bestelako jarrera izan arren.

Nabarmendu beharreko beste alderdia zera da, egiaz ikusitako joera —mende berrian ezkontza kanonikoen garrantzia nabarmen murriztu dela— ez datorrela bat 30 urtetik beherakoen belaunaldietan itxuraz nagusi den aukerarekin, hau da, harremana erregularizatz gero ezkontza mota hori aukeratzearekin. Izan ere, bikote-harreman egonkor baten helburua ezkontza kanonikoa zela zioten 30 urtetik beherako gehienek (% 55,8) aldez aurretik bizikidetasuneko aldi bat izatea aukeratzen zuten. Beraz, azken errealitatea, finean, hauxe da: kolektibo horren zati handi batek ezkontza aukeratzen duela oraindik ere, baina eliza alde batera utzita¹⁴. Nolanahi ere, aldaketa garrantzitsua da, euskal gizartea azkenaldian sekularizatzen ari dela adierazten baitu.

¹⁴ Beste faktore posible bat hauxe da: bizikidetasunaren aukera egiten zutenek azkenean ezkontzen bukatzea, baina kasu horietan ezkontza zibila nagusi izanik.

123. grafikoa. Ezkontzaren aurreko jarreraren adierazleak (%-tan). EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza

Oharra: 1etik 4ra (garrantzi txikienetik handienara) bitarteko erantzun-eskalan oinarritutako datuak.

Ezkontzeko joera

Bikote-harreman egonkor baten helmugatzat ezkontza aukeratzen dutenen %-a

Ezkontuz gero, ezkontza kanonikoa lehenestea

Ezkontuz gero, ezkontza kanonikoa aukeratzen dutenen %-a

Bizikidetasuneko aldi bat aukeratzea

Bikote-harreman egonkorra izanez gero, bizikidetasuneko aldi bat aukeratzen dutenen %-a


Bizikidetasunaren kasuan, behin betiko bizikidetasunaren alde egitea

Bikote-harreman egonkorra izan eta bizikidetasuneko aldi bat izateko aukera eginez gero, behin betiko bizikidetasunaren aukera egiten dutenen %-a (azkenean ezkontu edo ez ezkontu alde batera utzita)

Oinarritzko honako galdera honi erantzunez: Zure gaur egungo egoera alde batera utzita, bikote-harreman egonkor bat finkatu behar bazenu, zer nahiago zenuke?

Izan ere, seme-alabak hazi eta hezteko ezinbesteko erreferentziatzat ezkontza hartzen zuen ideia baztertuta geratu da eta aldaketa hori nabarmentzeko modukoa da. Ildo beretik, 30 urtetik beherakoen nahiz gorakoen artean, seme-alabak izan nahi dituen bikote batek ezkontu egin behar izatearekin ados ez daudenak nagusi dira; bestalde, aita edo ama bakarrik seme-alabak egoki zaintzeko bikotea bezain gai izan daitekeela dioen ideiarekin ados daudenak ere nagusi dira. 30 urtetik beherakoen artean, ezkontza eta seme-alabak hazi eta hezteko esparru egokia gero eta gehiago bereizten dira. % 88 ez dago ados ezkontza eta haurren hazkuntza lotzearekin eta proportzio hori % 58ra murrizten da 30 urtetik gorakoen artean.

124. grafikoa. Seme-alaben hazkuntzaren eta ezkontzaren arteko loturari buruzko adierazleak. EAE.



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza

Dena den, aurreko ataletan aurkeztutako datuen arabera, ez da komeni sekularizazio edo erlijio-balioen krisi hori familia-sistemaren krisiarekin lotzea. Sistema horrek epe luzera egonkortasun handiagoa izateko joera du, hasieran uste zitekeena baino gehiago. Horixe adierazten du, esaterako, datu honek: bikotea osatzeko garrantzi handiena duten alderdiei buruzko jarrerak balioesteko garaian, familiari buruzko iritzi berdina izatea da, oraindik ere, faktore nagusia 30 urtetik beherakoen artean (% 55), 30 urtetik gorakoen artean baino bi puntu gutxiago (% 57). Beraz, familia-sistemaren krisia baino gehiago, sistemaren aldaketa edo egokitzapena gertatu dela esan dezakegu, zalantzarik gabe malguagoa eta aldakorragoa baita, baina aldi berean, oinarritzko egiturei eutsiz.


Hala ere, sekularizazio-prozesuarekin batera ezkontzaren ikuspegi berria sortu da. Aldaketa horren oinarriak honako hauekin loturik daude: alde batetik, bikotearen epe luzeko bizikidetzaz-eredutzat bizikidetasuna aukeratzearekin, bikote-harreman egonkorra duten 30 urtetik beherakoen % 25ek egin duen moduan. Eta bestetik, ezkontzearen abantaila teorikoei esleitutako balio-galerarekin loturik daude. 30 urtetik beherakoen % 50ek oraindik ere uste du ezkontzaren gauzarik positiboena dela bikoteari egonkortasuna ematen diola; segurtasun ekonomikoaren pertzepzioa % 26ra murrizten da, eta % 12ra, aldiz, zoriontsuago izateko bermearen pertzepzioa.

Hala ere, berriz nabarmendu behar dugu adierazleak 30 urtetik gorakoen artean askoz ere handiagoak (% 13 behin betiko bizikidetasunaren alde egiteari dagokionez, eta % 67, 37 eta % 32 ezkontzaren abantailak defendatzeari dagokionez, egonkortasunarekin, segurtasun ekonomikoarekin eta zorionarekin loturik) diren arren, adin horretatik beherakoekiko aldeak

kuantitatiboak dira, kualitatiboak baino gehiago. Bi kasuetan gutxiengoak aukeratu du bizikidetasuna bizitzeko modutzat, ezkontzak egonkortasuna ematen duen pertzepzioarekin loturik, baina erakunde formal horren garrantzia murrizteko oinarriak bi kasuetan agertzen dira. 30 urtetik beherakoen eta gorakoen artean, gehiengoak ez du lotzen ezkontza zorion edo segurtasun ekonomiko handiagoa izatearekin.

Ezkontza-erakundearen pertzepzioan izandako aldaketan erabakigarria izan den beste elementu bat dibortzioaren ikuspegi berria da. 30 urtetik beherako eta gorako gehienen ustez konponbiderik egokiena da senar-emazteek bikote-arazoak konpondu ezin dituztenean baina, bestalde, azken konponbidetzat hartzen dutenak ere gehiago dira, baina soilik dibortzioari aurrea hartzeko neurri guztiak agortu direnean. Desadostasun Gaindiezinen kasuan dibortzioa azken konponbidetzat hartzen dutenak gutxiago dira gazteenen artean 30 urtetik gorakoen artean baino, paradoxa dirudien arren (% 65 eta % 71, hurrenez hurren) eta errealitate hori agian loturik egon daiteke gazteenen artean oinarri bananduen gaineko bizikidetasun posiblea nahiago izatearekin.

125. grafikoa. Ezkondu ondoko balioen eta dibortzioari buruzko balioen larrialdiko adierazleak (%-tan).
EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza


Sekularizazio-prozesuan aztertu beharreko azken datu bat dago: erlijioarekin loturiko arrazoiengatik familia-plangintzarik ez izatearen aldeko aukera. 30 urtetik beherakoen artean soilik % 1 identifikatzen da seme-alabak izateko garaian 'datozenak datozela' edo 'Jaunak

ematen dizkigunak' ideiarekin. Ehuneko txiki hori 30 urtetik gorakoetan ere atzeman da, kasu horretan % 3,1 izanik.

1.1.3. Emakumearen egiteko berria onartzea

Familia-balioei dagokienez, kontuan izan beharreko beste prozesu erabakigarri bat emakumearen egitekoarekin loturiko dago. Emakumeen lana funtsezko elementutzat balioesten da, gero eta gehiago, belaunaldi berrietan. Hori horrela izanik, 30 urtetik gorakoen artean, % 42,4k etxeko andrearen lana soldatapeko lan bat bezain positibotzat balioesten dute, baina gazteagoen artean proportzioa % 21,7ra murrizten da. Bi kasuetan, etxean egin beharreko lana ez dute hain atsegin ikusten gehienek.

126. grafikoa. Etxeko andrea izatea soldatapean lan egitea bezain atsegina den ideia balioestea (%-tan). EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza
Oharra: Ehunekoak kalkulatzeko, galderari erantzun dioten pertsonak hartzen dira abiapuntu


30 urtetik beherako belaunaldian, lanaren eta adingabeen arretaren arteko erlazio ideala aztertzea oso interesgarria izan daiteke. Nabarmendu beharreko lehen alderdia honako hau da: kolektiboaren % 10etik beherako gutxiengo bat kenduta, 30 urtetik beherako biztanleek zera espero dute, ezkontutakoan, seme-alabak izan aurretik eta izan ostean, haurrak eskolan daudenean eta seme-alabek gurasoen etxetik alde egiten dutenean ere emakumeak lan-erlazioari eustea. Eskolaurreko adineko seme-alabak daudenean emakumeak lana uztearen alde daudenen proportzioak gora egin duen arren, oraindik ere gutxiengoa dira 30 urtetik beherakoen artean (% 23,7). Zalantzarik gabe, lanaldi-murrizketaren alde egiten dute egoera

horretan, 30 urtetik beherakoen artean % 49,5ek aukera hori egokitzen hartzen baitu. Aldiz, lanaldi osoari eustea gutxiengoak hautatzen du (% 26,9).

Gainerako egoeretan, seme-alabarik ez dagoenean edo jada eskolatzeko adinekoak direnean, lanaldi osoa nahiago izaten du gehiengoak; seme-alabarik gabeko kasuetan % 85 inguruko mailara iristen da, eta eskolatzeko adineko seme-alabak dauden kasuetan, % 64,9ra. Alabaina, azken kasu horretan lanaldi partzialak ere garrantzi handia du, 30 urtetik beherakoen artean % 31,9k hautatzen baitu aukera hori. Seme-alabarik ez dagoenean, lanaldi partzialaren alde egiten du % 10ak. Azken batean, eta nabarmendu beharreko bigarren alderdiari helduko diogu orain, lanaldi partziala —lana eta familia uztartzeko mekanismotzat hartuta— aukera garrantzitsua da eta eskolatzeko edo eskolaurreko adineko seme-alabak dauden kasuetan, % 30-50ek aukeratzen du.

Hirugarren alderdiari dagokionez, lan egitearen aldeko hautua sendotzen ari dela esan behar dugu, 30 urtetik gorakoekin alderatuta, murriztu egin baita emakumeak lanik ez egitea nahiago dutenen proportzioa. Murrizketa hori, oro har, lanaldi osoaren aukeraren gorakadarekin loturik dago, eskolaurreko adineko haurrak dauden kasuetan izan ezik. Kasu horretan, lanaldi osoaren aldekoak 30 urtetik gorakoekin % 23,1etik 30 urtetik beherakoen % 26,9ra handitu dira eta lanaldi osoaren aldekoak % 38,5etik % 49,5era.

127. grafikoa. Ugalketaren eta lanaren arteko erlazioari buruzko balioak, seme-alabak artatzeko egoera jakin batzuetan (%-tan). EAE




Iturria: Gazteen Argazkiak 1997. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza

Lanaren eta seme-alabak izateko aukeraren baldintzapena argi eta garbi sumatzen du biztanleriak emakumearen kasuan. 30 urtetik beherakoen nahiz gorakoekin artean, erreferentziazko biztanleriaren % 60 inguruk dio emakumeek askotan aukeratu egin behar

izaten duela: seme-alabak izan edo lanean jarraitu. Beraz, faktore hori erabakigarria da EAEn jaiotza-tasaren gorakadaren egungo mugak aztertzean.

128. grafikoa. Seme-alabak izatearen edo lan egitearen artean aukeratu beharra (%-tan). EAE



Iturria: Gazteen Argazkiak 2003. Ikerketa Soziologikoko Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza

1.2. Familia-sistema Euskadin

1.2.1. Atzemandako aldaketa nagusiak


Aurreko puntuan aipatu dugunez, testuinguru sozioekonomikoan eta familia-balioetan ere aldaketa handiak gertatu dira; aldaketa horien ondorioz, Euskadin familia-sistema erabat eraldatu da 70eko hamarkadaren lehenengo urteetatik hona. Aldaketa horietako batzuk —dibortzioen gorakada, esaterako— aztertu ditugu jada azterlanaren beste atal batzuetan. Puntu honetan zera aztertuko dugu, aldaketa horiek zenbateraino lagundu duten EAEko familia-sistema nabarmen eraldatzen.

Aldaketa nagusien artean, alde batetik, pertsona bakarreko etxeko unitateen hazkunde absolutu eta erlatiboa aipatu behar dugu. 1970. urtean egoera horretan zeuden etxeko unitateak 21.267 ziren (guztizkoaren % 4,7 baino ez), eta 2008an 144.598 ziren (guztizkoaren % 18,2). Etxeko unitate horien bolumena ia sei aldiz handitu da aldi horretan, % 579,9 hazi baita. Alabaina, hazkunde handiena 1970-1991 aldian izan dela nabarmendu behar da, % 246,3ko gorakadarekin (1991-2008 aldiko % 96,3ko gorakada erraz gaindituta). Egia esan, etxeko unitate mota horren etengabeko hazkundera 2001. urtean amaitu zen eta urte

horretan mota horretako 151.855 etxeko unitate zeuden (guztizkoaren % 20,3). 2004an 132.184 izatera jaitsi zen (guztizkoaren % 17,8) eta gerora berriz ere gora egin du, 144.598ra iritsi arte.


Pertsona bakarreko etxeko unitateen aldi berean, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeko unitateak % 277 handitu dira 1970-2008 aldian. Aurrenekoetan ez bezala, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeko unitateen hazkundea bereziki 1991. urtetik aurrera gertatu da, 1991-2008 aldian % 228,8ko hazkundea izanik eta 1971-1991 aldian, berriz, soilik % 14,7koa. Dena den, horrelako etxeko unitateen garrantzi erlatiboa handitu bada ere, oraindik gutxiengoa dira, 1970-1996 aldian % 0,5 inguru izatetik % 1,4ko gehienekora iritsita 2008an.

129. grafikoa. Familien %-aren bilakaera motaren arabera. EAE (%-tan)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak eta Estatistikak. Eustat eta INE. Familiari buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

130. grafikoa. Familia moten bilakaera EAEn. 1970-2008 (Hazkundearen %-a)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak eta Estatistikak. Eustat eta INE. Familiari buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

EAEko familien osakerari dagokionez, beste aldaketa garrantzitsu bat seme-alabarik gabeko nukleo edo senar-emazteen etxekoen unitateen etengabeko hazkundearekin loturik dago. 1970. urtean mota horretako 67.086 etxekoen unitate zeuden (guztizkoaren % 14,8) eta 2008an 171.457 izatera iritsi ziren (guztizkoaren % 21,6). Oro har, familia mota horren bolumena % 155,6 handitu da 1970-2008 aldian, hazkunde-erritmoetan ere goranzko joera izanik (1970-1991 aldian % 48,5 eta 1991-2008 aldian % 72,1).


Hazkunde-prozesu horien kontrapuntua seme-alabak dituzten etxekoen unitate nuklearren garrantzi erlatiboaren murrizketa izan da. 1970. urtean 284.121 ziren, hau da, guztizkoaren % 62,5 baina 1991n 361.657 izatera iritsi baziren ere, bestelako etxekoen unitateak gehiago hazi zirenez, 1991. urtean guztizkoaren % 57,2 osatzen zuten. Jaiotza-tasaren krisia zela-eta, 2001. urtera bitarte etxekoen unitate mota horrek jaitziera absolutua izan zuen; urte horretan 332.402 etxekoen unitate ziren, urte horretako etxekoen unitateen % 44,4, hain zuzen ere. Oro har, etxekoen unitate nuklearren garrantzi erlatiboa etengabe jaitsi egin da, 1970eko % 77,3tik 2001eko % 62,9ra. Halaber, nukleo anitzeko familiek ere behera egin dute. 1970ean 31.235 ziren (guztizkoaren % 6,9) baina 2001ean 12.967 etxekoen unitate baino ez ziren (guztizkoaren % 1,7).

Pertsona bakarrekia eta senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoen unitateen hazkundeaz haratago, atzemandako eraldaketen ondorioz familia-sistemak ez dira erabat eta guztiz aldatu.

Horri dagokionez, 2001-2008 aldian seme-alabak dituzten etxeko unitate nuklearren kopuruaren gorakada kuantitatibo eta erlatiboa aipatu behar dugu, aldi horretan jaiotza-tasak gora egin baitzuen. Azken urte horretan, seme-alabak dituzten etxeko unitateak 373.277 izatera iritsi dira (guztizkoaren % 47). Bilakaera horren ondorioz, etxeko unitate nuklearrek, oro har, gora egin dute 2008an % 68,6ra iritsita, 1996ko % 68,3ra hurbilduta. Antzeko bidea egin dute nukleo anitzeko familiek ere 2001-2008 aldian; 2001. urtean 12.967 izatetik 2008an 14.949 izatera igaro baitira (% 1,7tik % 1,9ra termino erlatibotan).

Seme-alabarik gabeko etxeko unitate nuklearren kasuan, 1970-2008 aldian % 155,6ko hazkunda izan da eta seme-alabak dituzten etxeko unitate nuklearren kasuan, % 31,4koa. Kontraste horrek aldaketa garrantzitsua gertatu dela adierazten du familia-sistemen inpaktuari dagokionez, hein handi batean, jaiotza-tasaren beherakadarekin loturik. Joera dibergente horrekin batera, seme-alabarik gabeko etxeko unitate nuklearren goranzko joera handitu egin den arren —1991tik aurrera hazkunde erlatibo handiagoa izan baitu—, seme-alabak dituzten etxeko unitate nuklearren kasuan, hazkunde-erritmoa negatiboa da, azkenaldian gorakada izan badu ere. Izan ere, etxeko unitate nuklearrei dagokienez, 1970. urtean seme-alabarik gabeko etxeko unitateen garrantzia % 19,1 bazen ere, etengabe gora egin du gerora, 2008an % 31,5 izatera iritsi arte.

131. grafikoa. Seme-alabarik gabeko familia nuklearren %-aren bilakaera. EAE



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak eta Estatistikak. Eustat eta INE. Familiari buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Familia-sisteman izandako aldaketen inpaktu kualitatibo txikiagoa adierazten duen beste datu bat aipatuko dugu: guraso bakarreko familien bilakaera. 1970ean 36.292 familia ziren, hau da,




guztizkoaren % 8. 1970-2001 aldian, familia mota horren bolumena etengabe hazi zen 87.881 izatera iritsiz eta EAEko familia guztien % 11,7 osatuz. Hala ere, urte horretatik aurrera, guraso bakarreko familien garrantzi kuantitatibo nahiz kualitatiboa murriztu egin da, 2008an 65.826 familia eta guztizkoaren % 8,3 izanik, 1970. urteko antzeko proportzioan. Oro har, guraso bakarreko familien bolumena % 81,4 handitu da 1970-2008 aldian, hazkunderik handiena 1970etik 1991ra bitarte izanik (% 62, eta 1991-2008 aldian % 12, 2001. urteaz geroztik izandako beheranzko joeraren eraginez).

Hazkundearen banaketa aztertuz gero, goian aipatu ditugun joerak argi eta garbi ikusten dira. 1970-1991 aldian, familia kopurua hazi egin zen baina kasuen % 27,9 pertsona bakarreko etxekoen unitateekin loturik zegoen, eta % 12 guraso bakarreko familiekin. Dena dela, hazkundearen % 58,5 etxekoen unitate nuklearrei dagokie (kasuen % 41,2 seme-alabak dituzten etxekoen unitateei). Aldiz, 1991-2008 aldian hazkundera pertsona bakarreko etxekoen unitateetan (% 42) eta seme-alabak dituzten etxekoen unitate nuklearretan (% 42,5) metatu zen. Hein handian, 1991-2001 aldiko jaitsiera absolutuaren ondorioz, seme-alabak dituzten etxekoen unitate nuklearren ekarpena soilik % 6,9 da, guraso bakarreko familien % 4,2ko hazkundera eta senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoen unitateen % 4,5eko hazkundera zertxobait gaindituta.

Oro har, Euskadin familia kopuruaren hazkunde absolutuaren (1970. urteko 454.617tik 2008ko 794.377ra) % 54,4 etxekoen unitate nuklearrekin loturik dago, % 29,3 seme-alabarik gabeko etxekoen unitateak eta % 25 seme-alabak dituztenak izanik, eta beste % 34,6 pertsona bakarreko etxekoen unitateei dagokie. Guraso bakarreko familiek hazkundearen % 8,3 osatzen dute, senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoen unitateek % 2,3 eta nukleorik gabeko familia taldeek % 0,4. Nukleo anitzeko etxekoen unitateek soilik dute 1970. urtekoaren azpiko bolumena.

132. grafikoa. Familia moten hazkundearen banaketa EAEn. 1970-2008. (%-tan)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak eta Estatistikak. Eustat eta INE. Familiei buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.


1.2.2. Egiturazko ezaugarri nagusiak

Lehendik aurkeztutako datuak kontuan izanik, bai gaur egun, bai iraganean, familian bizitzeko bizikidetzak moduak dira nagusi. Bost etxekoek unitateak lau (% 80,4) elkarren artean familia-lotura duten pertsonekin osatuta daude, EAEko biztanleria guztiaren % 92 osatuz¹⁵. Familia-nukleoek kasuan ez bezala, pertsona bakarreko etxekoek unitateen % 18,2k biztanleria guztiaren % 6,7 baino ez du osatzen eta gainerako % 1,3a senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoek unitateei dagokie (etxekoek unitate guztien % 1,4 osatzen dutela).

Eusko Jaurlaritzak 2004an eta 2008an egindako Familiei buruzko Inkesta erreferentziazat hartuta, EAEko etxekoek unitate eta familien beste ezaugarri batzuk aztertuko ditugu. Etxekoek unitate eta familien feminizazio-mailarekin hasiko gara; etxekoek unitateko pertsona nagusien artean emakumeak duen garrantziaren bidez neurtu dugu, eta konturatu gara emakumeak direla etxekoek unitateetako erreferentziazko pertsonen % 37,4. Alabaina, datu horren azpian ezkutatuta geratzen da emakumeen proportzioa txikiena dela soilik ezkontzan oinarritutako familietan (% 23,2). Gainerako etxekoek unitateetan, emakumeen protagonismoa % 50 ingurukoa da —beste familia-talde batzuetan eta senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoek unitateetan bezalaxe—, edo bestela, argi eta garbi nagusi dira. Horixe gertatzen da pertsona bakarreko etxekoek unitateetan, % 67,8 emakumeak baitira eta guraso bakarreko

familietan, % 79,5 emakumeak dira gurasoen kontura bizi ez diren seme-alabak dituzten kasuetan, eta % 84,7 gurasoen kontura bizi diren seme-alabak dituztenetan.

133. grafikoa. Emakumezko pertsona nagusien proportzioa etxekoan unitate edo familia motaren arabera. EAE




Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Euskadiko etxekoan unitate eta familien sistema aztertzeke garaian, alderdi deigarrienetako bat hauxe da: biztanleriaren zahartze-prozesuak duen eragina, bereziki, EAEko etxekoan unitateetako pertsona nagusien batez besteko adin handiari dagokionez (55,6 urte). Hala ere, biztanleriaren, oro har, batez besteko adina ere 40 urtetik gorakoa da (41,9 urte 2008an, Familiei buruzko Inkestaren arabera).

¹⁵ Hala ere, zera aipatu behar dugu, familia-lotura zentzu zabalean hartzen dugula, lotura horren oinarria —etxekoan unitate nuklearren kasuan— ezkontza bat edo bizikidetasuneko egitura informal edo formal bat den alde batera utzita.

Erreferentziazko pertsonen batez besteko adina 40 urtetik beherakoa duen etxekoan unitate mota bakarra guraso ez diren familiak dira, batez besteko adina 34,4 izanik. Gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten etxekoan unitateen kasuan, baita senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoan unitateen kasuan ere, 46 urtetik 51,5 urtera bitarte dabilta. Aldiz, batez besteko adina 60 urtetik gorakoa da gainerako etxekoan unitate motetan, bai pertsona bakarrekoetan (batez beste 64 urte), bai gurasoen kontura bizi ez diren seme-alabak dituzten etxekoan unitateetan (62,7 urte gurasoen etxekoan unitateetan eta 67,6 urte guraso bakarrekoetan), bai guraso izandako ezkontideen etxekoan unitateetan (68 urte). Batez besteko adina 61,4 urte da gainerako familia-taldeetan.

134. grafikoa. Pertsona nagusien batez besteko adina etxekoan unitate edo familia motaren arabera. EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

65 urtetik gorako pertsonen proportzioa gehiengoa da guraso izandako ezkontideen etxekoan unitateetan (% 57, eta % 13,7 80 urtetik gorakoan kasuan); beste horrenbeste gertatzen da pertsona bakarreko etxekoan unitateetan ere, 65 urtetik gorakoak % 55,9 eta 80 urtetik gorakoak % 22,3 izanik.

Beste etxekoan unitate mota batzuetan ere 65 urtetik gorako pertsonen proportzio oso handia ikus daiteke —EAEko batez bestekoa baino handiagoa—, gurasoen kontura bizi ez diren seme-alabak dituzten familien kasua, esaterako. Guraso bakarreko familien kasuan, 65 urtetik gorako pertsonen proportzioa % 33,1 da eta % 13,1 80 urtetik gorakoena; guraso diren

familetan, kideen % 22k 65 urte baino gehiago ditu eta 80tik gorakoen proportzioa % 4,2 baino ez da. Bestelako familia-taldeen adierazlea ere handia da, 65 urtetik gorakoak % 25,4 eta 80tik gorakoak % 8,1 izanik.


135. grafikoa. 65 eta 80 urtetik gorako pertsonen %-a etxekoan unitate edo familia motaren arabera. EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

EAEko biztanleriaren zahartze-prozesuaren beste adierazgarri bat zera da, 16 urtetik beherakoen proportzio txikia. 65 urtetik gorakoak % 18,2 dira Familiari buruzko Inkestaren arabera, baina 16 urtetik beherakoak biztanleriaren % 16,1 baino ez dira. Kolektibo horrek benetako garrantzia du hiru etxekoan unitate motatan: gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoak (% 29,3), gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekia (% 27,7) eta bestelako familia-taldeak (% 14,5).

136. grafikoa. 16 urtetik beherakoen %-a etxekoan unitate edo familia motaren arabera. EAE




Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen etxekoan unitate motetan duten garrantzi erlatiboari dagokionez, EAEko biztanleria guztiaren % 6,5 osatzen dute 2008ko Familiei buruzko Inkestaren arabera. Hala ere, kolektibo horren presentzia oso ezberdina da etxekoan unitate edo familia motaren arabera. Zenbait kasutan, protagonismo handia dute, biztanleriaren % 25 baino gehiago izanik, senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoan unitateen kasuan % 39 eta bestelako familia-taldeen kasuetan % 27,9 atzerritarrak izanik. Oro har, nazionalitate atzerritarra dutenen % 29,7 etxekoan unitate mota horietan bizi da (% 21,9 bestelako familia-taldetan eta % 7,8 senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoan unitateetan).

Atzeritarren presentzia erlatibo handia dago, halaber, guraso ez diren ezkontideen etxekoan unitateetan eta gurasoen kontura bizi diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxekoan unitateetan (atzeritarrak % 11,9 eta % 13,6 dira, hurrenez hurren). Bi mota horiek atzeritarren guztirako biztanlerian duten garrantzia % 8,4 eta % 7,3 da, hurrenez hurren. Azkenik, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoan unitateetan atzerriko nazionalitatea duten pertsonen proportzioa % 6,2 baino ez den arren —EAEko batez bestekoa baino apur bat gutxiago—, aipatu behar dugu erreferentziazko biztanleriaren % 46,8 etxekoan unitate mota horietan bizi dela.

137. grafikoa. Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen %-a etxekoan unitate edo familia motaren arabera. EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

2. FAMILIA ARAZOEN PERTZEPZIOA

Laburbilduta, familiek atzemandako gizarte-arazoak grafiko batean agertuko ditugu, arazo bakoitzak familietan duen intzidentziaren arabera, arazoak per se ez ezik, arazo horiek familientzat garrantzitsuak eta/edo nagusiak diren ere kontuan izanik.

138. grafikoa. Arazoak dituzten familien %-a, arazo motaren eta garrantziaren arabera. EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Egiazta daitekeenez, arazo zabalduenak enpleguarekin eta diru-sarrerekin loturik daude. Familien % 25ek baino gehiagok uste du elementu horiek garrantzitsuak direla, eta % 10-15ek dio etxeko arazo nagusiak direla. Gaixotasun, desgaitasun edo baliaezintasunekin loturiko arazoak ere garrantzitsuak dira familien % 11,9aren kasuan, eta garrantzitsuenak, aldiz, % 6,2aren kasuan.


Bizitza independentea lortzearekin loturiko gaiak, etxebizitza edo inoren laguntza behar dutenak —adingabeak edo zaharrak— zaintzea ere garrantzitsutzat jotzen ditu inkesta erantzun duten familien % 10ek. Alabaina, arazo garrantzitsuaren eta nagusiaren konbinazioa % 3-4 da. Familia-harremanetako arazoak garrantzitsuak dira etxekoen unitateen % 2,6arentzat, eta arazo nagusitzat jo ditu % 0,6k. Azkenik, seme-alaben etorkizuna gai garrantzitsua da % 13,9arentzat, eta % 6,3aren kasuan, etxeko arazo nagusia da.

2.1. Enplegu-arazoak

Lehen esan dugunez, enpleguarekin loturiko arazoak EAEko etxekoen unitate eta familietan gehien eragiten duten arazoen artean daude. Etxekoen unitateen % 39,2k aipatu du arazo hori eta % 26,8arentzat garrantzi handiko gaia da; horrek esan nahi du enplegu-arazoak dituzten etxekoen unitateen % 68,4k garrantzitsu iritzi diola horri (garrantziaren indizea).

Kasuen % 19,4an, enpleguarekin loturiko gaiak arazo nagusia dira, eta aztertutako familien % 15aren kasuan, arazo nagusia izateaz gain garrantzitsutzat jotzen dute. Horrek esan nahi du enplegu-arazoak dituzten eta arazo horiek garrantzitsutzat hartzen dituzten etxekoen unitateen % 56aren ustez etxeko arazo nagusiak direla (nagusitasun-indizea arazo garrantzitsuaren kasuan).

139. grafikoa. Enplegu-arazoak dituzten etxekoen unitateen %-a arazoen garrantziaren arabera. EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


Arazo motari dagokionez, etxekoen unitateen % 21,7k dio langabeziaren edo enpleguaren kolokatasun motaren baten presentziarekin loturiko arazoak dituela. Kolokako enplegu bat izatea da gehien aipatzen den arazoa (etxekoen unitateen % 14,3); enplegua kolokakotzat jotzen dute kontratu-loturarengatik, baina baita lanaldi partzialeko enplegua izateagatik ere, lanaldi osokoa nahiago denean. Hala ere, langabeziaren presentzia ere handia da, EAEko etxekoen unitateen % 8,6k aipatu baitu. 2008. urtean, etxekoen unitatean adin aktiboan dauden kide guztiak lanik gabe daude kasuen % 2an, Familiei buruzko Inkestaren arabera.

Langabeziari eta aldibaterakotasunari loturiko arazoei dagokienez, garrantzi-indize handia dagoela aipatu behar dugu, oro har, % 70-75 inguruko zifrak izanik. Beraz, garrantzitsutzat jotako arazoen inpaktua arazoen inpaktu orokorraren antzekoa da: % 10 kolokako enpleguaren intzidentzia garrantzitsuari dagokionez, % 6,5 langaberen baten presentziaren kasuan, eta % 1,5 adin aktiboko pertsona guztiak langabezian egoteari dagokionez.

Oro har, EAEko etxeko unitateen % 15,6k langabezia-arazoren bat edo enpleguaren kolokatasun-arazoren bat garrantzitsutzat jotzen du, oro har, arazoak aipatzen dituztenen artetik % 71,9 izanik. Horien artetik, % 58aren ustez etxeko arazo nagusia da —EAEko etxeko unitate guztien % 9 osatzen du—. Ehuneko hori kolokako enpleguarekin loturik dago kasuen % 4,7an, langabeziari % 3,8an eta arazo horiek adin aktiboan dauden kide guztiengan duten inpaktuari % 0,5ean.

Enpleguaren kalitateari buruzko arazoak langabeziarekin eta enpleguaren kolokatasunarekin loturiko arazoei baino inpaktu handiagoa dute, EAEko etxeko unitateen % 28,8k aipatu dituela. Kasu horretan, gaizki ordaindutako enplegu bat dutela diote (% 18,1), ordutegi txarrak (% 12,3) edo etxetik oso urrun dagoen lantokia (% 12) aipatu dituztenen gainera. Hezkuntza-kalifikazioari dagokionez, enpleguaren kalitate txikia edo azpiokupazioaren presentzia aipatu dute etxeko unitateen % 7,1ek.


140. grafikoa. Enplegu-arazoak. Arazoak dituzten etxeko unitateen %-a, arazo motaren eta garrantziaren arabera. EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Enplegu-arazoen —bereziki, arazo horiek dituzten etxeko unitateek garrantzitsutzat jotako— intzidentzia aztertzearen alderdirik interesgarrienetako bat zera da, intzidentzia handiagoa duela gurasoaren kargura bizi diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan (% 50,3), guraso ez diren ezkontideen etxeko unitateetan (% 45,1) eta senideak ez diren pertsona anitzeko etxeko unitateetan (% 41,5). Zifrak antzekoak dira hiru taldeetan, langabezia edo aldibaterakotasunarekin eta enpleguaren kalitatearekin loturiko arazo espezifikoek dagokienez. Bada salbuespen bat: langabeziarekin eta aldibaterakotasunarekin loturiko arazoen inpaktuari dagokionez, guraso bakarreko familien kasua. guraso bakarreko familien % 36,1ek arazo garrantzitsuak ditu eta gainerako kasuetan, proportzioa % 25etik % 28ra bitartekoa da. Gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko eta bi gurasoko etxeko unitateetan, arazoen intzidentzia txikixeagoa da, baina oraindik ere batez bestekoa baino askoz ere handiagoa (% 35 inguru).

141. grafikoa. Enplegu-arazo garrantzitsuen intzidentzia familia motaren eta arazo motaren arabera. (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


2.2. Diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazoak

EAEko etxeko unitate eta familietan presentzia handiena duten arazoen artean, diru-sarrera erabilgarriekin eta familien gastu-ahalmenarekin loturiko arazoak nabarmenduko ditugu. Zentzu zabalean hartuta, egoera negatibo zabalduena da, etxeko unitateen % 41,7 baitago modu batera edo bestera egoera horien eraginpean Dena dela, garrantzi-indizea enplegu-arazoen kasuan baino zertxobait txikiagoa da (% 61,8 eta % 68,4, hurrenez hurren). Arazo hori

oso garrantzitsua dela aipatu duten etxekoen unitateen proportzioa, beraz, enplegu-arazoena baino txikixeagoa da (% 25,8 eta % 26,8, hurrenez hurren).

Kasuen % 15,4an, etxekoen unitateko diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko gaiak arazo nagusia dira; kasuen % 10,9an, arazo nagusia izateaz gain, garrantzitsutzat ere jotzen dute. Horrek esan nahi du arazo mota horiek dituzten eta arazo horiek garrantzitsutzat hartzen dituzten etxekoen unitateen % 42,2aren ustez etxeko arazo nagusiak direla (nagusitasun-indizea arazo garrantzitsuaren kasuan enplegu-arazoen % 56a baino askoz ere txikiagoa da). Izan ere, erregistratutako % 10,9a oso urrun dago enplegu-arazoei dagokien % 15etik.

142. grafikoa. Diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazoak dituzten etxekoen unitateen %-a, arazoaren garrantziaren arabera. EAE



Iturria: Familei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Arazo motari dagokionez, etxekoen unitateen % 22,8k oinarrizko alderdiekin loturikoak aipatu dituzte eta proportzioa % 35,1era igotzen da ezohiko gastu handi samarrei aurre egiteko zailtasunak aintzat hartuz gero. Oinarrizko arazoaren barruan, etxebizitzaren hipotekak eta alokairuak ordaintzearekin loturikoak dira zabalduenak, etxekoen unitateen % 10,9k aipatu baitu arazo hori, eta kasuen % 6,6an garrantzitsutzat jotzen dute, garrantzi-indizea % 60,3 izanik. Nagusitasun-indizea, ordea, txikiagoa da (% 39,9) eta % 2,6ra murrizten da alderdi hori etxeko arazo nagusitzat jotzen dutenen proportzioa.

Nolanahi ere, hipotekak ordaintzeko arazo handiagoa izaten da alokairuak ordaintzeko baino; lehen kasuan daude etxekoen unitateen % 7,7 eta bigarrenean % 3,2, nahiz eta alokairuaren ordainketak garrantzi-indizean maila handiagoak eman (% 68,1 eta % 56,9, hurrenez hurren).



Alokairuen kasuan, % 2,2k ditu arazo garrantzitsuak, eta hipoteken kasuan, % 4,4k. Aldiz, arazo garrantzitsuen kasuan nagusitasun-indizea soilik % 14 da alokairuetan, baina hipoteka ordaintzeko zailtasunei dagokionez, % 52,9. Horrek esan nahi du alokairuak ordaintzeko arazoak dituzten etxekoen unitateek zailtasun horri aurre egiten diotela baina arazoen testuinguru askoz ere multidimentsionalagoan, hipotekarekin arazoak dituztenekin alderatuta. Etxekoen unitateen % 2,3aren ustez hipotekak ordaindu behar izatea arazo garrantzitsua izateaz gain, euren arazo nagusia ere bada, eta proportzioa soilik % 0,3 da alokairuari dagokionez.

Etxekoen unitatearekin loturiko pertsonak zaindu eta artatzeko premiei aurre egiteko zailtasun ekonomikoekin loturiko arazoei hipotekak eta alokairuak ordaintzearekin loturiko arazoen antzeko inpaktua dute, etxekoen unitateen % 10,5 eraginpean hartuz. % 4,8k diru-sarreraren arazoak aipatu ditu adingabeen zaintzako eta arretako premia bereziei aurre egiteko, eta etxeko hirugarren adinekoen arretarekin loturiko arazoak dituzten etxekoen unitateen kasuan ere proportzioa antzekoa da (% 3,9k aipatu du adinekoentzako egoitza bat ordaintzeko zailtasunak dituela).

Oinarrizko arazoen barruan, etxekoen unitateen oinarrizko premiei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez izatearekin loturiko arazoen eraginpean daude etxekoen unitateen % 7,6, eta arazo garrantzitsutzat jotzen dutenak % 5 dira, garrantzi-indizea % 66,1 izanik. Dena den, aipatzeko modukoa da arazo horrek nagusitasun-indize txikia (% 36,1) duela nahiz eta, a priori, etxekoen unitateentzat funtsezkoa dirudien. Horren arabera, oinarrizko premiak betetzea arazo garrantzitsutzat eta arazo nagusitzat jotzen duten etxekoen unitateen proportzioa % 1,8 da. Datu horren argitara, zalantzarik gabe, EAEko diru-sarrerak bermatzeko programak eraginkorrak direla esan dezakegu. Gai horri eutsiz, gainera, deigarria da EAEko etxekoen unitateen soilik % 0,1ek aipatu duela diru-sarreraren erabateko absentzia arazo moduan.


Oro har, eta aztertu ditugun oinarrizko arazo horietakoren bat duten etxekoen unitateen % 22,8ari dagokionez, % 15,2k garrantzitsutzat jotzen ditu, garrantzi-indizea % 66,5 izanik. Arazo garrantzitsua arazo nagusi ere bada kasuen % 35ean; horren arabera, soilik % 5,3 dira horrelako arazoak garrantzitsutzat ez ezik, arazo nagusitzat ere hartzen dituzten etxekoen unitateak. Zati handiena (% 2,6) hipotekak eta alokairuak ordaintzearekin loturik dago (% 2,3 zuzenean hipotekak ordaintzeko zailtasunekin loturik), oinarrizko premiak betetzeko zailtasunekin loturiko % 1,8 eta zaintzako eta arretako premiei (bereziki adinekoen zaintzarekin loturik) aurre egiteko diru-sarrerarik ez izatearekin loturiko % 0,7 gaindituta.



Diru-sarrera eta gastuekin loturiko beste arazo mota batzuk kontuan izanik —oinarri-oinarrizko premiak betetzearekin hain loturik ez daudenak—, etxekoen unitateen % 11,6k aipatu du zailtasunak dituela etxeko gastuak ordaintzeko (argia, telefonoa, zaborrak, ura, berokuntza, komunitate-gastuak), eta arazo garrantzitsua dela diote etxekoen unitateen % 6,4k. Seme-alaben ikasketak ordaintzeko zailtasunak dituzte etxekoen unitateen % 5,4k eta horien artetik % 2,7arentzat arazo garrantzitsua da hori. Azkenik, etxebizitzan egindako obregatikiko zorrak ordaintzeko zailtasunak dituzte etxekoen unitateen % 3,2an, eta horien artetik % 1,6k dio arazo garrantzitsua dela.

Lehen ere ikusi dugunez, handiagoa da ezohiko gastuei (etxetresna elektriko berriak erosi behar, semearen edo alabaren ezkontza, autoa erosi edo aldatu behar izatea) aurre egiteko zailtasunen inpaktua, etxekoen unitateen % 35,1 baitago arazo horien eraginpean. Garrantzi-indizea % 53,7 da kasu horretan, etxekoen unitateen % 18,8k hartzen baitu garrantzitsutzat, oinarrizko gastuei, oro har, dagokien % 15,2 gaituta. Nagusitasun-indizea % 22,3 baino ez den arren, horrek esan nahi du EAEko etxekoen unitateen % 4,2k ezohiko gastuei aurre egiteko arazoak garrantzitsutzat eta nagusitzat jotzen dituela, diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko oinarrizko arazoei dagokien % 5,3aren azpitik.

143. grafikoa. Diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazoak. Arazoak dituzten etxekoek unitateen %-a, arazo motaren eta garrantziaren arabera. EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Oinarrizko diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazo garrantzitsuen intzidentziari buruzko datuak aztertuta, inpaktu bereziki handia ikusten da (etxekoek unitateen % 20 inguru edo gehiago) hiru familia mota espezifiktan: gurasoen kontura bizi diren seme-alabak dituen guraso bakarreko familiak (% 35), senideak ez diren pertsona anitzeko familiak (% 25) eta pertsona bakarreko familiak (% 19,1). Gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten gurasoen, guraso izandako ezkontideen eta bestelako familia-taldeek etxekoek unitateetan % 10 inguruko edo hortik beherako mailak dituzte diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko oinarrizko arazoei dagokienez, baina inpaktua oraindik ere garrantzitsua da —% 15,6tik % 17ra bitarte— guraso ez diren ezkontideen, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen eta gurasoaren kargura bizi ez diren seme-alabak dituen guraso bakarreko etxekoek unitateetan.

Bestalde, guraso ez diren ezkontideen eta gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoek unitateetan etxebizitza ordaintzearekin loturiko arazoek intzidentzia nabarmendu behar da (% 13,6k eta % 9,3k arazo garrantzitsuak dituzte). Adingabeak eta adinekoak zaintzearekin loturiko arazoei dagokienez, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen (% 8,1) eta gurasoaren kargura bizi ez diren seme-alabak dituen guraso bakarreko (% 9,8) etxekoek unitateetan garrantzitsuak dira. Maila txikiagoan bada ere, oinarrizko premiak betetzearekin loturiko zifrak ere garrantzitsuak dira bi talde horietan, gurasoaren kargura bizi ez diren seme-alabak dituen guraso bakarreko etxekoek unitateen kasuan batez bestekoa ere gaituz (% 5,8 arazo garrantzitsuen kasuan).

144. grafikoa. Oinarritzko diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazo garrantzitsuen intzidentzia familia motaren eta arazo motaren arabera. (%-tan) EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


Diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazo garrantzitsuen banaketari dagokionez, datu aipagarriena zera da, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten etxeen unitateetan metatzen direla gehienbat, bai bi gurasokoetan, bai guraso bakarrekietan. Horrelako etxeen unitateetan biltzen da aztertutako arazoaren % 47,8 (% 40,2 eta % 7,6, hurrenez hurren). Beste kolektibo nabarmena pertsona bakarrekia etxeen unitateak dira (% 23).

Oro har, etxeen unitateen hiru mota horietan metatzen da aztertutako mota guztietako arazo garrantzitsu eta oinarritzkoen % 70-80. Pertsona bakarrekia etxeen unitateetan eta gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituen guraso bakarrekia etxeen unitateetan oinarritzko premiak betetzearekin loturiko arazoak dira nagusi (% 47,4, eta gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten bi gurasoko etxeen unitateen kasuan % 28,9), baina bi gurasoko etxeen unitateetan gainerako oinarritzko arazo gehienak metatzen dira: arreta eta zaintzako premiak betetzeko diru-sarrerarik ez izatearekin loturiko arazoaren % 41,3 eta etxebizitza ordaintzearekin loturiko arazoaren % 50,4 (% 29,3 eta % 22,6 erreferentziazko beste bi kolektiboetan).

Seme-alabarik gabeko ezkontideen etxeen unitateak ere garrantzitsuak dira zentzu horretan. Guraso izandako ezkontideen kasuan, adingabe eta adinekoen arreta eta zaintzarekin loturiko zailtasunen % 12,3 osatzen dute. Guraso ez diren ezkontideen kasuan, ordea, etxebizitza ordaintzearekin loturiko arazoaren % 12,2 osatzen dute. Horrek esan nahi du ezkontideen etxeen unitateetan —guraso ez direnak eta kargurako seme-alabak dituztenak— hipotekak eta alokairuak ordaintzearekin loturiko arazo garrantzitsuen garrantzia handia dela. Aztertutako

arazo garrantzitsuen % 62,6 familia mota horri dagozkio, eta horiei gurasoaren kargura bizi diren seme-alabak dituen guraso bakarreko etxekoen unitateen % 7,8 gehitu beharko litzaieke.

145. grafikoa. Oinarrizko diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazo garrantzitsuen banaketa familia motaren eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Enplegu-adierazleen kasuan ez bezala, gastuekin eta diru-sarrerekin loturiko adierazleetan 2008an sumatzen zen jada hazkunde ekonomikoari eusteko prozesuen inpaktua, baita finantzaren eta ekonomiaren arloetako krisialdiarena ere. Hori horrela izanik, diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazo garrantzitsuen intzidentzia % 19,9 zen 2004an eta 2008an % 25,8ra igo zen. Hazkundera ikus daiteke, halaber, arazo garrantzitsuak —edo garrantzitsu eta nagusiak— kontuan hartzean, aldi horretan eta hurrenez hurren % 10etik % 15,2ra eta % 2,9tik % 5,3ra handituz. Azken igoera horren zati bat nagusitasun-indizearen gorakadarekin loturik dago, arazo garrantzitsuen kasuan (% 28,7tik % 35era 2004-2008 aldian).

Gainbehera ekonomikoaren inpaktua sumatzen da oinarrizko premiak betetzeko ahalmenari dagokionez, dimentsio horretan arazo garrantzitsuek gora egin baitute % 3,7tik % 5era. Dena den, inpaktu garrantzitsu eta nagusiari dagokionez, aldaketa hori arindu egin da babes-sistemearekin bidez, adierazlea % 1,6tik soilik % 1,8ra handitu baita 2004-2008 aldian eta, aldiz, arazo garrantzitsuen kasuan nagusitasun-indizeak behera egin du % 41,8tik % 36,1era. Etxebizitzaren ordaintetari aurre egiteko zailtasunekin loturiko hazkundera argiago ikus daiteke, bai termino absolututan, bai termino erlatibotan. Arazo garrantzitsuak % 4,5etik %


6,6ra igo dira 2004-2008 aldian eta arazo garrantzitsu eta nagusien intzidentzia % 1,4tik % 2,6ra. Nagusitasun-indizea % 31,1etik % 39,9ra handitu da aldi horretan.

Joera hori, batik bat, hipoteken fenomenoarekin loturik dago. Alokairuen ordainketarekin loturiko adierazleek, oro har, mailari eutsi egin diote, baina hipotekak ordaintzeko arazo garrantzitsuak dituzten etxekoek unitateen proportzioak gora egin du % 2,5etik % 4,4ra, arazo garrantzitsu eta nagusiei dagokienez % 0,9tik % 2,3ra igoz. Nagusitasun-indizea % 36,3tik % 52,9ra handitu da.

Ezohiko gastuei aurre egiteko zailtasunarekin loturiko arazo garrantzitsuen hazkunde nabarmenean ere sumatzen da narriadura ekonomikoa, eraginpeko etxekoek unitateen proportzioa 2004ko % 12,9tik 2008ko % 18,8ra igo baita. Gastu garrantzitsu eta nagusiei dagokienez, hazkundera % 2,5etik % 4,2ra izan da, nagusitasun-indizean aldaketa deigarriarik izan gabe (2004an % 19,2 eta 2008an % 22,3).


Alabaina, diru-sarreraren eta gastuen arazoen goranzko joera guztia ez dago narriadura ekonomikoarekin loturik; izan ere, zahartze-prozesuak ere badu eragina. Hori horrela, adingabeak edo adinekoak zaintzeko arazo garrantzitsuak dituzten etxekoek unitateen proportzioa % 3,3tik % 7ra igo da (% 0,2tik % 0,7ra arazo garrantzitsu eta nagusiei dagokienez).

146. grafikoa. Diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazo garrantzitsuen intzidentziaren bilakaera, arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

147. grafikoa. Diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazoen —garrantzitsu eta nagusien— intzidentziaren bilakaera, arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

2.3. Bizitza independentea osatzeko arazoak

Familien arazo ekonomikoak ez dira soilik diru-sarrera eta gastuen arlokoak. Pertsonen bizitza independentea lortzeko aukerak baldintzatzen dituzten alderdiak ere garrantzitsuak dira. Etxekoen unitateen % 16,3k dio horrekin loturiko arazoren bat baduela eta etxekoen unitateen % 12,8aren arabera arazo garrantzitsuak dira. Horrek esan nahi du garrantzi-indizea % 78,5 dela. Arazo garrantzitsuaren kasuan, ordea, nagusitasun-indizea askoz txikiagoa da (% 30). Hala ere, etxekoen unitateen % 3,8k aipatu du gai hori arazo garrantzitsu eta etxeko arazo nagusi moduan.

148. grafikoa. Bizitza independentea osatzeko arazoak dituzten etxekoen unitateen %-a, arazoen garrantziaren arabera. EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Aipatutako eragozpen nagusia hauxe da: seme-alabek bizitza independentea lortzeko dituzten zailtasunak; etxekoen unitateen % 8,9k aipatu du kontu hori eta horietatik % 7k jo du garrantzitsutzat. Horrek esan nahi du garrantzi-indizea % 79 dela. Arazoaren nagusitasuna, ordea, % 23,9ra murrizten da; beraz, gai hori arazo nagusi eta garrantzitsutzat hartzen dute etxekoen unitateen % 1,7k.

Bada beste arazo garrantzitsu bat: etxekoen unitateek lehenengo etxebizitza eskuratzeko nahia betetzeko garaian izaten dituzten zailtasunak. Etxekoen unitateen % 7,1ek aipatu du gai hori eta % 5,8k esan du garrantzitsua dela (kasuen % 80,7). Nahiz eta erlatiboki txikia den (% 34,5), nagusitasun-indizea arazo garrantzitsuaren kasuan aurrekoa baino handixeagoa da, beraz, EAEko etxekoen unitateek bizitza independentea lortzeko eragozpen nagusia lehenengo etxebizitza eskuratzeko arazoekin loturik dago. % 2 dago egoera horretan.

Lan-arazoengatik seme-alabak izateko zailtasunaren inpaktua askoz ere txikiagoa da: EAEko etxekoen unitateen % 0,1ek baino ez du aipatu ugalketarekin loturiko arazo mota hori garrantzitsua eta nagusia denik.


149. grafikoa. Bizitza independentea osatzeko arazoak. Arazoak dituzten etxekoek unitateen %-a, arazo motaren eta garrantziaren arabera. EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Bizitza independentea lortzearekin loturiko arazo garrantzitsuen inpaktua maila gorenera iritsi da (% 27,6) gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoek unitateetan. Era berean, senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoek unitateetan ere oso handia da (% 24,5) eta guraso bakarreko etxeko unitate mota guztietan % 20 inguru dabil oraindik ere. Gainerako kasuetan, ehunekoak % 14-15 inguru dabilta eta pertsona bakarreko eta guraso izandako ezkontideen etxekoek unitateetan soilik jaitsi da % 5etik behera.


150. grafikoa. Bizitza independentea osatzeko arazo garrantzitsuen intzidentzia, familia motaren eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Bizitza independentea osatzeko arazo garrantzitsuen barne-banaketari erreparaturik, seme-alabak dituzten etxekoan unitateetan metatzen direla konturatu gara, bi gurasokoa edo guraso bakarrekia den alde batera utzita. Kasu gehienak (% 47) gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten etxekoan unitateei dagozkie eta beste % 31,7 gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten etxekoan unitateei.

151. grafikoa. Bizitza independentea osatzeko arazo garrantzitsuen banaketa, familia motaren eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Bilakaerari dagokionez, datu garrantzitsuena zera da, bizitza independentea lortzearekin loturiko adierazle guztien inpaktuak oro har beheranzko joera duela. Arazo garrantzitsuen inpaktua % 16,6tik % 12,8ra murriztu da 2004-2008 aldian, bereziki, lehenengo etxebizitza erostearekin loturiko arazoei dagokienez (% 8,2tik % 5,8ra) eta, hein txikiagoan, seme-alabek bizitza independentea lortzeko izaten dituzten zailtasunekin loturikoei (% 9,4tik % 7ra). Jaitsiera are argiago ikus daiteke arazo horiek garrantzitsu eta nagusitzat hartzen dituzten etxeko unitateen proportzioa aztertuz gero: adierazle orokorrean % 6,2tik % 3,8ra; lehenengo etxebizitza erosteko zailtasunei dagokienez, % 3,5etik % 2ra; eta % 2,4tik % 1,7ra seme-alabek bizitza independentea lortzeko dituzten zailtasunei dagokienez.


Alabaina, aipatutako hobekuntza horrek ez du eraginik jaiotza-tasarekin loturiko adierazleetan eta baliabiderik ezaren ondorioz seme-alabarik ez izateko aukerarekin loturiko arazoak % 0,9tik % 1,4ra handitu ere egin dira. Hala ere, oso gutxik jotzen ditu gai garrantzitsutzat, eta are gutxiagok arazo nagusitzat.

152. grafikoa. Bizitza independentea osatzeko arazo garrantzitsuen bilakaera, arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

153. grafikoa. Bizitza independentea osatzeko arazoen —garrantzitsuak eta nagusiak— intzidentziaren bilakaera, arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

2.3.1. Ugalketarekin loturiko arazoak

2.3.1.1. Familiei buruzko Inkestaren informazioa


Azterlan diagnostiko honen testuinguruan oso garrantzitsua izaki, arazo ekonomikoengatik seme-alabak izateko zailtasunekin loturiko arazoetan gehiago sakontzea komeni da, dela diru-sarrerara nahikoak ez izatearen, dela lan-arazoak izatearen ondorioz. Hurbilketa etxekoen unitate jakin batzuekin egin dugu; hain zuzen ere, emakumezko pertsona nagusia (edo ezkontidea) adin potentzialki ugalkorrean daudenekin eta, horri dagokionez, 18-49 urteko tarte zabala hartu dugu erreferentziatzat.

Datuen arabera, EAEko 20.580 etxekoen unitate daude egoera horretan, hau da, guztizkoaren % 2,6. Erreferentziazko arazoei emandako garrantzia handiagoa da orain arte aurkeztutako datuetatik ondoriozta daitekeena baino. Ildo beretik, etxekoen unitate horietatik soilik % 8,5ek definitu du arazo horren garrantzi-maila txikitzat edo oso txikitzat. % 30,1aren ustez arazoa garrantzitsu samarra da eta % 61,4k garrantzi handia edo oso handia ematen dio. Oro har, EAEko 18.831 etxekoen unitatek uste du gai hori gutxienez garrantzitsu samarra dela.

Lanarekin loturiko arazoak dituzte aztertutako 20.580 etxekoen unitateen % 49,7k eta kasuen % 20,8an zailtasun bakarra da. Aldiz, diru-sarrerara nahikoak ez izatearekin loturiko arazoen inpaktua handiagoa da, arazo bakarra baita kasuen % 50,3an eta % 79,2an presente baitago. Lanarekin eta diru-sarrerekin loturiko arazoak, uztartuta, kasu guztien % 28,9an agertzen dira.

Datu bereziki nabarmengarri bat zera da, diru-sarrera nahikoak ez izatearekin loturiko arazoen eginkizun diferentziala, seme-alabak izateko aukerarik ezari emandako garrantzia handitu ahala. Hori horrela izanik, ugalketa-arazoari garrantzi txikia edo oso txikia ematen zaion kasuetan, diru-sarreraren arazoa arazo bakarra da % 28,9an, lan-arazoen % 31,3aren azpitik; aldiz, proportzioa % 45,8ra igozten da arazoa garrantzitsu samarra dela pentsatzen denean, eta % 55,4ra gai hori oso garrantzitsua baldin bada. Arazo nagusia lana izatearen garrantzia aldi berean jaisten da (% 29 arazoa garrantzitsu samartzat hartzen bada eta % 15,3 oso garrantzitsutzat jotzen bada).


154.grafikoa. Seme-alabak izateko zailtasunetan diru-sarreraren eta lan-arazoen intzidentzia, gaiari emandako garrantziaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazoen inpaktua erabakigarria da horrelako etxekoan unitateetan. % 82,8k mota horretako arazo orokorrak dituela dio eta % 62,6 goian aztertutako oinarritzko arazoetakoren baten eraginpean dago. Horretaz gain, arazo horien garrantzia estu-estu loturik dago ugalketa-gaiei emandako garrantziarekin eta gai horiek gutxienez garrantzitsu samartzat jotzen dituztenen kasutan intzidentzia nabarmen handitzen da.


155. grafikoa. Seme-alabak izateko zailtasunak dituzten etxekoen unitateetan diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazoen intzidentzia, gaiari emandako garrantziaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Erreferentziatzko etxekoen unitateetan, arazoaren eraginpean dauden emakumeak aintzat hartuz, kasuen % 64,7an 30-39 urteko pertsonak dira eta 21,2an hortik gorakoak. 30 urtetik beherako emakumeek guztirakoaren % 14,1 baino ez dute osatzen.


156. grafikoa. Diru-sarrerekin edo lanarekin loturiko arazoengatik seme-alabak izateko arazoak dituzten etxeko unitateetako emakumeen adina. EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Diru-sarrerarik ez izatearekin edo lanarekin loturiko arazoak dituztelako seme-alabak izateko zailtasun handienak dituzten familia motetan seme-alaben kopurua handitu nahiko lukete; % 67,8 gurasoen etxekoek unitateak dira, haien kargura bizi diren seme-alabekin (13.943 kasu zifra absolututan). Guraso ez diren ezkontideen etxekoek unitateak, hau da, seme-alabarik gabekoak guztirakoaren % 23,4 baino ez dira (4.826 termino absolututan). % 2,5 bestelako guraso-familiei dagokie (gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituztenak eta guraso izandako ezkontideak) eta beste % 6,3 bestelako familia motei (1.811 kasu guztira).

157. grafikoa. Diru-sarrerekin edo lanarekin loturiko arazoengatik seme-alabak izateko arazoak dituzten familia motak.
EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

2004. urteko eta 2008. urteko egoerak alderatuta, konturatu gara eraginpeko etxekoek unitateen kopuruari, funtsean, eutsi egin zaiola: 2008an 20.580 eta 2004an 20.783, egiturazko datuak oso antzekoak izanik. Dena den, etxekoek unitate horietan arazo ekonomikoaren inpaktu diferentzialak gora egin du, 2004an intzidentzia % 54,1 izanik eta 2008an % 62,6 (% 78,1etik % 82,8ra, diru-sarrerekin eta gastuekin loturiko arazoak, oro har, aintzat hartuz gero).

2.3.1.2. Gizarte Premiei buruzko Inkestaren informazioa


Familiaren eta etxeko arazoei buruzko zatian, GPIak ugalketa-eta jaiotze-prozesuekin loturiko adierazle interesgarriak eskaintzen ditu, haurrak izan nahi bai baina inkestan aipatutako

arazoren baten ondorioz haurrik ez duten etxekoek unitate eta familiei buruzko datuak emanez¹⁶.

Oro har, GPIan ikus daitekeenez, EAEko etxekoek unitateen % 6,2k —guztira 48.651k— ugalketa-arazoak ditu eta ez dituzte izaten nahi dituzten seme-alabak baliabide ekonomiko gutxi izateagatik, lanean segurtasunik ez dutelako edo haurren zaintza eta arretarekin loturiko arazoak dituztelako. Kasu gehienetan (% 91,9), etxekoek unitateko pertsona nagusiak 50 urte baino gutxiago ditu. Pertsona nagusia 50 urtetik beherakoa den etxekoek unitateei dagokienez, ugalketa-arazoak dituztenen proportzioa % 14,3ra igo da (44.691 etxekoek unitate). Hortaz, ugalketa-arazoen intzidentzia funtsezkoa da EAEn.

Arazo horien eragina oso txikia da 45 urtetik gorako pertsona nagusien kasuan (etxekoek unitate horien % 1,6k baino ez du ugalketa-arazorik). Eragina % 11,5era iristen da 35-44 urteko pertsona nagusia duten etxekoek unitateetan, eta % 25-30era 35 urtetik beherako pertsona nagusia duten etxekoek unitateetan. Beraz, garrantzi handiko gizarte-arazo bihurtu da. Hala ere, ez da ahaztu behar arazoak dituzten etxekoek unitate gehienetan (% 54,5ean) pertsona nagusiak 35 urte edo gehiago dituela.

158. grafikoa. Pertsona nagusiak 50 urte baino gutxiago izanik, pertsona nagusiaren adinarekin loturiko ugalketa-arazoak dituzten etxekoek unitateak (%-tan). EAE



Iturria: Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006

¹⁶ Honako arazo hauetakoren bat duten etxekoek unitate eta familien kasuak sartzen dira:


* Ez dituzte nahi dituzten seme-alaba (adopzioa barne) behar adinako baliabide ekonomikorik ez dutelako oinarritzko premiei aurre egiteko edota etxebizitza egokirik ez dutelako

* Ez dituzte nahi dituzten seme-alabak, lan-arloko segurtasunik eza dela-eta: langabezia, aldi baterako lanak eta enplegu-arloko bestelako segurtasunik ezak (gerta litekeen ixte edo enplegu-murrizketa)

* Ez dituzte nahi dituzten seme-alabak, haien zaintzarekin loturiko arazoak direla-eta: baliabiderik eza pertsona bat kontratatze edo adingabeak haurtzaindegira bidaltzeko, beren premietara egokituriko zerbitzu gabezia edo antzeko beste arazoren bat

Azpian dagoen faktorea aztertzen badugu, maizen agertzen diren arazoak baliabide ekonomikoen urritasuna eta etxebizitza egokirik eza direla egiazta daiteke: ugalketa-arazoak dituzten etxekoen unitateen %70,8k aipatu du zirkunstantzia hori. Dena dela, gainerako egoera problematikoak ere aipatu dituzte biztanle gehienek. Adibidez, etxekoen unitateen %62,5ek zaintzari lotutako arazoak ditu, eta %54,8k laneko segurtasunik ezari lotutako arazoak. Zifra horiek kontuan hartuta, garbi dago kasu gehienetan adierazitako arrisku-egoeretako bi edo gehiago agertzen direla.

159. grafikoa. Ugalketa-arazoak dituzten etxekoen unitateak, ugalketa-arazo motaren arabera



Iturria: Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006

Puntu honetan kontuan izan beharreko alderdi garrantzitsu bat zera da, seme-alabak izateko zailtasunak zenbateraino baldintzatuta dauden oinarritzko premiak betetzearekin eta etxebizitza egokia lortzearekin loturiko arazo larrien presentziarengatik. Gai horri dagokionez, GZEE-GPIari esker jakin badakigu atzemandako ugalketa-arazoen kasuen % 53 arazo larri edo oso larriekin loturik dagoela, oinarritzko premiak betetzeari, etxebizitzaren kalitateari edo ezusteko gastuei —beste haur bat izatea, esaterako— aurre egiteko ezintasunari dagokionez. EAEn, 25.786 etxekoen unitate daude egoera horretan, hau da, Autonomia Erkidegoko etxekoen unitate guztien % 3,3.

Hala ere, aipatzeko modukoa da atzemandako ugalketa-arazoen % 47 oinarritzko premiak betetzeko eta gutxieneko kalitateko etxebizitza lortzeko arazo larririk ez duten etxekoen unitateei dagokiela eta gaur egun ezusteko gastuei aurre egiteko gai direla. Horrek esan nahi du EAEn dauden ekonomian oinarritutako ugalketa-arazoak pobrezia eta ongizaterik ezaren forma nagusiei zuzenean loturiko esparrua gainditzen dutela eta ongizatearen garapenari eta

bizi-kalitatearen maila jakin batzuk lortzeari zuzenean loturiko gaitan ere sartzen direla, esate baterako, seme-alabei goi mailako zaintza ematea, enplegu egonkorrak eta kalitatezkoak lortzea edo egoera onean dagoen etxebizitza bat eskuratzea.

Baina gabezia handiegirik ez badute ere seme-alabak izateko zailtasun ekonomikoak dituztela dioten 22.865 etxekoen unitateen ezaugarri ekonomikoetan sakonduz gero, etxebizitza-gastuen eginkizun diferentziala argi eta garbi agertzen da. Hori horrela izanik, arrisku-egoerarik deigarrien artean, laneko segurtasunik ezari lotutakoak (erreferentziazko etxekoen unitateen % 48,2k atzeman du gabezia hori) eta, batez ere, etxebizitza-gastuak aipatu behar dira. Izan ere, erreferentziazko etxekoen unitateen % 65,4an, diru-sarreraren % 30 baino gehiago etxebizitzarako erabiltzen da. Ohiko gastuek edo inoren laguntza behar duten pertsonen laguntzeko ezohiko gastuek eragindako zorpetzeko arriskuko egoeren proportzioa, berriz, askoz txikiagoa da (% 4,6 eta % 13,8, hurrenez hurren). Ikus daitekeenez, etxebizitzaren kostuarekin eta enpleguaren ezegonkortasunarekin batera, baliabide ekonomikoen urritasuna ere familiek nahi duten ugalketa-mailara iristeko aukerak mugatzen dituzten faktoreetako bat da.

7. taula. Ezusteko gastuei aurre egiteko gai diren eta oinarritzko nahiz etxebizitzaren premiak betetzeko arazo larririk ez duten etxekoen unitateak, ugalketa-arazoak dituztenak.

Beste arrisku-adierazle ekonomiko batzuk. (eraginpean hartutako etxekoen unitateen %)

Arrisku-adierazleak	eraginpeko etxekoen unitateen %-a
Diru-sarreraren % 30 baino gehiago etxebizitzarako	65,4
Ohiko gastuek eragindako zorpetzeko arriskua	4,6
Inoren laguntza behar duten pertsonen laguntzeko ezohiko gastuak	13,8
Ez dituzte nahi dituzten seme-alabak, lan-arloko segurtasunik eza dela-eta	48,2
Bata edo bestea	83,5

Iturria: GZEE-GPI 2006

Oro har, aztertutako etxekoen unitateen % 83,5ean agertzen da lau arrisku-egoera horietakoren bat. Kasuen %81,7, ordea, lan-arloan sentitzen den segurtasunik ezari edo etxebizitzaren arloko gastu handiei lotuta dago.


Aurkeztutako datuen argitara, hobeto uler ditzakegu gure herrian dugun jaiotza-tasa txikiaren oinarri ekonomikoak; izan ere, arazo horrek pobrezia eta bestelako ongizaterik gabeko egoeren azterketaren hurbilketa klasikoaren mugak gainditzen ditu.

2.4. Etxebizitza-arazoak

Etxekoen unitate eta familiek gainditu beharreko zailtasun ekonomikoen azterketarekin loturiko beste alderdi bat etxebizitzari dagokio. Diru-sarreraren eta gastuen dimentsioan aztertu ditugu zailtasun horiek, bereziki, hipotekak eta alokairuak ordaintzeko ahalmenari dagokionez; orain, etxebizitzan bizi-kalitatearekin zuzenean loturiko alderdiak (egoera orokorrean, instalazioa, ekipamendua, tamaina eta abar) aztertuko ditugu.

Zailtasun horien inpaktua garrantzitsua da oraindik ere, etxekoen unitateen % 21,6k aipatu baitu horrelako arazorik bat duela. Alabaina, garrantzi-indizea % 49,9 da, eta %10,8ra murrizten da etxebizitzarekin loturiko arazo garrantzitsuak dituztela dioten etxekoen unitateen proportzioa. Arazo garrantzitsuaren kasuan, nagusitasun-indizea ere txikia da (% 27,6). Hori horrela, EAEko etxekoen unitateen soilik % 3k dio etxebizitza-arazo garrantzitsuak direla bere arazo nagusia.

160. grafikoa. Etxebizitza-arazoak dituzten etxekoen unitateen %-a, arazoaren garrantziaren arabera. EAE




Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



Azpian dagoen arazo mota kontuan izanik, arazo zabalduena konponketak egiteko premiarekin loturik dago; etxekoen unitateen % 15,9 dago arazo horren eraginpean eta horien artetik % 7k garrantzitsutzat hartu du. Horrek esan nahi du gai hori aipatu duten etxekoen unitateen % 43,9k garrantzi handia ematen diotela arazoari. Etxebizitzaz aldatzeko premia aipatu duten etxekoen unitateen proportzioa % 5,4 baino ez den arren, kasu horretan, garrantzi-indizea % 66,6ra igotzen da eta etxekoen unitateen % 3,6aren ustez aldaketa hori garrantzitsua da. Aztertutako gainerako arazoak —etxebizitza egoera txarrean egotea, nahikoa espaziorik ez izatea edo ekipamendua eskasa izatea— etxekoen unitateen % 3,5-5,5ek aipatu ditu, baina garrantzi-indizeak % 40tik % 45era bitartekoak dira. hortaz, horrelako arazoak garrantzitsutzat jo dituzten etxekoen unitateen proportzioa % 1,5era murriztu da etxebizitzaren egoera txarraren edo ekipamendu eskasaren adierazleei dagokienez, eta maila handiena nahikoa espaziorik ez izateari dagokio (% 2,2).

Nolanahi ere, arazo garrantzitsuaren kasuan nagusitasun-indizea txikia da etxebizitza kalitatearen adierazleak kontuan hartuz gero. % 20tik gorako maila atera dute etxebizitzan konponketak egiteko premiak edo etxebizitzaz aldatzeko premiak. Horren arabera, etxebizitzaren arazo garrantzitsuak arazo nagusi direla dioten etxekoen unitateen inpaktua txikia da, gehienez % 1,4ra iritsita konponketen premietan eta % 0,8ra etxebizitzaz aldatzeari dagokionez. Gainerako adierazleetan % 0,5etik behera daude zifrak.


161. grafikoa. Etxebizitza-arazoak. Arazoak dituzten etxekoek unitateen %-a, arazo motaren eta garrantziaren arabera. EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Etxebizitza-arazo larrien intzidentzia homogeneoa da familia mota guztietan; gehienetan % 9tik % 11ra bitartekoa da, edo tarte horren ingurukoa. Arazo horien inpaktua handitu egiten da kasu bakarrean, guraso bakarreko familien kasuan, hain zuzen ere eta, bereziki, gurasoaren kargura bizi diren seme-alabak dituenetan (% 21,5, gurasoaren kargura bizi ez diren seme-alabak dituenetan % 13,1).


162. grafikoa. Etxebizitza-arazoen intzidentzia familia motaren eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Etxebizitza-arazoen guztizko banaketan zera nabarmendu behar dugu, % 42,8 seme-alabak gurasoen kargura bizi diren etxekoen unitateei dagokiela —bi gurasokoak nahiz guraso bakarrek izan—, seme-alabak gurasoen kargura bizi ez diren etxekoen unitateei dagokien % 15,6 erraz gaindituz. Baina ezin dugu aipatu gabe utzi pertsona bakarrek etxekoen unitateen % 19,5 garrantzitsua; izan ere, arazo mota horrek intzidentzia handiagoa du kolektibo horrengan, batez bestekoa baino (% 11,6).


163. grafikoa. Etxebizitza-arazoen banaketa familia motaren eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


Azkenaldiko joerei erreparatuta, ikusiko dugu etxebizitza-arazoen inpaktu erlatiboa murriztu egin dela, horrelako arazoren bat duten etxekoen unitateen proportzioa 2004ko % 13,4tik 2008ko % 10,8ra jaitsi baita. Jaitsiera argiago atzematen da arazo garrantzitsu eta nagusien bilakaera kontuan hartuz gero, adierazlea % 5,3tik % 3ra erori da-eta.

164. grafikoa. Etxebizitza-arazoen intzidentziaren bilakaera arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

165. grafikoa. Etxebizitza-arazoen —garrantzitsuak eta nagusiak— intzidentziaren bilakaera, arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

2.5. Gaixotasun, desgaitasun edo baliaezintasunekin loturiko arazoak

2.5.1. Desgaitasunagatiko mendetasunaren inpaktua

Familiari buruzko Inkestaren arabera, 2008. urtean desgaitasun-egoeren inpaktua EAEko biztanleriaren % 8,5 zen. Mendetasunari dagokionez, 136.683 pertsonak (% 6,4) gutxienez laguntza puntuala behar dute, guztizkoaren % 1,8k zaintza iraunkorrak behar ditu (38.899 pertsona), % 2,2k jarduera jakin batzuetarako laguntza behar du (47.034 pertsona) eta % 2,4k laguntza puntuala baino ez du behar (50.750 pertsona). Gutxienez laguntza puntuala behar duten desgaituak dauden etxeko unitateak % 15,7 dira, eta % 4,6an zaintza iraunkorrak behar dituen gutxienez lagun bat dago.

Gai hori aztertzeko iturririk zehatzena Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Inkesta-Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GPI) da, nahiz eta aspaldiko datuak izan (eskuragarri dauden azkeneko datuak 2006koak dira); inkesta horren zati garrantzitsuenetako batean, hain justu, osasun-arazo kronikoekin edo adin aurreratuarekin loturiko mendetasun-egoerak eta mugak aztertzen dira¹⁷. GPIan eguneroko bizitzaren garapenerako zailtasunei loturiko muga guztiak

¹⁷ Mendetasunaren jatorria aintzat hartzeko unean kontuan izaten dira edozein motatako urritasunak — zentzumenezkoak, fisikoak edo mentalak—, ezintasunak edo gaixotasun kronikoak, substantzia



hartzen dira kontuan, nahiz eta oso txikiak izan. Muga horien barnean honako hauek bereizten dira: hirugarren pertsonetikiko mendetasun berezi bat sortzen dutenak eta ikastetxean zein lantokian laguntza bereziren baten premia sortzen dutenak. Osasun-arazoei eta adin aurreratuari loturiko muga inpaktu demografikoa funtsezkoa da, EAEko etxekoen unitateen % 24,7k baitu egoera horretan dagoen kideren bat gutxienez. Etxekoen unitate horietatik % 3,5ek horrelako mugak dituzten bi pertsona edo gehiago ditu. EAEn bizi diren pertsonen % 10,5ek —225.515 pertsonak, guztira— muga bereziren bat du osasun-arazoren batengatik edo adin aurreratua izateagatik, eta horien artetik erdiak baino gehixeagok —117.584, EAEko biztanleriaren % 5,5— mendetasun-egoera bereziren baten ondorioz dauka muga hori¹⁸, Familiei buruzko Inkestan aipatutako % 6,4aren antzeko zifra izanik.


Dena den, erreferentzia-puntutzat Barthel eta Lawson eskalak hartuta¹⁹, mendetasun-egoeran dauden 58.850 pertsona (biztanleria guztiaren % 2,7), praktikan, autonomoak direla edo, gehienez ere, mendetasun-arazo arinak dituztela egiaztatu dugu. Mendetasun ertaineko kasuak 22.453 dira, guztizkoaren % 1. Mendetasun larria edo erabatekoa dute 36.281 pertsonak (guztizkoaren % 1,7).

adiktiboekiko (hala nola alkohola edo drogak) mendetasun-arazoak, adin aurreratuari loturiko mugak, eta abar.

¹⁸ 6 urtetik beherako kasuan, mendetasun-egoera berezietan honako hauek sartzen dira: gaixotasun kroniko edo urritasun motaren bat diagnostikatu dutenak edo, bestela, portaera kezkagarriak dituztenak eta adin horretako haurrei ohiko moduan ematen zaiena baino laguntza edo arreta handiagoa behar dutenak. 6 urtetik gorako kasuan, honako egoera hauek sartzen dira: osasun-arazo kronikoen edo adin aurreratuaren ondorioz hirugarren pertsonetikiko mendetasun-egoeran —puntuala edo iraunkorra— daudenak eguneroko bizitzako jarduera bat, gutxienez egiteko, ikastetxean laguntza berezia behar dutenak (ikastetxe berezietara joatea barnean hartuta) edo lanean laguntza berezia behar dutenak (enplegu-zentro berezietara joatea barnean hartuta).

¹⁹ **Lehenak** eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretarako zailtasunak neurtzen ditu, eta bigarrenak jarduera instrumentaletarako zailtasunak.

166. grafikoa. Osasun-arazoez edo adin aurreratuak eragindako mendetasunaren intzidentziari buruzko adierazleak, mendetasun motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


Mendetasun-arazoen inpaktu orokorrean goranzko joera atzeman dugu: 2004an % 4,4, 2006an % 5,5 eta 2008an % 6,4. Joera horren eraginpean daude larritasun-egoera guztiak eta azkenaldian —2006-2008 aldian— hazkunde handiagoa ikusi dugu arazo arin eta ertainei dagokienez.

2.5.1.1. Adinaren inpaktua

GPIaren eta Familiari buruzko Inkestaren datuei erreparatuta, adina oso garrantzitsua dela konturatuko gara, mendetasun-arazoen jatorriari dagokionez. Gutxienez laguntza edo mendetasun bereziren bat duten kasuak erreferentziatzat hartuta, 45 urtetik beherakoen artean % 2,5eko mugan edo hortik behera kokatzen dira ohiko moduan, baina adinean aurrera egin ahala modu esponentzialean handitzen da arazo horien intzidentzia. 2008. urtea erreferentziatzat hartuta, zifrak % 4,3ra igo dira 45-54 urtekoen artean, % 6ra 55-64 urtekoen artean eta % 11,9ra 65-74 urtekoen artean. 75 urtetik aurrera, hazkundera handiagoa da; % 32ra iritsi da mendetasun-arazo esanguratsuen eraginpean dauden adinekoen proportzioa. Bestalde, mendetasunean adinak duen garrantzia argi eta garbi ikusten da; izan ere, kontuan izandako arazoen banaketan, 2008. urtean kasuen % 75,9 55 urteko edo hortik gorako pertsonen dagokio, eta % 47,6 75 urtekoei edo hortik gorakoei.

Bilakaerari erreparatuta, zifren arabera, oro har, 45 urtetik beherakoetan joera egonkorra da, 25-34 urtekoak salbuespen izanik; 25-34 urtekoen kasuan aztertutako arazoan inpaktua % 1etik % 2,4ra igo da 2004-2008 aldian. Halaber, goranzko joera ikus daiteke 45 urteko eta hortik gorako pertsonen kasuan. 75 urtetik beherakoen kasuan joera hori bereziki 2006-2008 aldiarekin loturik dago, baina epe luzera begira, argiago ikusten da 75 urtetik gorakoaren artean, 2004. urtetik aurrera etengabe gorantz ari baita.

167. grafikoa. Mendetasun bereziaren (edo laguntza behar izatearen) intzidentzia adinaren arabera (%-tan). EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Egoera zailenei, hau da, erabateko mendetasunari edo mendetasun larriari dagozkion egoerei buruzko datuetan askoz ere argiago ikusten da adin aurreratuenekiko lotura. Ildo beretik, horien intzidentzia % 1 inguru edo txikiagoa da 64 urte egin arte eta 65-74 urtekoen kasuan % 2 inguru. Aldiz, intzidentzia % 11,5etik % 12,5era bitartekoa da 75 urte eta gehiagokoaren artean.

Izan ere, 2008. urtean, 55 urtetik gorakoaren proportzioa mendetasun berezia duten edo laguntza behar duten pertsona guztiena baino apur bat handiagoa den arren (% 78,3 eta % 75,9, hurrenez hurren), kasu horretan 75 urtetik gorakoaren garrantzia askoz handiagoa da. Zaintza bereziak behar dituztenen % 60,7k 75 urte baino gehiago ditu (mendetasun berezia duten edo laguntza behar duten egoera guztien kasuan % 47,6).

168. grafikoa. Erabateko mendetasunaren edo mendetasun larriaren (zaintza iraunkorrak behar dituen) intzidentzia adinaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

2.5.1.2. Intzidentzia etxekoan unitate motaren arabera


Mendetasun-egoeren presentzia etxekoan unitateen arabera aztertuz gero, hiru egoera mota nagusi bereiz ditzakegu. Eguneroko bizitzako jarduerak garatzeko gutxienez laguntza puntual motaren bat behar duten mendetasun-egoeren intzidentzia handia duten etxekoan unitateek osatzen dute lehenengo mota; eraginpeko etxekoan unitateak % 19-20 inguru edo gehiago dira eta gainera, zaintza iraunkorrekin loturiko egoerei dagokienez, % 8ko edo gehiagoko proportzio esanguratsua dute. Egoera horretan daude honako etxekoan unitate mota hauek: guraso izandako ezkontideak, guraso bakarreko familia mota guztiak, senideak ez diren pertsona anitzekoak eta bestelako familia-taldeak.

Bigarren motan, gutxienez laguntza puntual motaren bat behar duten desgaitasun-egoeren presentziaren inpaktu orokorra antzekoa da (% 20 inguru) baina zaintza iraunkorrak behar dituzten egoerena txikiagoa. Hori horrela izanik, azken mota horretako desgaitasun-egoerak dituzten etxekoan unitateen proportzioa % 5,4 da gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoan unitateen kasuan, eta % 2,9 pertsona bakarreko etxekoan unitateetan; azken kasu horretan, EAEko batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa da.

Hirugarren etxekoan unitate motari dagokionez, mendetasun-egoeren intzidentzia EAEko batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da. Horixe gertatzen da gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoan unitateetan, laguntza puntualen bat behar duten

mendetasun-egoeren presentzia % 8,2 izanik, eta % 2,7 zaintza iraunkorrak behar dituzten errealitateen presentzia. Zifra txikiak (laguntza puntuala % 1,4 eta zaintza iraunkorraren kasu bat bera ere ez) guraso ez diren ezkontideen etxeko unitateei dagozkie.

169. grafikoa. Mendetasun-egoerak dituzten etxeko unitateak, egoeraren larritasunaren arabera. EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


2.5.2. Mendetasun-arazoen pertzepzioa familien aldetik

Gaixotasun, desgaitasun edo baliaezintasunekin loturiko arazoen inpaktua nabarmena da EAEko etxeko unitateetan. Etxeko unitateen % 30,8k aipatu du horrelako arazoren bat duela eta % 21ek garrantzitsutzat jotzen ditu.

Hala ere, gaixotasun, desgaitasun edo baliaezintasuneko egoera larriekin loturik daudenean, arazo horien inpaktua ez da hain handia (etxeko unitateen % 16,8). Kasu horietan, garrantzi-indizea % 70,8 da; beraz, aztergai ditugun egoerekin loturiko arazo garrantzitsuak dituztela dioten etxeko unitateen proportzioa % 11,9 da. Arazo garrantzitsuen kasuan, nagusitasun-indizea % 50 baino handiagoa da (% 52,3, hain justu); horrek esan nahi du etxeko unitateen % 6,2k jo dituela arazo horiek garrantzitsutzat eta arazo nagusitzat.


Zailtasun nagusiak desgaitasun edo baliaezintasun erabatekoarekin edo partzialarekin loturik daude, mendetasunaren arazo hori arazo garrantzitsu eta nagusitzat jo dutenen 6,2 horietatik 5,9aren kasuetan.

170. grafikoa. Gaixotasun, desgaitasun edo baliaezintasuneko egoera larriekin loturiko arazoak dituzten etxekoek unitateen %-a, arazoek garrantziaren arabera. EAE.



Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

171. grafikoa. Gaixotasun, desgaitasun edo baliaezintasuneko egoera larriekin loturiko arazoak. Arazoak dituzten etxekoek unitateen %-a, arazo motaren eta garrantziaren arabera. EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gaixotasun, desgaitasun eta baliaezintasuneko egoera larriekin loturiko arazo garrantzitsuen intzidentzia batez bestekoa baino handiagoa da pertsona bakarreko etxekoek unitateen kasuan (% 12,6) eta gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoek unitateen

kasuan (% 13,5), baina mailarik handienak guraso izandako ezkontideen etxekoan unitateek (% 17,9) eta bestelako familia-taldeek (% 17,6) izan dituzte. Guraso bakarreko familien kasua aipatzeko modukoa da; izan ere, gurasoaren kontura bizi diren seme-alabak dituztenak % 19,1 dira eta gurasoaren kontura bizi ez diren seme-alabak dituztenak % 15,8.


172. grafikoa. Gaixotasun, desgaitasun eta baliaezintasuneko egoera larriekin loturiko arazo garrantzitsuen intzidentzia familia motaren eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Aipatutakoa alde batera utzi gabe, horrelako arazoak dituzten etxekoan unitate gehienak gurasoen etxekoan unitateak dira (% 37), guraso izandako ezkontideak (% 23,6) eta pertsona bakarrekoak (% 19,4).

173. grafikoa. Gaixotasun, desgaitasun eta baliaezintasuneko egoera larriekin loturiko arazo garrantzitsuen banaketa, familia motaren eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Bestalde, zahartze-prozesuaren inpaktuak eragin handia duen dimentsioa izaki, ez da harritzekoa aztertutako arazoen intzidentzia nabarmen handitzea (2004ko % 8,7tik 2008ko % 11,9ra).


Etxekoen unitateen arazo garrantzitsuen eta nagusien inpaktuak ere gora egin du, intzidentzia % 4,8tik % 6,2ra handitu baita. Termino absolututan nahiz erlatibotan, hazkunde hori txikiagoa da arazo garrantzitsu guztietan izandakoa baino eta horren ondorioz, arazo garrantzitsuaren kasuan nagusitasun-indizea jaitsi egin da, hein batean (2004ko % 55,3tik 2008ko % 52,3ra). Hortaz, horrek esan nahi du mendetasun-arazoen intzidentziak gora egin duela baina arazo horiek etxeko arazo nagusitzat jotzeari dagokionez murrizketa txiki baten testuinguruan.

174. grafikoa. Gaixotasun, desgaitasun eta baliaezintasuneko egoera larriekin loturiko arazo garrantzitsuen intzidentziaren banaketa, arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familei buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

175. grafikoa. Gaixotasun, desgaitasun eta baliaezintasuneko egoera larriekin loturiko arazo — garrantzitsuak eta nagusiak — intzidentziaren bilakaera, arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familei buruzko Inkesta 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

2.6. Adingabeak eta adinekoak zaintzeko arazoak

2.6.1. Inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzea

2.6.1.1. Adingabeak haurtzaindegietan edo ikastetxeetan

Familei buruzko Inkestaren arabera, 2008ko datu erlatiboekin, EAEko 63.038 etxekoen unitatetan 3 urtetik beherako haurrak daude. EAEko etxekoen unitateen % 7,9 dira eta,



guztira, 68.034 adingabe daude aintzat hartutako adin-taldean. Adingabe horien % 51,8 haurtzaindegietan edo ikastetxeetan zaintzen dute, errealitate hori adinarekin dago lotuta. 2006an jaiotako % 81,3 ikastetxeetara edo haurtzaindegietara joaten da, eta zifra hori, aldiz, % 52,3 da 2007an jaiotako adingabeen kasuan. Proportzioa % 15,8ra jaisten da 2008an jaiotakoen kasuan²⁰.


Ez zaintzea ez da, orokorrean, eskaerari erantzuteko sistemak duen gaitasunik ezarekin lotzen, adingabeen % 43,5 ez zaintzeko arrazoiak ezin dira zuzenean lotu arreta-sisteman desoreka dagoela adierazten duten arrazoiekin, baizik eta, batez ere, familien lehentasunekin lotzen dira. Familien % 38,2k etxean zaintzea erabakitzen du, % 61,3k, ordea, lehentasuna ematen dio adingabeak adin jakin bat izatearen eskaerari. Lehenengo aukerak behera egiten du adinarekin (% 67,3 2006an jaiotakoen kasuan, % 44,4 2007an jaiotakoetan eta % 37,4 2008an jaiotakoetan) –horrek esan nahi du arreta adinera egokitzen dela–, bigarrenak, ordea, gora egiten du adin horretan (% 32,7, % 53,8 eta % 61,3, hurrenez hurren).

Kontuan hartutako desoreka motaren adierazgarri diren arrazoiak direla medio zainduta ez dauden adingabeen proportzioa guztizkoaren % 4,7 besterik ez da (3.194 haur). 843 kasutan –guztizkoaren % 26,4–, errealitate hori ikastetxearen erabaki negatiboarekin lotzen da, arreta emateari uko egin diolako. Gainerako kasuetan, % 52,6an ez dago kostuarekin lotutako eskaerarik (1.679 kasu), bizilekutik urrun egotearekin lotuta dagoen % 13,8ko zifraren eta ordutegia egokia ez dela adierazten dutenen % 7,2ko zifraren (guztira, 671 kasu besterik ez) oso gainetik.

Kostuaren garrantziak gora egin du 2008an jaiotakoen kasuan, baina 2007an jaiotakoak hartzeari uko egitea handiagoa da. Alderdi horiek azal dezakete nahi ez diren arreta-desoreken intzidentziak gora egitea kolektibo hauetan: % 4,8 2008an jaiotakoen kasuan eta % 8,4 2008an jaiotakoen artean; aitzitik, % 1,3 2006an jaiotakoen artean.

²⁰ Gizarte Premien Inkestan (GPI) azaltzen diren zifrak 2006ko zifren antzekoak dira, zaindutako 2 urtetik beherako haurrak % 84,7 baitira, urte bateko haurrak % 45,9 eta adin horretatik beherakoak % 16,4. Ikastetxeetan sartzea ia erabat unibertsala zen 3 urtetik gorakoen kasuan, artatzen ez diren 3 urtetik beherakoen zifra % 0,3 baino ez baita.


176. grafikoa. Adingabeak haurtzaindegietan zaintzea jaiotako urtearen arabera. 2008. EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Ikusten da, orokorrean, oreka handi samarra dagoela erabilitako denboraren eta behar den denboraren artean haurtzaindegia zaintzeko baliabideari dagokionez. Oro har, egun bakoitzean zaintzako 5,54 ordu eskaini ordez, 5,80 ordu beharko dira, eta horrek esan nahiko du 96,4ko estaldura izango dela. Zaintza % 100 edo goragokoa da ikastetxeetan, baina itundu gabeko ikastetxe pribatuetan % 94,9ra jaisten da, % 92,6ra ikastetxe pribatu itunduetan eta % 85,7ra udal-ikastetxeetan.

177. grafikoa. Egun bakoitzeko zaintza-orduak haurtzaindegietan edo ikastetxeetan. 3 urtetik beherakoak. EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila




Ikastetxeetako batez besteko hileko kuota 136,21 euro da, baina atzeman da ikastetxe motaren arabera alde handiak daudela. Batez besteko kuota 69,94 euro da ikastetxe publikoetan eta 126,61 udal-ikastetxeetan, ikastetxe pribatu itunduetan, ordea, zifra hori 156,93 euro da, eta diru-laguntzarik ez duten zentro pribatuen kasuan, aldiz, nabarmen igotzen da (216,44 euro batez beste). Ordu bakoitzeko kuota ordu bakoitzeko 37,02 eurotik 30,54 eurora bitartekoa da ikastetxe pribatuetan (diru-laguntzarik ez dutenak edo itunduak), udal-ikastetxeetan ordu bakoitzeko 22,37 euro da eta ikastetxe publikoetan 13,13 euro.

Adingabeen % 5,9k soilik jasotzen du laguntza ekonomikoa haurtzaindegiaren edo ikastetxearen kostua ordaintzeko, baina % 11k eskatu du diru-laguntza hori eta erantzunaren zain dago. % 17,4ari ukatu zaio laguntza-eskaera, eta ehuneko horri laguntza oraindik eskatu ez duen baina eskatzeko asmoa duen beste % 25,5 erantsi beharko litzaioke, baita eskaera horren berri ez zutelako eskatu ez duen % 16,8 ere. % 22,6k ez du diru-laguntzarik eskatu ez diotela emango uste duelako, nahiz eta laguntza horren premia izan. Kasuen % 0,7an soilik, elkarriketatutako gurasoen ustez ez dute inolako laguntzarik behar. Udal-ikastetxeetara joaten diren adingabeek jasotzen dituzte laguntza gehien. % 22,6arekin, egoera horretan bakarrik ikusten da zifrak esanguratsuak direla. Zifrak % 5,8ra jaisten dira ikastetxe pribatu itunduetan eta % 3,5era diru-laguntzarik jasotzen ez duten ikastetxe pribatuetan.

2.6.1.2. Desgaitasunari lotutako mendetasuna zaintzea

Autonomia eta Mendetasuna Artatzeko Sistemari (AMAS) erregistratutako balioespen-eskabideak 79.872 pertsonak eskatu zituzten 2010eko uztailaren 1ean. Horrek esan nahi du balioespenaren intzidentzia gutxienez laguntza puntualeko inplikazioekiko mendetasuna duen biztanleriaren % 58,4 dela; 2008ko % 26,9ekin alderatuta, aurrera egiten ari dela ikusten da. 2010eko uztailaren 34.705 pertsonak jasotzen zituzten AMAS prestazioak, kontuan hartutako mendetasun-arazoak dituzten pertsonen % 25,4k, alegia. Laguntza ekonomikoak –zerbitzuari lotutakoak familia-zaintzengatik edo laguntza pertsonalarengatik– lortzen dituzten pertsonak 18.659 dira, guztizkoaren % 13,7; 2008an, aldiz % 8 ziren. 8.351 pertsonak egoitza-prestazioa dute eta 4.643 AMAS sistemari atxikitako etxez etxeko laguntza-prestazio baten onuradunak dira.

178. grafikoa. Mendetasuna duten pertsonen zaintza-adierazleak (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila; IMSERSO, Balioespen, Kalitate eta Ebaluazioari Atxikitako Zuzendariordetza Orokorraren Estatistika Zerbitzua. 2010eko uztailaren 1eko egoera

Oharra: Datuak inoren laguntza behar duen biztanleriaren gainean kalkulatu dira, eta biztanleria hori 2008ko Familiei buruzko Inkestan azaltzen da.

Prestazioen eskaintzaren eta eskaeraren arteko egokitzea kontuan hartuta, Familiei buruzko Inkestaren arabera, langile kontratatuek zaintzen dituzten eta inoren laguntza behar duten 24.301 pertsona daude 2008an. Pentsatzen baldin badugu zerbitzuari eta familia-zaintzei lotutako prestazioei dagokienez, AMAS bidez laguntza ekonomikoa jasotzen duten pertsona guztiak (17.817 kasu) aurrekoekin lotuta daudela, horrek esan nahi du AMASek premien % 73,3 estaltzen duela gehienez ere.


Aitzitik, estaldura arestian aipatutako laguntza-eskaeraren arabera aztertzen bada, esan dezakegu estaldura hori handiagoa izango dela. 2006an, GPIaren arabera 18.494 etxekoek unitatek eska zezaketen laguntza inoren laguntza behar zuten etxekoek unitateko kideak zaintzeko. 2006-2008 aldian, kontratatutako langileetara jotzen duten etxekoek unitateen kopurua % 13,5era igo denez gero, eskaera potentzial egokitua gutxi gorabehera 20.989 etxekoek unitate izatera irits liteke 2008an. Kasu horretan, AMASen prestazio ekonomikoek estaldura premiaren % 84,9 izan liteke²¹.

Inoren laguntza behar duten pertsonen % 17,8 kontratatutako kanpoko langileek zaintzen zuten 2008an. Proporzio hori igo egiten da mendetasun-maila areagotzen den neurrian: soilik laguntza puntuala behar duten pertsonen % 8,4, zenbait jarduera egiteko laguntza behar duten pertsonen % 16,6 eta etengabe laguntzak behar dituztenen % 31,5.

²¹ Estaldura-mailak, ordea, txikiagoa izan behar du. Ildo horretan, ezin da ahaztu Familiei buruzko Inkestan azaltzen dela onartu ez diren AMAS bidezko laguntza ekonomikoek eskabideen ehunekoa handia dela. Ez-onartze horrek etengabeko zaintzekin loturarik ez duen eta inoren laguntza behar

Kontrataturako orduen batez besteko zenbatekoa 6,2 ordu da inoren laguntza behar duen pertsona bakoitzeko (2,65 soilik laguntza puntuala behar duten arazoen kasuan, 4,06 hainbat jarduera egiteko laguntza behar bada eta 8,86 etengabeko laguntzak behar diren kasuan). Etxeko arretaren batez besteko hileko kostua 449,66 euro da erabiltzaileentzat, ordu bakoitzeko batez besteko kostua 72,07 euro izanik. Guztizko kostua igo egiten da larritasunarekin (276,35 egoera arinetan, 320,09 tarteko egoeretan eta 596,77 etengabeko laguntza behar duten kasuetan), baina ordu bakoitzeko batez besteko kostua jaisteko joera dago (104,35; aldiz, beste kasuetan 78,81 eta 67,33, hurrenez hurren).

179. grafikoa. Inoren laguntza behar duten eta kontratatutako langileek zaintzen dituzten pertsonak, mendetasunaren larritasunaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Etxeko arreta-zerbitzuari dagokionez, Familiei buruzko Inkestaren arabera, 2008an, 14.343 erabiltzaile zeuden; horren ondorioz, AMAS sistemaren estaldura zerbitzu honek EAEn artatzen dituen pertsonen % 32,4 da²². 2008an, inoren laguntza behar zuten pertsona guztien

duten pertsonen eragiten die (% 49,1 2008an), baita zaintza mota hori behar duten pertsonen ere (% 28,8).


²² Datu horiek zaintzaren une jakin bati buruzkoak dira, eta gerta liteke AMASen estaldura handiagoa izatea urte osoa kontuan hartzen bada. Hala eta guztiz ere, ikusten da inkestak gutxietsi dezakeela AMASen benetako inpaktua.

Gizarte Zerbitzuaren egindako Gastu Publikoaren Azterlanaren (2007) datuek, ildo horretan, erakusten dute 2007an etxeko arreta-zerbitzu publikoen (EAZ) erabiltzaileen kopurua 23.896 izatera igo zela Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Gizarte Zerbitzuen Eskarari buruzko Estatistikaren arabera, gizarte-premiei buruzko azterlanaren (GPA) dimentsioan, 2006an, 18.647 etxeko unitatek

% 10,5 etxeko arreta-zerbitzuaren erabiltzailea zen, proportzio horrek gora egiteko joera du mendetasun-maila areagotzen den neurrian; izan ere, laguntza puntuala behar duten pertsonak % 6,2 izatetik hainbat jarduera egiteko laguntza behar dutenen % 12,6 izatera eta etengabeko zaintzak behar dituztenen % 13,5 izatera igaro da.

Zerbitzu-orduen batez besteko kopurua murrizta da, egun bakoitzeko 1,46 ordu besterik ez baitira erabiltzaile bakoitzeko. Mendetasunaren larritasunaren arabera igotzen bada ere (1,03 laguntza puntuala behar bada, 1,46 hainbat jarduera egiteko laguntza behar bada eta 1,73 etengabeko laguntzak eskatzen dituzten egoerei dagokienez), kasu guztietan arretaren intentsitate mugatua nagusitzen da. Azkenik, etxeko arretaren batez besteko hileko kostua 62,07 euro da erabiltzaileentzat, ordu bakoitzeko batez besteko kostua 42,46 euro izanik. Ordu bakoitzeko batez besteko kostua igo egiten da arazoaren larritasun-maila jaisten den neurrian. Soilik laguntza puntuala eskatzen duten pertsonen kasuan ordu bakoitzeko 76,09 euro da kostua, 37,66 euro hainbat jarduera egiteko laguntzak behar dituztenen kasuan eta 34,88 euro etengabeko zaintzen kasuan.

180. grafikoa. Inoren laguntza behar duten eta EAZren erabiltzaileak, mendetasunaren larritasunaren arabera (%-tan).
EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Eguneko zentroei dagokienez, inoren laguntza behar duten erabiltzaileak 5.481 dira 2008an; kasu honetan, AMAS sistemaren estaldura zerbitzu honek EAEan artatzen dituen pertsona guztien % 84,7 da. Arreta % 4 izatera iristen da mendetasun-egoeran dauden pertsonen kasuan, eta etengabeko zaintzarik behar ez duten pertsonen kasuan estaldura-zifrak % 1etik % 2ra bitartekoak badira ere, proportzioa % 9,8ra igotzen da etengabeko laguntza behar duten pertsonen artean.

lortu zuten EAZ bidezko laguntza publikoa. Zifra hori bat dator Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoari

Zerbitzu-orduen batez besteko kopurua egun bakoitzeko 7,48 ordu da erabiltzaile bakoitzeko, 7,94 etengabeko zaintza-premiaren kasuan. Hileko batez besteko kostua 199,45 euro da, 252,34 etengabeko zaintzen kasuan. Ordu bakoitzeko batez besteko kostua ordu bakoitzeko 26,67 euro da, eta ordu bakoitzeko 31,80 eurora igotzen da mendetasun-maila handiagoko egoeren kasuan.


181. grafikoa. Inoren laguntza behar duten eguneko zentroen erabiltzaileak, mendetasunaren larritasunaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Zuzenean familiak zaintzen dituen eta inoren laguntza behar duten pertsonen proportzioari dagokionez, proportzio hori % 65,1era igotzen da, eta arreta igo egiten da atzemandako arazoaren larritasuna igotzen den heinean (% 45,8 laguntza puntuala behar bada, % 66,1 eskatutako laguntza hainbat jarduera gauzatzeko bada eta % 89,1 eskatzen den laguntza etengabea bada). Zaintzako zereginak gauzatzen dituzten ahaideen batez besteko orduen dedikazioa 9,30 ordu da: 4,69 laguntza puntuala behar bada, 6,77 tarteko egoeretan eta 14,65 etengabeko arreta behar den kasuetan.


182. grafikoa. Inoren laguntza behar duten eta zuzenean familiak zaintzen dituzten pertsonak, mendetasunaren larritasunaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Zaintzari buruzko AMAS sistema sartzeak dituen inplikazioei dagokienez, Mendetasunari buruzko Legearen ondorioek eragiten dute egoitza-arreta ez ezik familia zaintzaileei laguntza ekonomikoa ere hobetzeaz gain, zaintzaileen kanpoko kontratazioarekin lotutako zatia nabarmen handitzea, bereziki etengabeko zaintzaren premia duten pertsonen kasuetan. Hala, 2006-2008 aldian, % 25,3tik % 31,5era igo da kontratatutako langileen bitartez artatutako pertsona horien proportzioa, eta horrek esan nahi du EAZ eta eguneko zentroen bidezko arreta nabarmen jaitsi dela. Etengabeko zaintzen premiak dituzten pertsonen kasuan, horrek esan nahi du arreta % 36,7 izatetik % 20,4 izatera igaro dela; premia bereziak dituzten pertsona guztien kasuan, aldiz, proportzioa % 22,3tik % 13,4ra jaitsi da.

183. grafikoa. Zaintzaren bilakaera 2006-2008 aldian (mendetasun berezia duen eta artatuta dagoen biztanleriaren %-a). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008, Gizarte Premiei buruzko Inkesta, 2006. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.


Azkenik, nabarmendu behar da estalitako eskaeraren, baina oraindik zerbitzua jaso ez duen zatiari Familiei buruzko Inkestan biltzen den erantzun gabeko eskaera kenduta, 2008an etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren 4.580 kasu daudela, eguneko zentroen 1.152 kasu eta egoitza batean etengabe ingresatutako 2.577 kasu.

2.6.2. Egoeraren pertzepzioa familien aldetik

EAEko etxekoen unitateen % 12,6k adierazi du adingabeak edo adinekoak zaintzearekin lotutako arazoak dituela, baina ez direla arazo ekonomikoak (haurtzaindegietan plazarik ez izatea, zaintzaileak zaintzeko eragozpenak, zainketa gauzatzeko gaitasun-arazoak, toki-arazoak, lanarekin lotutako zailtasunak, eta abar).

Zati handi batek –aintzat hartutako etxekoen unitateen % 63,9k– adierazi du dagoen arazoa handia dela, eta horrek esan nahi du zaintza-arazoen intzidentzia nabarmena dela: % 8,1. Nolanahi ere, nagusitasun-indizea, arazo garrantzitsua baldin bada, askoz ere txikiagoa da: % 34,3. Hortaz, etxekoen unitatearen arazo nagusia osatzen duten arazo garrantzitsuek EAEko etxekoen unitate guztien % 2,8ko azken inpaktua dute.

184. grafikoa. Adingabeak eta adinekoak zaintzeko arazoak (ekonomikoak ez direnak) dituzten etxekoen unitateen %-a, arazo horien garrantziaren arabera. EAE




Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



Zahartzeak markatzen duen testuinguruan, adinekoen zaintza da eragozpen handienak ekartzen dituen Euskadiko etxeko unitate eta familietan. Ildo horretatik, egiaztatu da Euskadiko etxeko unitateen % 9,1ek egiten diola aurre arazo horri, adingabeen zaintzari dagokionez, aldiz, % 3,8k du arazo hori. Garrantziaren eta nagusitasunaren indizeak antzekoak dira bi kasuetan, aipatutako aldeei eusten zaie termino erlatibotan, bai arazo garrantzitsuen kasuan (batean % 5,8; bestean, aldiz, % 2,5) bai arazo garrantzitsu eta nagusien inpaktua kontuan hartzean (kasu batean % 1,9; bestean, aldiz, % ,9).

185. grafikoa. Adingabeak eta adinekoak zaintzeko arazoak (ekonomikoak ez direnak). Arazoak dituzten etxekoek unitateen %-a arazo motaren eta arazoaren garrantziaren arabera. EAE.




Iturria: Familiari buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Datuek erakusten dute arazo mota horren inpaktua handiagoa dela gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten etxekoek unitateetan (% 10,6 gurasoen etxekoek unitateetan eta % 15,5 guraso bakarrekoetan), baita gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekoetan ere: % 12,4.

Inpaktuari buruzko azterketak ere erakusten du errealitate desberdinak daudela zaintza motaren arabera. Izan ere, adingabeak zaintzeko arazoak, logikoa denez, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten etxekoek unitateekin lotzen dira (% 8,9 guraso bakarreko familien kasuan eta % 5,7 gurasoen etxekoek unitateen kasuan), baina adinekoak zaintzarekin lotuta dagoen arazoa askoz ere banatuago dago. Kasu horretan, ordea, nabarmentzekoa da intzidentzia batez bestekoa baino handiagoa dela gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten etxekoek unitateetan (% 12,2 guraso bakarreko etxekoek unitateen kasuan eta % 7,5 gurasoen etxekoek unitateetan) eta guraso izandako ezkontideen etxekoek unitateetan (% 8,3).

186. grafikoa. Adingabeak eta adinekoak zaintzeko arazo garrantzitsuen (ekonomikoak ez direnak) intzidentzia familia eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE




Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Kontuan hartutako arazoen banaketa aintzat hartuta, egiazta daiteke zailtasun handiak dituztela adingabeak zaintzeko gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoek unitateetan (kasuen % 82,2; aitzitik, guraso bakarreko etxekoek unitateetan, % 11,8).

Adinekoak zaintzeari dagokionez, kasuen % 48,6 seme-alabak dituzten ezkontideen etxekoek unitateekin lotzen da (% 34,1 gurasoen kargura bizi direnak eta % 14,5 gurasoen kargura bizi ez direnak). Etxekoek unitate horiek guraso izandako ezkontideen etxekoek unitateen % 22,7ko zifra gainditzen dute argi eta garbi. Nolanahi ere, bereziki aipatu behar da gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxekoek unitateekin lotuta dagoen % 10,5eko zifra handia.


187. grafikoa. Adingabeak eta adinekoak zaintzeko arazo garrantzitsuen (ekonomikoak ez direnak) banaketa familia eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


Arazo mota horren azkenaldiko bilakaerak adierazten du bere intzidentzia igo egin dela, 2004-2008 aldian % 7,3 izatetik % 8,1 izatera igaro baita. Igoera % 2,3tik % 2,5era bitartekoa da adingabeen zaintzari dagokionez, eta % 5,3tik % 5,8ra bitartekoa zaharrak zaintzeko premiei dagokienez. Bilakaera hori, ordea, bateragarria da nagusitasun-indizeak murriztearekin, arazo garrantzitsuen kasuan, bereziki adingabeak zaintzearen kasuan. Hala, etxeko unitatearen zailtasun nagusia eratzen duten arazo garrantzitsuen inpaktuak egonkortzeko edo jaisteko joera du (% 1,1etik % 0,9ra adingabeak zaintzearen kasuan, eta % 1,8tik % 1,9ra bitartekoa zaharrak zaintzeari dagokionez).

188. grafikoa. Adingabeak eta adinekoak zaintzeko arazo garrantzitsuen (ekonomikoak ez direnak) intzidentziaren bilakaera arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta, 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

189. grafikoa. Adingabeak eta adinekoak zaintzeko arazo (ekonomikoak ez direnak) intzidentziaren bilakaera arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta, 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

2.7. Bestelako familia-arazoak

Etxekoen unitateei eta familiei eragiten dieten bestelako arazoei buruzko informazioa dago, eta, familien egoera diagnostikatzerakoan informazio hori askotan kontuan hartzen ez bada ere, garrantzi esanguratsua du familiako kideen ongizatean. Arazo horiek egoera oso desberdinak biltzen dituzte: kausa biologikoak direla medio seme-alabak edukitzeko ezintasuna, eskolatzeko arazo larriak (eskola-porrot larria eta eskola behar baino lehen uztea)


banantze- eta dibortzio-prozesuekin lotutako familia-hausturaren prozesuak eta desberdintasun-egoerak, tentsioa eta familia-indarkeria (desberdintasun modu larriak zereginak banatzerakoan, tratu txarrak eta abar).

Gaur egun, bi iturri ditugu gai horiek aztertzeko: alde batetik, Familiei buruzko Inkesta, eta bestetik, Gizarte Premiei buruzko Inkesta. Hurrengo orrietan bi inkesta horietako datu nagusiak, aipatutako arazoei buruzkoak, laburbilduko ditugu.

2.7.1. *Familiei buruzko Inkestako datuak*

Familiei buruzko Inkestaren arabera, EAEko etxeko unitateen % 6,7k aipatzen du arazoak dituela dimentsio horretan, baina soilik % 2,6k esan du arazo garrantzitsuak direla, eta % 0,6k adierazi du etxeko unitatearen arazo garrantzitsu eta nagusia dela.

190. grafikoa. Bestelako familia-arazoak dituzten etxeko unitateen %-a arazo horien garrantziaren arabera. EAE.



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


Egiaztatu da elementu garrantzitsuena familia-harremanetan dauden desberdintasun-arazoei, tentsioari edo indarkeriari buruzkoa dela, etxeko unitateen % 3,9k aipatu baitu gai hori. Nabarmendu behar da, ordea, benetako inpaktua % 0,5ekoa edo hortik beherakoa dela hainbat gairen intzidentziari dagokionez, hala nola menderatze-harremanak, tratu txarrak edo seme-alabekin harreman txarrak izatea, eta aurreko datua, funtsean, zereginen banaketan arazoak

izatearen kasuen % 3,2arekin lotzen da. Kontuan hartutako zailtasunei dagokienez, garrantzitsutzat hartzen diren kasuen % 1,2 dira, egoera garrantzitsuen % 0,2 eta horiek, era berean, etxekoen unitatearen arazo nagusia dira.

Familia-hausturaren prozesuak etxekoen unitateen % 1,9k aipatu ditu, eta kasuen % 0,8an hartzen dira garrantzitsutzat, kontuan hartutako egoera guztien % 42,1 besterik ez. Nagusitasun-indizea, gainera, txikia da, etxekoen unitateen % 0,2k soilik aipatzen baitu arazo hori etxekoen unitateko arazo nagusia dela. Eskola-porroteko eta eskola behar baino lehen uztearen eskola-arazo larriak etxekoen unitateen % 1,2k aipatzen ditu, eta kasuen % 0,6an hartzen dira garrantzitsutzat (guztizkoaren % 51,2). Nolanahi ere, EAEko etxekoen unitateen % 0,1ean da etxekoen unitatearen arazo nagusia.

Azkenik, etxekoen unitateen % 0,3k aipatzen ditu kausa biologikoak direla medio seme-alabak edukitzeko ezintasunarekin lotutako arazoak, etxekoen unitate horien % 62aren arabera dira garrantzitsuak eta % 40,4aren ustez etxekoen unitatearen arazo nagusia da.

191. grafikoa. Bestelako familia-arazoak. Arazoak dituzten etxekoen unitateen %-a arazo motaren eta arazoaren garrantziaren arabera. EAE.




Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



Familia mota kontuan hartuta arazo mota horri buruzko intzidentzia bereizgarria aztertzen bada, ikus daiteke guraso bakarreko familietan, bereziki gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan, duen inpaktua. Etxekoen unitateen % 9,3k aipatu du egoera hori; aitzitik, gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxekoen unitateen % 5,5ek aipatu du. Gurasoen kargura bizi diren seme-alabak edukitzea esanguratsua da edozein kasutan, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoen unitateen kasuan ere batez besteko intzidentziaren goragoko mailetan kokatzen baitira. Kasu horretan, arazo mota horren intzidentzia % 3,5 da.

Arazo mota desberdinei buruzko inpaktu erlatiboak bereizten ditu, nolanahi ere, kontuan hartutako etxekoen unitateak. Eskola-arazo larriek gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiei eragiten diete bereziki (guztizkoaren % 3,3, gurasoen etxekoen unitateen % 1,2aren gainetik). Zereginak banatzerakoan sortzen diren desberdintasun-arazoei dagokienez –desberdintasun-arazoen, tentsioaren eta indarkeriaren elementu nagusia– gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten etxekoen unitateekin lotzen dira batez ere (gurasoen etxekoen unitateen % 2 eta guraso bakarreko etxekoen unitateen % 2,1). Bestalde, eta logikoa denez, familia-hausturaren prozesuak guraso bakarreko familiek aipatzen dituzte eskuarki, nahiz eta gurasoen etxekoen unitateetan gurasoen kargura bizi diren seme-alabak ez izateak duen inpaktu bereizgarria ere aipatu behar den (kasuen % 0,8 gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten etxekoen unitateetan, aldiz, % 0,3 gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten etxekoen unitateetan).


192. grafikoa. Bestelako familia-arazo garrantzitsuen intzidentzia familia eta arazo motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Kontuan hartutako arazoei buruz familia motak aintzat hartuta egindako banaketaren datuen azterketak zehazten du neurri batean, ordea, aurreko ikuspegia. Guraso bakarreko familietan familia-hausturen ikuspegi nagusia finkatzen bada ere, (guztizkoaren % 50,7) gainerako zailtasunak gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen etxeko unitateetan azaltzen dira batez ere. Etxeko unitate horiek etxeko unitatean desberdintasun- tentsio- edo indarkeria-arazoak dituzten kasuen % 58,8 dira, eta kontuan hartutako eskola-arazo larrien % 71,6. Azken kasu horretan, ordea, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien ekarpena guztizkoaren % 18,2 da.


193. grafikoa. Bestelako familia-arazo garrantzitsuen banaketa familia eta arazo motaren arabera (%-tan).
EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


Arazo horien azkenaldiko joera beheranzkoa izan da. Arazo garrantzitsu gisa, horien intzidentzia % 3,63tik % 2,56ra jaitsi da 2004-2008 aldian. Etxekoen unitatearen arazo nagusi gisa kontuan hartzen direnak % 0,62tik % 0,56ra jaitsi dira aldi horretan. Kausa biologikoak direla medio seme-alabak edukitzeko ezintasunarekin lotutako arazoaren kasuan soilik beheranzko joera hori ezin da atzeman, nahiz eta testuingurua adierazleen egonkortasunak definitzen duen adierazle horien goranzko joerak baino gehiago.

194. grafikoa. Bestelako familia-arazo garrantzitsuen intzidentziaren bilakaera arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

195. grafikoa. Bestelako familia-arazoen –garrantzitsuak eta nagusiak– intzidentziaren bilakaera arazo motaren arabera. 2004-2008 (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



2.7.2. *Gizarte Premiei buruzko Inkestako datuak*

Gizarte Premiei buruzko Inkestak Familiari buruzko Inkestak baino informazio zehatzagoa ematen du atal honetan kontuan hartutako gizarte-arazoei buruz.

2.7.2.1. *Hezkuntza-arazoak derrigorrezko eskolatzaldian*

GPIak derrigorrezko eskolatzaldiko adinean (baita prozesu hori hasi aurreko adinean ere) dagoen biztanleriarengan eragina izan dezaketen zenbait gizarte-arazo aztertzen ditu²³. Iturri horren arabera, 13.599 adingabek –derrigorrezko eskolatzeko adinean dagoen biztanleriaren % 7,2k– adierazi du zailtasun motaren bat duela bere egoeran eskolan. Eskola-atzeratasuna da gehien nabari den arazoa, adingabeen % 7an ageri baita. Nolanahi ere, aipatzekoa da kasu gehienetan arazoa ez dela oso larria, adingabeen % 5,9k bakarrik baitu eskola-urte bateko atzeratasuna²⁴. Aztertutako gainerako arazoak inpaktu txikiagoa dute: % 0,3k baino ez ditu eskola-absentismoko arazoak ageri, eta % 0,2 bakarrik dago eskolatu gabe, kasu guztietan lan-jarduerak egiteari lehentasuna ematen zaiolako.

Eskolako harreman-ingurunean integratzeko arazoei dagokienez, arazo horiek ikasleen % 3ari eragiten diote, hau da, 5.739 adingaberi guztira²⁵. Egiaztatu da, eskola-adinean dauden adingabeen % 0,6k jazarpen-arazoak edo tratatu txarrak jasaten dituela, eta % 0,9k bestelako gaitzespen moduak jasaten dituela eskolan, jazarpenik edo tratatu txarrik gabe. Beraz, adingabeen % 1,5 dago egoera horretan, hau da 2.818 adingabe guztira. Gainera, adingabeen beste % 1,5ek ere eskolan integratzeko beste arazo batzuk dituela ikusi da, gaitzespenik, jazarpenik edo tratatu txarrik gabe bada ere.

Nabarmendu behar da eskolan bizi duten egoerarekin lotutako arazoak areagotu egiten direla adina aurrera doan heinean. Arazo horiek 6-11 urteko haurren % 33ari eragiten diote (adin horretan, lehen hezkuntzako ikasketak egiten dira), baina 12-13 urtekoen kasuan % 8,2ari

²³ Derrigorrezko eskolatzeko adinean dagoen biztanleriari dagokionez, Gizarte-zerbitzuen eskariari buruzko estatistika (GZEE) derrigorrezko irakaskuntzaldi horretako hezkuntza-prozesuarekin lotutako arazo edo egoera bereziak atzematen zentratzen da. Arazo horiek hezkuntza-dimentsioaz gain gizarte-dimentsioa ere hartzen dute kontuan. Honako alderdi hauek hartzen dira aintzat:

- Eskola-adinean ageri diren ez-eskolatzeko edo eskolatzeko eskasako egoerak, eskola behar baino lehen uztea barne.
- Zentro berezietan eskolatzeko.
- Atzeratzearekin edo eskolara ez egokitzearekin zerikusia duten arazoak.
- Ikastetxearen desegokitasun-arazoak.
- Hezkuntza-premia partikularrak aintzat ez hartzetik eratorritako eskolatzeko-zailtasunak.
- Ikastetxeko tratatu txarrekin, atentziorik ezarekin edo gaitzespenarekin zerikusia duten arazoak.

²⁴ Eskola-atzeratasuna eta absentismo-egoerak uztartzen diren egoerei dagokien zatia barne.


²⁵ Kontuan hartzekoa da informazio hori familien eskutik jaso dugula. Hortaz, familiek badute arazo horien berri. Familiari ezkututzen zaizkien arazoak, aldiz, ez dira jaso azterlan honetan.

eragiten diote (adin horretan DBHko lehen zikloa egiten da) eta 14-16 urtekoen kasuan % 14,7ari.

Nerabezaroaurreko gazteek pairatzen dituzte batez ere integrazio-arazoak, gazte horien % 6,5ek pairatzen baititu; zifra hori, ordea, % 2,5 da 12 urtetik beherako kasuan eta 14-16 urteko nerabeen kasuan. Alde horiek arazo mota guztietan ageri badira ere, aipatzekoa da arazo larrienen kasuan atzeman direla alde handienak. Hala, 12 eta 13 urteko gazteen % 2,2k jazarpenarekin edo tratu txarrekin zerikusia duen arazoren bat du, eta % 1,6k gaitzespena jasaten du ikaskideen aldetik. Guztira, beraz, adingabeen % 3,8k ditu horrelako arazoak. Proportzioa txikiagoa da 12 urtetik beherako adingabeen artean (% 1,2), eta are txikiagoa (% 0,8) 14 urtetik gorakoen artean.

Hezkuntza-egoeran dauden arazoekin gertatzen ez den bezala, eskolan integratzeko arazoek erakusten dute igoera handia dagoela atzeritarren artean. Hala, nazioko biztanleriaren % 3k baino gutxiagok integrazio-arazoren bat dauka (% 2,7). Nahitaezko eskolatzeko adinean dauden atzeritarren artean, aldiz, % 7,7k du arazo horietakoren bat. Bereizgarri nagusia, gainera, egoera larrienei lotzen zaie. Atzerriko adingabeen % 7k jazarpenarekin, tratu txarrekin edo gaitzespenarekin zerikusia duen egoeraren bat jasaten du; nazioko adingabeen artean, aldiz, % 1,1ek baino ez du horrelakorik jasaten.

196. grafikoa. Hezkuntza-arazoak derrigorrezko eskolatzeko adinean dauden adingabeen artean adinaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Gizarte Premiei buruzko Inkesta, 2006

2.7.2.2. Arazoak barreman pertsonaletan, familiakoetan eta sozialetan



Pertsonak gizarteratzeko prozesuak zailtzen dituzten elementuak ez dira hezkuntzan sartzeko edo laneratzeko arazoak soil-soilik, ezta arazo ekonomikoei edo mendetasunari loturiko gainerako arazoak soilik ere. Era berean, gizarteratzeko prozesua zailtzen duten beste alderdi batzuk kontuan hartu behar dira, hala nola portaera- edo jarrera-arazoak, familia-arloko eta gizarte-arloko arazo larriak, honako hauekin zerikusia dutenak: bakardadea, familia-banantzea, arretarik eza, marjinazioa, gatazka, jazarpena edo indarkeria gizarte-ingurunean. Halaber, pertsonak jasaten dituzten gaitzespen-arazoak nabarmenak dira, honako hauei loturik agertzen diren arazoak hain zuzen ere: jatorri sozial edo geografikoa, arraza, etnia, kultura, hizkuntza, erlijioa, edo atzerritarra izatea. Dimentsio horietan, familiei eragiten dieten arazoak aztertzeke informazio-iturri garrantzitsua da GPIa.

2006ko datuei dagokienez, GPIak puntu horretan honako arazo mota hauek atzeman ditu:

a) Portaera- eta jarrera-arazoak

Pertsonari honako hauekiko harremanetan arazo larriak eragiten dizkietenak: familia, bizilagunak edo eskolan, lanean eta ohiko gizarte-harremanetarako gainerako guneetan harremanak izaten dituen pertsonak. 6 urteko edo gehiagoko biztanleria²⁶ erreferentziatzat hartuta, egoera problematikoan aipatu direnak, 9.245 dira guztira. Biztanleria hori EAEn bizi den 6 urteko edo gehiagoko guztizko biztanleriaren % 0,46 da. Egoera mota horren ezaugarri garrantzitsu bat da oso loturik daudela osasun-arazoak edukitzeari edo adinekoa izateari, batez ere mendetasun berezia eragiten duten arazoak badira. Ildo horretan, mendetasun berezia duten pertsonen % 4,33k ditu horrelako arazoak. Aldiz, bestelako mugak dituztenen % 0,46k eta osasun-arazoei edo adin aurreratuari loturiko mugarik ez dutenen % 0,21ek soilik ditu horrelako arazoak. Egoera horiek 6 urteko edo gehiagoko gainerako biztanleriarengan duten intzidentzia % 0,26ra jaisten dira.

Adinari dagokionez, honako hauen intzidentzia handiak nabarmendu behar dira: 75 urtetik gorako pertsonak (% 0,41), 15-24 urtekoak (% 0,36) eta 55-64 urtekoak. Adin-tarte horretako pertsonak dute intzidentziarik handiena, % 0,67, alegia. Izan ere, ikusi da adin horietan ohikoa ez den intzidentzia dagoela, osasun-arazoekin loturirik ez duten portaera- edo jarrera-arazoen adostasunik ezei dagokienez. Bi adin-talde horiei dagokie, hain zuzen ere, osasunarekin edo adinarekin loturirik ez duten portaera- edo jarrera-arazoen % 62,1.

²⁶ Adingabe mota jakin batzuei dagokienez alderdi hori jorratzea zaila denez, GZEEak EAEn bizi den 6 urteko edo gehiagoko biztanleria hartu du aztergaitzat.



Beste datu adierazgarria honako hau da: garbi geratu da atzerritarren gora egin duela osasunarekin edo adinarekin loturarik ez duten mota horretako arazoen intzidentziak: % 0,96; nazioko biztanleriaren artean, berriz, % 0,17 da. Atzerriko biztanleriak kolektibo problematiko horretan duen proportzioa biztanleria guztiaren % 24,5 da. Dena den, proportzio hori minoritarioa da argi eta garbi aintzat hartutako arazo guztien artean.

b) Arazoak familia- eta gizarte-harremanetan

EAEko guztizko biztanleriaren % 2,16k adierazi du bere familia- edo gizarte-harremanei lotutako arazo larriren bat duela. Gure erkidegoan, 46.442 pertsonak bizi dute errealitate hori. 40.266 pertsonak dituzte gaur egun bakardade- edo tristura-arazo larriak, EAEko guztizko biztanleriaren % 1,87k. Arazo horiek adinarekin lotuta daude argi eta garbi, eta batez besteko neurriak gainditzen dituzte 55 urtetik aurrera, intzidentzia % 1,96 izanik. Arazo horien inpaktua 65-74 urtekoen % 3,31raino eta 75 urtetik gorakoen % 5,22raino iristen da²⁷.

Mendetasuna ere erabakigarria da. Mendetasun berezia duten pertsonen % 10,61ek eta osasunari edo adinari loturiko bestelako mugak dituztenen % 6,43k dituzte tristura- eta bakardade-arazoak. Aldiz, EAEko gainerako biztanleriaren % 1,08k ditu horrelako arazoak. Tristura- eta bakardade-arazoak dituzten guztien % 48,2aren ustez egoera hori bere osasun-mugekin lotuta dago.

Azkenik, atzerritarra izatea ere lotzen zaie bakardadeari eta tristurari. Atzeritarren % 9,11k aipatu du arazo hori. Nazioko biztanleriari dagokionez, berriz, % 1,51k. Guztira, bakardade- edo tristura-arazoak dituzten pertsonen % 23 atzerritarra da.

Egia esan, bakardade- eta tristura-arazoa kasuen % 80,3an hiru talde espezifiktan biltzen da: 55 urtetik gorako biztanleria, osasunari loturiko mugak dituzten bertako 55 urtetik beherakoak, eta 35 urtetik beherako atzerriko biztanleria. Kasu gehienetan, gainera, emakumeak dira (% 62,5). Emakumeek gizonen baino askoz ere aukera handiagoa dute era horretako arazoak izateko (% 2,29 eta % 1,44, hurrenez hurren).

EAEko 16.059 pertsonak –gustizko biztanleriaren % 0,75ek– adierazi dute familia-banantzearen arazoak dituztela eta horrek eragin handia izan duela beren bizitza pertsonalean. Ikusi denez, osasun-egoera txarra dutenen artean edo adinekoen artean arazo horiek

²⁷ Aparteko aipamena merezi du 25-34 urtekoen egoerak. Kasu horretan, % 2,01ek adierazi du bakardade- eta tristura-arazo larriak dituela, eta ehuneko hori batez besteko orokorra baino handiagoa da. Minoritarioak diren arren, atzemandako bakardade-arazoen % 27,4 25-44 urtekoiei dagokie, eta % 7,8, berriz, 25 urtetik beherakoei.



intzidentzia handiagoa dute (% 1,40 mendetasun bereziaren kasuan eta % 1,95 bestelako mugen kasuan. Gainerako biztanleriaren kasuan, berriz, % 0,64). Hala ere, horri dagokionez, atzerritarra izatea da elementu erabakigarria. Izan ere, arazo horiek dituen nazioko biztanleriaren kopurua % 0,39 da eta atzerriko biztanleriarena, berriz, % 7,89.

Kasu horretan, arazo gehienak tarteko adina dutenen artean gertatzen dira; hain zuzen ere, arazo horiek dituzten pertsonen % 70 15-54 urtekoa da. Talde horretan, bestalde, gizonen pisu erlatiboa handiagoa da, guztizkoaren % 47,2raino iristen baita. Kolektibo horretan, halaber, funtsezkoa da honako datu hau: atzemandako familia-banantzeen % 72,4k pobrezia- edo tristura-arazoak ere baditu.

Bestalde, GZEEaren arabera, EAEn gutxienez 4.097 pertsonak dute honako arazo hauetako bat beren gizarte-ingurunean: arretarik eza edo familia-gaitzespena, edo tratatu txarrak, edo jazarpena edo indarkeria. Zifra hori EAEko guztizko biztanleriaren % 0,23 da. Genero-osagai nabarmena duen arazoa da; izan ere, era horretako egoera jasaten dutenen % 64 emakumeak dira. Horien artean, problemen intzidentzia % 0,29 da, eta gizonen artean, berriz, % 0,17. Era berean, 55 urtetik gorakoei eragiten die arazo horrek, % 57,1 adin horretatik gorakoa baita. Adinekoen kolektiboan arazo horren intzidentzia % 0,35etik gorakoa da beti; halaber, 25-34 urtekoen taldean arazo hori handia da, % 0,39, hain zuzen ere. Atzemandako arazoen % 25,7 talde horri dagokio.

Era berean, arazo larri horiek osasun-arazoekin eta mendetasun-egoera izatearekin lotura handia dutela atzeman da. Izan ere, horrelako egoerak pairatzen dituzten pertsonen % 49,2k osasun-arazoei edo adin aurreratuari loturiko mugak edo mendetasun berezia ditu. Mugarik ez duten pertsonen artean arazo horien intzidentzia % 0,13 da, eta mendetasun berezia dutenen artean, berriz, % 0,58. Hala ere, maila altuena mendetasun berezirik ez baina osasun-arazoei eragindako mugak dituzten pertsonen dagokie (% 1,60).

Atzerriko biztanleriarengan ere arazo hori larriagoa da eta % 0,51ko intzidentzia du; nazioko biztanleriarengan, berriz, % 0,21ekoa. Kolektibo horretan ere erabakigarria da izandako bizipenen eta tristura eta bakardadearen arteko lotura. Kolektibo horretako % 51,9 egoera horretan dago. EAEn bizi diren pertsonen pairatutako gizarte-gaitzespenaren arazoei dagokien²⁸, 14.036 pertsonak (% 0,65) beren jatorriarekin, kulturarekin edo ezaugarri pertsonalekin lotutako gizarte-gaitzespenaren arazoak pairatzen dituzte. Horietatik, 5.907

²⁸ Datu horien bilketan, honako hauei loturiko arazoak hartu dituzte aintzat: jatorri sozial edo geografikoa, arraza, etnia, kultura, hizkuntza, erlijioa eta atzerritarra izatea.



pertsonak —% 42,1ek, alegia— arazo larriak dituztela adierazi dute (guztizko biztanleriaren % 0,27).

Erljioak eta hizkuntzak nolabaiteko eragina duten arren —gaitzespen-egoera horiekiko lotura % 10,9 eta % 29,9 da, hurrenez hurren—, ez dira inola ere etnia eta jatorria bezain erabakigarriak. Gizarte-gaitzespena aipatu duten pertsonen % 78,6k etniarekin lotu du bazterketa, eta % 85,5ek jatorriarekin. Gizarte-gaitzespena aipatu duten pertsonen % 73,4 beste Estatu batetik etorria da.

Atzerritarren % 10,15ek jatorriari eta kondizio pertsonalari loturiko gizarte-gaitzespeneko arazoak nabarmendu ditu, eta, horien artean, % 5,08k larritzat hartu du arazoa. Atzerritarren kolektiboan, arazoak gehiago eragiten die pertsona nagusiei: % 12,72; ezkontideei, aldiz, % 8,06 eta seme-alabei % 6,18 (etxeko unitateko gainerako kideei dagokienez, halaber, proportzioa handia: % 11,46). Arazo horrek 15-24 urtekoen taldearengan du eraginik handiena —% 16,06—, eta adin horretatik aurrera gizarte-gaitzespenaren intzidentzia txikiagoa da, baita 15 urtetik beherakoen artean ere. Hala ere, 25-34 urtekoen artean, proportzioa % 10etik gorakoa da (% 10,93). Gizarte-gaitzespeneko arazoak aipatu dituzten atzerritarren % 67,1 15-34 urtekoak dira.

Atzerritarren artean, gaitzespena nabarmenago hautematen dute gizonek: gizonen % 11,26k aipatzen dute, emakumeen kasuan, aldiz % 8,84k. Gizarte-gaitzespena nabarmentzen duten pertsonen % 60 gizonak dira. Atzerriko biztanleriaren kasuan ez bezala, horrelako arazoen intzidentzia oso txikia da nazioko biztanleriarengan —biztanleriaren % 0,18arengan du eragina soilik—, eta ez da atzeman % 1etik gorako intzidentzia duen talde espezifikorik biztanleria horrengan.

Laburbilduz, 52.590 pertsonak —EAEn bizi den biztanleriaren % 2,45ek— dute gizarte-arazo larriren bat harreman pertsonaletan, familiarretan eta sozialetan. Fenomeno horien intzidentzia handiagoa da emakumeen artean (% 2,91; gizonen artean, berriz, % 1,97), eta erregistraturiko kasuen % 60,8 biltzen dute. Kontuan hartutako arazoen inpaktua igo egiten da adinarekin, 55 urtetik aurrera batez bestekotik gorakoa delako: % 2,64 55-64 urtekoen artean, % 3,77 65-74 urtekoen artean, eta % 6,55 75 urtetik gorakoen artean. Era berean, aipatu beharra dago etxeko unitateko pertsona nagusien eta beste kide batzuen artean inpaktua handiagoa dela (% 3,84 eta % 5,49, hurrenez hurren). Ezkontideen edo bikotekideen artean, berriz, zifrak txikiagoak dira (% 1,53), baita seme-alaben artean ere (% 0,84), sozialki babesik handiena duen taldea baita azken hori.


Hala ere, arazo horien inpaktua izugarria da atzerritarren eta osasun-arazoei edo adin aurreratuari loturiko mugak dituzten pertsonen artean. Lehenengo kasuan, atzerritarrei dagokienez, % 12,5ek aipatu du kontuan hartutako arazo larrietakoren bat; nazioko biztanleei dagokienez, berriz, % 1,95ek. Erregistraturiko kasuen % 24,1 atzerritarrei dagokie.

Osasunaren edo adinaren inplikazioei dagokienez, mendetasun berezia duten pertsonen % 14,16k du kontuan hartutako arazoren bat, eta muga txikiak dituzten pertsonen artean, proportzio hori % 7,08 da. Proportzioa txikiagoa da, berriz, osasunari edo adinari loturiko arazorik ez duten pertsonen artean —% 1,47—. Arazo pertsonal eta familia- nahiz gizarte-arazo larriak dituzten pertsona guztien % 46,2k du osasunari edo adin aurreratuari loturiko muga pertsonalen bat.

Etxekoen unitateen terminoetan aurreko datuekiko hurbilketak adierazten du kontuan hartutako arazoen inpaktu deigarriagoa dagoela: kontuan hartutako oinarri pertsonaleko gizarte-arazo larrietako batzuk aipatzen dituzten etxekoen unitateen kopurua 40.969 zen 2006an, EAEko guztizko etxekoen unitateen % 5,2 urte hartan bertan. Eragin handiena pairatu duten etxekoen unitateak banaketaren adinaren arabera muturretan kokatuta dauden pertsonak (% 7,4 35 urtetik beherako etxekoen unitateetan eta % 12,9 65 urtekoetan eta gehiagokoetan) eta emakumeak (% 9,9; aitzitik, % 3,5 pertsona nagusi gisa gizon bat duten etxekoen unitateen kasuan) buru dituzten etxekoen unitateak dira. Era berean, gutxienez larritasun ertaina duen mendetasuna daukan pertsonaren batekin bizi diren etxekoen unitateetan ikusten den % 12,9ko zifra nabarmendu behar da.

Aipatu behar den beste datu bat antzinako EB-15eko herrialdea ez den beste Estatu bateko nazionalitateko pertsona bat buru duten eta kontuan hartutako arazo larrietakoren bat gutxienez ikusten den etxekoen unitateen % 21,6ko zifra da. Nahiz eta arazoak dituzten etxekoen unitate guztietan, atzerriko nazionalitatea duten pertsonak osatzen dituzten etxekoen unitateak % 11,5 soilik diren, Estatuko herritarren etxekoen unitateek ez bezala (gainera, etxekoen unitate horien % 15,6an soilik dira buru 45 urtetik beherako pertsonak), atzerritarren kasuan, proportzio hori % 96,8 da. Ondorioa da pertsona gazteagoek osatzen dituzten etxekoen unitateetan —mendetasunari gutxien lotuta dauden gizarte-arazo larriak azaltzen diren etxekoen unitateetan— EB-15etik kanpotik etorritako pertsonak osatzen dituzten etxekoen unitateen zeregina funtsezkoa dela. Hortaz, arazoak dituzten eta pertsona nagusia 45 urtetik beherakoa den 10.210 etxekoen unitatetatik % 44,7an antzinako EB-15eko herrialdea ez den beste Estaturen bateko nazionalitatea duen pertsona da buru.

197. grafikoa. Oinarri pertsonala duten gizarte-arazoen intzidentzia etxeko unitateetan, etxeko unitate horietako pertsona nagusiaren ezaugarrien arabera (%-tan). EAE



Iturria: Gizarte Premiei buruzko Inkesta, 2006

2.7.3. Arrisku-egoeran dauden adingabeei buruzko datu osagarriak

Atal honekin amaitzeko, interesgarria da arrisku-egoeran dauden Euskadiko adingabeek dituzten arazoak sakon aztertzea. Horri dagokionez, adierazgarria da Arabako Foru Erakundeak fenomeno honi buruz egindako azterlana, *Menores en Riesgo en Álava*. 2007 ("Adinekoak arrisku-egoeran Araban") deiturikoa. Azterlan horren alde onetako bat da denboran aurrera jarraitu duela, eragiketaren aurreko aldietarako datu eskuragarriekin.

2.7.3.1. Arrisku-egoeran dauden adingabeak: intzidentzia, bilakaera eta ezaugarriak

Azterlan honetako datuen arabera, Araban arrisku-egoeran dauden adingabeen kolektiboa 2.116 adingabek, 1.110 gizonen eta 1.006 emakumeen osatzen dute; horrek esan nahi du arrisku-egoeran dauden adingabeen % 4,7ko intzidentzia dagoela. 1994an ikusitako egoerari dagokionez, arrisku-egoeran dagoen kolektiboa % 21,7 igo da, eta intzidentzia % 65 hazi da.

Kolektiboaren ezaugarri berezienak aztertzen baditugu, hasiera batean ikus dezakegu sexuaren arabera ez dagoela alde handirik, arazoaren intzidentzia % 4,8 baita gizonen artean eta % 4,5 emakumeen artean. Errealitate hori asko aldatu da aurreko aldietako errealitatearekin



alderatzen badugu; izan ere, horrelako egoeren intzidentzia askoz ere handiagoa zen mutilen artean nesken artean baino. Arrisku-egoeren hazkundera eraginpeko emakumeen kopurua igotzearekin lotzen da kasuen % 86,7an. 2007an, arrisku-egoeran dauden gizonen eta emakumeen proportzioak orekatzeko joera du, emakumeei lotutako arazo problematiko guztien % 47,5eko zifrarekin.

Arrisku-egoeren intzidentziak gora egiten du adinarekin. 10 urtera bitarte % 1,5etik hurbil edo hortik behera dago, baina tasa % 4,6ra igotzen da 11-14 urteko adingabeetan, eta are gehiago 15-18 urteko adingabeetan (% 17,9). 15 urtetik aurrera egoera problematikoak bizi izateko aukera handiagoa izatea eskolan portaera liskartiak edo baztertzailerak bizi izatearekin lotutako eskola-arazoen intzidentzia handiagoa izatearekin lotzen da batez ere, bai portaera horiek erasotzaile izatearekin, bai biktima izatearekin lotzen badira ere. Hortaz, arrisku-egoeran dauden 14 urtetik gorako lau nerabetatik hiruk eskola-arazoak edo gizarte-arazoak dituzte, baina ez dute familia-arazorik aipatzen.

Ikuspegi soziodemografikotik begiratuta, aipatu behar den beste ezaugarri bat da gero eta adingabe atzerritar gehiago dagoela kolektibo honetan: % 14,9k ez du Espainiako nazionalitatea; proportzio hori, bestalde, % 20,7raino iristen da artatutako eskaeraren kasuan. Artatutako eskaeran atzerritarrek garrantzi handiagoa hartu dute bakarrik iristen diren eta adingabeentzako egoitza-zerbitzuetan hartu behar diren adingabe atzerritarren kolektiboak garrantzia hartu duelako: gizarte-zerbitzuek artatzen dituzten hamar adingabetatik bat bakarrik iritsi den atzerritarra da.

Aztertutako adingabeek dituzten problematikak eskola-porrotarekin lotzen dira batez ere (hamar pertsonatik lauk urte bateko edo gehiagoko eskola-atzeratasuna du), baita gizarte-problematikak izatearekin (% 58,4) eta familia-problematikak izatearekin (% 41,9), eta drogak eta/edo alkohola kontsumitzen hastearekin ere (% 62,7).

Azkenik, arreta-indizea kontuan hartzen badugu, ikus dezakegu egoera problematiko gehienak erantzun gabeko eskariak direla²⁹. Beraz, kolektiboaren % 26,7 soilik artatzen dute gizarte-zerbitzuek. Emakumeen kasuan, artatuen proportzioa oraindik txikiagoa da (% 22,3, aldiz, emakumeen kasuan % 30,6). Arreta-egoera asko baldintzatzen du adinak. Artatutako eskaera % 71tik % 80ra bitartekoa da 11 urtetik beherakoetan, baina % 32,2ra jaisten da 11-14 urtekoen kasuan, eta, azkenik, soilik % 13,6ra iristen da 14 urtetik aurrerakoetan. Bi taldeen

²⁹ Gasteizko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek artatutako adingabeak kontuan izan gabe (600-1.000), kaleko Hezitzaile Programaren onuradunak barne, baina ez dugu horiei buruzko informaziorik.



adinaren arabera, beraz, oso desberdina da. Egon litezkeen ia eskaera guztiek 11 urte baino gehiago dituzte (% 96,3), baina proportzio hori % 58,3ra jaisten da artatutako eskaeraren kasuan.

2.7.3.2. 14-18 urteko nerabeak

Arrisku-egoeran dauden adingabeei buruzko informazio emateaz gain, Arabako azterlanak 14-18 urteko DBHko ikasleen lagin orokor bati buruzko informazio osagarria ematen du. Hona hemen inkestaren datu aipagarrienak:

Familiako barremanak

- 14-18 urteko adingabeen % 14,4k familia-egoera problematikoren bat bizi du, berari edo etxekoen unitateko beste kideren bati eragiten diona. Erreferentziazko adingabeen etxekoen unitateen % 4,6an harreman-arazoak atzematen dira aitarekin, amarekin edo biekkin.
- Kontuan hartutako adingabeen % 6,6k adierazi du familia-arazoak dituela edo pairatu izan dituela etxekoen unitatean, eta kasu guztietan nabarmentzen dute familiari denbora edo arreta gutxi eskaintzen zaiola. % 3,7k maitasunik eza adierazi du, eta % 0,9k premia fisikoen arretarik eza.
- 14-18 urteko nerabeen % 4,9k familia-indarkeriako egoerak bizi izan ditu edo gaur egun ere bizi ditu. Kasuen % 2,5ean adingabeak jasaten dituen tratu txarrak dira eta % 3,1ean etxekoen unitateko beste kide batzuek (anai-arrebak, amak edo aitak) pairatzen dituzten tratu txarrak dira, eta % 0,1ean sexu-abusuen kasuak.
- Egoera horiek maizago gertatzen dira emakumeen artean, bereziki problematika larrienekin lotuta dauden egoerak, hala nola maitasunik eza (% 5,5) edo tratu txarrak (% 3,6). Bestalde, adingabe atzerritarrek pairatzen dituzte bereziki. Horietatik % 23,9k familia-egoera problematikoren bat bizi du (% 14,4 dira biztanleria orokorrean) eta % 9,1 familiako kideren bat tratu txarren biktima den familietan bizi da (% 4,9 orokorrean). Kasuen % 5,9an adingabea bera da indarkeriaren biktima (% 2,5 adingabe guztien kasuan).



- Inkestatutako nerabeen % 17,2k adierazi du oso serio pentsatu izan duela etxetik alde egitea, eta % 6,7k alde egin izan du noizbait. Ihes horien kausa nagusiak honako hauek dira: alde batetik, aitekin eta/edo amekin harreman txarra izatea edo familia-eztabaidak, eta bestetik, familian bizi dituzten bakardade-sentimenduak (% 55-57k pentsatu izan du ihes egitea edo ihes egin izan du arrazoi horiengatik). Arrazoi pertsonalek eta ikasketekin loturikoek eragiten dute kontuan hartutako pertsonen % 13k gutxi gorabehera ihes egiteko gogoia izatea. Tratu txarrekin lotutako egoerak ihes egiteko arrazoi izan dira etxetik noizbait ihes egin dutenen % 5,4arentzat eta ihes egiteko gogoia noizbait izan dutenen % 1,9arentzat.

Eskolan izandako arazoak dagokienez

- DBHko 14-18 urteko % 21,4k adierazi du ikasturte bateko atzeratasuna duela eta % 7,7k bi ikasturtekoa edo gehiagokoa. Eskola-atzeratasuna handiagoa da gizonen kasuan (% 34,4; emakumeen kasuan, aldiz, % 23,4), eta bereziki handia da atzeritarren kasuan (% 42,6; Espainiako nazionalitatea dutenen kasuan, aldiz, % 28,1). Arrazoi justifikaturik izan gabe eskolara ez joateak ikasleen % 13ari eragiten dio gutxienez, % 2 maiz geratzen da eskolara joan gabe eta % 11 noizean behin.
- 14-18 urteko ikasleen % 7,8k onartu du ikaskideren bat behartu eta/edo jo izan duela noizbait. Portaera horiek maizago gertatzen dira gizonezko ikasleen eta 14-15 urtekoen artean (% 10,6 eta % 11,2, hurrenez hurren), eta zifra hori erdiraino jaisten da emakumeen kasuan eta 16-18 urteko gazteen artean (% 4,9 eta % 5,9, hurrenez hurren).
- Jokabide pertsonalak (liskartia edo borrokekin) eskolan txertatzeko arazoak dakartzkio adingabeen % 3,2ari. Egoera horiek adin txikiagoko (14 eta 15 urte) ikasleekin lotzen dira.
- Adingabeen % 3,7k ikaskideek gauzatutako gaitzespen- eta eraso-egoerak pairatzen ditu. Kasu horretan ez da ikusten alde esanguratsurik dagoenik gizonen eta emakumeen artean, baina aldea nabarmena da adina kontuan hartzen bada. 16 urtetik beherako % 5,1ek pairatzen ditu edo pairatu izan ditu horrelako egoerak; aitzitik, 16 urte baino gehiago dituztenen % 2,3 dago edo egon izan da egoera horretan.
- Atzeritarra izateak ere zaildu egiten du eskola-ingurunean txertatzea. Ikusten da eskolan etorkinak gaitzesteko eta jazartzeko egoeren proportzioa handiagoa dela (% 23,5 ikasleek adierazi duela).



7,2; aitzitik, Espainiako nazionalitatea dutenen kasuan proportzioa % 3,4 da); era berean, ikaskideei presioa egiteko eta/edo jotzeko joera zertxobait handiagoa da ikasle atzerritarren kasuan (% 9,1; aitzitik, Espainiako nazionalitatea duten ikasleen kasuan % 7,7). Nolanahi ere, irakasleekin dituzten gatazken kopurua txikiagoa da (kasu batean % 0,6, beste kasuan, aldiz, % 2,1).


Etxetik eta eskolatik kanpoko harremanei dagokienez

- Adingabeen % 9,3k indarkeriak markatutako gizarte-egoerak bizi izan ditu azken hilabete hauetan (familiarik eta eskolatik kanpo): % 3,5 indarkeria fisikoaren, psikologikoaren, sexu-jazarpenaren edo -abusuaren biktima izan da; % 3,8k indarkeria eragin du eta % 2 biktima eta erasotzaile izan da aldi berean.
- Indarkeria erasotzaile gisa gehiago identifikatzen da indarkeria fisikoarekin (inplikaturako pertsonen % 3,9) eta, gutxiago, tratu txar psikologikoarekin (% 2,8). Sexu-jazarpena eta -abusua ia inork ez ditu aipatzen (% 0,1ek lehenengo kasuan). Indarkeria fisikoa erasotzaile gisa maizago gertatzen da gizonen artean, (% 5,1), 14 eta 15 urtekoetan (% 4,4) eta atzerritarren artean (% 5,6). Tratu txar psikologikoa, ordea, maizago gertatzen da emakumeen artean (% 3,1) eta Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean (% 2,9).
- 14-18 urteko ikasleen % 4,2k gutxienez afektibitate-arazoren bat edo gizarteratzeko arazoren bat du. Proportzio hori handiagoa da etorkinen (% 7) eta emakumeen artean (% 5,4). Etorkinen kasuan, arazo horiek gizarteratzeko arazoen intzidentzia handiagoa izatearekin lotzen dira (% 5,1; orokorrean, aldiz, % 2,1); emakumeen kasuan, aitzitik, gehiago lotzen dira afektibitate- eta maitasun- ezarekin (% 5,4; gizonen kasuan, aldiz, % 3,2).

2.8. Seme-alaben etorkizunagatiko kezka

Familiak kezkatzen dituzten alderdiak kontuan hartzerakoan, aipatu behar den azken datu bat seme-alaben etorkizunagatiko kezkaren garrantzia da, EAEko etxeko unitateen % 19,8k aipatu baitu. Deigarria da, gainera, garrantzi-indize handiko arazoa dela (% 70,1), garrantzitsutzat hartzen duten etxeko unitateen % 13,9arekin. Nagusitasun-indizea ere handi samarra da (% 45,4); horren ondorioz, gai garrantzitsu hau guztizko etxeko unitateen % 6,3aren zailtasun nagusia da.


198. grafikoa. Seme-alaben etorkizunarekin kezkatuta dauden etxekoek unitatearen %-a gai horri ematen zaion garrantziaren arabera. EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila


Kezka hori bereziki handia da gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten etxekoek unitateen kasuan, eta horien artean guraso bakarreko familiak nabarmentzen dira (% 28,1; gurasoen etxekoek unitateen kasuan, aldiz, % 23,8). Era berean, zifrak % 20tik gorakoak dira gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoek unitateetan (% 20,5), baina zifra hori % 12,9ra jaisten da guraso bakarreko familien kasuan. Banaketa horretan, gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoek unitateetan egoera horien % 61,6 biltzen da; aitzitik, gurasoen kargura bizi ez diren haurren kasuan horrelako etxekoek unitateen % 16,5 da. Guraso bakarreko familia mota desberdinen kasuan zifra % 11,7 da.

199. grafikoa. Seme-alaben etorkizunagatiko kezkaren intzidentzia familia motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

200. grafikoa. Seme-alaben etorkizunagatiko kezkaren banaketa familia motaren arabera (%-tan). EAE




Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Arazo mota hori aipatzeko beste arrazoi bat arazo horiek daudelako pertzepzioa 2004-2008 aldian igo izana da. Hortaz, arazo hori arazo garrantzitsutzat hartzea 2004an % 11,5 izatetik 2008an % 13,9 izatera igaro da. Etxekoen unitatearen arazo garrantzitsu eta nagusi gisa, %

4,7tik % 6,3ra igo da aldi horretan. Termino erlatibotan, igoera hori deigarriagoa da eta nagusitasun-indizea igo izanarekin lotzen da. Gai hori nagusitzat hartzen duten etxekoek unitateen proportzioa, etxekoek unitate horrentzat garrantzitsua bada behintzat, % 40,6 izatetik % 45,4 izatera igaro da 2004-2008 aldian.

201. grafikoa. Seme-alaben etorkizunagatiko kezkaren bilakaera. 2004-2008 (%-tan). EAE




Iturria: Familiari buruzko Inkesta, 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

2.9. Hurbilketa labur bat

Kontuan hartutako arazoak erreferentzia gisa hartuta, eta oinarritzkoetara mugatuz diru-sarreraren eta gastuen arazoei dagokienez ez ezik gaixotasun larriaren desgaitasunaren eta balioezintasunaren arazoei dagokienez ere osasun-arazoen arloan –seme-alaben etorkizunari buruzkoak kontuan izan gabe– egiaztatzen da EAEko etxekoek unitateen % 36,6k arazo nagusi eta gainera garrantzitsutzat hartu diren gaietakoren bat nabarmentzen duela. Kontuan hartutako arazoen inpaktu handiena duen etxekoek unitate mota gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxekoek unitateena da, horietatik % 61,4k adierazi baitu arazo horiek nagusi eta garrantzitsuak direla. Halaber, proportzioa etxekoek unitateen % 50etik gorakoa da senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoek unitateen (% 52,8) eta gurasoak ez diren ezkontideen etxekoek unitateen kasuan (% 51,6). Inpaktuak, halaber, argi eta garbi gaintitzen du batez bestekoa gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten etxekoek unitateen kasuan, gurasoen etxekoek unitateak izan (% 43,7) nahiz guraso bakarreko etxekoek unitateak izan (% 46). Zifrak tarteko mailetan kokatzen dira gurasoen kargura bizi ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxekoek unitateetan (% 37,5) eta gainerako

familia-taldeetan (% 34,9). Azkenik, % 28,1era jaisten dira pertsona bakarreko etxekoak unitateetan eta % 24,8ra gurasoak ez diren ezkontideen etxekoak unitateetan.


202. grafikoa. Familia-arazoen –garrantzitsuen eta nagusien– intzidentzia familia motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Kontuan hartutako arazoen banaketa orokorrean, arazo horien intzidentzia batez bestekoa baino handiagoa duten bost taldeek arazoak dituzten etxekoek unitate guztien % 35,4 bakarrik biltzen dute, eta gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoek unitateei dagokien % 36,7ko zifrak gainditzen ditu. Pertsona bakarreko etxekoek guztizkoaren beste % 13,9 dira, eta % 10,6ko zifra gurasoak izandako ezkontideei esleia dakieke.

203. grafikoa. Familia-arazoen –garrantzitsuen eta nagusien– banaketa familia motaren arabera (%-tan).
EAE



Iturria: Familiei buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Nagusi den arazo motari dagokionez, aztertutako etxekoen unitate mota guztien artetik bitan enpleguarekin lotutako zailtasun garrantzitsuak nagusitzen dira argi eta garbi. Guraso ez diren ezkontideen eta senideak ez diren pertsona anitzekoen etxekoen unitateak dira, % 60,4ko eta % 55,5eko zifrekin, hurrenez hurren. Diru-sarreraren eta gastuen arazoak ez ezik bizitza independentea lortzeko zailtasunak ere kontuan hartzen baditugu, bi kasu horietan % 80ko mailak gainditzen dira (% 87,8 eta % 83,3, hurrenez hurren).


Gehiengodunak ez badira ere, enpleguari buruzko arazo garrantzitsuak eta nagusiak gailentzen dira beste bost motatan, gurasoen eta guraso bakarreko etxekoen unitate desberdinak ez ezik gainerako familia-taldeak ere kontuan hartuta. Kasu horietan, arazo horien inpaktuak etxekoen unitatearen % 43,5-% 47ari eragiten dio. Zailtasun ekonomiko guztiak kontuan hartuta, % 65eko mailak gainditzen dira horrelako etxekoen unitate gehienetan, gainerako familia-taldeen kasuan izan ezik. Testuinguru horretan, bizitza independentea lortzearekin zerikusia duten arazoekin lotutako % 25eko zifra nabarmendu behar da gurasoen kargura bizi diren seme-alabak dituzten gurasoen etxekoen unitateen kasuan.

Arazo ekonomikoak nagusitzen diren etxekoen unitateen kasuan ez bezala, arazo garrantzitsuak dituzten guraso izandako ezkontideen etxekoen unitateen kasuan, etxekoen unitate horiek gehienak (% 44,6) gaixotasun larriekin edo desgaitasuneko edo balioezintasuneko egoerekin zerikusia duten arazoekin lotzen dira. Askoz txikiagoa bada ere,

arazo mota horrek ere garrantzi esanguratsua du, % 25 ingurukoa, pertsona bakarreko etxekoan unitateetan eta gainerako familia-taldeetan.

Nolanahi ere, talderik askotarikoena pertsona bakarreko etxekoan unitateena da, horietatik % 25,8k esaten baitu arazo garrantzitsua eta nagusia dela gaixotasunarekin, desgaitasunarekin edo balioezintasunarekin lotutako arazoa. Hala eta guztiz ere, talde hau diru-sarrerari eta gastuei lotutako oinarritzko arazoen inpaktu bereizgarriarengatik nabarmentzen da batez ere, guztizkoaren % 31,6arekin, zentzu zorrotzean enpleguari lotutako % 22,1aren gainetik.

204. grafikoa. Familia-arazo –garrantzitsua eta larria– mota bakoitzaren garrantzi erlatiboa familia motaren arabera (%-tan). EAE



Iturria: Familiari buruzko Inkesta, 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



ONDORIO NAGUSIAK



1. ERABAT GAINDITU GABEKO PREKARIETATE EKONOMIKOAREN TESTUINGURUAN

1.1. Aurrerakada eztaba daezinak ongizatearen gizartea lortzeko

Pobreziaren eta prekarietate ekonomikoaren inpaktuaren murrizketa

Pobreziaren eta prekarietate ekonomikoaren tasen bilakaerak agerian jartzen duenez, Euskadin ongizatearen gizartea lortzeko izan den aurrerakada nabarmena izan da azken hamarkada hauetan. Benetako pobreziaren intzidentziak jaisten jarraitu du 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, indize egokituak 1986ko % 8,3tik 1996ko % 5,8ra, 2000ko % 4,4ra eta 2004ko % 4,2ra eta 2008ko % 3,2ra jaitsi baitira. Gauza bera gertatzen da prekarietate-adierazlearekin³⁰. Datu egokituak erakusten dute zifrak asko jaitsi direla 1986an zegoen % 48,9tik 1996ko % 41,2ra, 2000ko % 33,1era, 2004ko % 32,7ra eta 2008ko % 21,1era.

Pobrezia- eta prekarietate-tasen eta jaitsieraren emaitza gutxieneko ongizateko bizi-baldintzak dituen biztanleriaren zati baten igoera nabarmena izan da. Pertsona horien garrantzia igo egin da 1996an guztizkoaren % 51,1 baino ez izatetik 1996an % 58,8 izatera, 2000n eta 2004an % 67 inguru izatera eta 2008an % 78,9 izatera igaro baita.

Enplegu-mailak berreskuratzea 1985-2007 aldian

³⁰ Adierazle horrek ongizatea lortzeko dauden zailtasunak bereizgarri dituzten egoera guztien inpaktua neurtzen du.



Gizarte-babeseko sistemak Euskadin izan duen zeregin osagarri garrantzitsua ahaztu gabe, Euskadiko gizarteak ongizatea lortzeko egin duen aurrerakadaren elementu nagusi bat 70eko hamarkadako eta 90eko hamarkadako lehen urteetan izandako krisialdiaren ondoren enplegutask berreskuratzea izan da, eta prozesu horri esker emakume asko laneratu ahal izan dira eta enplegu bat edo gehiago dituzten etxekoen unitateen eta familien kopurua igo egin da.

Emakumeak lan-munduan sartzeari etengabe

Emakumeak produkzio-sisteman sartzeari ongizate-mailen hobekuntzaren oinarri nagusietako bat da, eta, bestalde, zuzeneko inaktua duen familien egoeran eta premietan. 1976an, guztizko okupazioaren % 26,3 besterik ez zen, baina emakume landunen proportzioa % 35,4ra iritsi zen 1995ean eta 2009. eta 2010. urteetan % 45etik hurbil dauden zifretara iritsi zen; esan daiteke, beraz, enplegua sexuaren arabera banatzeari dagokionez erabateko oreka lortzetik oso hurbil dagoela. 1976ko 199.400 emakume landunei kontrajarririk, 2010eko lehenengo hiruhilekoan 416.800 ziren; hortaz, aldi honetan bikoiztu egin da EAEko emakume landunen kopurua.

Enplegua lortu duten etxekoen unitateen kopuruaren igoera

Euskadiko etxekoen unitateen okupazioa igotzea gertakari garrantzitsua da, 1986-1996 aldian % 22,2 igo baitira etxekoen unitatean bizi diren pertsonen artetik gutxienez bat landuna den etxekoen unitateen kopurua. Are deigarriagoa da bi landun edo gehiago dituzten etxekoen unitateen kopurua % 83,6 igotzea, 1996an mota horretako 176.713 etxekoen unitate izatetik 2008an 324.482 izatera igaro baitira. 1996an, etxekoen unitate guztien % 26,2 izatetik horien garrantzi erlatiboa % 40,7raino igo da 2008an³¹. Oro har, pertsona aktibo guztiak landunak diren pertsonen osatutako familien edo egoera hori gertatzen ez bada ere, bi pertsona edo gehiago landunak diren pertsonen osatutako familien garrantzi erlatiboa 1996an % 59 izatetik 2000n % 62,2 izatera igaro da, eta 2004an eta 2008an zifrak % 67 eta % 68 dira.

Langaberen bat duten etxekoen unitateen proportzioa jaitsi egin da, ordea, 1996ko % 22,4tik 2000ko % 17,3ra, 2004ko % 13,1era eta % 2008ko % 6,9ra. Jaitsiera deigarriagoa da, ordea, kide guztiak langabezian dauden etxekoen unitateei dagokionez, 1996an % 8 izatetik 2008an % 2,1 izatera igaro baita. Pertsona aktibo guztiak langabeak diren eta horien artean pertsona nagusia edo ezkontidea duten etxekoen unitateak 1996an % 3,5 izatetik 2008an % 1,3 izatera igaro dira (23.537 kasu izatetik 10.714 izatera 1996-2008 aldian).

³¹ Igoera % 34,1etik % 55,8ra bitartekoa da pertsona aktiboren bat dagoen etxekoen unitateak soilik hartzen baditugu kontuan alderaketa egiteko.

1.2. Muga nabarmen batzuk izandako aurrerapenei dagokienez

Ongizateko gizarte bat lortzeko aurrerakadak ezin du ezkutatu, ordea, prozesu horretan muga batzuk daudela, biztanleriaren % 20ri baino gehiagori eragiten dieten prekarietate ekonomikoko arrisku-mailak izateak agerian jartzen duenez. Garatutako babes-sistema egon arren, pobrezia ez da oraindik desagertu Euskadin.

Muga horiek, neurri batean, honako honekin lotzen dira: 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, gazteen belaunaldi batzuetan ikusten da bizitza independentea egiteko atzerapenak jarraitzearekin, belaunaldi horiek ezkutuko prekarietate ekonomikoaren eta pobrezia-aren moduek asko baldintzatzen baitituzte. Kontuan hartu behar den beste fenomeno bat atzerriko etorkin berriak dira, atzeritar horien ezaugarri nagusia gizarte- eta ekonomia-bazterketaren arriskua handia izatea da, gainera. Azken urte hauetan, bi fenomenoek gora egitera bultzatzen dituzte pobrezia-tasen eta prekarietate ekonomikoaren tasen mailak.

Nolanahi ere, ongizateko gizarte bat lortzeko aurrera egiteko egiturazko mugak biztanleriak kalitatezko enplegua lortzeko dituen bat ez-etortzeekin, 2008-2009 aldiko krisialdiak areagotu dituenekin lotzen da, azken batean, baita herritarren zati handi batek etxebizitza prezio merkeetan lortzeko dituen zailtasunekin ere.

1.2.1. Kalitatezko enplegua lortzeko egiturazko bat ez etortzeak

Kalitatezko enplegua lortzeko, Euskadiko gizarteak aurre egin behar dien arazoak langabezia-tasak eta/edo behin-behinekotasun tasak handiak izatearekin nahiz soldatak txikiak eta azpiokupazioak duen garrantziarekin lotzen dira.

Langabeziaren eta behin-behinekotasunaren arteko elkartzearen iraupena

Testuinguru honetan, gertakari erabakigarria da langabeziak eta behin-behinekotasunak Euskadin duten baterako inpaktua, azken 35 urte hauetan errealitate hori ezin izan da erabat desagerrarazi, eta, egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, azken urte hauetan gora egin du nabarmen.

70eko eta 80ko hamarkadetako urteetako krisialdiak, eta 90eko hamarkadako lehenengo urteetan izan duen luzapenak okupazio-zifren bilakaerak izan duen inpaktua baino egiturazko



inpaktu negatibo handiagoa izan du. Biztanleria aktiboaren³² bolumena asko igo izanak definitutako testuinguruan, krisialdian langabezia asko igo da. Langabezia-tasak 1976an biztanleria aktiboaren % 3,8ari soilik eragiten zion arren, 1985ean % 22,7ra igo da, eta 1993an gehieneko % 24,4ra iritsi da (urte hartan 223.400 langabe zeuden). 2007. urtera bitarte, okupazioaren etengabeko hazkundeak langabezia-tasa pixkanaka jaitea (2007an % 5 inguruko mailetara jaitsi da) ekarri badu ere, 90eko hamarkadaren azken urteetatik aurrera atzerriko etorkin berriek eragiten dute presioaren ondorioz langabeziari buruzko zifra absolutuen mailak 70eko hamarkadaren erdialdekoak baino handiagoak dira.

Europar Batasunean sartu ginenez geroztik ikusitako okupazio-hazkundearen zati handi bat behin-behineko kontratazioa bultzatzean oinarritzen da, gainera. Langabezia-egoeran dauden pertsonen edo aldi baterako landunen bolumena orokorrean aztertzen badugu, ikus dezakegu bolumen hori igo egin dela 1975ean 32.300 pertsona izatetik 1997an gehienez ere 375.200 izatera igo baita. 80ko hamarkadaren lehenengo urteetatik aurrera, soilik 2007an lortu zen zifra hori 200.000tik jaitea langabeziaren edo enpleguaren aldibaterakotasunaren eraginpean zeuden pertsonen dagokionez (197.200 pertsona); urte horretan amaitu zen ekonomiaren hedapen-zikloa.

Termino erlatibotan, langabeziaren eta aldibaterakotasunaren intzidentzia biztanleria aktiboaren % 4,6 bakarrik zen 1975ean, baina 1981ean % 18,9 izatera, 1991n % 35,1 izatera eta 1994-1997 aldian % 39tik % 40ra bitarteko mailetakoa izatera igaro zen. Lan-merkatuaren egoera hobetu bada ere, langabeziaren eta aldibaterakotasunaren baterako inpaktua % 30,1ekoa da 2001ean. 2007an intzidentzia % 19,3ra jaisten bada ere, zifra hori 1981ekoaren antzekoa da, enplegua lortzeari dagokionez krisialdian azal daitekeen zifra.

2000ko gehieneko % 39,4ko zifratik behera dagoen arren, langabezian dagoen edo behin-behineko soldatapeko langile gisa edo kontraturik gabe lanean ari den pertsonaren bat duten etxekoen unitateen proportzioa % 24,9 da oraindik 2009an EAEn. Etxekoen unitateen % 9,8an beren kide aktibo guztiak langabezian daude edo soldatapeko ez-egonkor gisa ari dira lanean 2009an; proportzio hori % 6,7 da eraginpeko pertsonetako bat pertsona nagusia edo horren ezkontidea bada.

Soldata txikien eta azpiokupazioaren inpaktua

³² Biztanleria aktiboaren igoera handia izatea bizitza aktibora 50eko hamarkadako azken urteetatik 70eko hamarkadako lehenengo urteetara bitarteko denbora-tartean *baby boom*-aren belaunaldiak iritsi izanaren eta emakumea lan-munduan sartzearen prozesuaren ondorio da.

Aurreko arazoei soldata txikiek eta azpiokupazioak Euskadin duten inpaktua erantsi behar zaie, azpiokupazio hori enplegu okupatu motaren eta lortutako prestakuntza arautuaren artean dagoen desoreka esanguratsuaren terminoetan ulertu behar da. Euskadiko ordainsari-maila txikien azterketak erakusten du arazo horren eraginpeko biztanleria landunaren proportzioa % 7,2an dagoela abiapuntua diru-sarrera ertainaren % 60 bada (750 euroren baliokidea) edo % 20,7an mediana horren % 75 hartzen bada (937,50 euro).

Landunak dauzkaten etxekoen unitateetan, laneko diru-sarrera txikien inpaktua % 10,9 da eta guztizkoaren % 29,3, medianaren % 60 edo % 75 hartzearen arabera. Diru-sarrera txikia soilik presente dagoen egoeren inpaktua % 2,9 eta % 8,4 da, kasuen % 0,6 eta % 2,7 eskasarekin bi egoera horiek presente egoteari dagokionez. Diru-sarrera mota horrek goragoko beste diru-sarrera bat edo batzuk osatzen dituzten kasuek kontuan hartutako etxekoen unitateen % 7,4ari eragiten diote medianaren % 60 erreferentzia gisa hartuz gero, eta % 18,2ari, aldiz, % 75 hartuz gero.

Soldata txikien inpaktua askoz handiagoa bada ere behin-behineko kontratuarekin edo kontraturik gabe lan egiten duten soldatapekoen kasuan, kontratazio mugagabeko egoerekin lotutako ordainsari txikiak biztanleria aktiboaren % 2,4aren ezaugarri dira, baldin eta lan egiteagatiko diru-sarreraren medianaren % 60tik beherako soldatak kontuan hartzen badira (% 9,1 % 75etik beherako soldata guztiak kontuan hartzen badira).

Azpiokupazioaren intzidentziari dagokionez, BAKIak, 2007an, prestakuntza-mailaren eta enplegu okupatuaren arteko desoreken 129.619 kasu atzeman ditu. Errealitate horiek biztanleria landunaren % 13,6ari eragin diote, 1995eko zifraren antzekoa, baina erakusten du 1999-2003 aldiko egoerari dagokionez okerrera egin duela pixkanaka (urte haietan egoera horretan zegoen biztanleria landunaren zifra % 9,9 eta % 12,1 ziren, hurrenez hurren).

Etxekoen unitateen % 15,7an, pertsonaren batek bere prestakuntza-mailarekin guztiz bat ez datorren enpleguren bat betetzen du; beste % 1,8 batean, aldiz, ezaugarri horietako bi enplegu edo gehiago daude presente. Oro har, 2007an, 138.639 etxekoen unitate inguru –gustizkoaren % 17,4– dago egoera horretan.

1.2.2. 2008-2009 aldiko krisialdiaren ondorioak

Ikusitako egiturazko arazoak areagotu egiten dira 2008an hasitako krisialdiaren ondorioz, langabezia-zifra nabarmen igotzea ekarri baitu; izan ere, kalkulatzeko da langabeziaren



gehieneko zifrak 123.100 pertsona izan direla 2009ko IV. hiruhilekoan. Krisialdiaren ondorioz langabezia-tasa bikoiztu egin da bi urte eskasetan, % 5,7 izatetik % 11,7 izatera igaro baita 2007-2009 aldian, eta adierazlea % 10,9raino jaitsi da 2010ean³³. 70eko eta 80 hamarkadetan ikusitako arazoez ez bezala, 2008. eta 2009. urteetan langabezia igo izana biztanleria aktiboaren bolumena igo izanarekin lotu ordez enplegu-zifrak jaitsi izanarekin lotzen da. BAIaren arabera, 2007-2009 aldian, EAEko okupazioa % 7,4 jaitsi da.

Langabeak eta aldi baterako kontratua duen biztanleria elkarrekin kontuan hartzen baditugu, tasak goranzko joera du 2007ko % 19,3tik hasita 2009ko azken hiruhilekoaren % 22,4raino eta 2010eko lehen hiruhilekoaren % 23raino. 2010eko lehen hiruhilekoan, 237.900 pertsona daude lanik gabe edo aldi baterako soldatapeko okupazio-erregimenean, eta zifra hori 70eko eta 80ko hamarkadetako urteetako krisialdiaren ondoren ezagututako mailak baino handiagoa da. Horrela, 2010eko langabezia-tasa nabarmen txikiagoa zen 80ko hamarkadako erdialdeko urteetako baino (113.700 pertsona batetik eta 185.000 bestetik) eta ez da gauza bera gertatzen, aldiz, langabeziaren eta aldibaterakotasunaren baterako inpaktuarekin (237.900 kasu batetik eta 226.100 bestetik, 1986. urtean).

Familien garrantzi erlatiboaren hazkundera, non eta familia horietako pertsona aktibo guztiak landunak diren edo gutxienez bi pertsona edo gehiago okupatuta dauden, 2008ko % 67,8tik 2009ko % 64,9ra jaitsi da. Bestalde, gutxienez pertsona aktibo bat daukaten etxekoen unitate guztiei dagokienez, bi landun edo gehiago presente dauden etxekoen unitateen proportzioa jaitsi egin da % 55,8tik % 51,8ra.

Aitzitik, gora egin du langaberen bat daukaten etxekoen unitateen kopuruaren goranzko joerak. 2008ko lehen seihilekoaren eta 2009ko azken hiruhilekoaren artean, kontuan hartutako etxekoen unitate kopurua 41.209 izatetik 74.154 izatera igaro da, eta etxekoen unitate horiek guztizkoan daukaten proportzioa % 6,9 izatetik % 11,2 izatera igaro da, adierazlea 2004ko % 13,1era hurbilduz. Kide aktibo guztiak langabezia-egoeran dauzkaten etxekoen unitateen proportzioa % 2,1 izatetik % 4 izatera igaro da aldi horretan, 2000ko % 4,4aren antzeko zifra.

Era berean, igoera nabarmena da langabeziak pertsona aktibo guztiei, pertsona nagusia edo horren ezkontidea barne, eragiten dien etxekoen unitateei dagokienez, kasu kopurua 2008an 10.714 izatetik 2009an 20.572 izatera igaro baita. Zifra hori 1996ko zifraren % 87,4 da,

³³ Esan behar da, ordea, Euskadiko posizioa Espainiakoa baino askoz ere hobea dela 2010ean, langabezia-tasa 9,1 puntu beherago baitago Euskadin 2010eko lehen hiruhilekoan. Espainian gertatzen ez den bezala, 2010eko langabezia-tasa aurreko krisialdietako goren guneetan ikusten direnetatik hurbil dago, 2010eko lehen hiruhilekoan EAEko % 11,7 txikiagoa da, gainera, aurreko krisialdiei zegozkien gehienekoen batez bestekoari % 50ean (% 22,7 1985ean eta % 24,4 1993an).



langabeak ez ezik landunen bat daukaten etxekoen unitateetan ikusitako % 62,5aren eta pertsona aktibo guztiak lanik gabe dauden baina horietako bakar bat ere pertsona nagusia edo horren ezkontidea ez den etxekoen unitateen % 39,4aren gainetik. Kide aktibo guztiak lanik gabe dauden eta kide horietako bat pertsona nagusia edo horren ezkontidea den etxekoen unitateen garrantzi erlatiboa 2008ko % 1,3tik 2009ko % 2,5era igaro da; proportzio horrek 2000ko % 1,7ko zifra gainditzen du argi eta garbi, eta 1996ko % 3,5eko zifra baino txikiagoa da soilik.

Langabeziaren eta enpleguaren egonkortasunik eza (aldi baterako kontratuak edo kontraturik eza) batera hartzen badira kontuan, krisialdiaren inpaktua, ordea, zertxobait txikiagoa da. Pertsonaren bat langabezian dagoen edo behin-behineko soldatapeko gisa edo kontraturik gabe lanean ari den pertsonaren bat daukaten etxekoen unitateen proportzioak jaisteko joera finkatzen du, adierazlea, 2008an, % 26 izatea ahalbidetzen baitu, eta jaitsiera hori 2009ko % 24,9raino luzatzen da. Gauza bera gertatzen da kide aktibo guztiak langabeak edo soldatapeko langile ez-egonkorrak dituzten etxekoen unitateen proportzioa kontuan hartzen bada. 1996ko % 17,6tik 2008ko % 10,1era bitarteko jaitsiera 2009ko % 9,8raino luzatu da³⁴.

Krisialdiak badu hain negatiboa ez den beste alderdi bat ere, soldata txikiei buruzko inpaktuaren beherakada nabarmena izatearekin lotzen dena. 2005-2007 aldian % 14,8an kokatzen diren zifretatik, % 60ko adierazlean, egoera horren eraginpeko etxekoen unitateen proportzioa –landunak dituzten etxekoen unitate guztietan– % 10,9ra jaitsi da 2009an. Erreferentzia gisa % 75 hartzen bada, 2007ko % 34,5etik 2009ko % 29,3ra jaisten da³⁵.

Ezegonkortasunaren eta soldata txikien inpaktuari buruzko bilakaera guztia ez da, ordea, positiboa. Etxekoen unitateen proportzioa, zeinetan kide aktibo guztiak langabeziaren edo lan-ezegonkortasunaren eraginpean egoteaz gain eraginpeko pertsonetako bat pertsona nagusia edo horren ezkontidea den, 2008an % 6,2 zen eta 2009an % 6,7.

Langabeziaren inpaktua areagotzean, litekeena da krisialdiaren inpaktuak ere pobreziaren eta prekaritatearen tasek gora egin dezaten bultzatzea. Ildo horretan, termino ez-egokituetan, mantenu-prozesuaren mailetan 2004-2008 aldian ikusten den gorakada ere kontuan izan behar da, arrisku-maila % 3,5 izatetik % 4,1 izatera igaro baita.

³⁴ Datu horiek azaltzeko aintzat hartu behar da enpleguaren beherakada, 2008-2009 krisialdian, aldi baterako kontratua duten edo kontraturik ez duten pertsonetan kontzentratzen dela, soldatapeko biztanleriaren barruan. Kasu horietan okupazioa % 30,2 murriztu da 2007-2009 aldian.

³⁵ Errealitate hori batez ere kalifikazio gabeko langileei ekiten dien krisialdia oso selektiboa izatearekin lotzen da. Euskadiko kalifikazio gabeko langile kopurua % 38,7 jaitsi da 2007-2009 aldian.

2008-2009 aldiko krisialdia kontuan hartzerakoan, bestalde, esan behar da ez dela egoeraren araberrako finantza-krisialdiaren ondorio hutsa. Finantziario-arazoak horren eragile diren arren eta funtsezko edukia ematen dioten arren, krisialdi horrek zerbitzukoak ez diren sektoreei eragiten die batez ere, eta krisialdi horren jatorria, industriari eta lehen mailako sektoreari dagokion orotan dago batez ere, 2008ko gertaeren aurreko dinamikan. Horregatik, krisialdiak sektore bati eragiten dio batez ere, industria-sektoreari, 2001eko laugarren hiruhilekoaren eta 2009ko lehenengoaren artean ikusitako okupazioaren beherakadaren % 82,8 biltzen baitu³⁶.

Industriari eta eraikuntzari dagokionez, krisialdiaren garapenean, gainera, lehiakortasuna handitzearekin, eskaera jaistearekin eta salmentei lotutako jaitzierarekin lotutako alderdiek garrantzi handia dute, kontuan hartutako sektoreen produkzio-establezimenduek produzitzeko duten gaitasunek gora egiteko joera ezaugarritzat duten testuinguruan.

Beraz, testuinguru honetan nabarmentzekoa da globalizazio ekonomikoaren azkenaldiko dinamikaren inpaktu negatiboa. 2004-2008 aldian, ildo horretan atzematen da prozesuaren eraginez pertzepzio negatiboa nabarmen igo dela. Funtsean, globalizazioaren ondorio positiboa dagoela adierazten duten zentroen garrantziari eusten zaion arren (% 8 2004an), % 13,3tik % 28,2ra igoen da globalizazioaren inpaktua beren produkzio-zentroetarako negatiboa dela esaten dutenen kopurua. Industria denez kanpoko lehia gehien pairatzen duen sektorea, ez da harritzekoa egiaztatzea globalizazioaren inpaktuari buruzko pertzepzio okerrean dela sektore horretan, erantzun positiboen eta negatiboen artean portzentajeazko 26,5 puntu negatibo izanik, eta ikusten da 2004ko % 9,6arekin alderatuta, nabarmen igo dela.

1.2.3. Etxebizitza eskuratzearen kostuaren igoera

Etxebizitza eskuratzearen eta mantentzearen kostuaren igoera beste alderdi erabakigarri bat da Euskadiko etxekoen unitateen arazo ekonomiko berrietan, milurtekoaren lehen hamarkadan batez ere.

Igotzen ari diren etxebizitza-gastuekiko mendetasun handiagoa

Mende berriaren lehen hamarkadan izandako aldaketa sozial eta ekonomiko handietako bat etxebizitzaren alokairuarekin edo etxebizitzarekin lotutako maileguen amortizazioarekin

³⁶ Beherakadaren % 15,7 lehen sektoreari dagokio, eta soilik % 1,4 egotz dakioke eraikuntzaren sektoreari.



lotutako gastuei aurre egin behar dieten pertsonen proportzioa igo izanarekin lotuta dago. 1986ko % 31,2tik 1996ko % 23,5era jaitsi ostean, urte horretatik aurrera igotzen jarraitu du etxebizitzaren premiak estaltzeko alokairuen eta hipoteken ordainketaren mende dauden pertsonen proportzioa: % 26,7 2000n, % 34 2004an eta % 41,7 2008an.

Aurreko gaiak garrantzi handia du etxebizitza eskuratzeko kostu ekonomikoa igotzearekin lotuta dagoelako. Ildo horretatik, 1996-2000 aldian % 9,7tik % 9,2ra jaitsi ondoren, etxebizitza eskuratzeko ahalegin-tasa % 11,5era igo da 2004an eta % 14,2ra 2008an. Jabetzako etxebizitza duten eta beren hipoteka ordaindu gabe duten etxekoen unitateetan, ahalegin-tasa 2000n % 20 izatetik 2004an % 22,8 izatera igaro da, 1996an bezalaxe, eta 2008an % 25,1ean kokatu da. Alokairuari dagokionez, 1996-2000 aldian % 18,7tik % 17,1era jaitsi da, baina goranzko joera oso handia da 2004an % 22,5era eta 2008an % 28ra igo baita.

Aldi berean, igo egin da biztanleriaren proportzioa guztizko diru-sarreraren % 30 baino gehiago etxebizitzarekin lotutako gastuetarako erabiltzen duten etxekoen unitateetan. 1996-2000 aldian % 6,9tik % 5,6ra jaitsi ondoren, 2004an % 10,1eraino iritsi zen eta 2008an % 15,2raino. Hipotekapeko jabetzaren kasuan, eraginpeko pertsonen proportzioa 2000n % 19,3 izatetik 2004an % 26,6 eta 2008an % 32,8 izatera igaro zen, nahiz eta zifra hori 1996ko % 29,3ko zifra altutik hurbil samar dagoen. Alokairuaren kasuetan, 1996-2000 aldian % 23,4tik % 20,2ra jaitsi ostean, erreferentziazko proportzioa % 35,5era igo da 2004an eta % 46,2ra 2008an.

Etxebizitza-gastuen inpaktua

Aipatutako aldaketek oso ondorio garrantzitsuak izan dituzte EAEko etxekoen unitateen ongizate-mailetan. Gorantz doazen etxebizitza-gastuen ondorioak dakar etxekoen unitateen guztizko egituran oinarritzko gastuek duten garrantziak gora egitea 2000. urtetik aurrera: 2000n % 36,6 izatetik 2004an % 40,4 eta 2008an % 43,3 izatera. 1986-2000 aldian ikusitakoarekin kontrajarririk, bilakaera horrek esan nahi du etxekoen unitateek hain oinarritzkoak ez diren gastuak –aisialdian eta astialdian– egiteko ahalmen ekonomiko erlatibo txikiagoa dutela.

Diferentzia-inpaktua gizarte-egoera ahuleko kolektiboetan

Etxebizitza-gastuak pobrezia-aren edo ongizatearen eskalan duten posizioaren arabera, taldeen gastu-mailak nolabaiteko homogeneousunarengatik bereizten diren neurrian, gastu horien ondorioak gora egiten du posizio ekonomikoak behera egiten duen neurrian. Diru-sarreraren % 30 baino gehiago etxebizitza-gastuetarako erabiltzen duten etxekoen unitateetan dauden pertsonen proportzioa erreferentzia gisa hartuta, mantenu-alorrean ongizate-egoeran dauden

etxeko unitateetan erreferentziazko proportzioa bertan bizi diren pertsonen % 25-30 tartean mugitzen da alokairuaren edo hipotekapeko jabetzako etxebizitzaren kasuan, eta pobreziako edo ongizaterik ezeko arrisku-egoeraren arazoari aurre egin behar dioten pertsonen etxeko % 70-85 tartean.

Zifra horiek erakusten dute etxebizitza-gastuak funtsezko presioa egiten duela pobreziako edo ongizaterik ezeko arrisku-egoeran dauden etxeko unitate gehienetan gainean, alokairuko edo guztiz ordaindu gabeko jabetza-erregimeneko egoeretan daudenean. Etxeko unitate horietan, etxebizitza-gastuek oinarritzko gainerako premiei (elikaduraren alorreko premiak, besteak beste) modu erosoagoan aurre egiteko aukera baldintzatzen dute.

Teorikoki nabiko diru-sarrerak dituzten kolektiboetan duen inpaktua

A priori pobrezia-errealitatetik eta ongizaterik ezeko errealitatetik urrun dauden kolektiboetara ere eragiten die etxebizitza-gastuen presioak. Gai horri buruzko hurbilketa zehatza eginez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organoaren (EEO) arabera, alokairu-gastuak edo hilabete bakoitzean 725 €-tik beherako hipotekak dituzten etxeko unitateen proportzioa % 6,3 zen; proportzio hori Gizarte Larrialdietarako Laguntzak lortzeko behar diren diru-sarreraren azpitik dago diru-sarrera erabilgarrien guztikoari etxebizitza-gastuak kentzen bazaizkio (49.864 kasu). Ikus daitekeenez, kuantitatiboki oso esanguratsua den gizarte-arazoa da, eta, praktikan, ez dago aintzat hartuta gizarte-babeseko programa orokorren esparruan.

Arriskuko etxeko unitateetan bizi den biztanleria bereizten da oso ezaugarri espezifikoak dituelako: biztanleria horren gehiengoa Estatuko herritarra den pertsona nagusi baten mende dago, lan-okupaziotik eratorritako diru-sarrerak dituen, 25-44 urtekoa eta lehen ikasketen ondoko ikasketak dituen. Kasuen % 85ean familia-taldeak dira, % 63,2 seme-alabak dituzten bikoteak edo senar-emazteak izanik. Arrisku-egoeran dauden pertsonen % 82,4, gainera, okupazio egonkorra duen gutxienez pertsona bat duten etxeko unitateetakoak da. Alokairuagatiko eta etxebizitzaren amortizazioagatiko gastuen batez bestekoa 568,50 € da hilean.

1.3. Enpleguaren eta baliabide ekonomikoen arazoaren inpaktua

Datuak aztertu ondoren, ez da harritzekoa egiaztatzea familien pertzepzioan, familia horiei gehien eragiten dieten arazoak enpleguarekin eta gastuei aurre egiteko nahikoa ez diren baliabide ekonomikoekin lotzea.



Enplegu-arazoak

EAEko etxekoen unitateen % 39,2k aipatzen ditu enpleguari lotutako arazoak, eta etxekoen unitateen % 26,8k garrantzi nabarmena ematen die arazo horiei.

Etxekoen unitateen % 21,7k langabeziarekin edo enplegua lortzerakoan atzemandako kolokatasun motaren batekin (nahi ez den denbora partzialeko enplegua barne) lotutako arazoak aipatzen ditu. % 15,6k aipatu du arazo horietakoren bat oso garrantzitsua dela haientzat.

Etxekoen unitateen % 28,8k nabarmendu du, bestalde, enplegu-kalitatearen arazoak dituela (gaizki ordaindutako enpleguak, enpleguaren kalitatea txikia izatea edo azpiokupazio-arazoak hezkuntza-trebakuntzari dagokionez. Etxekoen unitateen % 18,3an, arazo horiek garrantzi nabarmena dute.

Diru-sarrerekin eta gastuekin lotutakoa arazoak

Diru-sarrera erabilgarriekin eta familien gastu-ahalmenarekin lotutako arazoak oso hedatuta daude oraindik, eraginpeko etxekoen unitateen % 41,7 izanik. 2008an, haientzat fenomeno horrek garrantzi handia duela aipatzen duten etxekoen unitateen proportzioa, ordea, enplegu-arazoei dagokiena baino zertxobait txikiagoa da (% 25,8 batean, bestean, aldiz, % 26,8).

Etxekoen unitateen % 22,8k aipatu ditu diru-sarreraren eta gastuen dimentsioan oinarritzko alderdiekin lotutako arazoak dituela, eta horietatik % 15,2k esan du arazo horiek garrantzi berezikoak direla. Oinarritzko gastuen dimentsio horri dagokionez, honako datu hauek nabarmendu behar dira:

- * Arazo hedatuena etxebizitzaren hipoteken eta alokairuen ordainketekin lotzen dira, etxekoen unitateen % 10,9k aipatzen baitu arazo hori, eta horietatik % 6,6arentzat garrantzi nabarmena du.
- * Etxekoen unitatean bizi diren pertsonak zaintzeko eta pertsona horiei laguntzeko premiei erantzuteko dituzten zailtasun ekonomikoekin lotutako arazoak etxekoen unitateen % 10,5ari eragiten diote. % 4,8k aipatu du adingabeak zaintzeko premia bereziei aurre egiteko arazoak dituela, proportzio hori, bestalde, hirugarren adineko pertsonak artatzeko arazoak dituzten etxekoen unitateen proportzioaren antzekoa da. % 3,9k aipatu du adinekoentzako egoitza bat ordaintzeko arazoak dituela. Dimentsio horretan arazo garrantzitsuak dituzten



etxekoan unitateen proportzioa guztizkoaren % 7 da. Adierazlea % 3 da adingabeak eta adinekoak zaintzeko kasuan, eta % 2,7 egoitzak ordaintzeari dagokionez.

- * Oinarrizko premiei aurre egiteko behar adina diru-sarrera ez edukitzearekin lotutako arazoek etxekoan unitateen % 7,6ari eragiten diote, eta kasuen % 5ean garrantzi nabarmena du. Nolanahi ere, oinarrizko arazoak estaltzeko arazoak haientzat arazo garrantzitsu eta nagusi direla aipatzen dituzten etxekoan unitateen proportzioa % 1,8 da gehienez. Datu hori diru-sarrerak bermatzeko EAEn dauden programen garrantzi erlatiboaren adierazlea da, zalantzarik gabe.

Enplegu-adierazleek ez bezala, gastuekin eta diru-sarrerekin lotuta dauden adierazleek erakusten dituzte 2008an hazkunde ekonomikoari eta finantza- eta ekonomia-krisialdi berriari mugak jartzearen ondorioak. Diru-sarrerekin eta gastuekin lotutako arazoan intzidentziak etxekoan unitateen % 19,9ari eragiten zion 2004an eta 2008an % 25,8ari eragiten dio. Garrantzi bereziko arazoak aztertzen direnean ere ikusten da igoera dagoela, horren inpaktua % 10etik % 15,2ra igo baita aldi horretan.

Narriadura ekonomikoaren inpaktua atzematen da, neurri batean, oinarrizko premiak estaltzeko ahalmenari dagokionez, dimentsio horretako arazo garrantzitsu kopurua % 3,7tik % 5era igo baita. Hala eta guztiz ere, inpaktu garrantzitsuaren eta nagusiaren terminoetan dagoen aldaketa babes-sistemak orekatzen du neurri handi batean; horren ondorioz, adierazlea % 1,6tik % 1,8ra soilik igo da 2004-2008 aldian.

Garbiagoa da, termino absolututan nahiz erlatibotan, etxebizitza ordaintzeko zailtasunekin lotzen den igoera. Arazo garrantzitsuak % 4,5etik % 6,6ra igo dira 2004-2008 aldian, batez ere hipoteken ordainketarekin lotutako arazoa igo egin delako (arazo garrantzitsuak dituzten etxekoan unitateen proportzioa % 2,5etik % 4,4ra igo da kasu horretan). Nolanahi ere, diru-sarreraren eta gastuen arazoan inguruko hedatze-joera guztia ez da narriadura ekonomikoarekin lotzen; zahartze demografikoaren prozesuak ere badu bere eragina. Izan ere, adingabeak edo adinekoak zaintzearekin lotutako arazoak dituzten etxekoan unitateen proportzioa % 3,3tik % 7ra igo da 2004-2008 aldian.

Etxebizitzaren kalitatearekin lotutako arazoak

Arazo ekonomikoek etxebizitzaren ezaugarriekin eta kalitatearekin lotutako dimentsioari ere eragiten diete (etxebizitzan konponketak egiteko premiarekin, etxebizitzaren egoera eskasarekin lotutako arazoak, edo behar adinako lekurik edo hornikuntzarik ez izatearen

arazoak, baita gai orokorrago batzuk ere, etxebizitza aldatzeko premiarekin lotutakoak). Etxekoen unitateen % 21,6k adierazi du horri buruzko arazoren bat duela, eta horien % 10,8k aipatu du garrantzi bereziko arazoak dituela. Nolanahi ere, metatze-dimentsioan ongizatearen adierazleak 2004-2008 aldian nabarmen hobetu izanak esan nahi du fenomeno horri buruzko inpaktua jaitsi egin dela % 13,4tik % 10,8ra.

2. JAIOTZA TASARI DAGOKION KRISIALDIA EUSKADIN

Atzemandako arazo ekonomikoen egiturazko izaera erabakigarria izan da desoreka demografikoek markatutako gizarte bat finkatzeko, bereziki, oso baxuak diren jaiotza-tasaren eta ugalkortasun-tasaren terminotan. Aurreko mendeko 70eko hamarkadaren erdialdean, hau da, 80ko hamarkadako industria-birmoldaketara eraman zuen krisialdia baino lehen, emakume bakoitzeko seme-alaben kopurua 2,8 inguruko mailan kokatzen zen Euskadin. Hortik aurrera, beherakada drastikoa eta etengabea hasi zen eta 90eko hamarkadaren erdialdean amaitu zen, emakume bakoitzeko seme-alaba bat baino gutxiagoko zifretan kokatuz (1994an eta 1995ean, 0,91). Susperaldi ekonomikoak lagunduta, une horretatik aurrera adierazlea igo egin zen baina arinki, 2008an 1,32ko seme-alaben batez bestekoa gainditu gabe.

Emakume bakoitzeko seme-alaben kopuruaren bilakaeraren azterketa zehatzak adierazten du ugalkortasun-tasaren goranzko joeraren errekupeazio handiena 2001-2003 aldiari dagokiola, aldi horretan adierazlearen urteroko % 4,8ko batez besteko igoerak izanik, eta aldiz, 1994-2001 aldian, % 2,4 eta 2003-2005 aldian, % 1,3. Euskal Administrazio Publikoek familiei laguntzeko politikak martxan jartzeak 2005-2008 aldian % 3,5eko urteko igoerari eusten badio ere, 2008-2009 aldiko krisialdiak goranzko joera eten du eta horrek 2008-2009 aldiko jaiotza kopuruan % 4,5eko jaitsiera eragin du, jaiotzak sustatzeko neurriak izanda ere.

2.1. Faktore kulturalaren eta ezkontza kopuruaren jaitsieraren eragina

Ugalkortasun-tasan ikusitako jaitsieraren zati batek behintzat gizarte-ohituren sekularizazioari loturiko kultura-aldaketekin zerikusia du. Erlijio-balioek garrantzia galtzeak ezkontza eta dibortzioa arautzeari eta jaiotza-tasaren dinamikari buruzko arau moral tradizionalak zalantzan jarri ditu. Prozesu horrekin batera sexualitateari buruzko ikuspegi berri bat sortu da, ugalketa-eginkizunetik bereizitakoa hain zuzen ere.

Ezkontzari dagokionez, gaztedia erlijiotik urruntzeak zalantzan jarri du orain dela gutxi arte hegemonikoa zen ezkontza erlijiosoaren eredua baita erakundearen logika propioa ere, neurri batean behintzat. Joera hori, alde batetik, bikote-harremaneko eredu modura elkarrekin bizitzearen eredua hartzen ari den garrantzian zehaztu da. 90eko hamarkadaren amaieran, elkarrekin bizitzearen esperientziaren aldeko apustua 30 urtetik beherakoen % 69,2k defenditzen zuen. Gazteen belaunaldi berriek bikote egonkorren harremaneko kasuan



oraindik ezkontza nahiago bazuten ere, ezkondu aurretik elkarrekin bizitzearen esperientziaren aldeko joera izatea nagusitzen zen.

Izan ere, elkarrekin bizitzearen ereduaren gehikuntza Euskadiko azken urteetako bilakaera demografikoaren elementu bereizgarrietako bat da. Elkarrekin bizitzen direnen kasuen kopurua 1986an 4.500 izatetik 2002an 25.000 izatera igaro zen, 2006an, 45.200 eta 2008an, 51.536. Elkarrekin bizitzearen ereduak bikote-harremanetan oinarritutako bizikidetza-modu guztien multzoan duen garrantzia 1997an % 3 zen, 2006an % 8,6 eta 2009an % 9,4. Hori baino erabakigarriagoa izan da bizikidetza-modu horren hazteak ezkontzatik kanpoko jaiotzek garrantzi handiagoa izatea eragin izana. 1975ean jaiotza guztien % 1,6 besterik ez baziren ere, 1985ean jadanik % 6,8 ziren, 1996an % 10,5, 2004an % 22 eta 2007an % 27.

Bestalde, adierazitako aldaketak banantzeen, dibortzioen eta ezkontza-deuseztasunen kopurua asko haztea eragin du eta senar-emazteak ezkontzako arazoak konpontzeko gai ez direnean gero eta gehiago ikusten da dibortzioa konponbide nagusitzat. 1998-2000 aldian zifrak 4.000-4.100 inguruan mantendu ondoren, XXI. mendeko lehen urteetan gizarte-errealitate horren garrantzia handitu egin da, 2006. urtean banantzeen, dibortzioen eta ezkontza-deuseztasunen kopurua 5.742 izanik. 1998ko eta 1999ko % 37tik gorako zifretatik 2000ko % 35,9ko zifretara igaro zen errealitate hori eta 2006an, berriz, urteko ezkontza guztien kopuruaren gainean izan zuten eragina % 58,7raino igo zen.

Errealitate horiek guztiek ezkontza tradizionalaren garrantzia erlatibizatu dute. Ezkontza kopuruaren jaitsiera (ugalkortasun-tasaren eta jaiotza-tasaren beheranzko joerako bilakaeran erabakigarria) azken hamarkadetako bilakaera demografikoaren beste ezaugarrietako bat izan da. 1975. urtean 17.336 ezkontza egin ziren, baina hortik aurrera jaitsiera-prozesu luzea ikus daiteke ezkontzen kopuruan; horrela, 1985ean Euskadin 9.436 ezkontza egin ziren, 70eko hamarkadan erregistraturikoen % 54,4 besterik ez. 1988-2000 aldian ezkontza kopuruaren goranzko joera gertatu bazen ere, 2000. urtetik aurrera berriz nagusitu zen beheranzko joera, 2009an kopuru txikiena eman zelarik, 8.014 ezkontza.

Ezkontza-tasaren bilakaerak ere joera berdinak azaltzen ditu: 1975ean 1000 biztanleko % 8,4 zen eta 1985ean % 4,4raino jaitsi zen. Ondoren gertatu zen susperraldi arinerako joera 2000. urtean gauzatu zen % 5,1erainoko igoerarekin. Ondoren gertatutako jaitsierak % 4,8an kokatu zuen tasa 2004an, % 4,2an 2008an eta % 3,7ko gutxiengoan 2009an³⁷.

³⁷ Ezkontza-tasaren jaitsiera 1980tik aurrera ezkontzeko adinaren etengabeko atzerapenarekin loturik dago. Horrela, 1975-1980 aldian ezkontzeko adina 26,6tik 26,1era jaitsi bazen ere, ezkontzen ziren gizonen batez besteko adina igo egin zen Euskadin 2007an 34 urtean kokatu arte. Prozesua antzekoa



Prozesu horrek familia mota berriekin (esaterako, bikote homosexualek edo bi dibortziatuk osaturikoak) tolerantzia- eta errespetu-jarrerak garatzen lagundu du eta horrela modu naturalean onartzen dira lotura informalak edo izatezko bikoteak. Alabaina, ezkontzaren garrantzia mugatzeak jaiotzetarako hain onuragarria ez den esparru bat sortzea erraztu du. Balio hedonistak zabaltzen ari diren testuinguruan, seme-alabak bikote-bizitzaren berezko elementutzat hartzearen erlatibizazioa jaiotza-tasa jaitea eragin duen beste aldaketa kulturaletako bat izan da. Aurrekoarekin batera, arrazoi erlijiosoei loturiko familia-plangintzarik ezaren aldeko apustuak garrantzia galdu du.

2.2. Azalpen kulturalistaren mugak

Ezbairik gabe, Euskadiko ugalkortasun-tasaren eta jaiotza-tasaren jaitsieraren azalpenaren zati bat gizartearen sekularizazioarekin zerikusia duten faktore kulturalekin loturik dago. Alabaina, azalpen horrek zenbait muga ditu eta ezin du berez, gertatutako aldaketa guztien azalpenik eman. Errealitateak erakusten digunez, familia askok adierazten dute ezin dituztela nahi adina seme-alaba eduki diru-sarreraren urritasunarekin edo enplegu-zailtasunekin loturiko arrazoiengatik eta neurri batean behintzat, euskal biztanleriak oraindik ez ditu benetan izan nahi lituzkeen seme-alaba kopurua edukitzen. Hortaz, interpretazio kulturalistaren mugak kontuan hartu behar dira.

Elkarrekin bizitzearen ereduaren bigarren mailako zeregina

Aipaturiko interpretazio mota horren mugak atzematen diren alderdietako bat Euskadin oraindik elkarrekin bizitzearen ereduak betetzen duen zeregin mugatuarekin (Europako testuinguruan behintzat) lotzen da.

Fenomeno hori, alde batetik, martxan jartzerakoan izan zuen atzerapenean ikus daiteke. Bikote-harremanetan oinarritutako bizikidetza mota desberdinen multzoan elkarrekin bizitzearen ereduak 1997an zuen garrantzia % 3 zen eta 2002an oraindik % 5etik beherakoa zen. Ezkontzatik kanpoko jaiotzek gero eta garrantzi handiagoa badute ere, 1996an % 10,5 besterik ez ziren, 2004an % 22ra eta 2007an % 27ra hazi baino lehen. Ezkontzen krisialdiko

da emakumeei dagokienez; ezkontzeko batez besteko adina emakumeengan ere handitu egin da, 1980an 23,6 izanik eta 2007an, 31,9.



testuinguru batean, elkarrekin bizitzearen eredia gauzatzen izandako atzerapena da, zati batean behintzat, Euskadiko jaiotza-tasa baxuaren arrazoia.³⁸

Bigarren alderdi aipagarria honako hau da: elkarrekin bizitzearen ereduak Euskadin oraindik ere nahiko zeregin iragankorra betetzen duela bikoteen bizikidetzat mota desberdinekin dagokienez. Ildo horretan, ikus daiteke askoz inpaktu handiagoa duela elkarrekin bizitzearen ereduak seme-alabarik ez dagoen kasuan: 2009an bikote guztien % 14,9an eta seme-alabak dauden kasuan, berriz, bikoteen % 5,8an. 1996-2004 aldian elkarrekin bizitzearen ereduak izan zuen indartzea batez ere seme-alabarik gabeko bikoteei dagokie. Kasu horretan, elkarrekin bizitzearen ereduaren inpaktua 1996ko % 6,2tik 2000ko % 10,5era eta 2004ko % 20,2ra igo zen. Alabaina, inpaktu hori murriztu egin zen ondoren, 2008an % 16,6 izanik eta 2009an, % 14,9. 2004an elkarrekin bizi ziren bikoteen gehiengo kopurua 31.389 zen eta 2009an 25.518 izatera igaro zen³⁹.

Elkarrekin bizitzeko egoeran seme-alabak dituzten bikoteen ehunekoak ez du % 5eko maila gainditzen 2008. urtera arte, nahiz eta 1996ko % 1,5etik 2004ko % 3,3ra igo zen; izan ere, 2008. urtean, % 6an kokatzen da, elkarrekin bizitzeko egoeran seme-alabak dituzten bikoteen kopurua 22.462 izanik. Krisialdiak mota horretako bikote kopurua ere jaitsarazi du, 2009an bikote kopurua 22.073 izanik, hain zuzen ere urte horretako seme-alabak dituzten bikote guztien % 5,3.

Krisialdi-egoeren eragina da nabarmentzeko hirugarren alderdia; izan ere, 1995. urtearen aurreko ezkontza kopuruak adierazten zuen moduan, errealitate ekonomiko zailtan elkarrekin bizitzeko ereduak beheranzko erantzuna ematen duela adierazten du. Krisialdiak, hain zuzen, elkarrekin bizi diren bikoteen kopurua murriztea ekarri zuen, 2009ko kopurua 47.590 arte jaitsiz –bikote guztien % 8,6–, hamarkadaren erdialdeko mailaren antzekoa eta 2008ko % 9,4ko maila baino txikiagoa.

³⁸ 1995etik aurrera ikusten den ugalkortasun-tasaren adierazleen errepukeperazioa elkarrekin bizitzearen eredia ugartzearekin batera ugartzen ari diren ezkontzaz kanpoko jaiotzen bilakaerarekin loturik dago. Ezkontzaz kanpoko ugalkortasun-indizea 0,09tik 0,34ra igo zen 1995-2007 aldian, hau da, ezkontzaren barruko adierazlearen hamarrenaren igoera gainditu zuen (azken adierazle hori aipaturiko aldian 0,82tik 0,92ra besterik ez zen hazi) 0,25 puntuko igoera izan zen. Dena den, oinarritzko gaia da soilik 90eko hamarkadaren erdialdean, susperraldi ekonomikoarekin batera, hasten den goranzko joeraren zergatia azaltzea.

³⁹ 2004an elkarrekin bizi ziren seme-alabarik gabeko bikoteen kopuruak izan zuen gailurraren nolabaiteko izaera iragankorraren irudia badirudi egonkortu egiten dela seme-alabarik gabeko bikoteen ehunekoaren adierazle elkarrekin bizi diren bikote guztien multzoan biltzen bada. Adierazle hori nahiko egonkor mantentzen da 1996-2009 aldian, % 53,5 eta % 57,5 bitartean, 2004. urtean izan ezik; izan ere, urte horretan, % 73 arte igo zen. Aurrekoa alde batera utzi gabe, seme-alabak dituzten bikoteei dagokien adierazlearen epe luzerako igoera erlatibo handiagoak (aipaturiko 2004. urtean izan ezik) epe luzera eragin du elkarrekin bizi diren eta seme-alabarik ez duten bikoteen ehunekoa pixka bat jaistea. 1996ko % 57,3tik, 2000ko % 56ra, 2008ko % 57ra eta 2009ko 53,6ra igaro zen.

Ekonomia-eremuko zailtasunezko egoeretan elkarrekin bizitzeko ereduaren fenomenoak ez da negatiboki erantzuten duen bakarra. Ekonomiaren moteltzeak eta krisialdiak dibortzioen, banantzeen eta ezkontza-deuseztasunen kopuruaren bilakaeran ere eragina izan dute. Horrela horien kopurua jaitsi egin zen, 2007an 5.333 zen eta 2008an, 4.531. Bestalde, 2006an ezkontza guztien gainean % 58,7 ordezkatzen zuten eta 2008, berriz, % 46,7.



Zenbait oinarritzko planteamenduren jarraitutasuna

Nolanahi ere, ez da zuzena sekularizazioa (edo erlijio-balioen krisialdia) eta familia-sistemaren krisialdia lotzea. Egia esateko, sistema horrek hasieran espero zitekeena baino egonkortasunerako joera handiagoa dauka epe luzera, oinarrian gizartean duen garrantziari eutsiz baina malgutasun handiagoarekin eta barne-askatasunean eta sexuen berdintasunean oinarrituta.

Izan ere, oinarritzko familia-balio batzuen jarraitutasuna dinamika demografikoarekin loturiko funtsezko alderdietan ikus daiteke, bereziki familiaren seme-alaba kopuru ideala aintzat hartzerakoan. 90eko hamarkadaren amaieran kopuru hori 2,33 zen (batez besteko seme-alabak) 30 urtetik gorakoentzat eta 2,27 adin horretatik beherakoentzat. Ondorengorik eduki nahi ez duen pertsonen ehunekoa marjinala da bi kasuetan (30 urtetik gorakoetan, % 2 eta adin horretatik beherakoetan, % 1).

Etxekoen unitatetik ateratzeko adin idealari dagokionez ere, nolabaiteko jarraitutasuna ikusten da belaunaldi desberdinetan. 30 urtetik gorakoetan 25,5 urteko adina da aukeratuena eta 30 urtetik beherakoetan hori baino adin baxuagoa (24,9 urte).

90eko hamarkadaren amaierako eta mende berriaren lehen urteetako susperraldi ekonomikoaren testuinguruan Euskadiko biztanleria heldu gaztearen emantzipazio tasen pixkanakako egokitzean atzeman daiteke planteamendu desberdinetan oinarritzko jarraitutasuna izateak gizartean duen eragina. 35 urtetik beherako emantzipazio-tasen jaitsierarekin (2000n % 21,9an kokatuz) kontrastean, 2004an % 36,5era igo ziren eta 2009an % 41,1eko mailara iritsi ziren.

Aldaketa hori batez ere 25 urtetik gorako pertsonetan ikus daiteke. 25-29 urtekoen kasuan, 2000-2004 aldian % 20,3tik % 17,5era jaitsi ondoren tasa % 34,5era igo zen 2004an eta igoerak 2009an % 37,6ra iritsi arte jarraitu zuen. 1996-2000 aldian % 58,6tik % 54,3ra jaitsi ziren emantzipazio-mailak baina 30-34 urteko pertsonen kasuan 2009an % 75,4raino igo ziren. Emantzipazio-prozesuen aurrerapena 2000. urtean independizatu gabeko 18-44 urteko pertsonen bolumenaren jaitsiera bortitzean atzeman daiteke; 2000. urtean 524.889 pertsona ziren eta 2008an, 338.787.

Datuek 2000. urtetik aurrera (garai horretan gazteen belaunaldien zati handi batek emantzipaziorako urratsa egin zuen) atzemandako funtsezko aldaketa erakusten dute, hain zuzen 2000-2004 aldian irauten duen prozesua da baina hazkunde-erritmo askoz moderatuekin



eta etxekoen unitate nuklearren garrantziaren igoerarekin batera. Horrela, familia-sistemaren krisialdiaz baino gehiago eraldaketaz edo egokitzeaz hitz egin daiteke eta horrek bereziki jaiotza-tasaren jaitsieraren oinarri ekonomikoak kontuan hartzea behartzen du.

2.3. Jaiotza-tasaren jaitsieraren oinarri ekonomikoak

Elkarrekin bizitzeko eredua ezartzeko prozesuak 90eko hamarkada arte ia eraginik izan ez duenez, beharrezkoa da onartzea 70eko eta 80ko hamarkadetako krisialdiaren inpaktua urte haietan ikusitako ugalkortasun-tasaren eta jaiotza-tasaren jaitsiera handiaren oinarrian dagoela. 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera ematen den enpleguaren hazkuntzarekin batera ikus daitekeen ugalkortasun-tasaren eta jaiotza-tasaren errekupeazioaren intentsitatea ere izaera ekonomikoa duten hainbat mugak baldintzatzen dute. Ildo berean, 2008-2009 aldiko krisialdiak elkarrekin bizitzeko sistemaren garrantzia murriztea eta dibortzio kopurua jaitea ekarri du.

Aurreko prozesuak ulertzeko beharrezkoa da langabeziak, kolokatasunak eta enplegu eskuragarriaren kalitate eskasak eraginpean hartutako gazteen belaunaldi batzuen prekariedadegoera bereizgarria kontuan hartzea.

2.3.1. Biztanleria gaztearen enpleguarekiko kolokatasuna

Langabeziarekiko eta behin-behinekotasunarekiko hurbilketa zehatz batek erakusten du egoera horiek inpaktu bereizgarria dutela 40 urtetik beherakoen biztanleria heldu gaztean. 2009an langabeziako edo aldibaterakotasuneko egoerek eraginpean harturiko pertsonen % 68,5 40 urtez azpikoak ziren (alabaina, proportzio hori azken urteetako baxuena da, egiaztatu baita 2003an eta 2007an % 70-75 izan zela eta 1993an eta 1997an, % 80).

2009an, 16-39 urteko biztanleriaren % 36,3k aipaturiko arazo hori dauka, 2,2 puntu 2007ko % 34,1aren gainetik. Proportzioa handitzen doa 90eko hamarkadako bigarren erdiko hazkundearen aurreko garaira hurbiltzen garen neurrian, 2003an % 42,3aren inguruko zifrak izanik eta 1993an eta 1997an % 55aren ingurukoak.

Beraz, zifrek erakusten dute langabeziaren eta aldibaterakotasunaren fenomenoaren inpaktu handienaren aldia –1993-1997 aldia–, Euskadiko 40 urtetik beherako biztanleria aktiboaren % 55 inguru fenomeno horietakoren batek eraginpean hartu zuela. Egiaztapen horrek berez

ugalkortasun-tasaren minimo historikotzat hartzen diren zifrak ematen diren testuingurua kokatzen du. 90eko hamarkadaren bigarren erdialdean eta mende berriaren lehen hamarkadan adierazle horiei dagokien igoeran ikusitako mugak langabeziaren eta aldibaterakotasunaren intzidentzia-tasa oso altuei eustearekin lotu behar dira. 2007an, Euskadin enplegua sortzeko garairik onenean, 40 urtetik beherako biztanleria aktiboaren % 34,1 oraindik aurretik aipaturiko egoeran zegoen.

Soldata baxuen inpaktua ere handiagoa da 40 urtetik beherako biztanlerian (% 8,6 edo % 27 batez besteko diru-sarreraren % 60aren edo % 75aren erreferentzia hartzearen arabera). Bestalde, datuen arabera, azpiokupazioaren arazoak gehien bat gazteenengan biltzen dira, horrela eragindakoak 40 urtetik beherakoen % 62,5 izanik.

Bestalde, 2008-2009 aldiko krisialdiak biztanleria gaztean izan duen inpaktua erabakigarria izan da. Termino soziodemografikotan, okupazioaren jaitiera 40 urtetik beherako biztanleriari dagokio oso-osorik eta biztanleria horretan okupazio-maila % 30,2 jaitsi da.

Bestalde, errealitate horrek azaltzen du zergatik euskal gazteen emantzipazio-tasak ongizate-maila handiagoa duten Europako herrialdeetan atzemandako tasen azpitik kokatzen diren, nahiz eta azken urteetan susperraldia gertatu den. Mendebaldeko Europan gurasoekin bizi diren 18-29 urteko gazteen proportzioa bizitza emantzipaturako bidea lehenago hartzen duten Mendebaldeko Europako herrialdeetako (Danimarka, Finlandia, Herbehereak, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Belgika eta Austria) adierazlearen medianarekin konparatuz gero, egiazta daiteke Euskadiko adierazleak Europakoa 13,2 puntuan gainditzen duela 18-24 urteko gizonezkoen kasuan, 24 puntuan adin-talde horretako emakumeen kasuan, 29,9 puntuan 25-29 urteko gizonezkoen kasuan eta gehienezko 34,6 puntuko balioan azken adin-talde horretako emakumeen kasuan.

Euskal gazteen emantzipazioaren atzerapena eragiten dien prekarietate ekonomikoaren arrisku-maila handiarekin lotzen da. Diru-sarrera pertsonalak soilik kontuan hartuta –etxeko unitateko gainerako kideenak alde batera utzita–, 25 urtetik gorakoentzat edo adin horretatik beherako ikasleentzat bakarka bizitza independente baterako bidea hartzeak pobrezia pertsonalerako % 47,6ko arriskua ekarriko luke 24 urtetik beherakoetan eta % 30 inguruko arriskua 25-44 urtekoetan. Arrisku-maila bereziki altua da 45 urtetik beherako emakumeen artean (% 46,1) baina oraindik gizonen % 17,4ri eragiten die.



Adierazitako datuek argi uzten dute pobreziaren eta ongizaterik ezaren arriskuak biztanleria gazteak bizitza independentea lortzeko izan ditzakeen zailtasunen azalpen-elementu izan daitezkeela.

2.3.2. Pobrezia eta ezkutuko prekarietate ekonomikoa

Biztanleriak bizitza independentea lortzeko dituen arazoak gizartean garrantzi handia dutenez, horiek neurtzeko interesa izan da Euskadin azken urteetan egin den lan estatistikoaren zati handi baten ezaugarria. PGDIak eta GPIak arazo horiek biztanlerian duten inpaktua % 10,1etik % 11,5era bitarteko zifretan kokatzen dute. GPIaren arabera, EAEko 247.349 pertsonari eragiten diete etxekoen unitatetik independizatu nahia izanda arrazoi ekonomikoengatik hori egin ezin dutenen egoerek ⁴⁰. 2008ko PGDIak, aldiz, 126.199 pertsonatara mugatzen du benetan etxekoen unitate berri eta independente bat eratu nahi duten pertsonen kopurua. Horietatik 107.300 pertsonak (EAEko biztanleria osoaren % 5aren baliokidea den zifra) horretarako baliabide ekonomikorik ez duela adierazten du. Behar adina baliabide izango balituzte, 31.437 pertsona segurtasun osoarekin independizatzeko lirateke urtebeteko gehieneko epean, eta kopuru hori 72.238 pertsonatara igoko litzateke, adierazitako epean aukera horri buruz pentsatu dutenak barnean hartuko balira.

18-44 urteko independizatu gabeko biztanleria erreferentziazat hartuta, (hor kokatzen baita arazoaren oinarria), independentzia-eskaeraren kopurua % 30,3ra iristen da independizatu nahian dabilzan baina diru-sarrerara nahikorik ez duten pertsonen dagokienetz eta % 8,6ra diru-sarrerara nahikorik ez izanagatik ere urtebete baino lehen independizatu nahi luketenei dagokienetz. Espero bezala, modu independentean bizi nahi baina baliabide ekonomikorik ezean asmo hori gauzatzerik ez duten pertsonen ezaugarri soziodemografiko nagusia gaztetasuna da (hain zuzen ere, independizatzeko arazoak dituzten lagunen % 82,7 35 urtez azpikoa da ⁴¹.

Epe laburrean independizatu nahiko luketen lagunen (72.238 lagun) independizatzeko zailtasunak eragin dituzten arrazoiak zehatz-mehatz aztertzerakoan, honako oztopo nagusi hauek atzeman dira: etxebizitza propio bat eskuratzeko zailtasuna eta pobreziaren edo

⁴⁰ PGDIaren arabera 216.376 pertsonari eragiten die.

⁴¹ Gainera kolektibo horretan ikasketa kalifikatuak dituzten pertsonak eta landunak nagusitzen dira. Hain zuzen ere, landunak aztertutako kolektiboaren % 76 dira, langabeak % 9,3 eta ez-aktiboak % 14,7. Hala, % 41,7 langabea edo kontraturik gabeko landuna edo aldi baterako landuna den arren, kontratu mugagabea duten landunei dagokien proportzioa dezente hurbiltzen da (% 39,6).



ongizaterik ezeko egoeran erortzeko arrisku handia (azken horrek aztertutako lagunei eragingo lieke, baldin eta bizitza independentea lortzeko prozesua bermatuko balitz).

Hala ere, bizitza independentean oinarritzko premiei aurre egiteko zailtasunarekin lotutako arazoak independizatzeko oztopo nagusi gisa sendotzen dira 2008ko Euskadin. Aztertutako lagunen % 41,5ek horixe adierazi dute oztopo nagusi gisa, eta horien azpitik, etxebizitza-gabezia aipatu dutenak % 26,6 dira, eta enplegu-gabeziarekin edo ezegonkortasunarekin lotutako arazoak aipatu dituztenak % 19,6 dira (horietan biltzen dira enplegu egonkor jakin batzuekin, soldatapekoekin nahiz autonomoekin, lotutako diru-sarrera txikiak ere).

Guztira, epe laburrean etxe berri bat eratzeke arazo ekonomikoak dituzten lagunen % 59,4k arazo horren eta etxebizitzarik eta etxebizitzarako inbertsiorik ez izateari lotutako arazoen artean harreman objektiboa dagoela uste du. Aldi berean, gizarteak ezarritako ongizate-minimoen azpitik edo pobrezia-aren arriskupean kokatzeko arriskua ere kontuan hartzekoa dela uste dute lagun horiek. Egoera horrek gure Autonomia Erkidegoko 42.931 laguni eragiten dio, independizatu gabeko 18-44 urteko lagun guztien % 12,7ri. 2004. urtearekiko hobekuntza (urte horretan % 13,6 eta eraginpean harturiko 59.382 pertsona) kontuan hartuta ere, zifrek adierazten dute independizatzeko-defizitak biztanleria gaztean duen eragina oraindik ere handia dela eta gainera Euskadiko pobrezia- eta prekarietate-tasen gorakako presioaren elementu eragilea dela.

2.3.3. Prekarietate ekonomikoaren inplikazio demografikoak

Biztanleria gazteak bizitza independentea lortzeko prozesua garatu duen testuinguru ekonomikoaren ezaugarriek portaera demografikoak baldintzatu dituzte. Pobrezia-aren eta ezkutuko prekarietatearen inpaktuari loturiko emantzipazio-prozesuen atzerapenak ez dute soilik ezkontzeko adina edo bikote moduko bestelako bizikidetza motak eratzeke adina atzeratu. Izan ere, amatasuna gauzatzeko adinaren atzeratzea ere eragin du, Euskadin amatasunerako batez besteko adina oso altua izanik, 32,2 urte ⁴².

Emantzipazio prozesuen atzeratzeak jatorrizko etxeko unitatean bizitzen jarraitzeari loturiko ezkongabetasunaren luzapena ere ekarri du. Jatorrizko etxeko unitatean bizitzen jarraitzen duten seme-alaba ezkongabeek duten garrantzia erreferentziatzat hartuta, 80ko hamarkadaren

⁴² Seme-alabak izateko adina atzeratzeak bestelako inplikazioak ditu, esaterako, adinak gora egin ahala bikotearen ernalkortasun-tasa murrizten denez, ugalkortasunik ezeko arazoak areagotzea. Errealitate horrek eragiten du bikote batzuek adopzioaren alternatiba hautatu behar izatea. 2008ko Familiari buruzko Inkestaren arabera 2.557 etxeko unitate daude egoera horretan (guztizkoaren % 0,3).

hasieratik 90eko hamarkadaren hasierara gertatutako funtsezko aldaketa soziala ikus daiteke. 30-34 urteko pertsonen taldean ezkongabe guztien proportzioa % 16,2tik % 14,6ra jaitsi ondoren, seme-alaba ezkongabeen proportzioa erreferentziako adin horretan % 31 izatera igaro zen 1993an. Proportzioak igotzen jarraituko du 2000. urtean % 40,3ra iritsi arte.

Joera hori areagotu egiten da 25-29 urteko pertsonen artean. 1970-1981 aldian ezkongabeen proportzioa % 36,3tik % 30,8ra jaitsi ondoren, seme-alaba ezkongabeak 1993. urtean jadanik adin-talde horretako guztizkoaren % 74,5 ziren eta proportzioa % 80,2raino igo zen 2000. urtean. Intentsitate gutxiagorekin eta 20-34 urteko biztanleriaren artean ikusitako egutegiarekiko atzerapen txiki batekin, azkenean, 35-39 urteko pertsonak era eraginpean hartzen ditu arazoak. Gurasoekin bizi diren seme-alaben proportzioa % 10,8an kokatuta (1970ean adin-talde horretan zeuden ezkongabeen % 12,7aren azpitik), 1996tik aurrera igoera esanguratsu bat ikus daiteke eta 2000-2008 aldian seme-alaba ezkongabeen proportzioa % 15tik % 16ra bitarteko tartean kokatu zen.

Egoera 2000. urtetik aurrera hobetu zen. Seme-alaba ezkongabeen garrantziaren adierazle erlatiboa 25-29 urtekoen artean 2000. urteko % 93,3tik 2009. urteko % 61,1era jaitsi zen. Beheranzko joera berdina atzematen da 30-34 urteko pertsonen artean ere: 2000. urteko % 40,3tik 2009. urteko % 23,6ra igaro zen adierazlea. Jaitsiera 2009. urtera arte atzeratzen da 30-35 urteko pertsonen kasuan, urte horretan eta adin-talde horretan seme-alaba ezkongabeen proportzioa % 12 izanik.

35-39 urtekoen artean, 2009ko adierazlea 1970ekoaren oso antzekoa da eta % 12-16 tartean kokatzen da baina, aldiz, adin horretatik beherako pertsonen dagokien adierazlea gaur egun oraindik pixka bat altuagoa da. Diferentzial argiena 25-29 urtetako pertsonen dagokiena da, 25 puntu ingurukoa: 2009an % 61,1 eta 1970ean % 36,3. Desberdintasunak 5 puntu ingurura murrizten dira 20-24 urteko pertsonetan (2009an % 85,1 eta 1970ean % 80,2) nahiz 30-34 urteko pertsonetan (% 23,6 eta % 16,2 erreferentziako bi datatan).

Euskal gizarteak bere bizitza sozialeko zenbait alderditan modernitate handiko ezaugarriak azaltzen baditu ere, ezkongabetasuna luzatzea eta emantzipazio-prozesuak atzeratzea industria aurreko gizarteetan jaiotza-tasa kontrolatzeko erabiltzen ziren berezko mekanismoak gogora ekartzen dizkiguten portaerak dira.

2.4. Gizarte- eta demografia-ugalketako arazoen inpaktua

Aurkeztutako datuak ikusita, ez da harritzekoa gizarte- eta familia-ugalketako arazoen hainbesteko garrantzia izatea euskal gizartean. Pertsonen bizitza independentea lortzeko aukerekin zerikusia duten alderdiak kontuan hartzen baditugu, 2009ko Familiei buruzko Inkestan ikus dezakegu etxekoen unitateen % 16,3k adierazi duela arazo horiei loturiko zailtasunen bat duela eta % 12,8k garrantzi berezia ematen diela arazo horiei.

Bizitza independentea lortzeko arazoak

Arazo nagusia seme-alabek bizitza independentea eramateko dituzten zailtasunekin loturik dago; hori adierazten du etxekoen unitateen % 8,9k eta % 7k, garrantzitsutzat jotzen du. Puntu horri dagokion beste oztopo nagusia da etxekoen unitate horietako batzuek beren etxebizitza propioa lortzeko nahia betetzeko dituzten zailtasunek osatzen dute. Etxekoen unitateen % 7,1ek aipatu du alderdi hori eta % 5,8k alderdi garrantzitsutzat dauka.

Bilakaerari dagokionez, aipaturiko arazoen inpaktua jaitsi egin da 2004-2008 aldian, batez ere lehen etxebizitza erosteari loturiko arazoei dagokienez (% 8,2tik % 5,8ra), eta neurri txikiagoan, seme-alabek bizitza independentea lortzeko dituzten zailtasunei dagokienez (% 9,4tik % 7ra).

Demografia-ugalketari loturiko arazoak

Bestalde, Familiei buruzko Inkestan, etxekoen unitateen % 2,1ek adierazi du ezin duela seme-alabarik izan baliabiderik ezagatik (proportzioa % 1,4 da arazoa lanarekin zerikusia duten zailtasunen ikuspegitik ikusten bada).

Modu zehatzagoan, pertsona nagusia (edo bere ezkontidea) adin emankorrean –horretarako 18-49 adin-tarte zabala hartzen da erreferentziatzat– dagoen emakumea den kasuko etxekoen unitateak kontuan hartuta, egiaztatzen da Euskadiko 20.580 etxekoen unitateetan (EAEko guztizkoaren % 2,6) gertatzen dela egoera hori eta 18.831 etxekoen unitateek gutxienez nahiko garrantzitsutzat jotzen dutela alderdi hori.

Kontuan hartutako etxekoen unitateen % 49,7an daude lanari loturiko arazoak, eta horietako % 20,8an hori izaten da zailtasun bakarra. Alabaina, diru-sarrera nahikorik ez izatearekin zerikusia duten arazoen inpaktua handiagoa da; kasu guztien % 50,3an arazo bakarra da nahiz eta horien % 79,2an agertzen den. Diru-sarrera nahikorik ez izatearekin zerikusia duten



arazoen egiteko bereizgarria seme-alabak edukitzeko aukerarik ez izateari ematen zaion garrantzia handitzen den neurri berdinean handitzen da. Etxekoen unitate mota horietan diru-sarrerekin eta gastuekin zerikusia duten arazoen inpaktua erabakigarria izaten da. Horietako % 82,8k mota horretako arazo orokorrak planteatzen ditu eta % 62,6 oinarritzko arazoren baten eraginpean hartuta dago.

Erreferentziako etxekoen unitateetan arazo horrek eraginpean hartutako emakumeei dagokienez, kasuen % 64,7an 30-39 urtetako pertsonak dira eta % 21,2an adin horretatik gorakoak dira. 30 urtetik beherakoak guztizkoaren % 14,1 baino ez dira. Diru-sarrerarik ezari edo lanari dagozkion arazoei loturiko alderdiak direla-eta seme-alabak edukitzeko zailtasun handienak dituen familia motarekin loturik daude datu horiek. Azken batean, seme-alaben kopurua handitu nahi luketen familiak dira, beren kargurako seme-alabak dituzten gurasoen etxekoen unitateen gaur egungo kasuen % 67,8 (zifra absolutuetan, 13.943 kasu). Seme-alabarik gabeko bikoteez osatutako etxekoen unitateak, ondorengorik ez dutenak alegia, guztizkoaren % 23,4 besterik ez dira (termino absolututan, 4.826).

2004an eta 2008an zeuden egoeren arteko konparaketa eginez, egiazta daiteke eraginpean hartutako etxekoen unitateen kopuruari eutsi egin zaiola funtsean -20.580, 2008an eta 20.783, 2004an- eta egiturazko datuak ere funtsean antzekoak direla. Bestalde, etxekoen unitate horietan arazo ekonomikoek duten inpaktu bereizgarria handitu da, hau da, 2004an diru-sarreraren eta gastuen oinarritzko arazoek % 54,1ean eragiten zuen eta 2008an % 62,6an (% 78,1etik % 82,8ra diru-sarrerekin eta gastuekin zerikusia duten arazoen multzoa kontuan hartzen bada).

GPIak ere lantzen du alderdi hori eta agerian uzten du 2006an Euskadiko etxekoen unitateen % 6,2k -guztira, 48.651- ugalketarekin zerikusia zuten arazoak zituela eta ez zituztela nahi adina seme-alaba edukitzen baliabide ekonomikoen eskasiagatik, lan-arloko segurtasunik ezagatik edo seme-alaben zaintza- eta arreta-premiekin loturiko arazoengatik. Kasu gehienetan (% 91,9) etxekoen unitateko pertsona nagusia 50 urtetik beherakoa da. Pertsona nagusia adin horretatik beherakoa deneko kasuetara mugatuz, ugalketa-arazoak dituzten etxekoen unitateen proportzioa % 14,3raino iristen da, hau da, eraginpean harturiko 44.691 etxekoen unitate.

Arazo horien eragina oso txikia da 45 urtetik gorako pertsona nagusien kasuan (etxekoen unitate horien % 1,6k baino ez du ugalketa-arazorik). Eragina % 11,5era iristen da 35-44 urteko pertsona nagusia duten etxekoen unitateetan, eta % 25-30era 35 urtetik beherako pertsona nagusia duten etxekoen unitateetan. Beraz, garrantzi handiko gizarte-arazo bihurtu



da. Hala ere, ez da ahaztu behar arazoak dituzten etxekoek unitate gehienetan (% 54,5ean) pertsona nagusiak 35 urte edo gehiago dituela.

Maizen agertzen den oztopoa baliabide ekonomikoek eskasiari edo etxebizitza egokirik ezari lotzen zaio: ugalketa-arazoak dituzten etxekoek unitateen % 70,8k aipatu du zirkunstantzia hori. Dena dela, gainerako egoera problematikoak ere aipatu dituzte biztanle gehienek. Adibidez, ugalketa-arazoak dituzten etxekoek unitateen % 62,5ek zaintzari lotutako arazoak ditu, eta % 54,8k, berriz, laneko segurtasunik ezari lotutako arazoak.

Atzemandako ugalketa-arazoen kasuen % 53a honako alderdi hauekin zerikusia duten arazo larri edo oso larriek loturikoa zen: oinarrizko premiak betetzea, etxebizitzaren kalitatea edo ezusteko gastuei (horietako bat seme edo alaba bat edukitzea izan daiteke) aurre egiteko ahalmenik eza. EAEko 25.786 etxekoek unitate daude egoera horretan, guztizkoaren % 3,3.

Alabaina, nabarmentzekoa da oinarrizko premiak betetzeko, gutxieneko kalitatezko etxebizitza bat lortzeko edo ezusteko gastuei aurre egiteko arazo larriek ez duten etxekoek unitateetan atzeman izana ugalketa-arazoen % 47a. Gabezia handiegirik ez badute ere seme-alabak izateko zailtasun ekonomikoak adierazten dituzten 22.865 etxekoek unitateen arriskuzko ezaugarri ekonomikoetan sakontzen denean, oso argi azaltzen da etxebizitza-gastuek betetzen duten zeregin bereizgarria. Horrela, arrisku-egoera deigarrienak kontuan hartzen direnean segurtasun-gabeziaren pertzepzioa agertzen da, erreferentziako etxekoek unitateen % 48,2ri dagokiona baina batez ere etxebizitza-gastuak, erreferentziako etxekoek unitateen % 65,4an diru-sarreraren % 30a gastu horietara zuzentzen baita.

Kontuan hartutako kasu problematikoen % 81,7 lan-arloan sentitzen den segurtasunik ezari edo etxebizitzaren arloko gastu handiei zuzenean lotuta dago. Horrela, beraz, etxebizitzaren kostuarekin eta enpleguaren ezegonkortasunarekin batera prekariedade ekonomikoa ere familiek nahi duten ugalketa-mailara iristeko aukerak mugatzen dituzten faktoreetako bat da.

2.5. Jaiotza-tasaren jaitsiera eta zahartze-prozesua

Euskadin ikusitako desoreka demografikoek ondorio garrantzitsuena biztanleriaren zahartzea da. Ildo horretan, jaiotza-tasaren jaitsieraren ondorio erabakigarri bat EAEko 35 urtetik beherako biztanleriaren beheranzko joera da. Euskadin gaur egun 1975ean zegoen 15 urtetik beherako haurren bolumenaren % 49,8 besterik ez dago eta bilakaera are negatiboagoa da 15-34 urteko biztanleriari dagokionez: 2010. urtearen hasieran, adin-talde horretako pertsonen bolumena 509.551 zen, 1975ean zegoena baino % 19,8 gutxiago.



Bilakaera horrek inplikazio handiak ekartzen ditu produkzio-sisteman, batez ere, biztanleria potentzialki aktiboaren bolumen-murrizketaren terminotan; biztanleria hori beheranzko presio baten eraginpean hartuta dago eta horrek immigrazioa izan den eta segur aski izango den ekarpen-testuinguruan ere eragina du. Adin potentzialki aktiboko euskal biztanleriaren egungo lanerako joerari eusten bazaio, aktiboen kopurua 1.035.133 izatetik 875.520 izatera igaroko da 2009-2030 aldian.

Deskribatutako prozesuaren alderdi problematikoetariko bat da EAEn ikasketa kalifikatuak dituen biztanleriaren beherakadaren terminotan izan dezakeen inplikazioa. Krisialdi demografikoaren inpaktu negatiboa ikasketa kalifikatuak dituzten 30 urtetik beherakoen —aktiboen edo potentzialki aktiboen— erabateko beherakadan ikus daiteke 1999. urtetik aurrera. 1999. urtean 147.364 pertsonako gehiengoa izan ondoren, kopurua jaitsi egin zen, 2007an 110.503 izan arte. zen. Ikasketa kalifikatuak dituzten 30 urtetik beherako pertsonen adin-talde horretako biztanlerian duten garrantzi erlatiboa igo bada ere (14 puntu 1995ekoaren gainetik), pertsona horien kopurua termino absolututan 1995eko kopurua baino txikiagoa da (113.244).



3. LAN ETA FAMILIA BIZITZA UZTARTZEA

Emakumeak lan-munduan sartzea izan da azken hamarkadetako dinamika sozioekonomikoan atzemandako aldaketa garrantzitsuenetariko bat eta horrek norberaren errealizazioa etxetik kanpoko lan-bizitzan parte hartzearekin lotu duen aldaketa kultural sakona bistaratu du.

Emakumeak garapen pertsonala lortzeko dituen nahietara (hezkuntzaren bidez, produkzio-sisteman sartuz eta karrera profesional bat garatuz) egokitu behar izan da familia-eredua. Horrek aldaketa garrantzitsuak ekarri ditu familiako kideen zeregin eta itxaropenetan. Aita/ama eta senar/emazte paperen arteko bereizketa eta funtzio eta zereginen banaketa neurri batean lausotu egin da. Familian berdintasuneko harremanak eta familiako kideen artean (baita bikotean ere) benetako aukera-berdintasuna sendotzeko prozesua pixkanaka nagusitzen joan da, hain zuzen ere, lanetik eratorritako diru-sarrera propioak lortzeak emakumeari ahalbidetu dion autonomia-mailak sustatuta. Agertoki berri horretan, gazte gehienek espero dute emakumeak bere etxetik kanpoko lanari eustea bikotea osatzen duenean nahiz seme-alabak izan ondoren, haiek eskola-adinean daudenean edo etxeko unitatea uzten dutenean.

Alabaina, emakumeak lan-munduan txertatzeak zenbait egokitze-arazo planteatzen ditu gizarteari eta familiari dagokienez. Hori argi ikusten da gazteen belaunaldi berriek seme-alaben zaintza-premiei erantzuteko lan-mundutik irtetea –aldibaterako eta orokorrean, modu partzialean– planteatzen duten zirkunstantzietan; irteera batez ere seme-alabak eskolaurreko adinean daudenean gauzatzen da baina biztanleriaren gutxiengo baten kasuan, baita eskolaldiaren zenbait fasetan ere. Zirkunstantzia horietan –baita etxeko unitatean inoren laguntza behar duten pertsonen zuzenduriko arreta berezia eskatzen duten beste batzuetan ere– denbora partzialeko lana aukera garrantzitsua izaten da lan- eta familia-bizitza uztartzeko mekanismo modura. Seme-alabak eskola-adinean daudenean baita adin horretara iritsi aurretik ere gazteen % 30-50ek nahiago du lan-modalitate hori.

Batzuetan, lan- eta familia-bizitza egokitzeko arazoek (emakumearen kasuan) seme-alabak izateko aukera ere eraginpean hartzen dute, zenbait produkzio-eremutan epe luzeko karrera profesionala sendotzeko zailtasuna dela-eta.

Azken batean, emakume asko lanera sartzeak zirkunstantzia batzuetan honako dilema hau planteatzen du: jardun profesionala etxeko lanekin eta seme-alaben zaintzarekin (eta batzuetan baita seme-alabak izateko aukerarekin ere) bateratu behar izatea. Egoera horretan askotan gatazka planteatzen da, hau da, emakumearen lan-errealitatearen eta bere etorkizun



profesionala sendotzeko nahiaren eta euskal emakumeek nahi luketen seme-alaba kopuru nahiko altua izateko aukeraren artean. Arazoa areagotu egiten da mendetasun- edo desgaitasun-egoeretako arreta-premiak daudenean.

Alabaina, fenomeno hori ez dagokie soilik emakumei. Ildo horretan, lan- eta familia-bizitza uztartzeak etxeko lanetan parte hartzerakoan eta inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzerakoan gizonengandik espero den zeregin berria ere planteatzen du. Era berean, honako hauek ere planteatzen ditu: enpresak beren langileen familia-premiei egokitzeko arazoa eta erakunde publiko eta pribatuek familiak egoera soziorabial berrira hobeto egokitzea ahalbidetuko duten zerbitzu soziokomunitarioak garatzerakoan duten zeregina. Horrela, emakumeen lana pixkanaka orokortzeak lan-, gizarte- eta familia-bizitza uztartzeko prozesuen garrantzia areagotzen badu, gizonengan nahiz emakumeengan atzemandako aldaketek izan duten inpaktua kontuan hartzen duen ikuspegi orokor batetik ikusi beharko da errealitate hori.

3.1. Arreta-premiak

Adingabeen zaintza

Adingabeen biztanleriari dagokionez, arazoak batez ere haurtzaindegietan edo ikastetxeetan zaindu ezin diren 3 urtetik beherako adingabeen ingurukoak dira; izan ere 3 urtetik gorako eskola-premiei Euskadin ematen zaien arreta ia-ia unibertsala da.

Asistentzia-sisteman desoreka dagoela erakusten duten arrazoiak direla-eta zaintzen ez diren adingabeen proportzioa % 4,7 besterik ez da 3 urtetik beherako biztanlerian (3.194 kasu). Kasu horien % 26,4an errealitate hori zentroak hartutako ezezko erabakiari loturik dago, arreta ukatzearen erabakiari alegia. Gainerako kasuei dagokienez, % 52,6an kostuarekin zerikusia duen eskaririk eza gertatzen da (gainerako arrazoi oso ginetik nabarmenduta), % 13,8an eskola etxebizitzatik oso urrun kokatua egotea eta % 7,2an ordutegi desegokia izatea.



Desgaitasunei loturiko mendetasunaren arreta

2006ko GPIak gaixotasunek, desgaitasunek edo adin aurreratuak eragindako muga funtzionalak biltzen dituztelako mendetasun berezirako inplikazioak dituzten 117.584 kasu atzeman zituen. Kopuru hori EAEko biztanleriaren % 5,5aren baliokidea da, 2008ko Familiei buruzko Inkestak erregistratutako % 6,4ko ehunekotik hurbil. Alabaina, mendetasun bereziko 58.850 pertsona (guztizko biztanleriaren % 2,7) praktikan autonomoak dira edo gehienez, mendetasun-arazo arinak dituzte; mendetasun ertaineko kasuak 22.453 dira (% 1) eta mendetasun larri edo osoa dutenak 36.281 pertsona dira (guztizkoaren % 1,7).

Goranzko joera ikusten da mendetasun-arazoez oro har duten inpaktuan (Familiei buruzko Inkestaren arabera 2004ko % 4,4tik 2008ko % 6,4ra igo da) eta horrek larritasun-maila desberdinetan du eragina. Errealitate hori zuzenean euskal gizartearen zahartzearekin lotuta dago ⁴³, eta lotura estua ikusten da mendetasunaren eta adin aurreratuaren artean. Laguntza motaren bat edo mendetasun bereziren bat biltzen duten kasuak erreferentziatzat hartuta, arazo horien intzidentzia modu esponontzialean handitzen da adinak gora egin ahala. Mendetasun-tasei dagokienez, 2008an 45 urtetik beherako pertsonen artean % 2,5eko zifrak edo horien ingurukoak zeuden baina 45-54 urteko pertsonen artean % 4,3ra igozen dira, 55-64 urtekoen artean % 6ra eta % 11,9ra 65-74 urtekoen artean. 75 urtetik aurrera ikusten da igoera handiena; izan ere, mendetasun-arazo esanguratsuek eraginpean hartutako adin horretatik gorako pertsonen proportzioa % 32raino heldzen da.

Egoera zailagoei dagozkien datuek, hau da, mendetasun osoari edo larriari dagozkienak – etengabe zaintzak eskatzen dituztenak – are argiago erakusten dute adin aurreratuakiko lotura dagoela. Horren intzidentzia % 1 edo horren ingurukoa da 64 urte arte, % 2 ingurukoa 65-74 urtekoetan eta % 11,5-12,5 inguruko zifretara igozen da 75 urteko edo gehiagoko pertsonetan.

Oro har, zaintza bereziak behar dituztenen % 60,7k 75 urte baino gehiago dituzte. Proportzio hori % 47,6 da mendetasun berezia duten edo arreta motaren baten beharra biltzen duten egoerak oro har kontuan hartuta eta 55 urtetik gorako pertsonen multzoa kontuan hartuz gero % 75,9ra iristen da.

⁴³ Jaiotza-tasa txikiari eustearen eta bizi-itxaropena luzatzearen ondorioz, biztanleria zahartzen ari da, pixkanaka. 1975. urtean 65 urtetik gorako biztanleak guztizkoaren % 8,3 ziren, baina 2000n % 17,2 izatera heldu ziren. Proportzioak igozen jarraitzen du 2010eko % 19,2 arte eta 2030erako % 26,1erainoko igoera aurreikusten da. 75 urtetik gorakoaren proportzioa 1975ean adineko biztanleria osoaren % 32,8 izatetik 2010ean % 52 izatera igaro da. Bestalde, 85 urtetik gorakoena 1975eko % 5,1etik 2010eko % 13ra igo dira.



Gaixotasunezko, desgaitasunezko edo baliaezintasunezko egoera larriei loturiko arazoak oztopotzat hartzen zituzten 2008an Euskadiko etxeko unitateen % 16,8k. Egoera larriei loturiko arazo garrantzitsuak adierazten dituzten etxeko unitateen proportzioa % 11,9 da, 2004ko % 8,7ko proportzioarekiko igoera nabariarekin.

2006ko PGIaren arabera, Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema (AMAS) martxan jarri aurretik, EAEko 15 urte edo gehiagoko biztanleria osoaren % 4,43k –82.083 pertsona– hartzen zituen bere gain etxeko unitateko beste pertsona batzuen arreta- edo zaintza-ardura bereziak, betiere gaixotasunari, desgaitasunei edo zahartasunari lotuta egonik. Zaintzaileen kolektiboa emakumeek osatzen zuten gehienbat (% 56,9); emakumeen % 4,86k egiten zituen zeregin horiek eta gizonei dagokienez, berriz, % 3,98k. Etxeko unitateei dagokienez, Euskadiko etxeko unitateen % 7,4k gaixotasunek, desgaitasunek edo adin aurreratuak eragindako arazoak zituzten pertsonak zaintzera bideratutako zaintzaileak zituzten. Kasu guztien % 75ean, mendetasun bereziren bat zuten 55 urtetik gorako pertsonen bideratzen zitzairen arreta.

Bestalde, datuek aditzera ematen dute etxeko unitatean mendetasun-arazoak gertatzen diren kasuetan arreta zuzena erabakigarria izaten dela. Kontuan hartutako etxeko unitateen % 52,7an mendetasunezko egoeran zeuden pertsona horiek zaintzeko zaintzaileak zeuden. AMAS sistema martxan jarri ondoren, 2008ko Familiei buruzko Inkestan adierazten zen kontratatutako langileek zaindutako inoren laguntza behar duten pertsonen kopurua 24.301 zela (inoren laguntza behar duten guztien % 17,8). AMAS sistemaren laguntza ekonomikoaren bitartez estalitako arretaren kalkuluak premien % 73,3-84,9 ingurua estaltzen dela adierazten du.

Iturri horren arabera, 2008ko inkestaren unean, 14.343 pertsona ziren etxeko arretaren zerbitzuaren erabiltzaileak eta 5.481 pertsonak erabiltzen zituzten eguneko zentroak (mendetasuna duten pertsonen guztizkoaren % 10,5ek eta % 4k hurrenez hurren). AMAS sistemaren estaldurak Euskadin etxeko laguntzaren bidez zaindutako pertsona guztien % 32,4 biltzen du eta proportzio hori % 84,7ra igotzen da eguneko zentroei dagokienez.

Familiak zuzenean zaindutako inoren laguntza behar duten pertsonen dagokienez, proportzioa % 65,1 da, atzemandako arazoen larritasunaren arabera handituz arreta (% 45,8 laguntza puntuala behar den kasuan, % 66,1 laguntza zenbait jardueratarako behar bada eta % 89,1 zaintza iraunkorra behar bada).



AMAS sistema martxan jartzeak ekarri dituen inplikazioak kontuan hartuta, mendetasunari erantzuteko politikak egoitza-zaintzaren estaldura hobetzeaz eta familia zaintzaileei laguntza emateaz gain zaintzailearen kanpo-kontratazioarekin zerikusia duen alderdia asko areagotzea ekarri du, bereziki arreta iraunkorra behar duten pertsonen kasuan. Ildo horretan, 2006-2008 aldian aipaturiko pertsona horiek kontratatutako langileek zaintzen dituztenen kasuen proportzioa % 25,3tik % 31,5era igo da.

Langile kontratatutakoen bidez zaindutako pertsonen kopurua handitzeak eta familia barruko zaintzaileei emandako laguntzak handitzeak etxeko laguntzako zerbitzuaren edo eguneko zentroetako zerbitzuaren bidez egiten zen arreta asko murriztea ekarri du. Zaintza iraunkorrak behar dituzten pertsonen dagokionez, horrek esan nahi du arretaren % 36,7ko proportziotik % 20,4ko proportziora igaro garela; premia bereziak dituzten pertsonen multzoari dagokionez, berriz, proportzioa % 22,3tik % 13,4ra igaro da.

3.2. Atzemandako uztartze-arazoak

Egungo euskal gizartean uztartze-arazoen duten intzidentziari buruz eskuragarri dauden datuak honako puntu hauetan zehaztu daitezke:

Biztanleria landunari dagokionez (guztizkoa edo soldatapekoa):

- Emakume landunen % 21,1ek (85.450 kasu) lanaldi bikoitzari (lanekoa eta familiakoa) loturiko lan-gainkargako arazoak planteatzen ditu, egiteko horietan astean 60 orduetik gora sartuz (2008ko Familiei buruzko Inkesta).
- Soldatapeko biztanleria osoaren % 16,7k egungo lan-ordutegiarekin gaizki erantzuten ditu familia- eta gizarte-betebeharrak; % 4k oso gaizki uztartzen ditu betebeharrak mota desberdinak (2009ko LBIaren 1. adierazlea).
- Guztizko soldatapeko biztanleriaren % 12,9k erabat egokia iruditzen ez zaion ordutegia dauka, lana gizarte- eta familia-bizitzarekin uztartzeko aukeren balioespen txarra egiten du eta ez du guztiz baztertzen lanaldia murrizteko edozein planteamendu (2009 LBIaren 2. adierazlea).



- Soldatapekoen % 4,5ek aurreko egoeran egonik lanaldia murrizteari loturiko kostuaren zati bat bere gain hartzeko jarrera azaltzen du, diru-sarrerak murrizteko terminotan (2009ko LBIaren 3. adierazlea).

LBIan kontuan hartutako uztartze-arazoen inpaktuak intzidentzia pixka bat handiagoa agertzen du gizonen artean, 3. adierazleari dagokionez izan ezik; kasu horretan, inpaktua % 5,4 delako emakumeetan eta % 3,7 gizonetan. Gainera, egoera horretan soilik ez da negatiboa adierazlearen joera 2004. urtekoarekiko, 2004-2008 aldian % 5etik % 5,4ra igo baitzen. Termino absolututan, 2004-2008 aldian erreferentziako kasuak 15.917 izatetik 19.781 izatera igaro dira.

LBIaren bidez egiazta daiteke absentismoaren eta lana uztartzeko arazoen artean lotura dagoela eta uztartze-arazoak daudenean absentismoaren inpaktua gehitu egiten dela, bereziki, zailtasun larriak dauden kasuetan. Horrela, 3. adierazlea kontuan hartzean adibidez, egiaztatzen da 2009an soldatapeko biztanleriaren % 11,8 zegoela gaixotasunengatiko bajekin uztartze-arazorik ez zituztenen artean, eta proportzio hori % 16,7ra igotzen zen, aldez, uztartze-arazoak zituztenen artean.

Uztartze-arazoak zituzten emakumeei dagokienez:

- * 25-64 urteko emakumeen % 10,4k (63.956 guztira) gaur egun edo iraganeko uneren batean enplegu bat uzteko beharra izan du, familiako lanaren gainkargagatik edo seme edo alaba baten jaiotzagatik. Emakume horien % 96,9k familia-erantzukizuneko posizio bat dute etxekoan unitatean (pertsona nagusia edo haren ezkontide edo bikotea). Emakume horietako % 52 gaur egun ez dira landunak eta guztizkoaren % 44,4 langabeak dira (2008ko Familiei buruzko Inkesta).
- * 25-64 urteko emakumeen % 5,4k aipaturiko arrazoi horietakoren batengatik azken hiru urteetako uneren batean beren lana eten du (32.916 pertsona). Proportzioa % 12,5eraino igotzen da familia-erantzukizuna duten 40 urtetik beherako emakumeen kasuan (2008ko Familiei buruzko Inkesta).
- * Gaur egun 16-64 urteko emakumeen % 2,3k ezin du lanik egin inoren laguntza behar duten pertsonak zaindu behar dituelako (16.229 emakume). Intzidentzia % 4,8raino igotzen da familia-erantzukizuna duten 40 urtetik beherako emakumeen kasuan (2008ko Familiei buruzko Inkesta).

Familia-erantzukizunak dituzten emakumeengan inpaktua duten arazo larrienetan oinarritzen badugu azterketa, Familiei buruzko Inkestaren arabera arazo horiek EAEko etxekoen unitateen % 7,4 hartzen dute eraginpean (guztira, 59.004). Inpaktu bereziki nabarmena da beren kargurako seme-alabak dituzten gurasoen etxekoen unitateetan, horietako % 15,9 hartuz eraginpean. Etxekoen unitate horiek kontuan hartutako uztartze-arazoak dituzten etxekoen unitate guztien % 76,7 dira.

Zaintzaileei dagokionez:

- * EAEko 15 urte edo gehiagoko biztanleria osoaren % 2,61ek uko egin dio (guztiz edo partzialki) jarduera sozial edo profesionalen bati (48.306 pertsona). Horietako % 11,9k uko egin dio, guztiz, lanari eta % 0,4k ikasteari; eta % 11k denbora gutxiago ematen du jarduera horietarako. Orokorrean, errealitate horiek 15 urte edo gehiagoko biztanleria osoaren % 0,58 hartzen dute eraginpean (2006ko GPIa).

Arazoak familietan izan duen inpaktuari dagokionez:

- * EAEko etxekoen unitateen % 12,6k adingabeak edo adinekoak zaintzeari dagokionez ekonomikoak ez diren arazoak planteatzen dituzte, esaterako, haurtzaindegi-plazarik ez izatea, zaintzaileak kontratatzeke zailtasunak, arretarako gainkarga-arazoak, espazio-arazoak, lanarekin zerikusia duten arazoak eta abar. Etxekoen unitateen % 8,1ek garrantzi berezia ematen die zaintza-arazo horiei (2008ko Familiei buruzko Inkesta).
- * Zahartze-prozesua nagusitzen den testuinguru batean, adinekoen zaintzaren arazoa da Euskadiko etxekoen unitatei eta familiei zailtasun handienak ekartzen dizkien arazoa. Euskadiko etxekoen unitateen % 9,1ek du arazo hori eta % 3,8k, berriz, adingabeen zaintzaren arazoa. Adierazitako desberdintasunei eusten zaie arazo garrantzitsuen inpaktua kontuan hartzen bada -% 5,8 eta % 2,5- (2008ko Familiei buruzko Inkesta).
- * Kontuan harturiko arazoen azkenaldiko bilakaerak horien intzidentziaren igoera erakusten du. Horrela, arazo garrantzitsuen inpaktua % 7,3tik % 8,1era igaro da 2004-2008 aldian. Igoera % 2,3-2,5 da adingabeen zaintzari dagokionez eta % 5,3-5,8 adinekoen arreta-premiei dagokionez (2008ko Familiei buruzko Inkesta).

Puntu honetan lan- eta familia-bizitza uztartzearekin zerikusia duten arazoen dimentsio ekonomikoa gogoratu behar da; arazo horiek bere garaian hartu ziren kontuan EAEko etxekoen unitateen ekonomia- eta enplegu-zailtasunak aztertu zirenean.



4. KONTUAN HAR DAITEZKEEN BESTE ALDERDI BATZUK

4.1. Haur-pobreziaren inpaktu bereizgarria

Familiei laguntza emateko politikak diseinatzekoan arreta berezia jarri beharreko beste alderdi bat honako hau da: haurtzaroan pobrezia eta prekarietate ekonomikoa prebenitzea.

Guraso bakarrek familien pobreziarako eta prekarietaterako arrisku handiagoaren ondorioz eta arazoak seme-alabak dituzten bikoteetan duen inpaktu erlatiboaren ondorioz (adibidez, % 2,6ko benetako pobrezia eta seme-alabarik gabeko bikoteetan, % 1,5 besterik ez), datuek 2008an oraindik ere pobrezia- eta prekarietate-arazoen intzidentzia handiagoa adierazten dute 14 urtetik beherako adingabeak dauden etxekoen unitateetan. Gainera, etxekoen unitate mota horiek presentzia handia dute arazo horiek eraginpean hartutako kolektiboetan⁴⁴.

Azaldutako errealitateak haur-biztanleriaren arrisku-egoera handiagora eramaten gaitu. 14 urteko edo gehiagoko biztanleen % 20,1ek ongizate-maila bat lortzeko zailtasunak ditu, eta 2008an proportzioa % 27,5era igo zen da 14 urtetik beherako kasuan. Bestalde, 14 urtetik beherako benetako pobreziaren tasa gainerako biztanleriari dagokionaren ia bikoitza da (% 5,4 batetik eta % 2,8 bestetik).

1996ko % 14,2tik aurrera beherakada garrantzitsua gertatu bazen ere, diferentzial handiena mantenu-pobreziari dagokio, haur-biztanlerian arrisku-maila % 6,1 izanik (14 urte edo gehiagoko biztanlerian ikusitako % 3,8aren gainetik). Desberdintasuna, aldiz, askoz txikiagoa da metatze-pobreziari dagokionez: % 1 eta % 0,6, hurrenez hurren. Hain zuzen ere, azken urteetan ikusitako prozesu positiboenetariko bat metatze-pobreziak haur-biztanlerian izan duen jaitsierari dagokio. Modu jarraian 1996ko % 2,8tik 2004ko % 4,9ra igo ondoren, tasa hori % 1era jaitsi zen 2008an. Nolanahi ere, epe luzera 14 urtetik beherakoetan benetako pobreziak duen inpaktua murriztu egin da, 2008-2009 aldiko krisialdia gertatu arte behintzat, hau da, 1996ko % 9,1etik 2000ko eta 2004ko % 7,5-8ra jaitsi da eta 2008an, berriz % 5,4an kokatu da.

⁴⁴ Azken urteetan adingabeak dituzten etxekoen unitateen kopurua igo zen ari den testuinguruan, 14 urtetik beherako adingabeak dituzten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen garrantzia areagotu egin da pobreziak eta prekarietateak eraginpean hartutako kolektiboetan. Azken kasu horretan, 1996-2004 aldian ongizaterik ezeko egoeren gutzitzea % 34,7tik % 37,8ra igo ondoren, proportzioa % 45,5eraino iritsi zen 2008an. Benetako pobreziako egoerei dagokionez, 1996an % 45,8 inguruan kokatzen ziren mailetatik abiatuta, 14 urtetik beherako adingabeak zituzten etxekoen unitateetako pertsonen egindako ekarpena nagusitu egin zen 2004an eta 2008an % 63,2ko gehienekora iritsi zen.



4.2. Familiak eraginpean hartzen dituzten gatazkak

Familiei laguntzeko politika batek familiako kideak eraginpean hartzen dituzten arazoak eta gatazkak (familia- eta gizarte-eremuan) prebenitzen lagundu behar du. Alderdi horri dagokionez, eskura ditugun datuek honako arazo hauek erakusten dituzte:

Arazoak familia-harremanetan

- * Harreman pertsonaletan edo familia- eta gizarte-harremanetan arazo sozial larriren bat duten etxekoen unitateen kopurua –portaera- eta jarrera-arazoak edo barneratze- eta espetxeratze-egoerak barne– 40.969 da eta EAEko etxekoen unitateen guztizkoaren % 5,2ri dagokio (2006ko GPIa).

Eraginpean gehien hartutako etxekoen unitateak honako hauek dira: alde batetik, adin-taldeko banaketan muturreko posizioan kokatutako pertsonak buru dituztenak (35 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxekoen unitateetan, % 7,4 eta 65 urteko edo gehiagoko pertsonak buru dituztenetan, % 12,9) eta bestalde, emakumeak buru dituztenak (% 9,9, eta aldiz, pertsona nagusizat gizona dutenetan, % 3,5). Nabarmentzekoa da desgaitasuna (gutxienez, larritasun ertainekoa) izateagatik mendetasuna duen pertsonaren bat dagoen etxekoen unitateetan ikusitako % 12,9a baita garai bateko 15en Europar Batasunekoa ez den Estatu bateko nazionalitatea duen pertsona bat buru duten etxekoen unitateetan ikusitako % 21,6 ere ⁴⁵ (2006ko GPIa).

- * Kontuan hartutako arazo sozial larriak dituzten pertsonen kopurua 52.590 da, hau da, EAEen bizi den biztanleria osoaren % 2,45 (2006ko GPIa). Biztanleria osoaren % 2,16k adierazi du bere familia- edo gizarte-harremanei lotutako arazo larriren bat duela. EAEen, 46.442 pertsonak bizi dute errealitate hori.

40.266 pertsonak adierazi dituzte bakardadeari edo tristurari lotutako arazo larriak (EAEko guztizko biztanleriaren % 1,87), 16.059 pertsonak planteatu dituzte beren bizitza pertsonalean eragin handia duten familia-banantzearen arloko arazoak (% 0,75) eta gutxienez 4.097 pertsonak pairatzen dute honako arazo hauetakoren bat beren gizarte-

⁴⁵ Arazoak dituzten guztizko etxekoen unitateen artean garai bateko 15en Europar Batasunekoa ez den Estatu bateko nazionalitatea duen pertsona bat buru duten etxekoen unitateak % 11,5 soilik badira ere, horien ekarpena % 44,7ra handitzen da 45 urtetik beherakoak buru dituztenetan, hain zuzen ere, desgaitasunagatiko mendetasunaren errealitatearekin gutxiago loturiko arazo sozial larriak intzidentzia handiago dutenetan.

ingurunean: desatentzioa, familia-bazterketa, tratu txarrak, jazarpena edo indarkeria (% 0,23) (2006ko GPIa).

Bestalde, 14.036 pertsonak —biztanleria osoaren % 0,65ek, alegia— dituzte beren jatorriari, kulturari edo ezaugarri pertsonalei loturiko gizarte-bazterketako arazoak. Horietatik, 5.907 pertsonak (% 42,1) arazo larriak dituztela adierazi dute (biztanleria osoaren % 0,27). Gizarte-bazterketa aipatu duten pertsonen % 78,6k etniarekin lotu du bazterketa, eta % 85,5ek jatorriarekin. Gizarte-bazterketa aipatu duten pertsonen % 73,4 beste Estatu bateko nazionalak dira. Izan ere, atzerriko biztanleriaren % 10,15ek jatorriari eta kondizio pertsonalari loturiko gizarte-bazterketako arazoak nabarmendu ditu, eta, horien artean, % 5,08k larritzat hartu du arazoa. Gizarte-arazoak aipatu dituzten atzerritarren % 67,1 15-34 urtekoak dira (2006ko GPIa).

Pertsonari familian, bizilagunekin edo eskolan, lanean eta gizarte-harremanetarako ohiko guneetan arazo larriak eragiten dizkioten portaera- edo jarrera-arazoak guztira 9.245 dira, hau da, EAEn bizi den 6 urte edo gehiagoko biztanleria osoaren % 0,46. Arazo horiek osasunari edo adin aurreratuari loturiko zailtasunik gabeko pertsonengan duten intzidentzia % 0,26 da 6 urte edo gehiagoko biztanlerian eta % 0,96ra iristen da atzerritar biztanlerian (2006ko GPIa).

* Adingabeen talde batzuetan —adibidez, nerabeetan—, kontuan hartutako arazoen inpaktua aurreko zifrek adierazten dutena baino handiagoa da. Ildo horretan, “*Menores en Riesgo en Álava. 2007*” (“*Adingabeak arrisku-egoeran Araban. 2007*”) deituriko azterlanaren egiten den problematikaren azterketan honako hau egiaztatzen da DBHko 14-18 urteko ikasleen multzoan:

- % 14,4k norbera edo etxekoen unitateko beste kideren bat eraginpean hartzen duen familia-egoera problematikoren bat bizi du.
- % 6,6k dio etxekoen unitatean familia-arazoak dituela edo izan dituela eta kasu guztietan nabarmentzen da denbora edo familia-arreta gutxi eskaintzea. % 3,7k maitasunik eza adierazten du eta % 0,9k premia fisikoen desatentzioa.
- Nerabeen % 4,9k familia-indarkeriazko egoerak bizi ditu edo bizi izan ditu. Kasuen % 2,5ean, adingabeek tratu txarrak jasaten dituzte, % 3,1etan etxekoen unitateko beste kideek (anai-arrebak, amak edo aitak) tratu txarrak jasaten dituzte eta kasuen % 0,1ean, berriz, sexu-abusuak gertatzen dira.

Egoera horiek ohikoagoak dira emakumeen artean, batez ere larritasun handiagoko problematiken kasuan, esaterako, maitasunik eza (% 5,5) edo tratu txarrak (% 3,6). Bestalde, adingabe atzerritarren artean ere askotan gertatzen dira. Horietako % 23,9k familia-egoera problematikoren bat bizi du eta % 9,1 familiako kide bat tratu txarren eraginpean duten familietan bizi da. Kasuen % 5,9an adingabea bera da indarkeriaren biktima.

Eskola-integrazioko arazoak

- * Derrigorrezko eskolatze-adinean dagoen EAEko biztanleriaren % 7,2k eskolatze-arazoak ditu (2006ko GPIa).
- * Eskola-atzeratasun arazoak erreferentziako biztanleriaren % 7 hartzen du eraginpean, nahiz eta % 5,9k soilik urtebeteko atzerapena duen (2006ko GPIa).
- * Eskolatze-adinean dagoen biztanleriaren % 0,3k eskola-absentismoko arazoak ditu, % 0,2 ez dago eskolatua eta kasu guztietan lanari lehentasuna emateagatik gertatzen da hori (2006ko GPIa)⁴⁶.
- * Eskolako harreman-ingurunean integratzeko arazoek derrigorrezko eskolatze-adinean dauden adingabeen % 3 hartzen dute eraginpean (5.739 adingabe guztira). Adingabeen % 0,6k jazarpena edo tratu txarrak jasaten ditu eskolan eta % 0,9k bestelako bazterketa moduak jasaten ditu harreman-eremu horretan, jazarpenik edo tratu txarrik gabe bada ere. Beraz, adingabeen % 1,5 dago egoera horretan, hau da 2.818 adingabe guztira. Beste % 1,5ek ere eskolan integratzeko arazoak ditu, bazterketarik, jazarpenik edo tratu txarrik gabe bada ere (2006ko GPIa)⁴⁷.

GPIak 14-16 urtetako adingabeen eskolako egoerarekin zerikusia duten arazoen egoera esanguratsua –eskola-porrota, absentismoa eta abar– nabarmentzen du (kasuen % 14,7, eta aldiz, 12-13 urtekoen artean, % 8,2 eta 6-11 urtekoen artean, % 3,3). Nerabezeroaurreko gazteak dira, aldiz, integrazio-arazoak gehien pairatzen dituztenak (% 6,5, eta gainerako

⁴⁶ Arabako DBHko 14-18 urteko adingabeei buruzko azterlanean, gutxienez erreferentziako biztanleriaren % 13ari dagokio justifikaturiko arrazoirik gabe eskolara ez joatea (% 2k askotan egiten du eta % 11k noizean behin).

⁴⁷ Arabako azterlanean 14-18 urteko DBHko ikasleen % 7,8k onartzen du noizbait ikaskideren bati derrigortu edo eraso egin izana. Kontuan hartutako adingabeen % 3,2ri jarrera pertsonalak (jarrera gatazkatsua edo borrokak) eskolan integratzeko arazoak ekarri dizkio. % 3,7k dio bazterketa- eta eraso-egoerak jasaten dituela bere ikaskideen aldetik.

adingabeetan, % 2,5 inguru); desberdintasun handienak larritasun handieneko arazoek kasuan atzematen dira. Hala, 12-13 urtetako biztanleriaren % 2,2k jazarpenarekin edo tratu txarrekin zerikusia duen arazoaren bat jasaten du, eta % 1,6k bazterketa jasaten du ikaskideen aldetik (% 3,8k, eta aldiz, 12 urtetik beherakoen artean, % 1,2k eta 14 urtetik gorakoen artean, % 0,8k).

Atzerritar biztanlerian ere eskolan integratzeko arazoei igoera handia jasan dute. Biztanleria nazionalaren % 2,7k integrazio-arazoaren bat dauka baina atzerritar biztanleriaren kasuan, % 7,7k pairatzen du arazo horietakoren bat; kasu honetan ere diferentziala larritasun handieneko egoerekin lotuta dago. Atzerriko adingabeen % 7k jazarpenarekin, tratu txarrekin edo bazterketarekin zerikusia duen egoeraren bat jasaten du; adingabe nazionalen artean, aldiz, % 1,1ek baino ez du horrelakorik jasaten ⁴⁸.

Testuinguru horretan esan behar da eskolako gatazka askotan etxetik eta eskolatik kanpoko gizarte-harremanetan gertatzen diren arazoei loturik dagoela; alderdi horretaz Arabako azterlanean 14-18 urteko DBHko ikasleei buruzko honako oinarritzko datu hauek azaltzen dira:

- * Adingabeen % 9,3k azken hilabeteetan familiarik eta eskolatik kanpoko indarkeriazko gizarte-egoerak bizi izan ditu: % 3,5 indarkeria fisiko edo psikologikoaren, jazarpenaren edo sexu-abusuaren biktima izan da; % 3,8k indarkeria eragin du eta % 2 biktima eta erasotzailea izan da.
- * Gutxienez 14-18 urteko eskola-biztanleriaren % 4,2k afektibitatearekin edo gizarteratzearekin zerikusia duen arazoaren bat dauka. Proporzio hori handiagoa da etorkinen artean (% 7) eta emakumeen artean (% 5,4). Etorkinen kasuan, arazo horiek integrazio-arazoen intzidentzia handiagorekin lotzen dira (% 5,1, eta orokorrean, % 2,1); emakumeen kasuan, aldiz, arazoak gehiago lotzen dira afektibitatearekin edo maitasunik ezarekin (% 5,4, eta gizonen kasuan, % 3,2).

Arrisku-egoerak adingabeengan

Komeni da azpimarratzea bazterketa-arriskuko egoerak adingabeengan finkatzea eskolako zailtasunekin oso lotuta dagoela. *“Menores en Riesgo en Álava. 2007”* (*“Adingabeak arrisku-egoeran Araban. 2007”*) deituriko azterlanaren arabera, fenomeno horren intzidentzia adingabeen %

⁴⁸ Arabako azterlanaren arabera, atzerritarra izatea hutsak ere eskola-ingurunean integratzea zailtzen du. Horrela, atzerritar biztanleriarekiko bazterketa eta jazarpen gehiago ikusten dira (% 7,2, eta espainiar nazionalitatearen dutenen artean, % 3,4) baita behartzeko edota erasotzeko joera handiagoa ere atzerritar ikaskideen artean (% 9,1, eta espainiar nazionalitateko ikaskideen artean, % 7,7).



4,7ari dagokio eta arazoak dituzten adingabeen multzoan eskola-atzeratasuna izaten da azaro nagusienetariko bat (biztanleria horren % 39,2ri dagokio eta % 12,3k bi ikasturte edo gehiagoko atzerapena izaten du). Eskola-errendimendu txarra duten adingabeen proportzioa % 18aren inguruan kokatzen da eta erdipurdiko egoera dutenena, berriz, % 38,1ean.

Bestalde, 1994-2007 aldian atzemandako goranzko joera (arrisku-egoeran dauden adingabeen kopurua % 21,7 igo zen eta egoera horien intzidentzia, % 65) 15 urte edo gehiagoko nerabeekin zerikusia duten arazoak —eskola-gatazkekin oso lotuta daudenak— areagotzearekin lotzen da. 2007an, arriskuan dauden adingabeen kolektiboaren ezaugarri bereizgarrietako bat bertan nerabeen presentzia handia izatea da, hau da, hiru arrisku-egoeretatik bitan nerabeak daude. Nabarmendu behar den beste ezaugarria adingabe atzerritarren presentzia gero eta handiagoa izatea da. Pertsona horien presentzia garrantzitsua da arriskuan dauden adingabeen kolektiboan: % 14,9k ez du Espainiako nazionalitatetik eta proportzio hori % 20,7raino iristen da erantzuten den eskaria kontuan hartuta⁴⁹. Puntu honi dagokion beste datu garrantzitsu bat honako hau da: adingabeen kolektiboaren gutxiengo bat soilik zaintzen dute gizarte-zerbitzuek (Araban, adibidez, % 26,7). Arreta-egoera batez ere adinak zehazten du. 11 urtetik beherakoetan, erantzuten den eskaria % 71-80 inguruan kokatzen da, 11-14 urtekoetan % 32,2an eta 14 urtetik gorakoetan % 13,6an.

⁴⁹ Artatutako eskarian biztanleria etorkinak gero eta garrantzi handiagoa hartzea bakarrik iristen diren eta adingabeentzako egoitza-zerbitzuetan harreraren hartu behar diren adingabe atzerritarren kolektiboak hartu duen garrantziaren ondorioa da.

ERANSKINAK



Sailkapen-sistemak

Kategoriak definitzeko erabilitako iturriei eta erabilitako sailkapen-sistemei jarraituko diegu. Alabaina, azterlan honetan duen garrantzia dela-eta, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Familiei buruzko Inkestan erabilitako familia eta etxekoen unitate motei dagokien informazioa txertatu da.

Familia edo etxekoen unitate moten sailkapena

Familiei buruzko Inkestan, hasteko, bost etxekoen unitate mota bereizten dira, bertan bizi diren pertsonak eta horien arteko ahaidetasun-harremanak kontuan hartuta:

- * Pertsona bakarrekoak: pertsona bakar batez osatutakoak.
- * Senideak ez diren pertsona anitzekoak: elkarren artean ahaidetasun-harremanik ez duten bi pertsonak edo gehiagok osatutakoak.
- * Nukleorik gabeko senideez osaturikoak: ahaidetasunezko harremana duten bi pertsona edo gehiago, baina kideen artean seme-alabatasunezko edo ezkontzazko harremanik gabe.
- * Nukleo bakarrekoak: familia-nukleo bakarrez osaturikoak⁵⁰. Seme-alabarik gabeko bikoteek, seme-alabak dituzten bikoteek eta seme-alabak dituzten guraso bakarrek osatzen dituzte nukleo bakarreko etxekoen unitateak.
- * Nukleo anitzekoak: etxekoen unitatean bi familia-nukleo edo gehiago daudenean.

Lehen bi kasuetan ezin da berez familiaz hitz egin ez dagoelako ahaidetasun-harremanez loturiko pertsona-talde bat eta hori da hain zuzen familiaren ezaugarria. Alabaina, praktikan eta batez ere, konparaketarako errealitate hori etxekoen unitate baten edo familia baten modalitatearekin parekatzen da.

Laugarren mota —baita bosgarrena ere— hainbat azpimotatan bana daiteke osatzen duen familia-nukleo motaren arabera. Azpimota horiek zerikusia handia dute familiaren bizitza-

⁵⁰ Nukleoa izateko beharrezkoa da gutxienez bi pertsona seme-alabatasunezko, ezkontzazko edo horien antzeko harremanaren bidez lotuta egotea.



zikloarekin baina baita osatutako edo jatorrizko harreman-motarekin ere: ezkontzazkoa edo seme-alabatasunezkoa. Horrela, honako hauek bereizten dira:

- * Ezkontideek osaturiko nukleoen lau azpimota (bikote-harremanean oinarrituak): guraso ez diren ezkontideena (seme-alabak jaio aurretik), beren kargurako seme-alabak dituzten gurasoena, beren kargurako seme-alabarik ez duten gurasoena eta guraso izandako ezkontideena (seme-alaben emantzipazioaren ondoren).
- * Ezkontide izandakoek osatutako nukleoen bi azpimota (ezkontidearen heriotzaren ondorioz edo dibortzioaren ondorioz), seme-alabak gurasoen kargura dauden edo ez dauden kontuan hartuta.
- * Ezkontiderik gabeko nukleoen bi azpimota, hau da, guraso bakarrekoak zentzu hertsian eta hauek ere, seme-alabak gurasoen kargura dauden edo ez kontuan hartuta banatzen dira.

Aurkezpena sinplifikatzeko, dokumentu honetan guraso bakarrez osaturiko etxekoen unitateak bildu egin dira (ezkontide izandakoek osaturikoak eta guraso bakarrekoak zentzu hertsian) baina seme-alaben ezaugarriak (gurasoen kargura dauden edo ez) bereiztuz. Garrantzi handirik ez dutenez, nukleorik gabeko eta nukleo anitzeko etxekoen unitateak ere kategoria bakarrean bildu dira, *Bestelako familia-taldeak* deiturikoan.



AURKIBIDEA

SARRERA OROKORRA	2
LEHEN ZATIA: TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA	5
Sarrera 6	
1. Lan-merkatuko joerak	8
1.1. Okupazioa, langabezia eta aldibaterakotasuna	8
1.1.1. Datu orokorrak	8
1.1.2. Biztanleria heldu gaztearen egoera espezifiko	16
1.1.3. Enpleguarekin loturiko arazoen inpaktua etxekoen unitate eta familien sisteman	17
1.2. Emakumea eta lana	25
1.2.1. Datu orokorrak	25
1.2.2. Inpaktua etxekoen unitate eta familien sisteman	31
1.2.3. Familia- eta lan-bizitza uztartzea eta lan-gainkarga	34
1.2.3.1. Lan Baldintzei buruzko Inkestaren datuak	34
1.2.3.2. Familiei buruzko Inkestaren datuak	40
1.2.3.3. Gizarte Premiei buruzko Inkestaren datuak	44
1.3. Lan-merkatuaren beste alderdi batzuk	48
1.3.1. Soldata baxuen inpaktua	48
1.3.2. Azpiokupazioaren inpaktua (enpleguaren eta prestakuntza arautuaren arteko desdoikuntza)	53
1.4. 2008ko krisialdia	58
1.4.1. Krisialdiaren sektore-inpaktua: industrian eta eraikuntzan kontzentratutako krisialdia, finantza-krisialdiaren aurreko jatorriarekin	58
1.4.2. Okupazioaren beherakadaren azpian dauden faktoreak	60
1.4.3. Beren okupazio-mailak galdu dituzten talde nagusiak	62
2. Etxebizitza eskuratzeko prozesuak	65
2.1. Etxebizitza gastuekiko mendetasun handiagoa	65
2.2. Etxebizitza eskuratzeko kostua	66
2.3. Etxebizitza-gastuen inpaktua	69
2.3.1. Diferentzia-inpaktua gizarte-egoera ahuleko kolektiboetan	69
2.3.2. Teorikoki nahiko diru-sarrerak dituzten kolektiboetan duen inpaktua	71
3. Pobreziaren eta prekarietate ekonomikoaren inpaktua	75
3.1. Alderdi orokorrak	75
3.1.1. Mantenu-pobrezia eta -prekarietatearen inpaktua	75
3.1.2. Metatze-pobrezia eta -prekarietatearen inpaktua	78
3.1.3. Benetako pobrezia eta -prekarietatearen inpaktua	80
3.2. Pobrezia eta prekarietatea haurtzaroan	83
BIGARREN ZATIA: ERREALITATE DEMOGRAFIKOA	87
Sarrera 88	
1. Ezkontzen eta jaiotza-tasaren oinarritzko joerak	89
1.1. Aldaketak ezkontzetan	89
1.1.1. Ezkontzen beherakada	89
1.1.2. Aldaketak ezkontzeko adinean	92
1.1.3. Dibortzioen eta banantzeen bilakaera	93
1.1.4. Intzidentzia familia motetan eta familia mota berriak	95



1.2. Aldaketak ugalkortasunean eta jaiotza-tasan	98
1.2.1. Jaiotza- eta ugalkortasun-tasa txikien iraunkortasuna	98
1.2.2. Jaiotza-tasa baxuen oinarri ekonomikoak	100
1.2.2.1. Emantzipazio-prozesuen atzerapena eta prekariedade ekonomikoa	101
1.2.2.2. Prozesu demografikoen atzerapena	110
1.2.2.3. Azkenaldiko aldaketak	114
1.2.3. Familien tamainaren beherakada	115
2. Zahartze-prozesua 120	
2.1. Prozesuaren adierazpenak	121
2.1.1. Adineko biztanleriaren garrantzi absolutuaren eta erlatiboaren hazkundea	121
2.1.2. Biztanleria potentzialki aktiboaren beherazko joera	123
2.2. Zahartze-prozesuaren inplikazioak	126
2.2.1. Zahartzea eta Ongizate Estatua	127
3. Immigrazioa	131
3.1. Inpaktu kuantitatiboa	131
3.2. Inpaktu kualitatiboa	133

HIRUGARREN ZATIA: FAMILIEN EGOERA 138

Sarrera 139

1. Familia-sistema	140
1.1. Familia-balioak	140
1.1.1. Familia-balioei eustea eta egokitzea	140
1.1.2. Balioak eta portaerak sekularizatzea	147
1.1.3. Emakumearen egiteko berria onartzea	153
1.2. Familia-sistema Euskadin	155
1.2.1. Atzemandako aldaketa nagusiak	155
1.2.2. Egiturazko ezaugarri nagusiak	160
2. Familia-arazoen pertzepzioa	166
2.1. Enplegu-arazoak	167
2.2. Diru-sarrerekin eta gastuekin lotutakoa arazoak	169
2.3. Bizitza independentea lortzeko arazoak	177
2.3.1. Ugalketarekin loturiko arazoak	182
2.3.1.1. Familiei buruzko Inkestaren informazioa	182
2.4. Etxebizitza-arazoak	189
2.5. Gaixotasun, desgaitasun edo baliaezintasunekin loturiko arazoak	194
2.5.1. Desgaitasunagatiko mendetasunaren inpaktua	194
2.5.1.1. Adinaren inpaktua	196
2.5.1.2. Intzidentzia etxekoan unitate motaren arabera	198
2.5.2. Mendetasun-arazoen pertzepzioa familien aldetik	199
2.6. Adingabeak eta adinekoak zaintzeko arazoak	203
2.6.1. Inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzea	203
2.6.1.1. Adingabeak haurtzaindegietan edo ikastetxeetan	203
2.6.1.2. Desgaitasunei loturiko mendetasunaren arreta	206
2.6.2. Egoeraren pertzepzioa familien aldetik	211
2.7. Bestelako familia-arazoak	216
2.7.1. Familiei buruzko Inkestako datuak	217
2.7.2. Gizarte Premiei buruzko Inkestako datuak	222
2.7.2.1. Hezkuntza-arazoak derrigorrezko eskolatzaldian	222
2.7.2.2. Arazoak harreman pertsonaletan, familiakoetan eta sozialetan	223
2.7.3. Arrisku-egoeran dauden adingabeei buruzko datu osagarriak	229
2.7.3.1. Arrisku-egoeran dauden adingabeak: intzidentzia, bilakaera eta ezaugarriak 230	
2.7.3.2. 14-18 urteko nerabeak	232
2.8. Seme-alaben etorkizunagatiko kezka	233
2.9. Hurbilketa labor bat	236



ONDORIO NAGUSIAK.....	240
1. Erabat gainditu gabeko prekarietate ekonomikoaren testuingurua	241
1.1. Aurrerakada eztaba daezinak ongizatearen gizartea lortzeko.....	241
1.2. Muga nabarmen batzuk.....	243
1.2.1. Kalitatezko enplegua lortzeko egiturazko bat ez etortzeak.....	243
1.2.2. 2008-2009 aldiko krisialdiaren ondorioak	246
1.2.3. Etxebizitza eskuratzearen kostuaren igoera.....	248
1.3. Enpleguaren eta baliabide ekonomikoen arazoen inpaktua.....	250
2. Jaiotza-tasari dagokion krisialdia Euskadin	254
2.1. Faktore kulturalaren eta ezkontza kopuruaren jaitsieraren eragina	254
2.2. Azalpen kulturalistaren mugak.....	256
2.3. Jaiotza-tasaren jaitsieraren oinarri ekonomikoak	259
2.3.1. Biztanleria gaztearen enpleguarekiko kolokatasuna.....	259
2.3.2. Pobrezia eta ezkutuko prekarietate ekonomikoa	261
2.3.3. Prekarietate ekonomikoaren inplikazio demografikoak.....	262
2.4. Gizarte- eta demografia-ugalketako arazoen inpaktua.....	264
2.5. Jaiotza-tasaren jaitsiera eta zahartze-prozesua.....	267
3. Lan- eta familia-bizitza uztartzea.....	268
3.1. Arreta-premiak	269
3.2. Atzemandako uztartze-arazoak.....	272
4. Kontuan har daitezkeen beste alderdi batzuk	276
4.1. Haur-pobreziaren inpaktu bereizgarria.....	276
4.2. Familiak eraginpean hartzen dituzten gatazkak.....	277
ERANSKINAK	282
Sailkapen-sistemak	283
Familia edo etxekoen unitate moten sailkapena	283